

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Amorebieta-Etxano



Aurkibidea

Udalerria: Amorebieta-Etxano

Sarrera



Durangaldeko eskualdean kokatua, gaur egungo Amorebieta-Etxanoko udalerria, Zornotzako Ibarjaurreriaren azken bilakaera da, eta Foruen garaian Etxano, Amorebieta, Ibarruri eta Gorozika elizateak eta Larrabetzuko Uria biltzen zituen.

Lehenengo biak Amorebieta-Etxano udalerrian bat egin ziren, eta beste biak Muxikako Ugarte Udala osatzera pasatu ziren. Amorebieta eta Etxanoren bat egitea 50. hamarkadan egin zen. Gaur egun, Amorebietako elizateak du hiriburutza. Hauek dira beste gune batzuk: Aldana, Astepe, Autzagana, Bernagoitiako elizatea, Boroa, Dudea, Euba, Etxanoko elizatea, Oromiño. Mendebaldeko euskararen barruan Durangaldeko euskararen barruan kokatzen da zornotzarren hizkera.

Argazkia: Wikipedia (Asier Sarasua Garmendia)

- **Biztanleak:** 15.779
- **Euskaldunak:** %53,81

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **156**
- Zintak: **189**
- Pasarteak: **1.662**
- Transkribatutakoak: **104**
- Audioak: **527**
- Bideoak: **1.135**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- Amore bi eta ETXANO
- Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU

- Diasporako Ahotsak
- Durango 1936
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan
- Zornotzako aditz-eren karinkara
- Zornotzako ahotsak
- Zornotzako toponimia

Hizlariak



Tomas Abasolo Etxebarria (1939-2008)

1939. urteko Santo Tomas egunean sortu zen Boroako Zuzunegi baserrian eta bertan bizi izan zen. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.

Francisco Abasolo Lazkano (1902)

1902. urtean jaio zen Boroako Zuzunegi baserrian. Gurasoak eta emaztea ere Boroakoak zituen. 28 hilabetez Afrikan egon zen soldadu bertako gerran. Antzinako Boroako bizimoduaren berri ematen digu "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabaketa honetan.

Basilisa Agirre Uranga (1932-2021)



San Antonio auzoko Kimera baserriko alaba. Aita Montorra auzokoa zuen eta ama Durangoko Santa Lutzikoa. Bederatzi neba-arrebatatik zortzigarrena izan zen. Montorrako eskolara joan zen maistra zornotzar bategaz. Bere aita, Basilio, artzaina zen. Bera ere umetatik aritu zen aitari laguntzen, eta gaztaia egiten eta saltzen. Baserriko beharretan beraien etxean zein auzoko beste askotan aritu zen idiekin goldaketan.

Segunda Agirre Zarrionandia (1924)

Torreburu auzoko Etxanosolo baserrikoa. Aita Gorozikako (gaur egun Muxika) Esturo auzokoa zuen eta ama Torreburu bertakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Maria Antonia Agirrezabala Murgoitio (1932-2014)



Zeanuriko Ipiñaburu auzoan jaio zen, baina 23 urte zituela Etxanoko Altzibargoikoa baserrira joan zen. Neskame eta etxekoandre lanetan ibili zen. Grabazioa Zornotzako toponimia jasotzeko landa-lanean parte hartu zueneko da. Argazkian eskumakoa da (ezkerrekoa, [Loli](#), alaba)

Bixente Agorria Gurtubai (1933)



1933. urtean jaio zen lurretan, baina gerra sasoian aita gerrara joan zenez, Eubara joan zen bizitzera. Bere aita Saratsukoa zen eta ama Bediagako Arkotxakoa. Aita gerrara joan zen eta ez zuten gehiago ezer jakin. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da; [Jose Ramon Magunazelaia](#) rekin eta [Inazio Sarasua](#) rekin batera egin zitzaion grabaketa. Argazkian, [Jose Antonio](#) anaiarekin batera azaltzen da, [Durango 1936 Elkartekoek](#) egindako elkarriketan.

Jose Antonio Agorria Gurtubai



Aita, Santos Agorria Zorrozueta, *Ibaizabal Batailoiko* gudaria izan zen eta Kantabrian hil zuten. Amak, Jesusa Gurtubaik, bi umerekin sortetxea zuen Eubako *Arkotxe* baserrira joan behar izan zuen eta lanaren puruz atera zuen familia aurrera. [Bixente](#) anaiarekin batera egin zioten elkarriketa [Durango 1936 Elkartekoek](#).

Jose Mari Ajuria

Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarriketetan parte hartu zuen.



Marisol Ajuria Ugarte (1945)

Etxanoko Epaltza auzoko Epaltzabeaskoetxea baserrikoa. Zornotzako toponimia batzeko landa-lanean eta Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarriketetan parte hartu zuen.


Inazia Alkorta Inza (1912)

Bernagoitia auzoko Goixenengoaurrekoa etxekoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.

Hizlari ezezaguna AMO-007

Eubako grabaketa.

Hizlari ezezaguna AMO-009



Imanol Amuriza Sarrionandia (1937)

Etxanoko Torreburun jaio zen 1937. urtean. Zornotzako toponimia batzeko proiektuan parte hartu zuen eta baita Etxano auzoaren inguruko kontuak jasotzeko proiektuan ere.

Xabier Amuriza Sarrionandia (1941)



Etxanoko Torreburun jaio zen 1941. urtean. 1965ean abade egin zen eta zazpi urtez preso egon ostean, 1976. urtean abadetza utzi zuen. Idazle, kazetari, irakasle eta bertsolari lanetan aritu izan da. Bertsogintzari berritasun handia ekarri dion plazagizona da. 1980 eta 1982 urteetan Euskal Herriko bertsoalri txapelketa nagusiko txapela lortu zuen. Hainbat proiektu ezberdinetarako egin izan zaizkio elkarrizketak.



Txaro Aranbarri Lezinena (1931-2017)

Astepe auzoko Bitartean jaioa eta bizitakoa. Bere senarrarekin batera parte hartu zuen Zornotzako toponimia batzeko grabaketetan.



Mari Aranguren Bilbao (1914)

1914. urtean jaio zen Derandainbekoa baserriko Mari. Bere etxekoekin batera parte hartu zuen Zornotzako toponimia batzeko egindako grabaketan.

Mari Tere Areitioaurtena Bikandi (1930-2016)



1930. urtean munduratu zen Bediaga auzoko Etxebarri baserrian 7 neba-arrebako familia batean. Gerra garaian, Sorromostrora joan ziren ebakuatuta etxeokak. Gerra ostean hasi zituen ikasketak Bernagoitiko eskolan; gerora, Eubakora joan zen. Bere jaiotetxean beti ezagutu zuen txakolingintza, eta askotan joaten zen jendea bertara. Etxe ondoko Lauaxeta ikastolan aritu zen 15 urtez lanean bertako jantokian eta sukaldean. San Antonio auzoko Kurutzetara ezkondu zen. Elkarrizketak bere senar [Elias Euba](#)rekin batera egin zitzaizkion.



Simona Areitioaurtena Bikandi (1920-2008)

Bediaga auzoan jaio zen 7 neba-arrebako familia batean. Gerora, Montorra auzoko Montorra baserrian bizi izan zen. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuenekoa da grabaketa hau.

Teresa Aresti Izagirre (1924-2017)



1924. urtean jaio zen San Antonio auzoko Egurbide baserrian, "Osteko" izenez deiturikoan. Aita Montorra auzokoa zuen eta ama Otxandio eta Aramaio aldekoa, baina Zornotzan bertan hazitakoa. 4 neba-arrebatatik lehen alaba izan zen. Oraindik umea zela, gerra bukatu eta segidan Zornotzako kaleko etxe batera joan zen umezain. Gerora Areetan eta Durangon ere aritu zen beharrean. Hori dela-eta, eskolara joateko aukera gutxi izan zuen. Gerra Zibilean bi neba izan zituen frontean eta beraiek Zaratamo, Galdakao eta Arrigorriaga aldetik ibili ziren ebakuatuta. 17 urtegaz Bernagoitira joan zen neskame eta bertan ezkondu zuen familia berri bat sortuz. Bere bigarren abizena izatez "Eizagirre" zen, baina berak "Izagirre" bezala jaso du.

Ageda Aresti Zamalloa (1928)



1928. urtean jaio zen Garaiko herrian, baina Eubako Austoalarra baserrira ezkondu zen 24 urte zituela. Beti aritu izan da etxeok eta baserriko beharretan. Zornotzako toponimia jasotzeko landa-lanean parte hartu zuen bere senar [Eliasekin](#) batera.

Krispin Arregi Mendiolagarai (1936)



Bernagoitiko Betxuen baserrian jaio zen Espainiako Gerra Zibila hasi zen egun berean, 1936ko uztailearen 18an, hain zuzen ere. Gurasoak biak zituen bertakoak, etxepe berekoak. Ume-umetatik hasi zen artzain lanetan etxeko ohiturei jarraituz, zortzi urteaz ardi-txakur beharrak egiten zituen jadanik. 300 buru inguruko artaldeagaz Mugarra inguruan egoten ziren neguan. 28 urte zituela, Garaiko Arri baserrira ezkondu zen. Garain zer edo zer falta zuela-eta, artalde berria erosi eta horrexetan aritu zen gerora ere, pozarren betiere.

Maria Arroita Jauregi Solaguren (1920-2008)



Etxanoko Alakao auzoko Alakaoerdikoa baserrikoa. Etxanoko auzo-eskolako lehenengo ikasle-etarikoa izan zen. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen [Jose Andres](#) semearekin batera.



Jose Ramon Artabe Barrena (1952)

Aldana auzoko Aldanagoikoa baserrikoa. San Isidro ermitaren ondoan zegoen eskolan ibili zen mutikotan. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.

Cristina Artabe Etxebarria (1920)

1920. urtean jaio zen Aldana auzoko Aldanagoikoa baserriko Cristina. Arratian jaio zen aita, Etxanon ama. Senarra Aldabekoakoa zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Luis Mari Artabe Zearreta (1919)

Aldanagoikoan jaio eta bizitakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.



Julio Astobieta Iturrioz (1932)

1932. urtean sortu zen Loian, baina 14 urtegar Etxanoko Berroeta baserrira etorri zen. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.

Kosme Astoreka Garamendi (1914)

Bernagoitia auzoko Ormaondo baserrikoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.

Jesus Atutxa Arreibi (1922)

1922. urtean jaio zen Belatxikieta azpiko Izertzabekoa edo Antonmendikoa izenez ezagunaz den baserrian eta bertan bizi izan zen. Ama bertakoa zuen eta aita Igorreko Garaikoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabaketan parte hartu zueneko da hemengo grabaketa hau.

Jose Antonio Atutxa Atutxa (1932-2015)



Bernagoitia auzoko Goienengoetxebarri baserrian jaiotako eta bertan bizitakoa. Agria lantegian eta baserriko lanetan ibilitakoa. Arkotxako [Maria Angeles Bikandigaz](#) ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten. AMO-051 zinta Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zueneko da. Grabazio bietan bere emaztearekin batera kontatu zituen bizipenak.

Elias Atutxa Orobiobasterra (1920-2013)



Austoa auzoko Austoalarra etxean sortu zen 4 neba-arrebatatik seme bakarra izan zena. Ama bertakoa zuen eta aita Bernagoitia auzokoa. Errepublika sasoiko Eubako eskola ezagutu zuen Durangoko maristetara joan aurretik. 18 urterekin, Espainiako Gerra Zibila bukatzeke zegoela, soldadu joan zen eta sei urtez egon zen Espainiako lurralde desberdinetan, baina sekula ez frontean. Baserrian jaio eta bizitakoa denez, beti ibili izan da baserriko beharretan. Zornotzako toponimiako ahozko era jasotzeko egindako grabaketetan bere emazte [Ageda](#)rekin batera hartu zuen parte.

Lucia Azkuenaga Iturbe (1920)

1920. urtean munduratu zen San Migel auzo inguruko Derandain baserrian. Aita Lemoakoa zuen eta ama Igorrekkoa. Senarra ere zornotzarra zuen eta haren baserrira ezkondu zen, Obenera. Durangoko Santa Susanako mojetan ikasi zuen umetan, eta gerora, Bilbora joan zen mekanografia ikastera. San Migeleko eskolan maistra moduan ibili zen gerraostean eskolarik egon ez zen sasoian; hilabeteen 7 pezeta jasotzen zituen. Antzinako San Migeleko eta Zornotzako kontu ugari dakartza gogora 1988. urtean "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabazio honetan.



Maria Jesus Azkuna Agirre

Inazio Azueta Obieta

Bernagoitia auzoko Mekolakoa. Gerra sasoian, frontean egon zeneko kontuak kontatzen ditu. 1985eko uztailan egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.



Marisa Barrena Larruzea (1951)

Lanbidez, irakasle izana. Afizioz, dantza zalea, besteak beste. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.

Txaro Barrena Larruzea (1931-2022)



Bilbo eta Basauri arteko Bolueta auzoan jaio zen, bere gurasoak bertara ezkondu baitziren. Aita Zornotzako Aldana auzokoa zuen eta ama Etxanoko Ergoien auzoko Derteanobekoa baserrikoa. Eskolara Basauriko Kareagagoikoa auzora joan zen. Bertan bizi zirela, erdaraz egiten zuten bizimodua, baita etxean ere. 14 urte gaz amaren jaiotetxera joan zen eta bertan bizi izan da ordudanik. Senarra ere Aldana auzokoa du. AMO-067 grabazioa Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zueneko da.

Zeilio Barrena Monasterio (1908)

1908. urtean Ergoien auzoan sortu zen eta bertan bizi izan zen. Aita bertakoa zuen eta ama Arrietakoa. Itsasoan lan egindakoa da. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Pedro Barturen Uriarte (1918)

1918. urtean jaio zen Bakioko Goikolea baserrian, baina 1963. urtetik Zornotzan bizitakoa. Aurretik beste 22 urtez, Soraluzen (Gipuzkoa) bizi izan zen. Gurasoak eta aurrekoak ere bakiotarrak zituen. 18 urterekin gerra joatea egokitu zitzaion. Emaztea Mallabiko Palaziokoa zuen "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.

Manuel Basagoiti Ibarrondo (1915)

Boroako Asueta baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama Zeberriokoa. Emaztea Larrabetzukoa zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Ana Basterra Bikandi (1950)




Bernako Ola baserrikoa. Lehen etxe hori lantegi bat zen. Iurretako paper-lantegiko behargina. Zornotzako toponimia batzeko grabaketan parte hartu zuen bere senar [Dabid Esturo](#)ekin batera.

Eusebia Batiz Lekuona (1922-2022)



1922. urtean jaio zen Markesaresti auzoko Markesarestinagusia baserrian. Baserriko lanetan aritu zen beti. Zornotzako toponimia jasotzeko ahozko bilketan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Fortuna Bediaga Solaegi (1919-2009)



Zornotzako Bernagoitikoa auzoan jaio zen 1919an. Mojekin lanean ibili da diru-eske, misioetako antolakuntzan laguntzan, eskoletako jangelan eta Bernagoitiko serora edo sakristaua izan da. Bernagoitiako bizimoduaz, elizaz, ohiturez, gerra garaiaz eta bestelako kontuez aritu da. *Iraleko ikasleek 1986 eta 1989. urteetan egin zizkioten elkarrizketak.*

Pedro Berrioategortua Murgoitio (1928-2018)

1928. urtean sortu zen Atxondon, baina 1954. urtean etorri zen Zornotzara: lehenengo, Bernagoiti auzora; gero, eliza ingurura; eta, azkenik, Astepe auzoko Bitartea edo "Casa Garaje" etxera. Bere emaztearekin batera parte hartu zuen Zornotzako ahozko toponimia batzeko landa-laneko grabaketetan.

Begoña Bikandi Astategi (1945)



Bernagoiti auzoko Zabalagoikoa baserrian jaioa eta hazitakoa. Zornotzako toponimiako ahozkoa erak batzeko egitasmoa parte hartu zuen.



Maria Nieves Bikandi Gandiaga (1954)

Bernagoiti auzoko Marialarragoikoa baserrikoa. Zornotzako toponimia jasotzeko landa-lanean lagundu zuen.

Mariano Bikandi Gandiaga (1941)



1941. urtean jaio zen Bernagoiti auzoko Marialarragoikoan. Gerora Bernagoiti bertako Zabalagoikoan bizitakoa. Zornotzako toponimiaren ahozko erak jasotzeko proiektuan lagundu zueneko da grabaketa gau.

Pepa Bikandi Ibarretxebea (1922-2021)



1922an jaio zen Jauregibarria auzoko Aldekoena baserrian. Ama bertakoa zuen eta aita Zornotza bertako Ibarrakoa; lau ahizpetatik zaharrena da bera. Gerra garaian, Zamudiora eta Burtzeñara (Barakaldo) joan ziren ebakuatuta. Umetan, Kaittanako eskolara joan zen eta gerra ostean 15 urte ingururekin, Durangoko karmeldarretara merkataritza-peritu ikasten bost urtez. Ikasketak burututa Frantziako Melunera joan zen urtebetez bertako karmeldar mojetara, etxera bueltatu eta beharrean hasi arte. Ikasketekin lotuta hainbat lanetan aritu izan da: lehenengo, Durangoko Areitio barazkizainaren administrazio-arduradun aritu zen 10 urtez; gero, Zornotzako akademia batean 10 urtez frantses-irakasle izan zen; eta, azkenik, Zornotzako "Forjas de Amorebieta" lantegian itzultzaile-administrari aritu izan da idazkari-zuzendari postuan eta kanpo-merkataritzan 25 urtez. Lana dela-eta, Frantzian, Ingalaterran eta Errusian bizi izan da, eta hainbat herrialdetan egon da. AMO-055 grabaketa Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zueneko da.

Maria Angeles Bikandi Olano (1937)



1937. urtean sortu zen Arkotxa auzoko izen bereko baserrian. Eubako eskolan aritu zen umetan eta ordudanik baserriko beharretan aritu izan da. 20 urte zituela, Bernagoitia auzoko Goienengoetxebarri baserrira ezkondu eta bertan bizi izan da ordu ezkerotik. 3 seme-alaba izan zituzten. AMO-051 zinta Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zueneko da. Grabazio biak bere senar [Jose Antonio Atutxagaz](#) egin zitzaizkion.



Jose Miguel Bilbao Ortuzar (1947)

Arazotza auzoko Arazotza baserrikoa. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.

Agustin Dañobeitia Ugarriza (1937-2019)



Etxanoko errotan jaio arren, ume-umea zela etorri ziren Zornotzara, kalera. Ama Etxanokoa zuen eta aita lezamarra. Zornotzako ikastolako sortzaileetako bat izan zen eta sorreratik gaur egunera arteko historia guztia ren lekuko zuzena izan da. Elizako zineman ere bost bat urtez pelikulak jartzen ibilitakoa da. Elektrizitate mundua izan du ofizio.

Karmen Dudagoitia Etxebarria (1925-2019)

1925. urtean jaio zen Etxanoko Autzagane auzoko Goikoetxen. Ama bertakoa zuen eta aita Boroakoa. Senarra ere Etxanokoa zuen. Autzagane bertako taberna izan zuen urte askoan, 1980. urtean bota zuten taberna. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Manu Dudagoitia Mandaluniz (1936)

Boroan (Kortederra) 1936. urtean jaioa eta 29 urte gaz Zornotzako kale aldera joan zen bizitzen. Ama Muxikakoa zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.



Javier Egiarte

Muxikan jaio zen, baina bi urte zituela Zornotzara joan ziren bizitzera. San Migel auzoko Egiartebarrera edo Txuloena baserrira ezkondu zen. Bere emaztearekin batera, [Rosa Mari Zamalloa](#) rekin batera, Zornotzako toponimiako ahozko erak jasotzeko landa-lanean parte hartu zuen.

Francisco Egiarte Garabieta (1916)

San Juan Ergoienenekoa Solagurengoikoa baserrian jaio eta Solagurenbekoa baserrian bizitakoa. Gurasoak ere Etxanokoak zituen. Emaztea muxikarra izan zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Mari Kruz Elorriaga Lopategi (1925-2015)



1925. urteko Santa Kurtze egunez jaio zen Bilbon baina 3 urterekin heldu zen Zornotzara. Boroako Urgoiti auzoko Urgoitierdikoa baserrian bizitakoa. Bere senarrarekin batera, San Antonio auzoko Txomin Gerediagarekin, egin zitzaion Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko grabaketa hau.

Cristina Eskubi Madariaga (1922)

1922. urtean jaio zen etxeanoko Altzibarko erroetan. Arribi auzoan bizitakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilerera bitartean egin zen.

Isidora Esturo

Bernakoa. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarriketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Emilio Esturo Altuna (1937)



Emilioren aita, Eulogio Esturo Zamalloa, *Zearrena* baserrian jaiotako militante sozialista izan zen. Durangon ferrokarrilean egiten zuen behar eta UGTko kidea izen. Haren inguruko kontuak jasotzeko elkarriketatu zuten Emilio [Durango 1936 Elkartekoek](#), beste senide batzuekin batera.

Kontxi Esturo Altuna (1945)



Kontxiren aita, Eulogio Esturo Zamalloa, *Zearrena* baserrian jaiotako militante sozialista izan zen. Durangon ferrokarrilean egiten zuen behar eta UGTko kidea izen. Haren inguruko kontuak jasotzeko elkarriketatu zuten Emilio [Durango 1936 Elkartekoek](#), beste senide batzuekin batera.

Dabid Esturo Alzibar (1949)



Berna auzoko Txosna baserrian jaio zen, baina, ezkondu zenean, auzo bereko Ola etxera joan zen. Zornotzako toponimia batzeko grabaketan parte hartu zuen bere emazte [Ana Basterra](#)rekin batera.

Idoia Esturo Lauzirika (1962)



Idoiaren aitita, Eulogio Esturo Zamalloa, *Zearrena* baserrian jaiotako militante sozialista izan zen. Durangon ferrokarrilean egiten zuen behar eta UGTko kidea izen. Haren inguruko kontuak jasotzeko elkarriketatu zuten Emilio [Durango 1936 Elkartekoek](#), beste senide batzuekin batera.

Eustakia Etxebarri (1916)

Etxanoko Altxibar baserrikoa. Bere anaia Pedrorekin eta koinata Bitori Aiestarekin (Bedia, 1928) batera egin zitzaion elkarriketa 1991n, Euskal Herriko Unibertsitateko "Dialektologia" ikasgairako.

Pedro Etxebarri (1919)

Etxanoko Altxibar baserrikoa. Bere arreba Eustakiarekin eta emazte Bitori Aiestarekin (Bedia, 1928) batera egin zitzaion elkarriketa 1991n, Euskal Herriko Unibertsitateko "Dialektologia" ikasgairako.

Santiago Etxebarria Artza (1924)

San Juan Ergoiengo Zabalegoikoa baserrian munduratu zen 1924an eta bertan bizi izan zen 46 urtez. Ama Diman jaiotakoa, baina bertan hazitakoa zuen; aita, oster, Lemoakoa. Emaztea ere auzo berekoa zuen. Grabazioa egin zitzaionean Andrandin bizi izan zen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.



Jon Etxebarria Barruetabeña (1948)

Etxanoko Aretxagabarri baserrikoa da, baina bertan ondoan dagoen etxe batean jaio zen, Bañeran. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.

Josefina Etxebarria Lauzirika (1922)

Etxanon jaioa. Senarra Gorozikakoa zuen. Ezkondu ostean joan ziren Berrizera bizitzera. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zioten elkarriketa, 83 urte zituela.

Elias Euba Irakulis (1920)



San Antonio auzoko Kurutzeta etxean jaio eta bizitakoa. Aita bertakoa zuen, arotza, eta ama Ibarra baserrikoa, sagardotegia dagoen etxekoa. 12 neba-arrebako familian zortzigarrena izan zen, eta horien artean bi fraide eta bi moja egon ziren. Beraien etxeko beheko partean taberna izan zuten. Sei urterekin, San Migelgo eskolara joan zen eta urte betera amaren jaiotetxera joan zenez, Montorrrako eskolara joan zen 12 urtera arte. Gerra garaian, etxeko bakarra izan zen alde egiten, Lezamara eta Artzentalesera joan zen ebakuatuta. 18 urterekin, Espainiako Gerra Zibila bukatzeke zegoela, soldadu joan zen Lizarrara (Nafarroa), eta gerratea bukatu ostean, Bartzelonara eta Tarragonara joan zen. Lau urteren ostean, beste bi urtez Sukarrietan, Kanala eta Arketa (Ibarrangelu) inguruan egon zen destinatuta. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak. AMO-014 grabaketan bere emaztea ere azaltzen da tarteka. Gainerako grabaketak [bere emaztea](#) rekin batera egin zitzaizkion.

Agustin Euba Ituarte (1929)

1929an sortu zen Montorrran. 26 urte gaz joan zen kale aldera bizitzera. Aita zornotzarra zuen eta ama lurretakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Domingo Euba Sagastigordia (1924-2011)



Bediaga auzoko Bediagaauzokoa baserrian jaio zen 1924. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama Larrabetzukoa. Bi neba-arreba baino ez ziren izan. Umetan, sei urterekin, Eubako eskolara joan zen. Gerra garaian, 22 egunez frontea izan zuten etxe alboan: milizianoen munizoa izan zuten atarteetan eta trintxerak euren soloetan. 23. egunean etxetik alde egin zuten Lemoa aldera, baina bertan ere frontea zegoenez laster bueltatu ziren etxera, erreketez beteta aurkitu zuten etxera. Lan desberdinetan aritutakoa zen, tartean baserrian bertan 16 urtez Eibarko eskopeta-lantegiko lanak egiten. [AMO-039](#) grabaketa Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko grabaketetan parte hartu zueneko da. Zornotzako ahotsak proiekturako grabaketa egin eta handik bi egunetara joan zen gure artetik.



Jose Euba Zenarruzabeitia (1939-2018)

1939. urteko San Jose egunean jaio zen Jauregibarria auzoko Txirriena baserrian, 1992. urtean bota zuten. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.

Euba-Irakulis familia

San Antonio auzoko Kurutzeta etxeko Euba-Irakulis familiako Rafaelek 1959 eta 1969 urte bitartean magnetofono grabatutako kantak eta ipuinak daude grabazio honetan. Hauek dira azaltzen direnak: Etxeko ama, Emeteri Irakulis Besoitaormaetxea, eta eurak neba-arrebak: Santi, Dioni, Rafael eta Carlos. Santi Orobiourrutia era azaltzen da, Itzurtzako fraide agustinoa eta carlosen diszipuloa.

Mari Carmen Garmendia Erzilla (1928-2014)



Boroako Gumuzio baserrian jaio zen 1928. urtean. Gerora Boroabeko baserrira joan zen bizitzera. Zornotzako toponimiako ahozko erak jasotzeko landa-laneko grabaketan parte hartu zuen. Bere senarrak, Fede Intxaustik ere parte hartzen du tarteka.

Markos Gerediaga Bilbao (1925-2013)



1925. urtean sortu zen Etxanoko Arrinda auzoko Etxetxiki baserrian. Gurasoak ere Etxanokoak zituen. Umetan eskolara gutxi joan zen eta gerra garaian Bilbo aldera joan ziren ebakuatuta. 1948. urtean "Sociedad ciclista Amorebieta" fundatu zuen eta ordudunik beti ibili izan da txirrindularitza munduan buru-belarri murgilduta: Bizkaiko Birako sortzaileetako bat, Espainiako bueltako kolaboratzailea, Ziklo-kroseko Batzorde Nazionaleko presidentea 16 urtez, 1978. urtean munduko ziklo-kros txapelketa Etxanon antolatu zuen...

Teodora Gerediaga Gastelu (1928-2019)



Arrinda auzoan jaio zen bost neba-arrebadun familia batean, gaur egun botata dagoen baserri batean. Etxano eta Zornotza urak banatzen zituen eta beraien etxea Zornotzan zegoen, auzoko besteak Etxanoko herrikoak izan arren. Aita Etxanoko Altzibar errotakoa zen eta ama Boroakoa. Bizimodu gogorra baina polita izan zutela dio Teodorak. San Migeleko eskolara eta josten ikasteko aukera izan zuen, besteak beste. Etxekoak Etxanoko Urritxera joan ziren eta berak ere bertan osatu zuen familia Mendatako semea den [Anastasio Beaskoetxeagaz](#) batera.

Maria Luisa Gerediaga Iturrioz (1940)

1940. urtean jaio zen San Migel auzoan. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.

Juan Gisasola (1937)

Hamabi neba-arrebatan azkena izan zen. Hamairu urterekin kriadu joan zen eta ondoren zerrategian eta harrobian lan egin zuen gaztetan. Hogeita bat urte ezkerotzik, erretiroa hartu artean, forjan lan egin zuen. Bola jokorako zaletasuna izan du.

Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarrizketetan parte hartu zuen.



Patxi Goiria Undagoitia (1922-2014)

Dudagoitia auzoko Otsuena baserrian jaiotakoa eta bertan bizitakoa. Zornotzako toponimia batzeko landa-lanean parte hartu zutenekoa da bere grabazioa.

Beatriz Gorospe Jaio (1936)



1936. urtean sortu zen Mañariko Ibarra baserrian, baina 19 urterekin Zornotzako Euba auzoko Austoagoikoa baserrira joan zen bizitzera, ezkondu zenean. Gaztetan, bere senarraren izekoaren etxean egon zen Durangon, neskame lanean. Bere senarra, [Anastasio Zamalloa](#), ere egon zen elkarrizketan eta tarteka parte hartu zuen.

Eustasio Gurtubai Dudagoitia (1918)

San Bartolome auzoan munduratu zen 1918an; Zornotzako San Miguel kalean bizi izan zen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.

Santiago Gurtubai Izagirre (1912)

1912an jaioakoa, Jauregizahar auzoko Arkotxe baserrikoa da. Artzaina izan da bizi osoan. Hainbat urtez paper-lantegian aritu izan da lanean.

Julen Guttadauro Esturo (1998)



Julenen birraitita, Eulogio Esturo Zamalloa, *Zearrena* baserrian jaioakoa militante sozialista izan zen. Durangon ferrokarrilean egiten zuen behar eta UGTko kidea izen. Haren inguruko kontuak jasotzeko elkarrizketatu zuten Emilio [Durango 1936 Elkartekoek](#), beste senide batzuekin batera.

Josebe Ibaibarriaga Sarrionandia (1936)



Durangoko liberazio egunean jaio zen Berna auzoko Txosna baserrian, 1936ko apirilaren 28an, hain zuzen ere. Handik urtebetera Ibarrangeluko Laidan eta Akorgan egon ziren ebakuatuta. Beraien jaioetxean, beti izan dute taberna beraien aititak zabaldu eta 1995an zarratu arte, sasoi hartan Zornotzako taberna zaharrenetarikoa ei zen. Paper-lantegiko kontuak, Bernako xaboi eta txikoria-fabrikakoak, elizaren eragina, tabernako bizimodua eta anekdotak... izan ditugu berbagai bere ahizpa [Milagaz](#) batera. AMO-056 zinta Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zueneko da.

Mila Ibaibarriaga Sarrionandia (1930)



Berna auzoko Txosna baserrian jaio, hazi eta bizitakoa. Gerra garaian, Ibarrangeluko Laidan eta Akordan egon ziren ebakuatuta. Beraien jaioetxean, beti izan dute taberna beraien aititak zabaldu eta 1995an zarratu arte, sasoi hartan Zornotzako taberna zaharrenetarikoa ei zen. Paper-lantegiko kontuak, Bernako xaboi eta txikoria-fabrikakoak, elizaren eragina, tabernako bizimodua eta anekdotak... izan ditugu berbagai bere ahizpa [Josebegaz](#) batera.

Iñaki Ibarra Uribeganekoa (1920)

Oromiñoko Erdikoerrotan munduratu zen 1920. urtean. Gurasoak ere Oromiñokoak zituen. 1952. urtean Zornotzako Karmen kalera joan zen bizi izatera. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Mari Karmen Intxausti

Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarrizketetan parte zueneko grabazioa da.

Fede Intxausti Alzaa (1926-2012)



Durangon jaio zen, ama bertakoa zelako, baina hiru urte bete zituenetik Zornotzako Larrea auzoko Boroabekoa baserrian bizi izan zen. Ehiztari amorratua, usotan, oilagorretan, galeperretan... ibilitakoa. Hainbat proiektutarako egin zitzaizkion elkarrizketak.

Iñaki Intxausti Gallarzagaitia (1917)

Etxanoko Kaitanan sortu zen 1917an. Aita ere Etxano aldekoa zuen eta ama Zornotzakoa. Gerra sasoian, Bizkargi aldeko frontean egon zen, eta gerora, Espainia osoko kartzeletan egon zen. Antzinako bizimoduko hainbat kontu kontatu zituen "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabaketa honetan.



Juan Ignacio Irakulis

Etxanoko Aretxaga baserrikoa. Zornotzako toponimiako lekukotasunak batzeko grabaketan parte hartu zuen [Pedro Larrinaga](#), [Juan Luis Ormaetxe](#) eta [Pascual Uriarte](#) etxanotarrekin batera.

Maria Irakulis Besoitaormaetxea

Montorrako Ibarra baserrian (gaur egungo sagardotegian) jaio zen. Bere ama Garaikoa zen. Gerora, San Antonio auzoko Elgezabal etxean bizi izan zen. Hiru seme-alaba izan zituen. Grabazio hau bere senitareko batzuek eman digute.

Tere Irazola Etxebarri (1926)



San Migel auzoko Antikara baserrian jaio zen. Gurasoak ere auzo berekoak zituen: aita bere jaiotetxekoa eta ama Oruekoa (gerran desagertua), pasionisten komentua eraiki zuten gero bertan. 4 neba-arrebako familian bera izan zen alaba bakarra. Gerrara arte ibili zen auzoko eskolan eta euskaraz jaso zituen ezagutzak. Gerratean Bilbora joan ziren ebakuatuta, Irala kalera, eta Bilboko bonbardaketa Pagasarritik ikusi zuen. Bitarte horretan, aita Karmeloko kartzelan izan zuen. Bere etxeko hainbat solo autopista egiterakoan kendu zizkieten eta bertako komentua egiten zebiltzan beharginentzako lotarako lekua eta taberna izan zuen, baina hori ere autopista egiterakoan bota zuten. Oromiñoko (lurreta) senarra izan zuen eta Urritxera ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituen. Beti aritu zen baserriko lanetan, eta Bilboko plazara ere bendejearekin joandakoa da.



Karmen Iriondo Uriarte (1931-2017)

San Migel auzoko Zubieta baserrian jaio zen 1931. urtean. Ezkondu ostean, zazpi urtez, Zornotzako herri aldera joan zen, baina gero auzora bueltatu eta 35 urtez tabernadenda izan zuen. Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko grabaketetan parte hartu zuen.



Juan Martin Iriondo Yurrebaso (1963)

Leginetxe auzoan jaio zen eta 31 urtegaz, ezkondu ostean, joan zen Etxanoko Etxegalanta baserrira. Ingurukoek "Sakristauena" moduan ezagutzen dute beraien etxea. Zornotzako ahozko toponimia batzeko grabaketetan parte hartu zuen.

Ricardo Isasi Etxebarria (1913)

Bartolome deuna auzoan jaio zen 1913. urtean, baina gerora Montorrako Garamendibekoa baserrian bizitakoa. Bere aita Etxanoko zen eta ama Gipuzkoatik neskame etorritakoa. Emaztea San Migeleko Egiartekoa zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Jose Manuel Iturburu Landa *Amorebieta* (1952)



1952an jaioa; Amorebietan hazi zen. Ama Morgakoa eta aita Amorebietakoa bertakoa. Gidari lanean ibili zen gaztetan, baina Euskal Herrian lan-egoera ez zen ona eta artzain gisa Ameriketara joatea eskaini ziotenez, probatzea erabaki zuen. Baina hiru hilabete besterik ez zituen egin lan horretan. Orduan, Boisera joan zen eta kamioi gidari gisa hasi zen lanean, Ramon Larrearekin. Gerora beste lan batzuk egin izan ditu bere kontura. [Sabino Beaskoetxea](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa Boiseko Euskal Etxean.

Margari Iturrieta Olariaga (1930)

1930. urtean Bernan jaioa eta bertan hazi eta bizitakoa. Gurasoak bertakoak zituen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Emilio Iturriondobeitia Larruzea (1924-2015)



Larreako Katian jaio zen. Aita ondoko etxe batekoa zuen eta ama Gorozika (gaur egun Muxika) aldekoa. 7 neba-arrebatatik zaharrena izan zen. Umetan Kaitanako eskolan eta Larreako fraideetan ikasi zuen. 11 urte gaz bere izekoaren tabernan, Lupenen, hasi zen beharrean. Gerra Zibileko kontuak oso ondo gogoratzen ditu, asko eragin baitzien: etxetik alde egin behar izan zuten Artzentales aldera, bueltan etxe ia hutsik topatu zuten, izeko kartzelaratu eta handik lasterrera hil zen... 1959. urtean, Andoainera (Gipuzkoa) joan zen bizitzen eta ordudanik bertan egin zuen bizimodua. Bere berbetan herri bietako nahastea nabari da.

Juan Iturriondobeitia Larruzea (1929)



1929an sortu zen Etxanoko Larrea auzoko Etxetxikin, gaur egun desagertua. Aita Autzaganekoa zuen eta ama Gorozikako (gaur egun Muxika) Pardiñaurrekoka. Bederatzi neba-arreba izan ziren. Umetan, Larreako kolegioan ibili ostean, zazpi urtegaz Kaitanan zegoen Etxanoko eskolara joan zen. Gerra Zibilean, etxe utzi eta Turtzioz, Trapagaran eta Gueñes aldera joan ziren ebakuatuta. 13 urte zituela, auzoko katedratiko baten etxera joan zen morroi eta bertako liburutegian irakurzaletu zen Juan; gerora, berak fundatu zuen herriko lehen liburutegia parrokia ondoan. Auzoan zuten enplastera ezagun batengandik hainbat belar, enplasto eta erremedio naturalen berri jakin zuen eta horien ezagutzaren berri eman digu beste hainbat herritarrek ezagutu izan dituzten moduan.

Jesusa Izagirre Esturo (1928)



Eubako Izagirre taberna-dendako alaba, "Pijon" ezizenez ezaguna zena. Aita bertakoa zuen eta ama Begoñan jaiotakoa, baina Arratian hazia. Gerra sasoiari, milizianoek etxea erre kisatu zieten eta Burtzeñara (Barakaldo) eta Karrantza aldera joan ziren ebakuatuta. Betidanik ibili izan da tabernako eta dendako beharretan 14-15 urte ezkerotik, eta bertako kontuak oso ondo gogoratzen ditu. Bizartegia eta auzoko telefono bakarra ere zuten bertan. Erretiratu ostean joan zen auzo bereko Errekaldenera bizitzera, senarraren jaiotetxera. Lau seme-alaba izan zituen. AMO-048 grabaketan Zornotzako toponimiako ahozko eren berri ematen du.



Juan Izagirre Rekalde (1932)

Euban jaio zen eta Bernako txosnan bizitakoa. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.



Jose Andres Lagunilla Arroitauregi (1950)

Etxanoko Alakao auzoko Alakaoerdikoa baserrikoa. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen [amarekin](#) batera.

Fernando Larrinaga (1941)



Fernando Larrinaga 1941ean jaio zen Amorebieta-Etxanon. Gurasoak Etxanokoak ziren eta 1950ean ezkondu ziren, Amorebieta eta Etxano elkartu baino urte bat lehenago. Eskolara joan zen txikitatik eta oporretan etxez etxe esnea banatzen laguntzen zuen. Baserriko bizimoduari buruz hitz egiten du. Donostiako San Ignacio ikastetxeko ikasleek euskalkiak jasotzeko egindako proiektuaren barruan elkarriketatua izan da.



Pedro Larrinaga Lauzirika (1952)

Etxanoko Epaltza auzoko Etxebarri baserrikoa. Zornotzako toponimiako lekukotasunak batzeko grabaketan parte hartu zuen [Juan Ignacio Irakulis](#), [Juan Luis Ormaetxe](#) eta [Pascual Uriarte](#) etxanotarrekin batera.

Fernando Larrinaga Urkiza (1917)

1917. urtean Epaltzan jaioa eta bertan bizitakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.

Antonio Larrocea Uribuen Tony (1931)



Etxanon jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Boroa auzoko Biaskoa baserrian bizi ziren, errentan. Aita (Victor) artzain joan zen Ameriketara 1911n eta 12 urte egin zituen ahan. Zortzi senide ziren (sei neska eta bi mutil), eta gose garaia ezagutu zuten: Gernikako bonbardaketaren ondoren, herria ebakuatu zuten eta ihesi joan ziren beraiek ere: 40 egun pasatu zituzten Bilbo aldean eta, bueltan, baserria hutsik aurkitu zuten. 11 urterekin eskola utzi eta osaba-izeben baserrira joan zen morroi. Ardi-lanean aritu zen, ardia eskuz jezten. Ameriketara bizi zen Maria Landa izebak gonbidatuta, Homedalera (Idaho) joan zen 1951ean, osaba-izeben arrantxora. 6 urte egin zituen ardi-lanean, "campero", eta 1959an Euskal Herrira joan zen, emazte bila. Auzokoa zen Teresa Mezurekin ezkondu zen eta Ameriketara joan ziren bizitzera. Bi alaba izan zituzten eta biek hitz egiten dute euskaraz. Bere arrantxoa ipini zuen (erremolatxa, artoa...), Homedale ondoan, eta geroztik bertan bizi dira. Euskal komunitateko kide aktiboak dira: Boiseko euskal etxera joaten zen igandero, musean aritzera, eta alabak Oinkari dantza taldekoak izan ziren. Momedaleko euskal etxearen sortzaileetako bat ere bada, emaztearekin batera.



Rufino Larruzea Etxebarrieta (1935-2019)

Boroako Makatzaga baserrikoa. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.



Maria Teresa Larruzea Uriguen (1928-2024)

1928. urtean jaio zen Boroan; Erkolesen bizi izan zen. Gaztetan neskame ibili zen, ezkondu aurretik. Besteak beste, [Durango 1936](#) Elkartekoek elkarrizketatu zuten, gerra garaiko bizipenak jasotzeko.



Anastasio Larruzea Urizar (1936)

San Bartolome auzoko Beaskoa baserriko semea. Zornotzako toponimia jasotzeko egin zitzaion grabaketa hau.



Daniel Lauzirika Azketa

Muniketako Munketaetxebarri etxekoa. Bere neba-arrebekin Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko egindako grabaketan parte hartu zuen Danielek.



Jose Luis Lauzirika Azketa

Muniketako Munketaetxebarri etxekoa. Bere neba-arrebekin Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko egindako grabaketan parte hartu zuen Jose Luisek.



Maritxu Lauzirika Azketa

Muniketako Munketaetxebarri etxekoa. Bere nebekin Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko egindako grabaketan parte hartu zuen Maritxuk.

Maritxu Lauzirika Igartua (1937)



Etxanoko eliza ondoko alkatearen etxean jaio zen Maritxu. Gurasoak ere Etxanokoak zituen, ama Muniketa auzokoa. 3 neba-arrebatatik gazteena eta neska bakarra izan zen. Eskolara gutxi joan zen, eta gerora hainbat tokitan aritu zen neskame lanetan; baina, batez ere, Bilbon pasa zituen 25 urteak aipatzen ditu. Azken urteetan egoitza ugaritan bizi izan da. Elkarriketa egin zitzaionean Busturiko Arroategi egoitzan zegoen.

Agustin Legorburu Uriarte (1928)



Iurretako Oromiño auzoan jaio zen, baina 6 hilabete zituela Etxanoko Uruminera joan zen. Aita Garaikoa zuen eta ama Oromiñokoa. 12 neba-arreba izan ziren. 28 urterekin Etxanoko Arrinda auzoko Etxetxikira ezkondu zen. Gerran garai gogorrak bizi zituzten: Deriora eta Sopuertara joan ziren ebakuatuta, bi anaia gerran izan zituen, arreba bat Frantzian... 11 urterekin hasi zen lanean etxean lagundu ahal izateko eta beste baserri batera joan zen morroi lanetan. Gerora harrobian, Izarren eta Ekin kooperatiban egin zuen behar; azken horretan, 1962. urteko sorreran parte hartu zuen. Zornotzako ahotsak proiektuan parte hartzean gain, beste bi proiektutarako egindako grabaketetan ere parte hartu du Agustinek. Zornotzako toponimia batzeko egindako grabaketetan parte hartu zuen AMO-030 zintan. AMO-072 grabaketa "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindakoa da; azken honetan, hitanoa (hika) darabil.

Daniel Legorburu Uriarte (1914-2017)



Iurretako Oromiño auzoko Baztarrekkoa baserrian jaio eta hazi zen. Aita Garaikoa zuen eta ama Oromiñokoa bertakoa. 12 neba-arrebatatik bigarrena zenez, etxean laguntzeko 10 urtegaz eskola utzi eta morroi lanetan hasi zen auzoan bertan. 14 urtegaz Etxanoko Uruminera joan ziren etxeko denak eta ordudanik bertan egin zuen bizimodua kalera joan arte. Baserriko lanetan zein aitari laguntzen ikazkin lanetan aritutakoa da. Gerra Zibilak Lizarran harrapatu zuen, bertan baitzegoen soldadutza egiten. Errepublikako soldadu izatetik faxisten soldadu izatera pasatu zela dio, ametralladoreen konpainian aritu baitzen hiru urtez Espainian zehar. Etxera bueltatu ostean, zerrategian hasi zen beharrean, hiru zerrategi desberdinetan ibili zen "Forjas de Amorebieta" lantegian erretiratu zen arte. Emaztea Boroa auzokoa izan zuen.

Juana Lizaso Larrinaga (1922)

Leginetxen munduratu zen 1922. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama Etxanokoa. 26 urte gaz joan zen kale aldera bizitzera. Senarra Zornotzako Nafarroakoa zuen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Josean Lopez Lauzirika (1934-2018)



Etxanoko Nafarroan zegoen kale-baserri bakarrean jaio zen. Aita Larrabetzukoa zuen eta ama herrikoa bertakoa. Ama Saturrarango kartzelan izan zuten preso hiru urtez beste hainbat herritarrekin batera. Ama kartzelatik irten zenean, parke ondoko pisu batera joan zen bizitzera, eta bere amak bertan zabaldu zuen taberna, "Bar Gloria". Umetan herriko bi eskolatan ibili zen Bilboko maristetara joan aurretik. Bilboko merkataritza eskolan ikasketak egin ostean, banketxean aritu zen lanean. Enartzera ezkondu zen.

Juana Loroño Beaskoetxea (1923-2010)



1923an jaio zen Boroa auzoko Ametzarribekoa baserrian, eta bertan bizi izan zen 37 urte gaz kaleko etxe batera joan arte. Gurasoak ere Boroakoak zituen; 13 neba-arreba ziren, bera zazpigarrena, zazpigarren alaba. Eskolara gutxi joan zen baserriko beharrak zirela-eta. Gerra sasoian, Larreatik eta Zaldibarretik ibili zen familiarekin. 15 urterekin, Galdakaoko "La dinamita" enpresan hasi zen obusentzako pastillak egiten, zazpigarren hilabeteen etxera bueltatu zen. 21 urterekin Astage enpresan hasi zen, baina han ere denbora gutxi iraun zuen. Beti aritu izan da baserriko eta etxeko lanetan. 23 urte gaz Boroa auzoko Basarte baserriko Jesus Estankonarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten.

Jose Ramon Magunazelaia Iturriotz (1932)

San Migel auzoko Dudagoitia baserrian jaio zen 1932. urtean. Bediaga auzoko Arkotxan bizi zen elkarrizketa egin zitzaionean bertara ezkondu baitzen. Aita Dudagoitiakoa zuen eta ama Arratiakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da eta [Bixente Agorria](#)rekin eta [Inazio Sarasua](#)rekin batera egin zitzaion grabaketa.

Jose Manzisidor Iriondo (1913)

1913. urtean jaio zen San Migel auzoko Dudagoitiako Ganbuena baserrian. Zornotzako San Migel kalean bizitakoa. Aita bere jaiotetxekoa zen eta ama Egiarte baserrikoa. 15 urterekin itsasora joan zen eta urte bete egin ostean lantegian aritu zen lanean. Gerran, Elgetan, Etxebarrin, Solluben eta Bilbon ibili zen; handik, Laredora egin zuen ihes eta Aranda de Duero (Burgos) kontzentrazioa-eremura eraman zuten. Gero, Burgoseko "caja de reclutas" era eraman zuten eta Logroñora eramaten zuten fronteetarako merkantziak preparatzen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Edurne Mardaraz Aranzeta (1918)

Oromiñoko Zentralekoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarriketa, gerrako bizipenak jasotzeko.

Teresa Mezo Uriarte (1940)

Teresa Larrocea da bere ezkontza-izena. Etxanoko Boroa auzoko Urgoiti baserrikoa, zazpi senidetan zaharrena. Gutxi joan zen eskolara, neba-arrebak zaindu behar izaten zituelako; auzoko umeak zaintzen ere ibili zen, 13 urterekin. Josten ikasten ibili zen eta aitak josteko makina erosi zion, 14 urterekin. 1960an Ameriketara joan zen, Homedalera (Idaho), Antonio Larrocearekin ezkondu. Bi alaba izan zituzten: Susi eta Lisa. Sukaldaria izan zen artzain-kanpo batean, hilabete batzuetan. Senarrarekin batera arrantxoan egin du lana, familiako negozioan, baina kobratu gabe. Euskal komunitateko kide aktiboa izan da, senarrarekin batera. Boiseko euskal etxeko kideak ziren; alabak Oinkari dantza taldekoak izan ziren. Homedaleko euskal etxea sortzeko ere lan asko egin dute.



Angeles Olabarri Aranguren

Derandainbekoa baserrian sortua. Bere etxekoekin batera parte hartu zuen Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko grabaketan.

Iñaki Olabarri Aranguren (1935)

1935. urtean Derandainbekoa baserrian sortua. Bere etxekoekin batera parte hartu zuen Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko grabaketan.



Juanita Olariaga Esturo (1928-2016)



Berna auzoko Txosna baserriko alaba. Gurasoak ere auzo berekoak zituen, aita galdara-fabrikako behargina. 13 urtera arte Bernagoitiko eskolan ibili ostean, 16 urtegaz bere aitaren jaiotetxera joan zen neskame lanetan, lehengusinak hazi eta etxeko beharretan aritzeko; 16 urte bertan egon ostean, 29 urtegaz San Antonio auzoko Kimerara ezkondu zen Juan Gerediagagaz. 2 seme izan zituen. Bizi guztian zehar, batean zein bestean behar eta behar ibili izan zen; bizimodu hori ardatz hartuta aritu ginen bi orduz lehengo kontuez eta bizipenez berbetan. 2012ko elkarriketan, elkarriketatzaile bat bere senitartekoa da. [Durango 1936](#) Elkartekoek ere egin zioten elkarriketa 2013an, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

Niko Oregi Manzisidor (1936)



Dudagoitia auzoko Ganboena baserrian jaioa eta bertan bizitakoa. Zornotzako toponimia batzeko landa-lanean parte hartu zueneko da bere grabazioa.

Juan Luis Ormaetxe (1952)



Etxanoko Erromarakoa baserrikoa. Zornotzako toponimiako lekukotasunak batzeko grabaketan parte hartu zuen [Pedro Larrinaga](#), [Juan Ignacio Irakulis](#) eta [Pascual Uriarte](#) etxanotarrekin batera.

Eugenia Ormaetxea Alboniga (1927-2015)



1927. urtean Bernabeitia auzoko Bernabeitigoikoa baserrian jaioa eta bertan bizitakoa. Zornotzako toponimiako ahozko erak jasotzeko landa-laneko grabaketetan parte hartu zuteneko da hemengo grabaketa.

Amparo Osa Etxebarria (1924-2015)



1925. urtean jaio zen Lazkano baserrian, baina hiru urterekin joan zen auzo bereko Leginetxebekoa baserrira eta bertan bizi izan zen beti. Astepeko Tela lantegian aritu zen lanean. Zornotzako toponimia jasotzeko egindako grabaketetan parte hartu zuen.

Kontxa Rekalde Aiestaran (1905)

Leginetxan jaio zen 1905.ean; Santa Luzian bizi izan zen. Ama bertakoa zuen eta aita Etxanokoa. Bere aitona-amonak Gipuzkoatik etorritako artzainak izan ziren. Senarra Etxanokoa zuen. Gaztetan neskame lanetan ibili zen Bilbon. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

None San Bartolomeko auzolagunak

Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarrizketa.

Inazio Sarasua Iturrieta (1938)

Euban jaio zen 1938. urtean, eta betan hazi eta bizi izandakoa da. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. [Bixente Agorria](#) eta [Jose Ramon Magunazelaia](#) rekin batera egin zitzaion grabaketa.

Florencio Ugalde Agirre (1929)

Amorebieta-Etxanoko Montorra auzoan (Montorra baserrian) jaio zen 1929an. Aita, Julian Ugalde, gerra hasi aurretixoan hil zitzaion. Ama, Dominga Agirre, bost seme-alabarekin geratu zen alargun. Gerra Durangaldean sartu zenean baserria utzi behar izan zuten eta Florencio amarekin Lezamako baserri batera joan zen lehenik auzoko beste familia batzuekin batera. Lezamatik Zallara jo zuten eta tropa faxistak gailendu zirenean Montorrara itzuli zen familia. Eskolara ez zuen buelta handirik egin Florenciok, baina bai Doña Benita maistra frankistaren gogortasuna ezagutzeko beste. Gerraosteko bizimodu gogoraren lekuko zuzena izan zen etxeko seme nagusia izanik. [Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, kontu horiek guztiak jasotzeko. Ezkondu ostean lurretan bizi izan da.



Julian Uranga Ugarte (1911)

Julian Uranga 1911an jaio zen, Zornotzan. Tabernaria izan zen eta Urbasako larretako txabola baten taberna zeukan. Zornotzako garai bateko bizimoduaz, erromeriez, taberna giroaz, ohiturez, elizako kontuez aritu da, hainbat anekdota ere kontatuz. 1986an, *Iraleko ikasleek elkarrizketatu zuten Julian*, [Martzelino Zenarruzabeitia](#) rekin batera.



Juli Uriarte (1904-2001)

Juli Etxanoko Astitze baserrian jaio zen. Grabazio hau Euba-Areitioartena familiak utzi digu "Peru eta Maridxe"ren inguruko ipuina jaso baitzuten bere ahotik. 99 urterekin hil zen Juli.

Miren Uriarte (1935)

Etxanoko Epaltza auzoan jaio eta bizi izan da. Baserriko bizimoduaren berri ematen du, baita gerrako kontuen berri ere.

Amore bi eta ETXANO liburuko ikerketa-lanerako egindako grabazioetan parte hartu zueneko elkarriketa da.



Pascual Uriarte (1953)

Etxanoko Asteitza auzoko Asteitza baserrikoa. Zornotzako toponimiako lekukotasunak batzeko grabaketan parte hartu zuen [Pedro Larrinaga](#), [Juan Luis Ormaetxe](#) eta [Juan Ignacio Irakulis](#) etxanotarrekin batera.

Candido Uriarte Intxausti (1919)

1919. urtean jaio zen Autzaganeko Biribieta baserrian, baina 47 urte gaz herrira joan zen bizitzera. Gurasoak Ibarrurikoak (gaur egun Muxika) izan zituen. Kamioi-gidaria izan zen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Mariano Uriarte Intxausti (1917)

Autzaganeko Bidebieta baserrian jaio zen 1917. urtean. Gurasoak Ibarrurikoak (gaur egun Muxika) izan zituen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Antonia Uriarte Iriondo (1934)



Etxanoko Larrabe baserrian jaio zen 1934. urteko San Antonio egunean eta bertan bizi izan da beti. Hemen azaltzen diren grabaketak Zornotzako toponimia batzeko proiektuan eta Amore bi eta ETXANO ikerketa-lanean parte hartu zuenekoak dira.

Brigida Uriguen Perea (-2007)

Boroan jaio zen eta hogeita bost urte bete arte bizi izan zen bertan. Tartean, Bilboko klinika batean kriada egon zen. Gerra garaian ihesi joan behar izan zuen Santutxura, aita-amak etxean utzita. Angel Barrenarekin ezkondu eta Zurkitze baserrira joan zen bizitzera. Gero, Jauregibarria auzoko Aldekoena baserrian bizi izan zen. Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarrizketetan parte hartu zuen.

Juanita Urkiaga Lekerika (1906)

Meñakan sortu zen 1906. urtean, baina gerraostean, Eubako Saratsura joan zen, Saratsubekoara ezkondu baitzen. Bere aita meñakarra zen eta ama Fruizkoa. Bertako "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Zornotzako berbakera darabil.

Santi Villareal Barrena (1935)



Etxanoko Ergoien auzoko Zabalbekoa baserrian jaio zen 1935. urtean; gurasoak ere bertakoak zituen: aita bere jaiotetxekoa eta ama ondoko Zabalgoikoakoa. Bi anaia baino ez ziren izan. Gerrak haurra zela harrapatu zuen eta etxekoek alde egin behar izan zuten. Buelatu ostean, etxea errekiatuta topatu zuten eta Lemoara joan ziren osaba baten etxera; hori dela-eta, dotrina eta eskolak bertan jaso zituen. 11 urte zituela, beraien auzoko Derteano "Dertia" baserria erosi zuen aita eta bertara joan ziren. Artean, ama hilda zuen, gerratean hil baitzen; ondorioz, etxean emakumerik ez zuten, berak egiten zituen sarritan behar horiek: arropak atondu, jatekoa... Beraien gazte sasoiko jaiak, ospakizunak, ohiturak, hizkuntza-tratamenduak, olgetak, abestiak, neska kontuak, ipuinak... kontatu zizkigun, betiere umoretsu, grabazio honetan.

Jesus Zalbidea (1939)

Bederatzi urte bete arte bizi izan zen Etxanon. Gero, abade izateko ikasketak egin zituen. Abadea izan da Busturian, Ekuadorren eta Ean.

Amore bi eta ETXANO libururako egindako elkarrizketetan parte hartu zuen.



Angel Zamalloa Etxebarria (1941)

Etxanoko Elortzabekoan jaioa eta bertan bizitakoa. Zornotzako toponimiako ahozko erak batzeko egitasmoan parte hartu zuen grabaketa honetan.



Rosa Mari Zamalloa Izagirre (1953)

San Migel auzoko Egiartebarrena edo Txuloena baserrikoa. Bere senarrarekin batera, [Javier Egiarte](#)rekin batera, Zornotzako toponimiako ahozko erak jasotzeko landa-lanean parte hartu zuen.



Anastasio Zamalloa Zubero *Ministrue* (1928)

Austoa auzoko Austoagoikoa baserrian jaio eta bizi izan da beti. Aita bertako zuen eta ama Igorrekoa. Hiru neba-arrebatatik seme bakarra izan zen. Gerra sasoiari, Erletxetara, Marurira, eta Bilbora joan ziren ganadua Pagasarrin utziz. Soldadutzatik libratu zen Anastasio. Beraien etxean beti egin izan dute txakolina, eta sasoi batean jende asko hurbiltzen zen bertara. Paper-lantegian eta arotz lanetan ibili zen. AMO-018/019 grabaketetan, bere emaztea, Mañariko [Beatriz Gorospe](#), aurrean egon da eta tarteka berak ere parte hartzen du. Bestalde, 1988ko abuztuan egin zen "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat izan zen Anastasio, AMO-080 zintan dago grabaketa hori (hitanoa darabil azken honetan).

Andresa Zarate (1920)

Eubako Dudea auzokoa. Baserri-etxean taberna zuten. Garai bateko hainbat istorio eta pasadizo kontatzen ditu bi grabazio hauetan.

Pascual Zarate Bikandi (1922)

Dudeako San Migel auzoan sortu zen 1922an; Zornotzako San Miguel kalean bizitakoa. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Grabaketa hau 1988ko abuztutik 1989ko urtarrilera bitartean egin zen.



Ramona Zarate Bikandi (1937)

San Migel auzoko Arkoitia baserrikoa. Zornotzako ahozko toponimia batzeko landa-lanean parte hartu zueneko da grabaketa.



Sole Zarate Zamalloa (1956)

San Migel auzoko Elexalden jaioa eta bizitakoa. Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zuen.



Jesus Zearreta Etxabe (1926-2016)


Etxanoko Bidaniazarran jaio zen 8 neba-arrebatako familia batean. Ama Zornotzako zuen eta aita Bilbon jaiotakoa, baina Ibarrurin (gaur egun Muxika) hazitakoa. Umetan gutxi joan ei zen eskolara eta gerra sasoian errefuxiatuta joan ziren Boluetara, Kastrexanara eta Gueñesera. Bueltan etxea erreta aurkitu zuten eta kortako alderdian hasi behar izan zuten bizimodu berria. Hamabi urterekin aitaren ofizio berean hasi zen beharrean, otzaragile bezala; batez ere meategietarako otzarak egiten zituzten. Hogei urteren ostean, lantegian hasi zen eta bertan ibili zen erretiratu arte.



Benita Zearsolo Azkuna (1911)

1911. urtean munduratu zen Zornotzan, erdiguneko arkupeak dauden ingurukoa. Aita Elorriokoa zuen eta ama Etxanoko "Mantton"ekoa. 25 urte bete orduko Mexikora joan zen eta 46 urtez bizi izan zen bertan (handik amari bidalitakoa da argazkia). Grabazioa egin zitzaionean, hiru urte ziren etorri zirela, baina berriro harantz joatekoak ziren. Senarra Bilbokoa zuen. Bere umetako eta gaztetako Zornotza dakar gogora "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabaketa honetan.

Martzelino Zenarruzabeitia Zarate (1913)



Martzelino Zenarruzabeitia Zornotzan jaio zen 1913an. Beti bizi izan da Zornotzan, gerra garaian izan ezik. Fraideetan ikasi zuen Larran. Gerran, Algortan ibili zen lehenengo lanean Odolaren ospitalean eta Karrantzan gero, osasuneko langile bezala. Atxilotu eta kontzentrazio-esparru batean egon ondoren, bi urtez ibili zen Gironako lan-batailoi batean. Zornotzako ohiturei, kontu zaharrez eta sinesmenei buruz hitz egiten du elkarrizketan.

Elena Zubero Ormaetxe



Boraa auzoko *Zugetza* baserrikoa, Santiago Zubero eta Miren Ormaetxeren alaba. Euren amaren familiak gorriak eta bi pasa behar izan zituen gerraren eraginez. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936 Elkartekoek](#), [Esther](#) eta [Kepa](#) neba-arrebekin batera.

Esther Zubero Ormaetxe



Boraa auzoko *Zugetza* baserrikoa, Santiago Zubero eta Miren Ormaetxeren alaba. Euren amaren familiak gorriak eta bi pasa behar izan zituen gerraren eraginez. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936 Elkartekoek](#), [Elena](#) eta [Kepa](#) neba-arrebekin batera.

Kepa Zubero Ormaetxe



Boraa auzoko *Zugetza* baserrikoa, Santiago Zubero eta Miren Ormaetxeren alaba. Euren amaren familiak gorriak eta bi pasa behar izan zituen gerraren eraginez. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936 Elkartekoek](#), [Esther](#) eta [Elena](#) arrebekin batera.

Gumersindo Zugazaga Isasi (1915)

1915. urtean jaio zen Astepen. Aita Astepekoa zuen eta ama Eubakoa. Emaztea Lemoakoa zuen. Astepe aldeko antzinako kontu ugari kontatzen ditu "Zornotzako aditz-eren karinkara" libururako egindako grabaketa honetan.

Loli Zurinaga Agirrezabala (1955)



1955. urtean sortu zen Etxanoko Altzibargoikoa baserrian eta bertan bizi izan da beti. Bere senarrak ere, Gorozikako (Muxika) Jose Mari Lauzirikak, parte hartzen du Zornotzako toponimia jasotzeko egindako grabaketa honetan. Argazkian ezkerrekoa da (eskumakoa, ama, [Antonia](#)).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Natura

1.1. Txori ugarienak: burgoiak, txirtak, txanbilotxak, kalandrak...

- **Hizlaria(k)**: Intxausti Alzaa, Fede
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AMO-001/002
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Natura » Fauna » Hegaztiak
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Txikitatik ehiztari amorratua. Burgoiak eta txirtak izaten ziren gehien. Txanbilotxak eta jilgeroak ere bai. Bilbotarrak etortzen ziren Zornotzara jilgeroak harrapatzera. Txori-lekua zen. Garia ere ugari, eta txori asko. Kalandrak ere bai.

Transkripzioa

-Eta txikitxatik kasan-eta.
-Txikitetik tiragomiaz, beti boltsan, eskolara be tiragomiaz.
-A bai, e!
-Bai, plomoagaz eitten genduzen perdigoi antzeko zerak. Plomoak bai, pelotiren biribilddu.
-Eta zereaz biribilddu?
-Biribilddu botiliegaz eitten gendun, bai. Gero mordue eote zan hamen burgoi asko, txirtek, kantidade eon zan orduen, landa guztixek beteta, burgoiak be bai, ta danetarik, txanbiloxak, jilgeroak be baldak, bilbotik etorte zien horrek jilgeroak harrapetan biezenak mezkliaz, Bilbotik etorte zien, bai.
-Leku ona zan hau?
-Bai, leku ona bai, kalandrak asko. Kalandrak, garixe hamen jentiek eraitten euenien kalandrak bandaka etorte zien, oin ez da agertu be eitten.
-Ta ze gehixau izete zan? Kalandrak, burgoiak...
-Kalandrak izete zien, birigarroak baiño apurtxu bet txikitxuauak.

1.2. Ogigaztaiak zelan uxatu

- **Hizlaria(k)**: Arregi Mendiola, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere

- **Erref:** AMO-139/036
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna » Basoko animaliak
- **Laburpena:** Ogigaztaia oso pizti pozoitsua da. Ardiei udaberririo jartzen zitzaizkien txilinak erditze sasoian ogigaztaia uxatzeko. Abarka zaharrak erre eta erre usainarekin uxatu egiten ziren. Lehen ugariak ziren ogigaztaiak.

Transkripzioa

- Ogigaztaie bakizu zer dan? animalia bat, sama zuri bat. "Veneno" benenue ei deko. Eta harek txiliñek ipintten jakiezan udebarri guztidxetan ardidxeri partuetan-ta egoten zienien, harek uxatzeko. Abarka zaharrak erre ta eitten zien surten usiñegaz eskapeu dizien-ta. Ta lehenau asko ikusten zien ogigaztaiek, oin ez da hainbeste ikusten, oin oso gitxi ikusten da hori, hori bitxuori. Horrexen ikari izeten zan lehenauko, oingo mamitidxe dana, horidxe izetan zan dana, ogigaztaie. Eta horren ogigaztaien kontrako hori ardidxek batzeko.

2. Aisia

2.1. Gari asko ereiten zen, eta txoriak ere ugari

- **Hizlaria(k):** Intxausti Alzaa, Fede
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AMO-001/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Orain etxeak egin dituzten lekuan, dena landak ziren. Gari asko ereiten zen, eta burgoiak (txolarreak) ere ugari. Txirtak ere ugari.

Transkripzioa

Ze gehixau izate zan hamen soloatan eta zuen...?

-Hau dana soloa, hor behien, hor be bai, oin etziek ein dabiezan lekuen soloak ta landak.

-Landak, eta garixa asko-edo?

-Gari bai, dana, baserri guztietan eta etze guztietan garixe eraitte zan.

-Eta txori asko, garittan?

-Orduen burgoie egote zan bandak eta bandak eote zien, eta landak beterik txirtez, oin ez da ikusten gehien bat, oingo gazterixek ez daki zer dan ez txirtia, ez burgoia...

-Kirtia?

-Txirtia?

-Txirtia? Ta zer zan txirtia?

-Txirtia zan burgoian antzekoa baiña klaruau, klarutxuau, beran tamaiñukoa.

-Buztana luzetxua?

-Bai luzetxuau ta pikue zorrotzaua.

2.2. San Juanetako abestia

- **Hizlaria(k):** Loroño Beaskoetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-003/046
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:23:11. **Bukatu:** 01:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juanetako kanta abesten du. Galtzu-eskutarekin egiten zuten argia. San Juanetako sua kamino hegalean egiten zuten.

Transkripzioa

- Umetan iñoz entzun zendun han zuen parajien sorginkeri konturik edo holako ipuiñik-edo?
- San Juanak eitten joaten gintzenien zera sorgiñek badauzen erre, kantie bai, baia ostien sorgiñek...
- Eta zelan zan kantiori?
- "San Juan, San Juan bidxamonez
gure soloan lapurrik ez,
sorgiñik bez,
eta badau bere
erre beittez"
- Hoidxe kantetan giñun galtzu-ezkutiaz, bakizu galtzu ezkutie. Bueltie emon, ta bota ire apurtxu bet, gero ur bedeinketue bertara eta "ya está".
- Eta San Juanetan zer eitten zenduen, sue eta zer gehidxau eitten zenduen?
- Sue San Juanetan bai, kamiño hegaliñ ademas ein be eitten giñun. Kontuek atara! Geur eizu! Bai, hantxe kamiño hegaliñ. Eroaten genduzen sasidxe eta nahi dogune.
- Eta jantzan gero.
- Orduko bizimodue oin baiño alegriaue izen zan, zatizaz, ni neuretzat e!

2.3. San Antonioko erromeria

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goikoetxea, Beñat
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Kanean ez zen aldaketa politikorik nabari errepublika garaian. Orduan, etxeetan irrati gutxi zeuden. Domeketan San Antonioko erromeriara joaten ziren dantzara. Mutilek pezeta bana ordaintzen zuten soinu-jolearentzako.

Transkripzioa

- Ta holan kalien, ikusten zan Durengon eta Zorrontzan-ta mitiñek eta holako kontuek?
- Ez, guk ez giñun holakorik ikusten, ez. Horrek ba, lokaletan eingo zittuezan edo barruen-edo, ez giñuzen ikusten ta orduen telebisiñorik be ez egoen ta radixorik be gitxi. Radixo baten batek baeben, eukitzen eben, baia hemen inguruen radixorik dekena, orduen radixoa dekena handixe zan, ta ez eben...
- Ta nora joaten ziñien zuek radixoe entzuten?
- Ba, inora bez. Ba, inora bez ez giñen jueten radixoa entzuten. Ba, domeketan San Antoniñora erromerixera, hantxe jantzaldi batzuk ein ta ba, soiñue joteren eban batek eta pozik.
- Zeinek joteren eban?
- Bai, hil zen Txarterina batek, bai. Zelan eukan izena Txarterinak?
- Emazteak: Prizio
- Prizio anaixiek Mariano, Mariano Txarterina. Ha zan soiñularixe hemen Eubekue ta hak joteren eban soiñue domeketan ta pezeta bat edo kendu ta arratsaldien ta hala! Libre gero jantzan eittie.
- Pezeta bat kendu noreri? Pezeta bat noreri kendu?
- Mutilleri, neskak debalde.
- Zer dala ta?
- Pribilejixue.

2.4. Txikiteoko ohiturak

- **Hizlaria(k):** Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-105/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:39:59. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena:** Zornotzako txikiteroak zer tabernatan ibiltzen ziren aipatzen du. Gehienbat ardoa edaten dute txikiteroek: lehen ardo zuria, baina gerora pixkanaka ardo beltza. Txikiteoko edalontziak nolakoak izan diren azaltzen du.

Transkripzioa

- Taberna asko egongo zan Zornotzan.
- Lar, lar, joe...
- Ze izeten zan txikiteruen rekorridue?
- Txikiteruek han "Cojo"n aldetik, "Las hermanas, Kaiku". Ez zan egon oingo moduen, izen zan herrixe bueltie emoten dogu jentie, danok. Eta jentie ba leku guztidxetara sartuten giñen. Ez zan izeten oingo moduen "la calle tal", ez zan izen holan, izen zan ba herri guztidxen... Ademas danak egon giñen hirurehun metro "circunvalación" eta "circunferencia" hor egon giñen danak, danak.
- Eta jentie ze edaten eban gehidxen?
- Ardaa.
- Baltza?
- Lelengotan zuridxe, eguerdietan zuridxe. Oin edaten dogu baltza, baia lelengotan zuridxe edaten giñun. Bai, bai, zuridxe, baia danok. Ta apurke-

apurke hasi giñen itziten ta gero oin danak baltza, batzun batzuk edaten deu txakoliñen bat edo, baia baltza.

- Ta txikito basoatan?
- Bai.
- Zelakoak izeten zien?
- Bueno, oin basue be eukin giñun, horrek lodidxe, horrek lodidxe txikiteo, baia horrek kendu ein zien gitxi, horrek gitxi. Gero normalak, baso normalak.
- Txikitxuek-edo?
- Txikitxuek ez, basue. Baia botaten die ba tangadak, osea txikito bat hartun pitxerra eta "txaka-txaka-txaka" edo botillie-ta. Ez egoten zan Zornotzan ambiente politte, osea jentie domeketan etorten zan jentie badakizu Arratie aldetik eta hortik etorten zan jentie ta bueno, "buen ambientillo" egoten zan han, ondo, ondo, ondo-edo.

2.5. Kuadrilla handiak

- **Hizlaria(k)**: Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-105/026
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:42:09. **Bukatu**: 00:42:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena**: Kuadrillan 46 izan dira beraiek; txikiteoan 20 elkartzen ziren normalean.

Transkripzioa

- Eta kodrillan eta beti koadrilla bardiñek edo bakoitzien bategaz?
- Ez, ez,ez. Koadrillie gu izen gara berrogeta sei koadrillen.
- Emaztea: Tabernatan basurik bez ya.
- Berrogeta sei koadrillen?
- Koadrillen baten bai. Hori izen zan "el tope". Baia juntetako hogei txikiteoan, hogei, hori normala.
- Emaztea: Tabernatan basurik be ez zan egoten honek sartzen zienien.
- Hoge, badiñotsut, ze izen zan.
- Emaztea: Ta oniño batzuk segiten dabe, ez pentseu
- Bai, baia ez da lehengoko moduen.
- Emaztea: Batzuk gaixotu, beste batzuk hil, eta beste batzuk... zu!
- Oin ikusten bozun koadrille bat sei, sei-zortzi ya da koadrillie ya.

2.6. Zornotzan ostatu hartzeko

- **Hizlaria(k)**: Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-105/028
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:43:58. **Bukatu**: 00:44:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** Taberna batzuetan ostatu-zerbitzua ematen zuten; horretarako, nola moldatzen ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Taberna askotan igual pentsiñoak eta be egongo zien kanpotarrantzat eta obreruentzat-eta.

- Bueno, bai, bai egoten zien. Leon eukitten euen gelak, [...] emoten zeuen janarie eta eukin zeuen gela batzuk ba ospedaje edo hori ta "Cojo"nien be bardin, baia ez zan egon, lar ez zan egon Zornotzan, gehidxena, gehidxena izen zan habitaziñoak. Bueno, habitaziñoak topeten ziren kanpotik ya euki batzuk, "Oye, ezetuten dozu?". Bai, baia ez euren negozihoa. Eurek janarie emon eta gero lo eitten beste leku batera, beste leku batera. Baia bueno. Zornotzan beti egon da lekuek jateko-ta: "Cojo"nien, Leonenien... egon diez lekuek.

2.7. Txikiteoa ordaintzeko moduak

- **Hizlaria(k):** Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-105/035
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena:** Txikiteorako dirua lortzen zuten handik eta hemendik. Edariak nola ordaintzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Hor txikiteorako dirue eta nundik ataten zenduen?

- Ostu. Keba, danok pagie euki geñun. Batzuk biherrien beste batzuk estudixetan, baia danok paga handixe edo txikiñe danok pagie. Ta euki zeuenak dirue asko, ipintzen zan diru asko ta eukitzen zeuenak diru gitxi ba diru gitxi, izen zan "una comunidad bien avenida".

- Ze eitten zenduen botie jarri edo rondaka?

- Rondaka edo rondaka, bai bueno ba beti, "koño, hau ez deko dirurik", ta danok page ta beste bat, lagundu.

- Alkarrerri lagundu.

- Bai, bai. Horretan beti izen gara danok ademas herrikoak eta danok lagunek eta danok.

2.8. San Juan jaiak

- **Hizlaria(k):** Barrena Larruzea, Txaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-113/016
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Antzinako San Juanak zelakoak ziren azaltzen du. Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen.

Transkripzioa

-Lehengo Sanjuanak zelakoak izeten ziren?
 -Bueno... Harek izeten zien Sanjuanak! Jente guztixe tanboliñe hasi orduko jantzan, ta pozik, soiñue jo ta jentie pozik, dana zantzoa ta dana barrie ta dana olgetie iziten zan, oin...
 -Zantzoa esan dozu?
 -Zantzoa. Ja, ja, ja, ezta? Zantzoa, irrintzia! Zantzoa esaten geuntsen guk, irrintzia. [Horra probatuten] zan irrintzi eitten euena, bueno! eta zelan? Ta pozik jentia! Ta jentia etxien, e, hainbeste jente ta hainbeste jente etorten zan, geubien, etxien, bertan geldittuten zien ta jentie sabaixen ta danetan lo, lo. Ta pozik! Pozik!
 -Ta ze egoten zan? Mezie?
 -Bai, bai ta erromerixe gero, bai.
 -Erromerixe ta...
 -Bai, bai. Gero jentie, ba ,etorten zan Muxiketik eta...
 -Ta holan, aparteko gauzak edo bertsolarixek edo probak edo...?
 -Ez, hemen probarik ez dot ezetu nik, ez, ez. Ez, hemen ez dot ezetu inoiz.
 -Bertsolarixek eta holan ta...?
 -Ez, ez, hemen ez dot ezetu holangorik nik, baiña behintzet soiñue ta tanboliñe ta... zera.
 -Bizperie politte izengo zan.
 -Bai, San Juan bizperia. Oin be eitten da San Juan bizperia. Hor, e, sue ein ta gero, barrixoko danak junteu eta bakotxak erueten deu gauze bat, batzuk tortilla, beste batzuk pernille edo beste batzuk ogixe ta holan, ta gero txufie ein, ta hor, bai. Oin be eitten da.
 -Hemen egoten zan kantetako ohitturie San Juanetan? Kantaren bat edo San Juanetako kantie edo?
 -Ez.

2.9. Baso-erromeriak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Atutxa , Jose Antonio; Bikandi Olano, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-117/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** San Antonio auzoan erromeria handia ospatzen zen. Bolatokia zegoen eta hantxe batzen ziren denak, ez baitzuten bolatokian jolasten. Bernagoitin maiatzaren 8a eta 15a ospatzen ziren, San Isidro eta San Migel. Auzoetako ospakizunei baso-erromeriak esaten zaie. Egun haiek zelakoak ziren azaltzen dute.

Transkripzioa

Elkarrizketatzailea: Zer esan dozu, San Antonion bolatokixe?
 Jose Antonio: Bolato... eitten zan erromerixe, beti eitten zan e? urte

askuen. Nik halantxi ezetu neuen, gu gaztiek eta... gero gure denporan akabeu in zen e? gu ezkondu baiño ariñau hori erromerixe akabeu in zen, baia... gure gazte denpora guztixen ta eurreraukuek be bai e? umetan, guk be... jentie... ni umie nintzenien be jueten zien nire [...] San Antoniora erromerixera.

Mari Angeles: Hori egon zan, bolatokixe, ba... Teresa ta Elio...

Jose Antonio: Haixen parien, kamiñoan besteti.

Mari Angeles: Bestetik, bertan. Hantxe eitten zan erromerixe.

Jose Antonio: Taberna bat eguen han ta haixen tabernien atzien.

Elkarrizketatzailea: Ta zer, bolatokixen andra zein gizon edo...

Maria Angeles: Bai, bai, haixe... erromerixe hantxe eitten zan. Bolorik eta ez zan jokutzen.

Jose Antonio: Erromerixe, bai, bai.

Maria Angeles: Ez, ya itxitte egon zan.

Jose Antonio: Itxitte bai baia gero goixien igual egongo zan bolan baia hori arrastixen... domeka arrastixetan beti eitten zan hantxe bai.

Elkarrizketatzailea: Eta ze beste jai egoten zan hemen? Bernagoittin edo?

Jose Antonio: Bernagottin haixe, maietzien zortzixe ta hamabosta eitten zien hemen. San Migel ta hori, San Isidro eitten zien.

Maria Angeles: Orduen jente asko egoten zan baso erromerixen e?

Jose Antonio: Jente asko, orduen... geur iñor be ez da egoten e? iguel justu-justuen geu egoten gara barrixokuek baia... orduen jente asko.

Elkarrizketatzailea: Baso erromerixe?

Jose Antonio: Bai, baso erromerixek, bai.

Maria Angeles: Baso erremerixek esaten zan.

Jose Antonio: Bai. Orduen jente asko.

Maria Angeles: Hontako... barrixoatan [...] baso erromerixe. Santi Krutz, hor Elias ta bixi diezan lekuen ta...baso erromerixek horrek.

Jose Antonio: Bai ba, Arkotxekoa San Bizente.

Maria Angeles: San Bixente.

Jose Antonio: San Bizente agostuen eitten zan lelengo domekie ta...

Maria Angeles: Danak izeten zien orduen...Ta jente asko ebiltten zan e?

Elkarrizketatzailea: Ta ze egoten zan?

Jose Antonio: Ba goixien mezie gero... herriko aiuntamientuek botaten euen txistularixe ta arrastixen soiñularixe egoten zan. Txistularixe egoten zan ta soiñue... geubera arte. Orduen illunkeran amaitzen zan jaixe, orduen danak, orduen danak etxera.

Maria Angeles: Orduen nobixie dekona ba nobixiez ta ostantzien etxera. Tabernara edo...

Jose Antonio: Bai, bai.

Elkarrizketatzailea: Hemen zenbat taberna egon zien?

2.10. 'San Juan portaletaña' abestia

- **Hizlaria(k)**: Lauzirika Igartua , Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-119/029
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:39:10. **Bukatu**: 00:40:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » San Juan
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak

- **Laburpena:** San Juanetan galtzua hartu eta solorik solo bere amak abesten duen abestia abesten du. 'San Juan portaletaña'

Transkripzioa

- San Juanetan be kantetan zan?
 - Bai, 'San Juan de la Portaletaña'. Gure amak bueno... Hartun holango lehen garidxez zertzen zienien, galtzue ganaueri emoteko, gero txorta bat hartu sabaidxen, alkatien etxien, eta hareri sue emonda [...] zan solorik solo eta kanpaiek jotzen elizan ta. "Han gure Julia hasi de kantetan San Juanak kantetan".

San Juan de la portaleñata
 zapatu arratsaldian,
 San Juan de Portaletaña
 zapatu arratsaldian,
 hamalau atso tronpeta jotzen
 motroillo baten gañian.
 Urra, urra, urra, San Juanetan
 eperrak dagoz hor ifar haizetan
 Guuuu, guuu, guuuuu
 San Juanetara goaz gu.
 Guuuu, guuu, guuuuu
 San Juanetik gatoz gu.

2.11. 'San Juan bagillian'

- **Hizlaria(k):** Lauzirika Igartua , Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-119/031
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:40:34. **Bukatu:** 00:41:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** Bere ama San Juanetan solorik solo joaten zen galtzu-eskuta eskuetan zuela.

Transkripzioa

- Gure amak holantxik. Eta kantetan joaten zan solorik solo hareri ezkutueri sue emon-ta.

San Juan bagillian,
 zapoak eta sugiek ondo erre,
 artoak eta garidxez ondo gorde,
 San Juan, San Juan!

Han ibiltzen zan solotik, solo guztidxetatik bueltan gure ama.

- Bai, hori San Juan bagillian...
 - San Juan bagillian, bai.
 - Hori beste kanta bat da.
 - Bai, San Juan bagillian be hori holan da.
 San Juan, San Juan bagillian,
 zapoak eta sugiek ondo erre,

artoak eta garidxe ondo gorde,
San Juan, San Juan!
- Jain handidxe eitten zan?
- Han ermitte bat dau. Atzetik jeusten dau, baia oin atzera arreglau [...].

2.12. Lehengo egunkariak

- **Hizlaria(k)**: Amuriza Sarrionandia, Xabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: AMO-168/014
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:28:16. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Irakurtzea
Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- **Laburpena**: Orduko egunkariak La Gaceta del Norte, El Correo Español del Pueblo Vasco eta El Hierro ziren. Aitari asko gustatzen zitzaion egunkariak irakurtzea.

Transkripzioa

Orduen egoten zien, ba, “La Gaceta del Norte”, holako haundi bat. Orduen [orrialdie be] ta oin “Correo español”; “El correo español-El pueblo vasco” edo zelan zan? Oin “El Correo” da, baiña “El correo español-El pueblo vasco” zan orduen. Ta “La Gaceta del Norte” ta “Hiero” egozan. Ta “Hiero” zapatutan, baia, astelehenetan, baia hona ez zan aillegau. Horrexek bixek zien. Ta “La Gaceta”n orrialdie ta formatoa zan oso handixe, itzelezko orrialdiek zien. Ta harek holako papel guztixek, ba, bokadilloak eitteko-ta, ba, ekarten zittun, ta erosi gitxiau, baia. Ta gero etxien leiduten zittun. Hari ez eutson ardure egunekoa ixen, zein oin astebetekoa ixen; ba, leiduten zittun.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Tren-istripuaren ondorioak

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-002/004
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:04:17. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Menoyo , Ainara
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Duela 18 urte tren istripua bizi izan zuen, eta bere ondoan eserita zihoan gizon bat istripu horren ondorioz hil zen. Hildako gehiago ere izan ziren. Pepa berna bat galtzeko arriskuan egon zen. Beste osasun-arazorik ez du izan inoiz .

Transkripzioa

-Horregaittik dekot hankie hankak pixka bat, ze makal edo, beti. Baia ostantzien geixorik eta ez dot euki geixorik

-Noz izan zan hori azidentie ? Hori azidentiori noiz izen zan?

-Hori izen zan ointze izengo direz hamazortzi urte maietzen, maietzen hogeixen, datorren maietzen hogeixen, bai zu ez zara akordeuko ez ezebez umia izango zen.

-Zortzi urte nik

-Bai, horregaittik, baia gizona gogorra hil zen, Juan, nire ondoan egon zana, hil ein zen, bai, ta baitte Gernikeko pika-pika ibiltzen zana, ha be, ha be hil ein zen, ha joan zan ze gero eroan aurien zerera, Kruzesetara, ta Kruzesetara heldute nahiko arin hil zen, ta baia Juan ez Juan egun batzuk bizi izen zan, baia ha egon zan zerien, Galdakaoko ospitteli. Ta bueno, ba harek bixek. Ta gero ni nengoan txarto , txarto nengoala zerien periodikuen ta danetan, baia nire izena Josefa Bikandi da, ezta? ta imiñi eustien Joseba, ta orduen Joseba, danak pentsetan eurien gizonezkoa dala ta ez, neu izan nitzen. Ta bueno, jentie ondo porteu zen oso ondo, eta egoan mutil bet gure auzokoa gure baserriko auzokoa ta zan letxerue. Ta harek ez zeuen joan gure ta mediku bet egon zan, bertan egoana trenien ta harek esan auen: “No, las personas que no son de que no están heridas, que no se quedan, que vayan.” Baia mutilek esan auen: “Ni ez, ni hau altxetan ez dozuen artien, ni ez noa hemendik”. Ta neugaz geldittu zen han. Ta neuk zer ein neuen? Tenteu gorputz guztixe, burutik hasitte. “Bueno, ba burue ondo dekot”, ta gero gorputz guztixe be bai. Ta gero aillegeu nintzen hankara, ta hankan ein neuen: hauxe dau apurtute. Baia hankie apurtute dauela, ez notsen inportantzixerik emon ze pentse neuen: bueno, konponduko da. Baia leku askotan apurtute egoan. Ta bueno, arriskue egoan ba hankie ebaiko ete deurien edo holango kontue, baia salbau nintzen horregandik. Ta konpondu ostien ta bueno, pixkat kojo apurtxu bet ontxe agertu da hemen fisiaterapeutagaz ejerzizioak einkeran, ba hau hankie dekodala apurtxu bet laburrau bestie baiño, ta horregaittik eitten dot pixka bat alde batera. Ta neu pentse naben neure txokeria dala hori, baia itxurie horrela da. Bai, ta bueno, holangoxe geuzek be pasetan dies. Ta ostantzien osasune dekot, badiñotsut. urte guztietan eitten dot ni pixkat ikusi aber zelan dauen odola ta horrek, analitika bat, ezta? Ta beti dekot, beti esaten deu medikuek: “ba ez dekozu mariposatxu bet be ez dekozu analitikan”.

3.2. Eskolatik etxerako lanik ez

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-002/010
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:20:08. **Bukatu:** 00:22:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Egidazu, Beñat
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolara beldurrez joaten zen, zigorra noiz etorriko zenaren zain. Zigorak berehalako zartadak izaten ziren, ez eskola ordutik kanpoko egin beharrak. Peparen lagunak maistra txarra zela

zioten, baina berak uste du oso pertsona urduria zela. Eskolan etxerako lanik ez zieten ematen.

Transkripzioa

-Eskolara orduen gustura joaten ziñen...

-Ez, ez, beti billurraz noz tokeko ete jatan /jan/ niri zaputzekoa. Ta... eskillararak ixonkeran betti aitttearen eitten, halanda ze, pozik ez, pozik ba... tripetako miñek bazenkoz orduntxe ai... tripetako miñek dekie esan amumari, ta igual ez dekozan gauza handirik baia...bueno ba etxien geldittu, ba orduen pozik, bai.

-Eta zigorrik-eta jartzen otsuzan?

-Bai ba zigorrrak , horrexek, baina gero zigorra zan momentukoa gero ez egoan. Edo han etxien, han geldittu kastigeute bertan, ez, holangorik ez. Haixe emoten otsun berak. Nik uste dot nerbiyosie zala, oso nerbiyosie, ta orduen horregaittik izengo dala ta... baie beste batzutan kontetan /kontan/ dodanien hau neure lagunen artien ta holan esaten dabe "baina ez eizu esan e... zera e... nerbiyosie zala. Zan okerra, zan bixorra, zan..." Bestiek hau esaten dostie, neuk ez dot e... benetan diñot nerbiyosie pentsetan / pentsan/ neuela zala, bai.

-Ta libururik-eta euki zenduen eskolan?

-Bai, baia etxerako ezebez debererik, bertan, ikesi biher zana zan bertan, baia alborantza begittu bez e?, ikesi ein biher zan. Ta orduen eon zan ba, eztait, gobiernuek edo eztait, Bilboko aiuntamientuek edo imiñi zittuzen holan eskoletako ba onenak zirenak ta handitxuenak, hor hamar-hamabi urtekoak edo holan ba... examiña bat pasetan Bilbora. Ta eroan genduzen beste bat eta bestie hil zen, gazterik hil zen ademas, eta neu. Ta bueno ba... ein geñun papela nahiko ona itxureagaittik, ze... ba danori, bixori emon oskuen zeren bat hor, premixuren bat edo eztait zer zan, papelen bat, behintzet.

3.3. Kalean medikua bera zen emagina

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-002/013
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:27:12. **Bukatu**: 00:29:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Zornotzan bertako medikua zuten, 'Txorixe' ezizenez ezagutzen zena. Abertzalea omen zen, eta gerraostean ez zen Zornotzara itzuli. Baserrietarako andrezko emagina zegoen, baina kalean medikuek berak egiten zituen emaginaren lanak. Pepa gerraostean Durangoko karmeldarren ikastetxera joan zen.

Transkripzioa

- Eta esan dozu medikunera eta, zure ama mediku zalie zala ta. Nor zan han sasoi medikue?

- Ba zan 'Txorixe' esaten otsiena, Don Don... Derteano eukan apellidue. Don... ixena ez naz gogoretan oin. Bai, Derteano zan.

- Nungoa zan?

- Ta zan ona, e.

- Nungoa zan?

- Ba Zornotzakoa bertokoa, bai.

- Baina Etxanora ez zinen juaten medikure, Zornotzara?

- Zornotzakoa bertakoa zan, bai. Hori lelengo medikue, gure lelengo medikue. Gero gerra ostien, gero gerra ostien hori zan oso Bizkaitarra ta ez zan etorri, ze gerra denporan, bueno, joan zan ta gu be joan gintzezan ebakuaziñoan. Baia, zera... medikue ez zan etorri, ze pixkat konprometidute egoan bera politikan. Zornotzako... holan agintariak-edo ziren eurek, Derteano familia.

- Ya, ya. Bai, entzunde euki dot hori.

- Entzunde dekozu, ezta? Bai. Don Serafin Derteano zan, Serafin euen izena.

- Bai, bai. Eta hori esan dozuna...

- Hori gure amak parto guztixek be beragaz eukin zittuzen.

- A, bai? Orduen, partero biharrak be eitten ebazan?

- Bai. A, medikuek orduen eitten eurien, bai, parterue. Bueno, baserrixetan-ta holan egoan andrazko bat parterie, baia ez, gure amak ez euen gure parteriaz ta holan, beti medikuaaz izen zittuzen bere umiok.

- Ta Kaittanako eskolie amaittu zendunien, nora jua ziñen?

- Eskolie amaittu genduenien, ba, Durangora, kolegixora, Karmelittekana.

- Ta hori noz izen zan, Karmelittetara jua zinela?

- Ba hori izengo zan... hamalau urte neukezana, aber gerra ostien hamalau urte, ba hamabost urte neukezala edo holan joan nintzen, bai.

- Gerra ostien jua ziñen ya orduen?

- Bai, gerra ostien, klaro. Ze gerra denporan...

3.4. Ezizen asko Zornotzan

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-002/030
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:12:10. **Bukatu:** 01:14:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Artaraz, June
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Pepenekuak eta Kiltzenekuak gogoan ditu auzoan, baina bere etxekoek ez zuten ezizenik izan. Zornotzan ere ezizen asko egon omen ziren, Txilibitoenak esate baterako. Durangon ikasten egon zenean eguneroko joan-etorria trenez egiten zuen.

Transkripzioa

-Zuen familixen edo etxiek edo euki eban ezizenik edo holan?

-E?

-Ezizena, motie edo?

-Etxiek?

-Bai

-Ez gure etxie "Kalekuena"

-Ta familixek be ez dozue eukin iñoz ezizenik edo?

-Ez, ez, ez dogu /du/ euki, asko egozan orduen, baia ez gurien ez da egon.

Bai, "Pepenekoak" egozan beste batzuk beste bat eitten, etxe bat, ba ha be bota eurien, kamiño eskiñen egoan geurien denporakoa, ta etxe ederra ta bota eurien ze kamiñoak hartu euen ta bueno ba, zubixe paseu ta gero. Ta harek ba "Pepenekoak" esaten utsien ze Pepe euen baten batek izena, ta haregaittik "Pepenekoak". Ta ba baia "Kintzenekoak" beste batzuk "Kintze" baserrixe be "Kintzena" esaten otsien, ta guria "Aldekuena" baten baten... hori "-ena" pentsetan dot /pentseteot/ "es posesivo de algo no"? -Bai, norena... klaro eske lehen normala izeten zan baserri munduen behintzet motiek, ezizenak eukittie ere familixen ezizenak eta... -Bai... bai. Ezizenak ba bai, Zorrontzan be asko egozan, "Txilibittuenak" ta... -Bai, bai. Eta hori, Durangora etor ziñenien ikesten, Karmelittetara ze egon ziñen, interna? -Ez, joaten nintzen trenien goizien ta gero etorten nintzen geubien. -A bai? -Bai, ta batez ere, interna... amak gure euen Berrizera, baia aittek ez euen gure internarik. -Etxien gure eban. -Bai, ez euen gure, berak ez euen, ez euen gure bere umerik jun daitten iñun zarratute.

3.5. Merkataritza-peritu azterketa Bilbon

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: AMO-002/031
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:14:03. **Bukatu**: 01:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alonso, Aitor
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena**: Lau urtez egon zen Durangoko karmeldarretan merkataritza-peritu ikasketak egiten. Azterketa Bilboko "Escuela de Comercio"n egin zuen. Oraindik ere oso interesatuta dago ekonomia gaietan.

Transkripzioa

-Durangokoak akordu onak dekozuz, ezta?
-Eh?
- Durangokoa akordu ona dekozu, ezta?
-Bai, bai, bueno oso ona, ta bueno hango jentie ezetzen dot /ezetzeot/ nik orduko denporakoak ba batzuk neure edadekoak direz baia beste batzuk pixkat gaztiauak bebai baia horrek nire edadekoak ia badoaz e?
- Ta zenbat denpora egon ziñen han hori "perito mercantil" ikesten?
- Ba hori zan.. bost urte ziren. Halanda ze ba, pentsetan dot /pentseteot/ lau urtean edo ein neuela neuk, lelengo urtik ein nittuzen ariñau ta gero, libretik zan lez examiñeu ein biher gendun Bilbon, "Escuela de Comercio" euen izena oin zerekoa da, oin "Escuela de Economicas" edo.
- Gaur eguneko karrera baten lez ein zendun orduen?
- Bai, bai, bai gauza asko dauz oin esaten ostsiedazanak /esateotsiezanak/ nik eta dinot: "pues ese libro de economia trae" Ta bueno neu naz asko gustetan dat ekonomia, asko gustetan dat geiau be, oin be periodikuen lelenengo-lenenengo beittuten dana zelan dauen ekonomia ta bueno

emoten dot berrintxe bat batzuetan eitten dot bueno,
-Oin momentue ez da hori beittuteko...
-Ba beittu zelan gauzen oin, ta bueno zelan ein littikezen lelokerixek.

3.6. Ogi koskorra txakur amorratuarentzat

- **Hizlaria(k):** Loroño Beaskoetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-003/050
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:26:56. **Bukatu:** 01:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** Gabonetan ogiaren koskor bat ebaki eta hurrengo Gabonak arte gordetzeko ohitura zegoen. Hurrengo urtean ogi hori txakurrari-edo ematen zitzaion amorra ez zedin.

Transkripzioa

- Eta lehen ze ohitura eitten zan ogidxegaz Gabonetan? Ogi-koskorragaz-edo ze eitten zan lehen Gabonetan? Ez zenduen eitten punta bat ebai eta gorde?

- Bai. Hori eitten zan Gabonetan.

- Zelan izeten zan hori esplikio dozu, mesedez?

- Ez daitz zer euki zeuen, [...] jakon zera, ardau apur bet botaten jakon eta hurrungo urtera arte gorde.

- Zetako?

- Nik ez daitz ze objetugaittik hori ein zen.

- Gero noreri emoten jakon hori ogidxe?

- Ai bai, txakur amorrotuerie eta egixe, bai.

3.7. Hiletak: gaubela, gorpua Zornotzaraino lepoan

- **Hizlaria(k):** Esturo, Isidora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Erref:** AMO-005/001
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Norbait hiltzen zenean, gau osoan arrosarioa errezatzen gau bela egiten zen. Hildakoaren gorputza bizkarrean hartuta eramaten zuten Zornotzaraino, zazpi kilometrotara. Panteoia familia aberatsek baino ez zituztela dio, gainerakoak lurperatu egiten zituzten. Goizeko 06:40eko mezara joaten ziren, eta bederatzi meza entzuten zituzten.

Transkripzioa

Bat illtten sanien, gabien e, gau gustijjen egotesan errosarijjuen, gau gustijjen, ba familiarrak goixeraño, egune sabalduarte, da ostentxekuek

gaberdirate, da gero, ba, lepos, artu lepuen atautie, da deskantzeu, deskantzetan sien e..., <<Gane>>n an maitxuen, an maitxu bat atarata egotesan, da antxe ixteabien, da gero pixkaten egon, da, eruteabien, abadie eurreti da andra bat lelengo, buruen otzarie, otzara bat, da an kandelak, kandelak, da ogijjek pe pentzatan dot, da ogijjek, ogi txikijjek, amabi, amabi ogi txiki, a buruen trapu suri bat ganetik dabela, da gero an artu ta ba, Zorrontzaraño, ba saspi kilometro, oiñes, saspi kilometro, Da gero iguel eurreti doiena, enbrie bada, enbrie ixetesan danien, kantxeu eitten san, egoteu, da beste batek errelebeu eittotzen areri. Pantoiek eta olakuek, aberatzak bakarrik eukitte abiesan, ba persona korrientiek danak lurrien.

Mesak, jueten giñen saspirek ogei gitxiauetako trenera «Eube»ra. Da saspirek ogei gitxiauetan jueten giñen e... sartu ta Zorrontzara, da beratzki mesa entzun bier ixeten sien, da beratzki mesa entzuten sien e..., lelengo ba, mesa bi egun baten iguel emoteabiesan, da urranguen e... lau, da olantxik mesok, da or bidietan juen da etorri, juen da etorri eberdi artie emoten giñun, da mesiori ..., askenengo mesak entzun orduko, senbat entzun dunbe astu eitten jjakun da setan gausen bebai, erdijjek e ..., negue bada barris otzak tragetan, otza itzela, da ba olantxik...

3.8. Hiletak: lutoa, sepultura, hildakoen abitua

- **Hizlaria(k)**: Esturo, Isidora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Esturo, Idoia
- **Erref**: AMO-005/002
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:02:17. **Bukatu**: 00:03:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena**: Lutoa eramatea derrigorrezkoa ze, 24 ordutan tindategian preparatzen zuten. Elizan sepultura preparatzen zuten, kandelak urte betean isiotu behar izaten ziren meza egoten zen bakoitzean eta dirua ere bota behar izaten zen. Hildako andre askok San Ritaren abitua jantzi nahi izaten zuten, beste batzuk, ostera, karmeldarrena. Gizonezkoei frantziskotarrena edo karmeldarrena janzten zitzaien.

Transkripzioa

Ba lutue e... orduen e..., oetaiau orduen lutue dana prepartabien e..., tintorerijjan. Tintorerijjara eruen da oetalau orduen, egun batetik besterako, dana, lutue prepartabien, dana, tintorerijjan.

Eruteabiesan kandelueruek eta kandelak eta ipintteabien elixan be sepulture, da an ipini kandeluerue ta kandelak, da urtebetien ara segidu, urte betien, bittarteko jaixe danien ba, ba juen, da kandelok ixetu te, ba mesie dauen gustijjen, da ara dirue bota. Urte ete pasetan sanien, ba ya gitxiau, urte bete pasetan sanien, ba gitxiau ya jueten sien. Ya astegunien ez, dajaijgunien bai.

Illtten sana, ba andrak, batzuk ba «Santarrita»n e... sera, gurixetabien, abittue, en jeneral, en jeneral e... oixe Santarritan abittue, da beste batzuk Karmelittana be bai, da gixoneskueri be aixe, ioñ trajie jastejjakie enjeneral baia, es, lenau axe, frantziskanuena gixoneskueri, da Fransiskanuena da Karmelittana.

3.9. Hiletak: buldak eta hiletaren osteko hiru domekak

- **Hizlaria(k):** Esturo, Isidora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Erref:** AMO-005/003
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Buldak paper batzuk ziren. Paper horiek ordaindu egiten ziren eta hildakoaren kaxan sartzen ziren induljentzia lortu zezan. Hiletaren osteko hiru domeketan ogiak eraman behar izaten ziren elizara. Auzokoentzako bazkaria ematea ere ohikoa zen.

Transkripzioa

«Buldak» esaten jgakienak, papel batzuk, pageu, da ekarri. A ipini kajan sartute, ba nik estaitt selan esan. Bulak artu eitten sien, danok artzen giñusen, da estaitt, beiñ amar urtetik gorakuek, da illikueri be ba, induljentzija andijje dekela ta illekuentzat iltten sanien ara juen da ekarri aparte, da ipini arek, eíttengiriun, olantxe. Gero urrengo domekie eitten san, da urrengo domekan, eruten sien ba, ogi txikijjek sei, ogi txikijjek sei. Arek ogi txikijjek artzen sittuen e... abadien krijjeriek da etxera erutabesan arek ogijjek, da barrido gero urrengo domekie. Iru urrengo domeka otensien iru, iru, olantxek, ba ogijjok e... krijjeriek etxera erutabesan da jentie jueten san, eusoko kuadrillie ba... urrengo domekara, da ba oixe. Beskaijje emoten dan, beskaijje, da ba batzuk e... gitxi ondala, beste batzuk e... ondo ondala, da olantxek, da emoten dabena pageu esinik, da batzuk geitxuau eran, da ba olantxik...

3.10. Eskola; 18 urterekin soldadu

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gonzalez, Lidia
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena:** Euban hasi zen eskolan, baina gero Durangoko maristetara joan zen, "Colegio San José"ra. 18 urterekin soldadutzara deitu zuten. Tirorik bota gabe, baina Espainia ia osoan zehar ibili zen sei urtez.

Transkripzioa

- Zelakoa zan zure umetako hau Euba ingurue edo Eustoa ingurue?
- Beno ba, politte osake hemen eskolara lelengo jun nitzen Eubera, ta gero Durungora juen nitzen, Maristetara, hor, "Colegio San José Hermanos Maristas" eon zan ta haraixe, ta hantxe egin nittun urte batzuk,

estudixetan. Apur bat, leiduten ta eskribitan-ta. Ta holantxik zen gazte denporie, ta hamazortzi urte allegeu jatenien, soldeu juetie tokeu jaten. Ta egon nitzen ixte sei urtien, soldeu. Batien, lehenengo Pamplonara jun gintzezan ta gero handik, Castellonera, frentera, ez jakun tokeu guri, tirorik-eta botatie ta gero akabau zan gerrie, ta gero ba ibili ein gintzezan Valenziatik, Albazete, Kanariasera be bai jun nintzan, Fuerteventurara. Ta gero Bilbon atzera, beste urte bi, da ba holan akabau zen.

- Eta hamazortzi urtegaz jua ziñenien “ya” hemen gerrie bukatuta egon zan?

- Bai, paseuta eon zan bai.

- Ta derrigortute edo boluntario jua ziñen?

- Derrigorrien jua nintzen bai.

- Ta hemengo danok batera jua ziñen zuen kintxakoak-edo?

- Bai, nire kinttakuek danak hil dire, neu bakarrik naz bizirik.

3.11. Kuarteleko lanak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-013/005
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:07:44. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan, sukaldeko lanetan edo garbiketan laguntzen, instrukzioa egiten, eta horrelako jardueretan ematen zuen eguna kuartelean. Kuarteleko zorua nola leuntzen zuten azaltzen du. Jatorduetan, dilistekin (lentejak) batera harri-koskortxo asko etortzen ziren platerera.

Transkripzioa

-Kuartelien ze biher eitten zenduen Garellanon?

-Ba, kuartelien, patatak zuritu lelengo iguel bazkarittek ta kuartela garbittu ta instrukziñue ein ta holakoxe zerak eitten giñuzen. Ta kuartela garbittu beheien lustrie emonda, e! baldosieri. Baldosie egoten zan, ta zerie emon ta brillua atara. Ta badakixu zelan ateraten geuntsen? Ba ohol baten mantie ipiñi, ohol bateri, batu apur bet eta, ta ohol ganien planteu bat ta tiretu ta narras eruenda mantie. Ta brillue urteten eben zerien. Ta, ba, hori sargentuek-eta ikusi barik, e? Ostien hasarre, mantak estropeau eitten diela ta! Baia, ikusi ezkerro, arresteu be igul eitten ebien.

-Emaztea: Ta lentejak? Lentejak...

-Bai, lentejak jaten giñuzen.

-Zelakoak?

-A! Bai, hor Bilbon ondo. Baia zerien, frentien-ta, harrixekaz. Harri koskorak. Aittuten dozue? Platerien honan ein eta “rrrr” bueltan zaratie, ta hondarrera jueten zien ta kontuz-kontuz aparteu ein biher lentejak goittik hartute, ba, harrixek etorri ez deitten. Ta harri asko! Iguel harri [...] asko! harek platerien hondarren agertzen zien.

3.12. Kuartelean goseak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Justo, Olaia
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan gosea pasatu zuen. Hasieran Iruñearen ondo jaten zuten, baina Bartzelona hartu zutenetik gose asko pasatu omen zuten soldaduek.

Transkripzioa

- Ta bai, gosie pasetan giñun. Gero, hor, gu jun gintzezanien ia lelengotaz ondo, ondo jaten giñun Pamplonan, ba patatak okeliaz iguel, okeliaz nahasteute apurtxu bat, ta peskie. Ta eguenetan, holako peskadillie buztena dauen lotute zerien, frijidute orixotan, ba baktzari bat, gero. Ta baia gero, Bartzelona-edo hartu zanian, ia sartu zan gose bat, bueno ba, orduen esate oskuen, "pescado en salsa" esate oskuen ez, iguel, ta "pescado" bai, hazurrek saltsan, ezebez, ta gosie, bueno ba, ta paseu ein biher, gosie paseu ein biher, ta ogi baltza, ta jaten giñun bezkaldu orduko emoten oskuen ogixe ta bezkaitten hasi orduko ogixe janda.

- Ta zer gosetute?

- Bai goziaz, ta han Albaceten euki giñun hor amistadetxo bat matrimoniño bat ta haixek ogi apur bat ta holan zuzentzen oskuen. Ba danari ez, geuri, erropie garbitu ta eitten oskun, ta iguel holako ba paneczillo bat edo lantzien behin emote oskun. Ta jolin, ba pozik.

- Ta ogi baltza esan dozu?

- Bai, ogirik ez zeguen orduen, razionamentuen egon zan-ta.

3.13. Nobio kontuak; bekatuak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:14:39. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Osa, Argi
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Soldadu egon zen garaian ez zuen neska-lagunik. Neskak ikusten zituen, baina urrunetik. Emaztegaiari ez omen zion musurik eman ezkondu ziren arte. Bekatua egiteak baino beldur gehiago emaztegaiaren belarrondokoak ematen ziola dio Eliasek. Pentsatzea ere bekatu omen zen orduan, eta pentsatzen zutena konfesatu behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta soldau egon ziñela ya nobixoak ziñien zuek?

- Ez. Orduen ez, hondiño ezetu barik egon giñien, bai.
 - Ze sei urte soldadu egonda neskari ez zendun eukiko.
 - Ez. Ez neuen eukin nobixarik, akordeu bez. Bueno, neskak ikusten giñuzen baia, neska politteket-eta.
 - Baia ikusi bakarrik.
 - Bai, ikusi bakarrik.
 - Hurreratu bez.
 - Bai, hurreratu bez. Oingo moduen holan mosueket-eta? Orduen ez zan mosurik bez emoten, ez.
 - Nobixieri bez?
 - Ba, nobixieri be ezkondu arte mosurik bez.
 - Mosurik bez?
 - Errespetue.
 - Mosuren bat bai...
 - Ez ez, mosurik bez.
 - Baia ze ba? Zuek pentsetan zenduelako pekatue zala edo gero konfeseu ein biher zalako edo zer dala ta hori?
 - Bai, mosue emoten hasi ezkeru, igul, plastadie.
 - A! Berak?
 - Bai.
 - Orduen, gure zendun zuk?
 - Bai, gure bai.
 - Ta gero, ze ezebez ez bazendun eitten zer konfesetan zendun ba?
 - Bueno ba, konfesetan? zer konfesetan geñun ?
 - Musurik be ez bazendun emoten?
 - Bai, ba holako pekaturik ez gendun konfesetan, ez giñun eitten-ta.
 - Orduen ze pekatu?
 - Bueno ba, horrek sekretuek. Pentsamendueket-eta. Ze pentsetie be pekatue ei zen, orduen, bai, neska bateaz pentsetie be iguel, pekatu.

3.14. Herriko abade eta elizkizunak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-013/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Mugika, Antxon
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Auzokoek karmeldarrena lehenengo, eta pasionistengana geroago joaten ziren. "Padre Eleuterio" sermoilari ona gogoratzen du Eliasek. "Cofradía de la Pasión" kofradia sortu zuen sermoilari horrek. Lehen elizkizun gehiago egiten ziren orain baino.

Transkripzioa

-Elkarrizketatzailea: Eta hemen nor ibiltten zan abade han sasoi?
 -Elias: Ba hor Larran edo eon ziren karmelittek. Hara jueten giñen, ta gero hemen hau... pasionistek planteu ziren, ta hor famoso bat egon zan, Frai Euleterio ba, ta sermoilarixe ona izen zan, ta ha gero zertu zen... kofradia bat formeu eben, "Cofradia de la Pasión"-edo, zelan zan? holakoxe bai. Ta

oin, oin be ni hantxe nau, ta hau be bai. Baia oin ez dau holako zeremonixe, orduen eoten ziren zerak elizan ta eitten giñuzen zeremonixe asko, ta oin zaharrak, gaztiek ez dot pentsetan nik eitten derenik. Ta oin dau beste bat, Jaio, ta Jaio etorten jaku lantzien behin komuniñue ekarten.

-Andreak: Esaizu, konfeseu be ez dauela eitten hak!

-Elias: Konfeseu be ez dau eitten, pregunteu be ez dosku eitten, pekaturik-eta ...ez deko itxurie

-Elkarrizketatzailea: Ya pekatu nahiko eiñikuek izengo zarie-ta...

3.15. Larreako meza kantatuak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/016
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Larreako elizara joaten ziren Zornotzako ikasleek errespontsu hunkigarriak abesten zituzten. Eliasek oso gustuko zuen meza kantatu haietara joatea. Trenez joaten ziren Larreara. Gerra aurretik bazegoen tranbia ere, baina gerraostean ezkutatu egin zen.

Transkripzioa

- Ba lehen Larran estudiantiek, mutil gaztiek e, ba egoten zien koroia eindda uliaz: honan ebai bai barrenetik dana, zeruen, ta gero hemen itxi ta gero goidxen be ebaitte. Koroia eindde zeraaz. Eta hamazortzi-hogei urteko mutillek. Iguel Larrara juen ta etorten zien igual hogeta hamar estudiante edo zerien, mezara iguel, errespontsue kantetan. Baiña kanteu harek errespontzue...! Lastimoso! Noberari be negarra emoteko moduen [...ten] zan, e, peniaz. Bai, danak batera eta zelan kanteu, Larran! Bai, ni gusture jueten nintzen mezie entzuten, haren kantak entzuten.

- Larrara? Zelan? Ze hametik urrun dau Larra.

- Bai, trenien juenda Zornotzaraiño ta gero handik oiñez.

- Tranbixe hemen ez?

- Gerra aurrien tranbixe eon zan, baia gerra ostien, akabeu zan tranbixe. Hor zubixek bota zittuezan ta gero, ba, atzera ez zan ipini tranbirik. Zornotzaraiño ipini eben tranbixe, ta hemetik Durungoraiño egoten zan lehenau, ta, ba, orduen akabeu zien hemetik, Zorrontzatic Durungoraiño tranbixe gehixau ez zan etorri. Baiña jueten giñen, ba, trenien. Ta trenetik gero Larrara tiradatxue. Ta meza kanteue-ta eoten zan. Ta politto!

3.16. Tabernan lehen abesten zirenak

- **Hizlaria(k):** Izagirre Esturo, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-016/039
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:01:41. **Bukatu:** 01:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- **Laburpena:** Lehen tabernan abesteko ohitura handia zegoen. Orduko kantak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Baia kanteu, kanteu, zelako bozak eta! Lehenau be kantetan zan asko, asko, asko.

-Ta ze kantetan zan?

-Ba "Cara al sol " ez. Beste batzuk atiek itxi, ta Gabon inguruen eitten gaiñun hori: "Eusko Gudariak gara...". Baia horixe be ixilik-ixilik zertute, danak itxitte. Ta baten bat betik egoten zan ta esan doskun baten: "Ez dekozue arpeirik hori altu kanpoan abestuteko". Ondiño hori esan, e! Baia barrutik, barruan sentitan gaiñune, ba, intimidadien ta lagunen artien eitten gaiñun. Gero kanpoztar asko sartu zan ta kanbixeu zan asko, e. Baia kanteu bai. Euskeraz ta. Kantak lehenaukoak jakin euriezan asko, asko.

-Ta bertsoak?

-Bertsoak be euskeraz. Badakizu, hori euskeraz eitten...

-Ta jentie trebie zan bertsotan? Abille zan?

-Bai, zera, asko-asko ez, baia urteten otsien ondo. Eran ezkerro, ba, apur bet... Gu aittuek be ez gintzezan izen, baia barre eitten gaiñun, ze bata bestieri insultoa edo lo ke sea. Badakizu, holan izeten zan ta, ulie hartzen, ulie hartzen. Hasarre barik e, hasarre barik. Baia ulie hartzen izeten zan.

3.17. Lanerako amantala

- **Hizlaria(k):** Izagirre Esturo, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-017/004
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:07:48. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Tabernan denek erabiltzen zuten amantala lanerako. Aitak ez zuen ezer erabiltzen, gutxi ibiltzen zen sukaldean eta.

Transkripzioa

- Eta ze erropa ibiltzen zendun biherrerako?

- Ez, uniformerik ez, amantalak, amantalak eta...

- Goittik beherako amantala?

- Normala, amantala normala. Bai. Ta neskak be bai. Neskak be uniformerik ez zeurien ibiltten ez, ez, amantalak.

- Eta zeure aittek?

- Ezta, ez...

- Amantala?

- Ez, bapez. Ez, harek ez auen... Barruen koziñan, bai.

- Karo, baiña koziñarako zeozer biheko eban.

- Ez, ez, koziñen be... baia amak gehixao eitten euen. Berak koziñeru bai, baia... ez.

3.18. Tabako landareak soroetan

- **Hizlaria(k):** Izagirre Esturo, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-017/021
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Aitagarrebak tabakoa landatzen zuen inguruko soroetan. Gero saldu egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta tabakoa erein eitten zan hemen, parajin?
- Bai, eitten eurien hemen soloetan be, nire gizonan aittek-eta, tabako landarie zertzen eurien, bai. Entzunde dekot. Eta... Baia nik ez neuen [ikusten]... baserrire ez neuen urtetan, baia entzunde dekot hartzen zala. Ta gero erueten eurien Durangora edo ez dakit nora, edo zerera, Donostire edo, zer horretara tabakalerixetara ta. Ez dakit zelan funtzionetan euen, baia badakitt soloan hartzen zana, bai.

3.19. Tabakoa erein

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/029
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:43:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Etxanoko etxe batean tabakoa ereiten zuten. Zelan tratatzen zen azaltzen du. Tabakalerara saltzen zuten gero. Ez ei da gaitza tabakoa ereitea.

Transkripzioa

- Hemen iñoz Etxanon tabakoa erein izen da?
- Bai. Bai, hortxe Bañeratik joan ta Etxanorantza joan eta lelengo etxien, Juan Irakulisek. Bai.
- Ta zelan ereitten zan? bakizu zelan ze tratamentu-ta.
- Erein. Gero zimintteran erein ta ta gero transplanteu, ba azak eta tomatiek-eta ipinten dien moduen soloan.
- Ta gero siketu-eta.
- Siketu ta gero kamaran ipintten zien zutunik, osake hamendik heldu illarak ta apur bet siketzen zienien, eurek tabakaleratara eroaten ostien, bai. Juanitak eukitten zeuen.
- Orduen merkature begire, berantzat barik saltzeko gero.
- Saltzeko, saltzeko, bai, baia berak be fumeten zeuen, ba "más malo que".
- Txarra bai?
- Txarra!
- Ba zu be probenikoa zara.
- Ba "claro que si". Ba ez da geuze gatza tabako-orrixe landarie hartzie, ez keba.

- Ta orduen hamengo lurrek balixo dabe horretako, haiziek-eta.
- Bai. Osake ademas hazixe emoten dotsu punten loriek ereittekota ziminteran piperra eraitten dan moduen erein ta gero transplantie ein. Bueno ez zeuen emongo osake diru handirik ze beste batzuk be ein ez eittekota, ze hori geuze erreza da eittie, bai gizona.

3.20. Abarketak elizpean jantzi barrura sartzeko

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/035
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:51:59. **Bukatu:** 00:53:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Mezara joatea derrigorra zen. Abarketak lepotik jarrita joaten ziren elizpean jantzeko. Abadea, ostera, lumadun zapatekin joaten zen, beraien hotzak jota zeuden bitartean. Don Timoteo eta don Luis Goiria abadeak ezagutu zituen.

Transkripzioa

- Mezara derrigor e! Abarketak ipini zamatik, ez zeuen beste oiñetakorik-eta. Elizpien jantzi, atzera kendu ta etxera, Ta abadien zapatille lumentzakoak, abrigu edarragaz, ta gu papauk moduen hotza tragetan elizan. Ez, horrek, horrek lamentablek die horrek kontetako be.
- Abadie ondo jantzitze?
- Abadien haren zapatille lumentzakoak-ta.
- Ze abade zan ba?
- Ba nik ezetu nittuen lelelengokoak, don Timoteo eta don Luis Goiria, bai. Etxanokotarra zan ha be Goiria, Etxanokoa Goiria. Ta gero ba hainbet etor zien, ta haren haren pentsetan dozu hotz egoala eta mezeari itxaroten edo jentie? bai zera! gehixau, denpora gehixau hantxe, hotza tragetan.

3.21. Elizaren indarra; "kandelerua"

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/036
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:53:01. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Sermoi gogorrekin dardaraka hasten ziren. Infernu kontuak sinesten zituzten. Dotrinara domeketako bazkalostean joaten ziren. Etxanon dirua batzeko hiru plater pasatzen zituzten. Norbait hilez gero, domeketako 10etako meza nagusira joan behar izaten zuten, "kandeleru"ra, sepulturara.

Transkripzioa

- Mezak zelakoak izeten zien gogorrak-edo?
- Gogorrak ez, ba jentie dardarako eitten zeren sermoiaz.
- Bai? baia ze billurre abadieri?
- Bai ba. Ze esaten zen infernue ta infernue ta infernue ta infernue, ta jentie ba infernue, ene! dardaraka! Geur halan esango lekie, baten batek harrike eingo lezkizue. Bai. Horrek domineta euki zeuen herrixe, dominau.
- Baia siñestuten zenduen infernu kontuetan-eta?
- Topera! bai, bai, siñisti, siñistu. Zelan jaongo zara siñestu ezik edurre edo eurixe edo San Pedrora ta oiñetakoak igual etxien ba antzerakotxuek jantzitte ta horra behera orduko bustitte ta hantxe elizan, siñestu derrigor ein biher dozu /bizu/ hori joateko elizara.
- Baiña joan be, siñestu ez arren derrigor joan biher hori be egixe da.
- Exakto! Dotriñera? domeketan-ta? bezkaldu ta "la doctina". Haren papaukerixek entzuten. Bai. Ez naz ni aspaldixen ya itzitte nau elizara joatieri. Hemendik basora joaten naz Montecalvoraiño, neure rekorridotxue horixe da domeketan be ta hor San Martin dau ermintte bat, hantxe entzuten dot ermintten mezie bakarrik ta ondo.
- San Martiñen oin be egoten da?
- Ez, ez mezie baia neu bakarrik. Abaderik ez dot bihert nik mezie entzuteko. Hantxe egoten naz txakurre ta bixok ta "pa casa".
- Lehengo mezak-eta zelako zieten zien, Etxanon?
- Ba txakur handixe batzeko, harek ez zekien beste akordurik. Ta gero, ba persona bat hiltzen zanian hainbeste denporan kandelueruekaz, baia zetako? hara kandelueruetara botateko. Hiru plater pasetan zezan Etxanon.
- Hiru?
- Hiru.
- Danetara bota biher?
- Erriel bat badekozu hiru txiki hara. Osake "vaya miseria de esto".
- Eta esan dozu baten bat hiltzen zanian kandeluerue?
- Bai, domeketan hamarretako meza neusixe joan biher, urte bi edo ez daitz zemat denporan izeten zan.
- Zer zan hori?
- Eroaten zeren euren manteltxue, mantel zurixe, hantxe kandeluru bi ipini, kandelakaz ta gero hara dekonak dekona. Bai.
- Sepulturiena?
- Bai sepulturie. Zera, panaderueri pagetako dirurik ez eta hara botateko ba egoten zana.
- Ta derrigor bota biher.
- Ba derrigor ostantzien zetako joango zara ba? Eske hain radikal kanbixe die geuzek.

3.22. Hil ostean egin beharrekoak

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/037
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:57:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

- **Laburpena:** Etxeko norbait hil ostean, gaubeila egin eta arrosarioa errezatzen zen. Hileta osteko bazkaria egoten zen auzoko eta senitartekoentzat. Lepoan eramaten zuten gorpua lau andarek, auzoko gizonezkoek.

Transkripzioa

- Kanbixe die geuzek.
- Ta hori, hori ya hil ostien, baiña nonor hiltzen zanien zer ein biher izeten zenduen, zure aitte edo ama hil zanien, zer? bertan gabaz ze eitten zenduen etxien?
- Ba gaubelie. Ta gero ba errosarixo bat errezeu ba paitarra, tragotxu bet ein, berbaldi bet ein ta atzera beste errosarixo bat. Ta gero entierriuko bezkarixe izeten zan parientieri eta auzokoari-ta.
- Eta hor Etxanora nundik eroaten zenduen gorpue, diñot kotxe barik-eta?
- Ba lepoan. Lau andarik hartute. Hor bide zantarrak-eta.
- Ta ataute?
- Ba ataute ba, ataute lepoan hartute.
- Egoten zan baten bat arotzen bat-edo?
- Bai beti egon die eitteko zerak euren arotzerixek-eta zentroan beti egon die.
- Orduen hartun eta atauten lepo ganien?
- Lepo ganien.
- Ta andariak geure gun familiarrak izten die lehen be bai?
- Ez, lehen euzokoak.
- Edozein euzoko edo gizonezkoa?
- Bai, bai, gizonezkoak, gizonezkoak.

3.23. Okela kontserbatzeko aska

- **Hizlaria(k):** Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-105/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Okela kontserbatzeko, gatz artean sartzen zuten aska batean. Aska non izaten zuten aipatzen du. Etxanoko Nafarroan hainbat etxe zeuden eta baserri bakarra beraiena zen.

Transkripzioa

- Frigorifiko barik nun sartzen zenduen okela?
- Jode, gatz artien asko, gatz artien zezina moduen. Askak, aska baten.
- Askatan.
- Aska batean.
- Emaztea; pernillek-eta.
- Ba pernillek eta pernille be, hamengo pernille.
- Etxeko ze partetan gordetan zan, guk etxien bertan, sartukeran etxera, han egon zan askie ta han. Ta ba segun bakotzak nun euki zeuen.
- Baiña askotan esaten dabe etxeko leku humedoena edo freskoena.
- Guk han jeneralmente, ta hori.

- Baserri asko euezan han, Nafarroan?
- Ez esan dotsut bizi giñen, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, zortzi edo bederatzi, bederatzi familiek, ez baserriek, baserri-baserrie bakarrik egon zan bat bakarrik, gurie. Ta bestie izen zan etxie, etxiek, etxe bat handixe, ta han bizi zan hiru famili, lau familie. Baia baserri-baserri gu bakarrik.

3.24. Eskolan gauza gutxi eta erdaraz

- **Hizlaria(k):** Euba Sagastigordia, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-110/015
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:36:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan besteen antzera ikasi zuen, baina Franco heldu zenean agintera, erdarazko ariketak ulertzeko arazoak zituzten. Eskolan gauza gutxi ikasi zituen, matematikako eragiketa nagusiak baino ez.

Transkripzioa

Nik, sumar, restar ta multiplicar ta dividir ikesi neuen beste batzuen antzian, batzuk baiño astiruau, beste batzuk baiño arintxuau ba! gitxi gorabehera danen bat, barruen. E? Entenietan neukan... neuelako. Gero hasi ziren problemak! Orduen problemie hamahiru urteaz, Francona, erdera. Erderaz goien ipiñi: " Seis cerezas y seis cerezas, ¿cuantas cerezas son?". Ha entenietan ez bozu, nok atara bijok ha ba? Iñok be ez. Entendidu ein biher dozu /bizu/ ikesteko. Nik problematan ez neuen ikesi. Gero gerrie egon zan, gerran ibilli, gerran ibilli ez, baia han ibilli nintzen ni, gerran, gerran. Ama ta aitte han, han ibilli nintzen ni. Nik eskolan ez neuen ikesi, sumar ta restar ta multiplicar ta dividir, handik gora fit! Zeozer bai, baia bahh. Akabau dot, zuk pregunteu beste bat.

3.25. Dotrina eskola baino garrantzitsuago

- **Hizlaria(k):** Barrena Larruzea, Txaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-113/005
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:07:01. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Amantegi, Oihane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Basauriko Kareagagoikoa auzoko eskolara joan zen. Maistra Portugaletetik etortzen zen egunero. Eskolara gustura joaten zen, baina ez zitzaion garrantzirik ematen. Dotrina garrantzitsuagoa zen. Dotrinara eta konfesatzera joan bazina edo ez kontrolatzen zuten. Eskolako denak ziren kaletarrak, ez zegoen baserritarrik.

Transkripzioa

- Ta Basauriko ze eskolatara, ze euzotara?
- Basaurin izen zan, oin barrixe ein die ta etxe asko dau oin. Ni ibilli nintzenien eskolara ez zien egon hiru lau basarri tte hiru lau etxe baño, baia oin dau Basauri!
- Ze auzo zan ha?
- Kareagagoikoa izen zan, bai, Kareagagoikoa. Eskolia on zan ta maistria Portugaletetik etorten zan, pentseizu! Lelengo trena hartzen euen Portugaleten Bilboraiño, han San Antoneko, San Anton ez, Arenaleko zubixen ondoan geltzan zan trena. Handi zertu ta tranbixe hartzen euen Arriagan ta etorten zan, eskolia baino beherau euen tranbixe ta oiñez zati beten! Hak urtengo euen etxien “vete a saber” ze orduten bederatzitako eskolara etorteko! Ba goixeko zazpitan be igual!
- Ta eskolako akordu onak dekozuz?
- Eskolakoak danak dakiaz akorduen.
- Joe, baina ondo diñot.
- Bai.
- Gustora juaten zinen eta...
- Ni bai, ni bai. Ni eukitten neuen urtetako, orduen hamalau urtaz eskolatik urtetan zan ta. Gero joan gure izen /guxen/ bazan zeuzer zertuten, ikesten-edo, baia orduen zerik pezu, modurik be ez zan egoten zertzeko.
- Klaro, ta neskak gitxiau, ezta?
- Horixe ba.
- Mutillek igual.
- Mutilek ofizixue ikesten euen edo “carpintero, ebanista”, nire nebiak be ebanista ikesi euen. Orduen estudixoa ba ez zan dirurik egoten ta pagetako be, orduen dirurik ez zan egoten...
- Dotriñak inportantzi gehixau.
- Puf! Dotriñara egun guztitan eskolan be ta gero zapatu-domeketan joan biher izeten /bixeten/ giñun han parrokixen euki erien zera, lokala, zinia-ta emoteko lokala, ta harixe joaten gintzezan katekismora, dotriñera harixe. Baiña ta gero eskolara joaten gintzezanien kurtzetxue joan bazara konfesetan, komulgetan, dotriñera joan bazara ta kurtzetxue eitten eurien joan bazara, ez bazara joan jakiteko.
- A bai? Ta ez bazaren joan?
- Ez bazara joan, igual kastigue, “vete a saber”! Billurraz danak joaten gintzezan-ta! Atzien gelditu ez ittiarren, danak joaten gintzezan, danok, ta bueno.
- Ta eskolara joaten ziñienak zer ziñien, danok baserritarrak-edo?
- Ez, ez, danak kaletarrak, e?
- Danak kaletarrak.
- Ez, danak kaletarrak.
- Ze zuen etxie be ez zan baserriko...
- Ez, ez, pisue zan, pisue, pisue zan, bai, bai, bai, bai, pisue, pisue zan, gure etxia pisue zan.

3.26. Ur eta argi barik 1970era arte

- **Hizlaria(k)**: Barrena Larruzea, Txaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-113/013
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:23:59. **Bukatu**: 00:27:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

- **Laburpena:** 1970. urtean jarri zuten ura etxean. Ordura arte zelan konpontzen ziren azaltzen du. Argirik ere ez zutenez, arropak eskuz garbitu behar izaten zituzten. Udan ur eskasia izaten zuten. Gaur egungo errepidea ere ez zuten.

Transkripzioa

-Ure etxe barruen ezetu zendun umetan?

-Ez, el año setentan ipini gendun ure.

-Berandu! Berandu, e?

-Hamen barrixo guztie ur barik egoten zan, ta gero...

-Itturixe-edo eukingo zenduen.

-Hor, txorroaz eiten notsen, patinien. Erropak garbiteko-ta harrixen ipiñi, albo-albotik harrixek ipinitte, eta holangoxeak, ostantzien... setentan, kontizu! bai. Geure umiak be, neska bixek bastante... zaharra handitxue - sei urten aldie dekie-ta- zaharra handitxue zan ipiñi giñunien.

-Ta ordura arte erropak eta dana eskuz?

-Bai, hortxe, bai, bai, eskuz, eskuz. Argirik be ez giñun eukitten-ta.

-Ta zelan garbitzen zenduezan erropak?

-Eskuz, jo hor zerien ta... Sartu, beratu, balde zabal baten sartu, jaboie bota hara, ta han ipiñi beratuten, eta gero eskuz. Latigo!

-Ta ze jabo?

-Jaboa Chimbo-a, orduen ez zan egoten ez suabizanterik, ez labadorakurik edo zerik, ez ezebez.

-Heutse-edo ez zendun ezeutu?

-Bai, zera, "Escamas saquito" ta holango geuzek. Holangoxe eskamatxuek, ta zakuen jaboe txinboaz eindde antza makiñen, eskamatxu modukoak, ta itzelezko usiñe-ta eukitten euriñen. Erropak, kolorezkoak-eta, garbitzeko itzelezko zera eukitten euen, bai.

-Eta izerak eta?

-Izerak eta be beratu, eta ipiñi ur berotan ta gero jaboiaz, jabo Chimbo-az, bai.

-Lejia ta?

-Bai, bai, bai, lejía-ta bai, bai, horrek bai. Lejia ta jaboia falteu barik, baia ez oingo moduko heutsek-eta ez. Pentseu be ez.

-Eta setentara arte holan?

-Setentara eon giñen. Kanpoan eukitten giñun ure eta neguen be kanpoan erropak garbitzen giñuzen.

-Ta neguen be ure eukitzen zenduen nahikoa?

-Neguen bai nahikoa, uden ez. Uden gitxi, ze goitti etorten zan, ta hor goixen etxiak be bai ta bakotxak, ba, bere pozuek-eta eindde, ta hona, eskastxu eoten zaniñen, oingo moduko siketie eon ezkerro, urik ez zan heltzen. Ya San Juanetarako, oingo zererako, ez giñun eukitten kasi. Euki bai apurtxu bet, baia ez asko. Ta erre kara-ta joaten gintzezan, erropak garbitzen joaten gintzezan.

-Ta hemen errekie urrun dau?

-Hor San Isidra bid... ikusiko ziñun ermittie San Isidrona? Ba hortxe ondoan, hortxe errekatxue. Oin hori be ur gitxiaz juaten da, baia orduen ure egoten zan. Pozu bet eindde-ta eoten zan. Ta, ba, haraxe. Esnie be haraxe eruaten giñun, haraxe behera. Ze hamen ez zan kamiñorik egon, eta han egon zan lez kamiñoa, handik, ba, han erropak garbittu... Letxerue be hara etorten zan, ze Aldanara egon zan kamiñoa, Aldanara ez. Bueno, Aldanara be ein euriñen... Aldanara ein euriñen el año 55n edo holango baten

hara be kamiñoa. Ostantzien, ez zan egon. Ta hemen geroau ein eurien. Hemen, hangoa, hori idxon dozune, eon zan, baia hortik eta hona behera ez zan egon kamiñorik. Eta astoa hartute joaten gintzezan hortik behera zerera be, Zorrontzara, plazara esaten giñun, errekauek ein ta. Bai.

3.27. 'Begoñako Andra Mari' abestia

- **Hizlaria(k):** Lauzirika Igartua , Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-119/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:37:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena:** 'Begoñako Andra Mari' abestia abesten du.

Transkripzioa

Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari.
Zure seme maitalea
zugana kantari.
Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari.
Zure seme maitalea
zugana kantari.

Itsas gizon siñesdunak
zuga dabe kabi
artzain gaixo menditarrak
zuek haren begi.

Lugin eta langilleak
zuri otolari.
Aberatsak ta txiroak
zaituela garbi.

Ama maite bihotzeko
bigun eta garbi.
Bizkaiko seme-alabak
hartu ta zain beti.
Ama maite bihotzeko
bigun eta garbi.
Bizkaiko seme-alabak
hartu ta zain beti.

Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari.
Zure seme maitalea
zugana kantari.

3.28. 'Abendu Santu honetan' abestia

- **Hizlaria(k):** Lauzirika Igartua , Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-119/028
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:37:48. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
Erligioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** 'Abendu Santu honetan' abestia kantatzen du. Bere aita eta neba etxerik etxe joaten ziren abesti hori abesten. Gabonetan eta Santa Agedatan gizonezkoak baino ez ziren aritzen abesten.

Transkripzioa

- Aittek kantetan zan moduen honek diez:

Abendu santu honetan,
jesusen jaiotzian,
kontentu handiz dabiz
guztion poz gaitian.
Maria y Jose
Jesus, Maria y Jose.

Belengo portalian,
han estalpe batian
jaio da Jesus ume,
ganadu artian.
Maria y Jose
Jesus, Maria y Jose.

Astoa arrantzia,
ididxe arnasia
halan berotzen dabe
jaio dan infantia.
Maria y Jose
Jesus, Maria y Jose.

"Las tres canciones". Hori joaten zan gure aitte eurretik beste hiru-lau euzokogaz eta nire Jose nebiaz soiñue jotzen zauen, filarmonikia. Eta haixeaz joaten zien. Etxe batien emoten otsien ogidxe, beste baten txorixo bi, beste baten ogi zati bet eta gero abade-etxien Erregen egunien edo emoten otsien afari-meridxendie eitten otsien.

- Eta gizonezkoak bakarrik joaten zien?

- Bai, gizonezkoak bakarrik.

- Andrazkorik ez?

- Gure etxien ez. Etxanon, ez, "solamente" gizonak. Eta Santa Agedetan be gizonak, bai.

3.29. Larreako eta Etxanoko eskolara

- **Hizlaria(k):** Iturriondobeitia Larruzea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** AMO-136/007
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Larreako fraideen ikastetxean ikasteko aukera izan zuten. Zazpi urte egin ostean, Etxanoko eskolara joan zen. Etxanok Kaitanan zituen udaletxea eta eskola eta bertara joan zen.

Transkripzioa

- Gu eskolara be txiikitan ya han Larran euan kolejio bat, ez daitz entzutie badekozu. Frailiek euki eurien palazidxo bat, zan "Palacio de Larrea". Larrea zan, "conde, el conde Larrea" edo hori eta haren palazidxoan euazen frailleak, nobizidxoakaz. Eta emoten ebien eskolea, kanpoko jenteari be bai. Asko ez, jente gitxiri. Ta gero umeak be parguloak be, zemat egongo giñen ba? lau edo bost. Ta zazpi urte ein nittunetik gero Etxanoko zerera, eskolara, bialdu ustien.

- Herrire?

- Gero

- Etxanoko herrire?

- Bueno, Etxanok hemen Kaitanan, Kaitanan hor euki eban udaletxea ta eskolak.

- A bai? Kaitanan?

- Bai, bai hantxe lehen, arkupietan [...] oin kotxean harantzako aparkametu dau, ba hantxe aparkamentuen egongo zien Etxanoko zerak. Ta han egoan taberna bat "Txiribittu" deittuten zana, eta ha zan aguazille, txistularie eta bueno, dana zan. Han Etxanon, bai. Gure osaba bat be konzejala izen zan hainbeste urtean, bai.

3.30. Zazpi urterekin erretzeari uzteko tratamendua

- **Hizlaria(k):** Iturriondobeitia Larruzea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-136/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Behin zazpi urte zituztela, auzoko lagunekaz zeudela, beraien aitek egiten zuten moduan erretzea pentsatu zuten. Aitak harrapatu eta ezer gertatuko ez balitz bezala, puruak eman zizkieten. Denak mareatuta, botaka... bukatu zuten. Tratamendu ona izan ei zen, ez baitzuten gehiago erre.

Transkripzioa

- Ta ointxe konteuko dotsut geuze bat, beste geuza bat. Baten lagunekaz, han euzoko lagunekaz bagauz ta batek badiño: "No! Aitten moduen zegaittik ez dogu fumetan?". Sartun gara han ehuntzek eta txarri ta

konejerak eta gallinerue txabola handi bet euki genun ta sartu gara han txabolan ta tabako-orrixe, tabako-orrixe ipiñi ta. Danok keie daridxola gauzela, sartzen da aitte ta: "Ene! Aiba!". Zazpi urte euki giñuzen. "Zuek be erretan?" ta "ba bai". "A bale, bale" ez bota zigarroak e!". Joan zan etxera, ekarri eban kaja bat purue eta bakotzari puro bana. Isetu eta segidukuen danok marieu giñen, botaka hasi giñen, gehidxau iñok erre bez! Beittu zelako tratamentu ona, gehidxau erre bez. Joe! Bai.

3.31. 18 ume etxepe berean aita zela "partero"

- **Hizlaria(k)**: Arregi Mendiolarai, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref**: AMO-139/009
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:20:06. **Bukatu**: 00:21:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Beraien etxean 10 ume ziren eta ondoko etxebizitzan zortzi, bere lehengusu-lehengusinak. Hamazortzi ume jaio ziren etxepe berean. Bere aitak egiten zituen emagin beharrak.

Transkripzioa

- Gero beste aldien beste zortzi lehengusuek, zortzi, zazpi, hamazortzi jaidxo gintzezan han teillape baten eta parterurik bapez, gure aitte parterue. [...] parterue ez zan egoten da ba. Gure alboko osabie beti bere andrie umie eitteko [...] zaniene beti eskapetan eben, ta gure aitte [...] beti. Gure aittek parteru berak eitten aben. Ta holantxik. Eta baten ama justuen salbeu giñun. Justuen ze negue zan eta idxe odolhutsittu ein zen eta hotzak zaparro guztidxe oge ganera idxonda ama tapetan, urte aben eurrera. Bittu zelako arriskuek hartzen zien orduen, horrek be kruelak die. Ba horrexek bizimoduek zien, orduko bizimodue ez zan egon besterik eta segidu ein biher.

3.32. Aharitoak alkandora jan zueneko

- **Hizlaria(k)**: Arregi Mendiolarai, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref**: AMO-139/016
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:34:33. **Bukatu**: 00:36:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Elgoibarko azokan aharito bat erosi zuten aitak eta biek. Etxean lotuta izaten zuten. Sasoi hartan, behin Ezkurdiko (Durango) erromerian zegoela, bero handia egin arren ez zuen jertsea kandu nahi aharitoak soinean zuen alkandoraren zati bat jan zuelako. Krispinek ez zuen izan erromeriarako beste alkandorarik.

Transkripzioa

- Gero itzela pase jaten niri beste baten horregaz nabilela be, niri paseu grabiek ein jatez geuzak. Aittek eta bidxok erosi giñun Elgoibarko feridxan aharitto bat, gusteu neiri eta aitteri esan notsan: "Hauxe aharittue erosi ein biher dogu /bigu/ ta". "Bai, bai". Erosi giñun aharittue eta ekarri giñun. Ta katian lotute eukitten giñun etxian. Tta eukin naben arkondara bat, lehenauko kristalezko arkondara bat esaten jakona ta jerse bat besa sendue, eta bero bat eitten eben Ezkurdidxen, itzela! Jersie jantzitte ni, horrek badiñost: "Jersie!". Eta baia ez notsen esan gure izen zer pasetan zan. Geripzetan siketu biher izeten /bizeten/ zan ha arkondarie, garbittute. Ta [hagiñen] azpidxen sikuten dekule aharittuek [...] lepuen honako arlue jan eta beste arkondararik ez etorteko erromeridxara. Ta jantzi haidxe ta berue txoridxen botateko lakodxie Ezkurdidxen ta jersiaz. Ta horrek: "Jersiaz ze eitten dozu?" barriro. Ez notsen ezebez esan ta barriro haidxe ta barriro haidxe, ta holakon baten esplikau notsen ta bertan jeusi ez zanien barreka. Jeusi! Horrek bota auzen karraskadak. Ta lepue ba lepo gorridxen. Ta jersie jantzitte, hoidxe be pasete nau ni. Zenbat arkondara eskeitte egon zien han? bat. Eta bera aharittuek jan, baia arlo itzela. Hoidxe be pasau jatan. Zemat holako, bua! Ta harek, harek bizimoduek oso gogorak zien, guk ibiltzen giñuzenak.

3.33. Ama esnez betetako bularretatik gaixo

- **Hizlaria(k)**: Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-141/003
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:06:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Neba umetan hil zen. Amak bular asko zuen eta ez zuenez nori eman gaixotu egin zen. Hori dela-eta, ume bat izango balitz legez, euren osabak atera zion esnea eta horrela osatu zen. Gero Teodorak berak hartu zion amari bularra. Esne asko edo luzaro izatekoa zen ama.

Transkripzioa

- Ta ezkondu ziren Arrindera. Ta lelengoko nebie euki geñun Juan Luis eta gero Mari Karmen eta gero ni. Eta gero nire hurrungo beste bat Domingo izen zana, baia zortzi egunegaz-edo hil zen. Eta orduen amak bular asko eta ona eukitten zeuela eta handik umie hil ta denpora gitxidxen txarto pareu zen, ta titidxe zabalduete. Eta egon zan kalenture, kalenture esaten dot nik sukarra esaten derien modure, egon zan kalenture handidxegaz ta ogeratute. Ta ba medikue ekarri otsien ta ba titi zabalduete dekola eta han zertu ein biher dala eta pañu beroakaz, ta haregaz eta horregaz eta ez zan zertzen ta horrek Zirilen aittek esan otson gure aitteri erregular: "Zirilo, andrieri bizirik etara gure bozun ein biher dotsazu ume baten modure txupeu ta etara palankana batera. Ta berak hasten zan, baia ez euen eukin barrurik eta botaten paretan zan. Ta. "kendu zaitte!". Ta horrek, Zirilen aittek, tio Patxi neure aittebitxi zen eta ama amabitxi. Ba Zirilen aittek berak txupeu ta bota, txupeu ta bota, txupeu ta bota. Ta ya buler bidxek halantxe bigundu dotsozan pañu beroak pittien-pittien ipintten ta halangon

baten ba nehikoa bigune etor zanien, "ba oin txakurtxu bet-edo ekar biher leidxako /bileidxako/ honeri edateko. Eta amak esan ei zeuen: "Ai, zelango deskantxue ipiñi dustezu!". Sarriten kontetan zerien. "Zelako deskantxue". Nik euki neuzen ba orduen ba hiru, nire hurrungokoa izen zan mutille, urte bi eskas-edo euki zeuela ba hiru urtetxu-edo. Ta: "A bai? oin badakitx ze eingo dodan /eingoan/. Ba hau bulerrik, osea jan barik ta "ama logure ta logure" ". Eta ipiñi bulerrien eta "pla-pla-pla-pla" edaten hasi zala, edaten hasi nitzela eta halan ba neuk edaten notsela eta bulertxue eta luzero bulerra emotekoa umieri.

3.34. Gurasoak eskolarik gabekoak

- **Hizlaria(k)**: Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-141/009
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:24:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Beraiek Dudeako San Migeleko eskolara joan ziren, eliza ondoko eskolara. Eskolara zortzi urte zituztela-edo hasten ziren. Beraien gurasoek atzamarragaz sinatzen zuten, ez baitzekiten idazten; hala ere, memoria ona zuten kontuak egiteko.

Transkripzioa

- Ba gu eskolara lelengo San Migelera joaten giñen, ze San Migel de Dueda, egon zara handik ingerutik? Ba elizien ondoan eskolatxu bet dau. Ta hara eskolara joaten giñen. Baia eskolara orduen jente asko, ume asko egoten zana lez etxietan ba zortzi urtera arte-eta ezin giñen sartun eskolara. Ta orduen ba itsuen herrixen tuertoa "campeón" esaten derien modure, bai joaten giñen ez dait kanpoan egon zan matrimonño bat, Ameriketara esaten, 'Amerikanue' esaten otsien, baia ez daitz ze parejetan. Bata etxe handi baten kridxeda ba idxe euzoko famelidxe alde bateko eta bestekoa, ba euzoko famelidxe ez dakit gaztetan arkalegaz joan bazien ala gero junteu zien han ta bestie ba kaballuen zainedo ta bestie ba beste zeuzetan. Ta harek ba eskola gehitxuau, baserriko gure guresoen-ta baiño eskola gehitxuau. Gure guresoak firmeu eskuegaz eitten zerien, ze eskolara ez zielako joan, baia memoridxe bata baiño bestiek hobie. Ta guk lapizegaz etaraten dogun zerera, esaten doskun: "Bueno, dekot kobretako ba batzuk atzerantza, atzeratuko ogidxe-eta, hain denboratik eta horra arte eta ba dekot ba honenbeste kobretako ta eguneko honenbeste". Berak eitten dotson holan ta palu bet eta alde batien ipintten zeuzen pezetie edo diru neusidxe ta kanbidxoak bestalderantza kalendaridxoan. Eta gero etaraten doskun ha kalendaridxoa eta esaten doskun "umiek" izena sekule bez. Holan, deittu /biher zanien/ bizanien izen ezik. Beti "umiek". "Umiek, aber batek hartu eizue lapize eta etara eistozue etara eistozue garbidxen kontue honena". Ta ipintten zeuen kontue ba eitten gañun ta igual sumaukeran ba despistetxuen bat lantzien behin, ba zeuzer. "Ez! horrenbeste, hori ondo ez dozu ein! Barriro eizue". Berak buruz etarata exakto eukitten zeuen ta orduen bai: "oin bai". Ta aittek be bardiñe, buru ona! Ta nehikoa diru Jaingoikoari eskerrak manejau zerien bidxek, ze bata biño bestie fiñauak zien-ta.

4. Familia eta harremanak

4.1. Munduan zehar ibilitakoa

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: AMO-002/006
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:10:48. **Bukatu**: 00:12:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Jimenez, Julen
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Zornotzar petoa izan arren, Frantzian, Ingalaterran edota Errusian bizitakoa da, eta munduan zehar asko bidaiatutakoa.

Transkripzioa

- Zornotzar peto-petoa zarela zu., zornotzar-zornotzarra.
- Bai, Zornotzakoa, bai Zornotzakoa. Bueno, esangotsut /esango dotsut/ bizi izen nazela, kanpoan be ba bizi izen naz. Frantzian bizi izen naz, Ingalaterran be bai, ta eta Rusian be bai. Bai. Ta gero biadjau dot asko. Eon naz Ameriketan, ta eon naz hori, biherreko biherreko zeregiñekaittik. Ba kasi ke esango neuskizu, bueno “esto” Afrikan eon naz Egipton, ta zerien be bai, ta Marruekosan be bai, bai. Ta gero Turkian be bai, ta gero zelan / esangotsut/ esango dotsut? ba Alemaniara ta Poloniara izen naz hogeta hamar bider-edo, ze neukezan, geunkezan urte batzuetan, geunkezan komertzial biadjak haraiño, harako.

4.2. Maistra ona izan zuen Etxanoko eskolan

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: AMO-002/009
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:17:37. **Bukatu**: 00:20:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Olea, Ane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolako maistraren oroimen ona dauka Pepak. Asko irakatsi ziola dio, eta ikasleak berdintasun osoz artatzen zituela. Baserritar ikasleei kaletarrek iseka egiten zietenean, maistrak kaletarrak zigortu egiten zituen, eta ikasle ahaltsuagoen opariak ez zituen onartzen.

Transkripzioa

-Ta eskolan zertzuk ikesi zenduezan?
-Zertzuk ikesten gendun? Asko, asko ikesten gendun , erakutsi oskun asko. Eh... ba esango dotsut gramatika ta “redacción” ta horrek guztixok, baia politto eh politto oso politto, ta nik dekot orduko.... Horregaittik diñot maistrak pentsetan dot /pentsetaot/ ona zala, ta zan bihergiñe, oso bihergiñe. Ta zan, horrez ganera, esango dotsut demokratika zan. Esango

deurie ezetz, igual ezta? ze gero emon zittuzen informe igual txarrak edo, baia nik pentsetan dot hori ein euela beste batzuk bultz eindde. Ta... baia..., bera nik dekot neure, geure akorduen zala danok tratetan genduzen igual, igual, igual, egoan jente asko ba gu gure ama zan pixkat ba modernie ta jantzitzen ginttuzen jantzi modernoakaz ta, “al día” ezta? esaten jakona, baia etorten ziren baserrittik, urriñetik, Bizkargittik eta holan baserrittik etorten ziren neskak eskolara ta bueno igual orduen eroaten ziren jantzixek pixkat laburrek, ta eurek luziakaz ta holan, ta guk barre eitten geuntsen ta, ba... emoten oskuzen zaputzekoak e? barre eittearren horreaittik, ta iñoz igual lelengo komuniñoa einkerana ta holan guk ez baia batzuk han kalekoak ba eroan erregalua maistriari, hartu ez e? ta esan, esan gurasoari ba eskerrik asko baia nik beste asko dekiaz hemen ta ez dot gure diferentzixerik, halanda ze hau etxien jango dozue. Ta horrek geuzok akordaten jataz beragandik zelan zan oso zintzoa. Ta, ta danok bardiñe hartzeko moduen ta bardiñe emoten otsen zapotz bat... batzuk diñourie “zuri ez otsun emoten horrenbeste!” bai emoten osten niri be bai ta beste batzuri bebai, ta hartu eskuek ta ñañaña, ba zera eitteko eskribitako ba euki biher eskue berak esaten euen moduen imiñtte. Ta bueno oin horrerri gauzeri ez jakie /etxakie/ beittuten ezetarako be, baia orduen bai.

4.3. Neskak bakarrik eskolan

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-002/011
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:22:17. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Naroa Guarrotxena eta Ruth Pedrosa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Ez zen izaten erreza maistraren aldartea asmatzea. Maistra oñatiarra omen zen, doña Saturnina Olañeta. Neskek bakarrik ikasten zuten Peparen eskolan. Eskolatik kanpo mutikoekin ere jolasten zuten.

Transkripzioa

- Ta, bueno, ba, lelengokotan, bueno, ondo ein gendule, ta ederto ein gendule, ta ez dait zer, ta gero beste baia ensegidako baten preguntetan oste niri zeozer, ez naz akordetan ze, ze pregunte zan, baia diñoste, bueno ez notsen erantzun ze neuken billurre. Ondo esaten badot /bot/, ba esango deu tonterixen bat, baia txarto esaten baot /bot/, beste aurpeiko batzuk emongo ostez. Ta ez noa kontestetan, ta ez notzen kontesteu. Ta bueno, bronkie zer izen zan, hor, honeri ba, “le han subido los humos a la cabeza” ba, zerekoagaittik, ezta? Bilboko esamiñagaittik. Ta bueno, itzelezko bronkia. Ta hurrengoan ba bueno, zelan igerten dan nok ikesten dauen ta nok dekon adorie, ba jarraitzeko ta horrek gauzok, ezta? Halandaxe, ta beragaz ez zan fazille edo ez zan errez azertatia. Segun, segun zein.

- Ta nungua zan zure maestria?

- Oñatikoa pentseteot /pentseten dot/ zala, bai ze, bai, Doña Satur, Doña Saturnina Olañeta zan izena ta apellidue. Ta egoan beste anai bat, bere anai bat Oñatikoa, “Oñati” esaten otsien hareri ta pentseteot /pentsetan

dot/ ha be maisue zala, baia beste lekuren baten.

- Ze egoten zineten neskak alde batean ta mutillek bestien?

- Ez mutillik ez egoan; gu neskak bakarrik. Ta gero mutillentzako beste eskola bat egoan.

-Ta orduan umetan bakarrik mutillekaz hartu-emon barik?

- Bai, ez, ez, ba errekreoan ikusten bagenduzan edo holan, ez egoan, nik egundo ez dot euki ezer mutillen kontra, ez, ez. Mutillek ba auzokoak-eta holan olgeu-eta eitten gendun heureka, bai, ta ez egoan halako diferentzixe handirik ez egoan ze gure auzokoak euki ezan auzokoak, beste etxe batekoak, ta mutillek eukien, han eon zan, ta beste etxe baten "Presakoa" esaten otsienak ba han eon zan mutillek eta neskak. Ta gure lagunek zien ba neskak, zien neska zaharrauk be bai baia gero gaztienak ziren gure lagunek, eta mutillek be egon zan ba edade bardiñekoak, hondiño bizi dienak, ademas, bat, ta haregaz, bizi danagaz, beti euki dogu ba, beti, alkartasune edo bai, laguntasune behintzet.

4.4. Umetan difteria gaitza izan zuen

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-002/012
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:25:04. **Bukatu**: 00:27:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Salazar, Maider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Pepak umetan difteria gaitza pasatu zuen, eta horren ondorioz amamak ez zion errekako edota umeak hoztu zitezkeen jolasetan jolasten uzten. Lartxo babestu omen zuen amamak umetan. Aitak bere lau alabako familian mutikoren bat faltan botatzen omen zuen.

Transkripzioa

-Ba olgetan gendun, zelan esango dotsut ba... Lelenengotan... errekie egoan hurrien ta errekarantza ba uger eitten ta holan, ezta? Baia niri amamak ez osten ixten joaten ze pase neuen sei urte neukezala difteria, ta hori zan geuze gogorra, ta geuze txarra, ezta? Ta eskerrak gure ama mediku... medikuzalie zan, ez zan etxien osatute... ez medikueri deittu ta eskerrak medikue etorri zala sasoaz ba salbeu nendun ta horregaittik amamak beti ba ez eusten ixten olgetan joaten gure neuenien, ta holan, ezta? Baia joaten gintzezanien be, segun zer ta errekan hotzittuko zara, ta errekan hau ta pixkat mimeute neunken. Ta gero niri... beste aiztera, hurrengoana, egon zan hiru urte, ta ha zan balientiau ni baiño ta gogorrau, ta mimeu gitxiau, ta harek eitten zittuzen ya hasitxuau zanian errekauek eta nik ein biherkoan harek, hareri emoten otsen kargie. Ta niri puntu eitten ta horrek gauzok erakusten ostezan /erakustezan/ amamak, holanda ze, eukezan holan diferentzixe bixon artien, bai. Ta gero bestie be, hurrengokoak be bestie hiru urten aldie eukien, danok deku hiru urten aldia, bai.

-Ondo kalkuleta.

-E?

-Ondo kalkuleta.

-Pentsetan dot bai. Nik pentsetan dot egongo zirela pentsetan ba mutiltxu bet aber noz jatorkun da mutillik ez zan heldu. Ta gero gure aitteri gustetan jakozan auzoko mutiltxuek hartu kokotien ibiltten zittuzen batetik eta bestetik. -Semien faltie. --Pentsetan dot neuk horixe, beti esaten euri en eureri ez dotzsela ardure, euren konforme dauzela euren neskakaz, ta horrek gauzok beti entzun dogu /entzun du/ hori euren artien, baia ikusten zendun euzoko Juanjo hartu lepoan ta hor dabil solo guztixetatik kokotien hartute.

4.5. Tranbia; lemoarrekin lehia

- **Hizlaria(k):** Loroño Beaskoetxea, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-003/034
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:01:11. **Bukatu:** 01:04:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena:** Tranbia Zornotza erdialdetik joaten zen, Kaitanatik gora. Lemoarrak eta zornotzarrak aurkari gogorak zirela dio eta behin lemoar batzuek tranbiara igo aurretik jo egin zituzten, baina beraiek ere bueltatu zien. Geldialdi desberdinak egiten zituen tranbiak herrian zehar. Bilbora joateko batez ere tranbia erabiltzen zuten, trena baino gehiago.

Transkripzioa

- Eta esan dozu tranbidxe hondiño ez euela.
- Ez. Zornotzan hondiño ez zan egon.
- Eta ze akordu dekozu zuk Tranbidxena?
- Zerena?
- Tranbidxe nundik nora joaten zan Zornotzan?
- Tranbidxe? Erdi-edi-erdi-erdittetik, ze Kaittanatik gorantz.
- Kaittanatik gora!
- Bai Kaittanatik gora.
- Arratidxe tranbidxe famosue!
- Ai famosue izen zan ha. Harexeaz be herejidxek eitten geñuzen guk, ene! Lemoakoak etorten zienien futbolien olgetan Zornotzara, Lemoa eta Zornotza izen zien kontraridxoak, enei! Eta baten jo ein oskun trenera, tranbire idxon orduko: "pla-pla-pla!" [...]. Eta "Bai? ikusiko dozue". Idxoten dogu tranbire eta jo-jo-jo ein eta gero han zerien, Jesus, han Lemoa han zera dau ha trenbidia Gerrikatxuna, hantxe bajatu, hantxe aldatza-edo dau, apurtxu bet ostondute, tranbidxek zertzue ein, paradatxue. Gu joan giñen itzitte, tranbidxe ene! Gu txarrak izen gintzezan, baia harek be izen onak izen.
- Eta nun geratuten zan tranbidxe Zornotzan?
- Zornotzan, [...] bakizu? Tabernea ba hamendiko aldien.
- Han Bakarrik?
- Parkien ondo-ondoan, parkien kasi.
- Han bakarrik geratzen zan. Gero Kaittana partien-eta ez zan geratzen?

- Gero ya joaten zan bai. Paradak eukitten zittuzen, baia paradak bai eukittten zittuzen.

- Eta pageu ein biher izeten zan, ezta?

- A klaro, ez! Pageu.

- Eta danak pagetan biher izeten bien, umiek eta jente neusidxe?

- Bai, baia, umie holan txikitxue badan altzoan badaroazu ez, baia ostien zerien bai. Ostien asientuen badoan bai.

- Tranbidxe asko ibiltzen zenduen?

- Bai, bai, besterik ez zan egon- ta!. Bueno trena, baia trena bakizu urrintxu eitten da Zornotzatik eta nik tranbidxe gehidxau. Ta honek bendejerak eta honek ademas, asko-asko.

- Bilbora joateko-eta.

- Bai.

- Bilbora zetan joaten ziñien ba han sasoi?

- Gu? Ni juten nitzen sarri aiztea kridxada egon zan lekuen arrutzek eroaten. Etxekoak gure, baia. Arrutzek eroaten. Gero konprak eitten joaten gintzezan edo zapatak edo erropia edo jersia eta gero ya bai, gero ya zertu zen.

4.6. Jolasak

- **Hizlaria(k):** Irazola Etxebarri, Tere
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-010/009
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Eskola sasoiaren sokarekin eta tabatan jolasten zuten. Tabaka zelan olgetan zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta... Esan dozu mezatara ta erromerire, baiña olgeu be ingo zenduen.

-Noz olgeu, laztana? Gure denporan olgeu?

-Bai, eskola sasoi.

-Bueno, eskola sasoi bai. Eskola sasoi, ba, edo sokiaz edo tabakin edo, horixe, horixe zan olgetie, ingo zera barik, tabak eta zera. Tabak be danak ez gaituzen eukitten, e! ze danak ez zittuezen eukitten. Ta, ba ,hantxe, orduen denporan. Oin e, oin eskolan be jueguek be asko dauz. Orduen e, orduen ez zan egoten ezer ta.

-Ta tabakaz zelan olgetan zan?

-Tabak ipini ta bota pelotie goittik behera ta pelotie botaten bezaiñun, beste eskuegaz buelta emon biher. Zera, hamen [zen] juego bat, ta bota barriro ta, benga! Arin ibilitte gora joaten bazan, igual denporie, baia, ostien, botaten bazaiñun, ba, ezer eitteko denporarik be ez, ta adios, se acabo. Bai, laztana, bai, bai, harek denporak. Oin ez dakit /eztait/ tabarik egon be dauen be ez dakit, ez dakit /eztait/. Oingo gazterixek... Oingoa diferentie da, baia, osea ke neure denporako, e! Ta lehenauko koittauk be [zeozar], ze konteu eukiko eurien, eukiko eurien /eukourien/.

-Ta soka, zelan?

-Bai, bai.

-Zer kantetan zenduen edo?

-Bai, soka be bai. Baia sokie, soka zerien ez, orduen ez zan eukitten

zerik sokarik eitteko erramalik oingo moduen. Horrek sokak geroaukoak diez, geroaukoak diez; osea nire denporan be, baia eskolako denporakoak ez, gero, geroaukoak direz horrek.

-Ta mutilekaz batera?

-E?

-Mutilekaz olgetan zenduen?

-Guk? Ez dakit /eztait/ akordurik be mutilik egoten bazan be orduen.

4.7. Dantza lotua bekatu

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/022
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Aldazabal , Argiñe
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Egindako dantza lotuak bekatu bezala aitortu egin behar ziren. Diman dantza lotua debekatuta omen zegoen.

Transkripzioa

-Eta ibiltzen ziñen andrari ebatute?

-Bai apurtxu bat ebatute bai, ibiltzen giñen.

- Emaztea: apurtxu bat

- Baia ez zan pekatue, ala?

- Ez, ez zan izengo pekatue.

- Hor fraille batek edo etorte zan hemen zahar bat gure aitten edadeko bat ta hemen portalien ta Dimekue zan Artengue, ta horra Larrara joan ei zen baten konfesetan ta esan /eitsen/ ei zotsen: "Baltsiurik ein dok?" baltsiue badakizu zer dan? Ta, "Bai jaune", "Nungoa haz hi?", "Dimekue", "Baia Dimen baltsiuen ein dok?" Dimen probidute ei zeuen orduen, ta bueno, "Dimetik hor aparte Arten ez dakit ezetzen bozun", /esantson/ esan zotson abadeari, ta "bai!", ta "han eittenzue / eiten dozue/ jantzan baltsiuen", ta "bai!", "barriro eingo dok /eingok/? esan zotson /esantson/ ta, "bueno ez jaune", "barriro eingo dok /eingok/?", "ez jaune". Ta hurrengo urtien be juen ta ezetu hak, ta: "baltsiurik ein dok?" ta, "bai jauna". "Hik ein nik parkatu txarto goazazek bai? ta barriro ez etorri nigana" /esantson/ esan zotson frailli horrek. "Hik ein ta nik parkatu", ta "gero ya gahixau joan be ez nik" berak, ta holango txiste batzuk kontatzen zittuen.

4.8. Emaztegaia Durangoko erromerian ezagutu zuen

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alcibar, June

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- **Laburpena:** Dantzaldi bat egin ondoren, Eubako Pijon tabernan musean jokatzeko zuten. Durangoko plazan egiten zen erromerian ezagutu zuen gero emaztea izango zena.

Transkripzioa

- Orduan guk eitten giñun erromerire jantzaldi batzuk eñ ta zerien ta, danakin, neska guztixekin. Gero tabernan egon, hor "Pijon" esaten dotsiena /esatetsiena/ ta haraixe juen ta musien.
- San Antoniñon?
- Euben, ba hamabixek inguru artiñoan musien eitten giñun . Ta gero etxera.
- Ta neskatan bapez?
- Neskatan bapez, orduen.
- Emaztea: [...]
- Zelan ezautu zendun ba andrie?
- Durengon, Durengon, Durengora juten giñen ta ba hau be Durengora ta han erromerixe egoten zan Durengon be ta ba hantxe jantzan ezautu giñun. Plazan eitte zan erromerixe Durengon ta ba, halan ezetu giñen.
- Ze Ezkurdin edo plazan? Ezkurdixen edo plazan bertan?
- Ez, plazan, plazan egoten zan.
- Orduen jantzan ezeutu zendun?
- Bai, jantzan ein neban beronegaz ta ba.
- Zeu hurreratu ziñen edo, zeu hurreratu?
- Bai, baten batek eñ ein biher deu /bideu/, eurreratu.
- Emaztea: Oiñ neskak eurreratuten diez.
- Ta baietz /esausten/ esan eusten ta, baietz /esausten/ esan eusten beronek be, ta tire ba, hala.
- Eta, gero? Jantza ein ta?
- Ta gero eurrera, atzera hurrengo domekan be , ta gero ta eurreratxuau, ta eurreratxuau, ta ba, hala. Baia beste kontuetan ta ez, holakorik ez, pentseu bez nik horretan konberzaziñorik be.
- Baia laztanen bat edo zeozer eingo zendun, ba? Ikuturen bat, azaletik.
- Ikuturik bez, ikuturik bez.
- Baiña tentaziñoa eukiko zendun?
- Tentaziñoa bai, baia.
- Ta gogo ta.
- Bai, baia, aguantu in biher, fraillien moduen.

4.9. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-013/043
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:18:26. **Bukatu:** 01:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolas batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Zetan olgetan zenduen umetan?
- E?
- Olgeu zetan?
- Ba orduentxe, ba, kartetarik be ez zan egoten, ta... ba holakoxe gauzetan. Ta pelotarik be ez zen orduen oingo moduen...
- Ez? Ez zenduen eitten? Ardi laniegaz edo narruegaz edo...?
- Ez... edo soka, soka edo holan ibiltten zien. Ta beste... kanastan-edo esaten jakon, beste txapa batzukaz. Hor poxpoluen kajie, poxpoluen kajak dibujuek eukitten zittuezan, ta harek gordeta eukitten giñuzen. Ta harek ipini harri baten ganien ta hareaz [txapiaz] jo ta kentzen. Ta holantxek. Bai.
- Neskakaz batera? Alkarregaz?
- Bai. Neskak be jantzan edo, zeraaz, soka ajillek izeten zien. Ta bueno....

4.10. Etxano herri aberatsa

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/016
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurak eta lur pribatuak
- **Laburpena:** Etxanon gutxi batzuk agintzen zuten, eta haiek nahi zutelako batu ziren Zornotzako herriarekin. Etxanoko oso aberatsa zen, bestela ez zen Zornotzarekin batuko.

Transkripzioa

- Eta orduen Etxanon gitxi batzuk agindduten ebien?
- Eurek! Hainbeste gizon kartzelara sartu zeren. Hau kartzelara ta bestie kartzelara, bai eurek! bai jun zien, ademas gero propietarixo fuertiek egon zielez.
- Eurekripropietarixoak izenda ez jakien komeniduko Zornotzagaz batutie, edo bai?
- Horrek [...] analfabeto konpletoak zien ba-ta, "ignorantes". Haixe politikie, haixe politikie. Zornotzan euren politikeko alkatie ta euren pentseu eben, baia "de noche a la mañana, "pum!"" : Zornotzara eroan Etxano eta kittu. Etxanok han eliza ondoan hasi, Zornotzako eliza ondoan hasi, han zubixen, ta harek etxe barrixek eindde dauzen llanure danak Etxano die, kontuek atara eizuz. Etxano aberatsa izen da, bestela euki ez bazuen ez zeuen eroango, hamen propietarixoak eta bueno. Oin propietarixo fuertiek, baia ni baiño hobeto ez die bizi. Bai gizona!

4.11. Boluetako bizimodua erdaraz

- **Hizlaria(k):** Barrena Larruzea, Txaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-113/004

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Amantegi, Oihane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Umetan Boluetan bizi zen eta bertako bizimodua erdaraz egin zuen. Lagunek ez zekiten eta nebarekin ere horrela egitera ohitu zen. Morgako familia bat heldu zen auzora, eta maistrak bertako alabari laguntzeko eskatu zion bazekielako euskalduna zela.

Transkripzioa

- Orduen zure ume sasoko bizimodue erderaz izen zan.

- Bai, bai, bai, bai, bai, erderaz, erderaz. Euskeraz ez giñun bapez eitten, eskolan be...

- Ta nebiegaz be erderaz?

- Ez, ez, erderaz, erderaz. Bakizu kostunbria galdu ezkero euskera, aittu eitten dozu ta eitten botsue eitten dozu, baia ia eguneko tertulixe erderaz.

- Ta dana, lagunekaz, eskolan...

- Lagunekin [...] erderaz eitten gendun. Ni akordetan naz eskolan, maistriak jakin euen nik euskeraz dakiana, ta gu eskolara gabizela, etorri zien orduen Morgatik ta hortik leku askotatik jentia. Baskonian eitten uen biher, ta Baskonian gero ba etxiak eta emoten otsiezan. Ta famili bet etorri zen Morgatik ta eskolara hara gurera hasi zen, ta neskiak ez euen jakin kasi erderarik ta maistriak esate osten niri, Rosario deittuten ostien eskolan, Txaro ez, kanpoan beti Txaro, baia maistriak Rosario ta esaten osten: "Ayúdale a esa a ver lo que dice o lo que hace", baia nik jakin neuen, e! Neuetzako ondo jakin neuen, baiña ein ez giñun eitten.

4.12. Ezkontzako arrea

- **Hizlaria(k):** Atutxa Atutxa , Jose Antonio; Bikandi Olano, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-117/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ezkondu zirenean, 1957an, Mari Angelesekin arrea ekarri zuen Bernagoitira: izarak, mantak, ohea, baxera... Bidea oraindino egin barik zegoen eta zelan ekarri zuten kontatzen dute.

Transkripzioa

Elkarrizketatzailea: Zuk arrea ekar zendun orduen?

Maria Angeles: Bai, arrea ekarri neuen, bueno... ilusiño guztiaz eindde!

Elkarrizketatzailea: Zer?

Maria Angeles: Ba ixarak eta, ta mantak eta,

Jose Antonio: Ohie ta

Maria Angeles: Oihe ta. Kuartue...

Jose Antonio: Kuartu, kuartu konpletue.

Maria Angeles: Kuartu konpleto! Ta gero ixarak eta ba... dana.

Jose Antonio: Bai, ba "juego".

Maria Angeles: Dana, toalla... dana. Bajillak, bajillie ta orduen... bai.

Elkarrizketatzailea: Ta zuen etxeti hona gurdixen edo?

Maria Angeles: Ez. Baia nire etxetik, hor behien hartzen dozunien gorantza, ta bata dao Arkotxarantza t abestie Bernagoittire, ba nik Arkotxarantza hartu [...] haraxe ekarri geñuzen, burdixe. Ta gero handik gora, zelan ekarri neuen kuartue, harexe kamioia aprobetxetako, ba nire arreo a etorri zen gero kamioien handixik.

Jose Antonio: Arkotxan Bedixagaraiño /Beixetaraiño/ urte asko ez da ein dala kamiñue e?

Maria Angeles: Gu ezkondu gintzezanien ez egoen.

Jose Antonio: Ez egoen, ez egoen. Ezkondu ta gero urtietara bez. Urte asko [...] urte pillue daroagu /daru/ e? berrogeta hamalau urte ezkundute.

Maria Angeles: Berrogeta hamalau urte e? indde dekoguz /dekuz/ e? Ontxe datoz, Pilarika egunien.

Jose Antonio: Bai, berrogeta hamalau urte.

Maira Angeles: Bai, berrogeta hamar urte in gañuzenien joan gintzezan.

Jose Antonio: "Cincuenta y sietien" ezkondu gintzezan [...]

4.13. 1952ko San Migeletatik elkarregaz

- **Hizlaria(k)**: Atutxa Atutxa , Jose Antonio; Bikandi Olano, Maria Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: AMO-117/007
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:10:25. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: 1952ko San Migeletan hasi ziren elkarrekin nahiz eta lehenagotik ezagutu. Handik etxerako buelta oinez egin behar izaten zuten: lehenengo Arkotxara eta gero Bernagoitira.

Transkripzioa

Maria Angeles: Ta beste bost urte eroan giñuzen alkarreaz, beittu zenbat urte.

Jose Antonio: Hirurogei urte ixa. Ontxe hillon hogeta zortzixen hogeta zortzixen, San Migeletik lelengokue.

Maria Angeles: Beittu, akorduen deko e?

Jose Antonio: "En el año cincuenta y dosien"

Elkarrizketatzailea: Bixer?

Jose Antonio: Beintiotxoan, bixer.

Elkarrizketatzailea: Bixer?

Jose Antonio: Bixer.

Maria Angeles: Beti akorduen eukiten deu e? nundik hasi gintzezan. San Migeletik. San Migel, badakixu.

Elkarrizketatzailea: Bixar berrogeta hemeretzi urte hasi ziñiela.

Jose Antonio: Hasi gintzezela.

Maria Angeles: Zuk aber segitan dozun hortixik.

Elkarrizketatzailea: Ta zelan ezetu ziñien edo hasi ziñien.

Jose Antonio: Ezetu eurrerautik eitten gintzezan e? eurrerautik.

Maria Angeles: Ezetu bistaz bai.

Jose Antonio: eurrerautik ezetzen gintzezan.

Maria Angeles: Ta gero ba jantzan! Jantzan ta. Erromerixe

Jose Antonio: Bai. San Migelak zien ta bertako jaixetan [...] ba handixi, bai.

Elkarrizketatzailea: Ta zu joango ziñen edo zelan eitten zan?

Jose Antonio: Bai, bai.
 Maria Angeles: Bai, hombre! Jantzan hasi gintzezan ta jantzan ezetu ezkerro ba gero... alkarraz goitti behera! Orduen oiñez! Oingo moduen, zuon moduen ta pentsetan dozu?
 Jose Antonio: Orduen ez egoen... oiñez.
 Elkarrizketatzailea: San Migeletik hona?
 Maria Angeles: San Migeletik hona ez, Arkotxera,
 Jose Antonio: Arkotxara. Honeaz lelengo Arkotxara ta gero hona neu.
 Maria Angeles: Ta gero hona.
 Elkarrizketatzailea: Klaro, lelengo Arkotxara.
 Maria Angeles: Bai, lelengo Arkotxara. Nobixie laguntzen.
 Elkarrizketatzailea: Bueno, ba merezidu izen eban.
 Jose Antonio: Bai, bai bai.
 Maria Angeles: Ez dakit ondo egongo da, baia oin maletia aldien deko ta.
 Elkarrizketatzailea: Ba zorixonetako erregalue orduen zuretzat!
 Jose Antonio: Bai, bai.
 Maria Angeles: Horixe, bai.
 Elkarrizketatzailea: Dana batera.
 Maria Angeles: Dana batera.
 Elkarrizketatzailea: Urte egunetan nobixie tope.
 Jose Antonio: Bai.
 Maria Angeles: Bai. Hogeta zortzixen topeu ta hogeta hamarrie beronek zenbet izengo euezen?
 Jose Angel: Hogeit urte.
 Maria Angeles: Hogeit urte.
 Jose Angel: Hogeit urte eitten...
 Maria Angeles: Hogeit urteaz ezkondu nintzen e? hogeta bat eitteko. Ni nobienbrekoak naz, esan dotsut /esatsut/, hogeta bostekoa. Pilarika egunien ezkondu gintzezan.
 Jose Angel: Oktubrien ezkondu.
 Maria Angeles: Beittu, hogeit urte hondiño eitteko.
 Jose Angel: Hogeit ez, hogeta bat!
 Maria Angeles: Hogeta bat eitteko. Zuek ingo zintzien? Oingo gaztiak ez.

4.14. Durangoko liberazioaren egunean jaioa

- **Hizlaria(k)**: Ibaibarriaga Sarrionandia, Josebe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Esturo, Idoia - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-129/002
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:02:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: 1936. urteko apirilaren 28an jaio zen Josebe, Durangoko liberazioaren egunean. Beraz, bi hilabete eta erdi zituen Gerra Zibila hasi zenean. Lehenengo urtebetetzea Laidan (Ibarrangelun) pasatu zuen ebakuatuta, Durango erre zutenean egin baitzuten alde.

Transkripzioa

- Josebe: "Veintiocho de abril de treinta y seis".
 - "Día de".

- Josebe: "Liberación de Durango" beti hori, "veinti ocho de abril". Urtie ein naben Laidan refujidxeute. Pasetan Gernike erretan dauela paseu eta gero Laidan lelengo urtie, asiskr lelengo urtetik hasitte gehidxau beti txarrak, urtiek txarrak eta egunek be polittek ez.

- Jo ba justo, fetxie, esan dozunien pentse dot nik be. Karo, handik urtebetera Durungo eta Gernike erre.

- Mila: Durungo erretan dauela jun giñen gu.

- Josebe: Gerriek urten abanien hill bi eta erdi euki nabezan, esaten aben.

- Eta zer da "día de la liberación de Durango"? Liberaziñoa-edo.

- Josebe: Liberaziñoa...

4.15. Esteban Bilbao eta Varela jenerala durangarrak ziren

- **Hizlaria(k):** Ibaibarriaga Sarrionandia, Josebe; Ibaibarriaga Sarrionandia, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-129/004
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:05:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena:** Don Esteban Bilbao, Francorekin Gorteetako presidentea zena, durangarra zen. lurretako Orozketa auzoko jaietan beti egoten zen. Varela jenerala ere durangarra zen.

Transkripzioa

- Josebe: Durengokue zan, Esteban Biolbao, don esteban Bilbao be."Presidente de las Cortes" Madrilgue be-ta.

- Mila: Francoaz.

- Josebe: Francorena. Don esteban Bilbao. Iñoz entzungo ziñun.

- Mila: Don esteban Bilbao ez dozule entzun?

- Josebe: Unamunzagatarren tio.

- Edozein ez zan izengo.

- Josebe: Ba Jose Luisen eta horren tio ta horre tio zan ha.

- Mila: Ta harena, ha etorten zan andriaz Santidxau egunien.

-Josebe: Orozketara.

- Mila: Orozketan jaidxe eitten da Santidaxue egune, "Patron de España".

- Josebe: Durengoko partie, Idxorretako partie da ha.

- Mila: Idxorretako partie da Orozketa izen.

- Josebe: Baia orduen Durungo, gero partidu zen atzera be, atzera be. Orozketan beti etorten zien. Zuek Esteban Bilbao nor dan be ez dakizue - eta! Baia "presidente de las Cortes" Madrillekue izen zan ha, bueno!!!

- Mila: Ha ta "general Varela"-ta.

- Josebe: "General Varela" be Durengokue.

- Mila: "General Varela" makiñe bat...

4.16. Mutilek jolasak "astoagoak" ziren

- **Hizlaria(k):** Iturriondobeitia Larruzea, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-136/014
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Eskolara aroagaz jolasten joaten ziren. 60 zuloa aroa beraiek egiten zuten. Neskak, osterak, tabak eta "taidexek" izan zituzten. "Taidexek" zertzuk diren azaltzen du. Sokasaltoak ere nesken olgeta zen. Mutilen jolasteko erak "astoagoak" zirela dio.

Transkripzioa

- Ta gero eskolara hori bai, aroagaz. Aroa eukitten giñun, hirurogei zuloa. Zan "el no va más". Hirurogei zulo zerak, aroak eta manilliaz karteria lepoan eskeitte eta benga, kotxien goazen moduen, baia zeraz, aroagaz eskolara. Jeneralmente danak, mutillek danak. Neskak euren tabak, euren tabak eta taidexek. Taidexek bakizu zer dan? Taidex da marmolezko harri zati bet eta behien pinttetan da erreidexekaz eta harek kuadruek. Kuadrutik kuadrure bota biher da hankiaz jota. Hanka bat az jota hurrungora paseu ta beratit hamaikara, eta hamaikatik hamahiru eta holan pasetan eta falletan ebanak ba zera. Eta gero saltetako kordela be hori be neskak danak eroaten eben. Neskana, neskanak horrek zien eta mutillanak asto, asto, astoauak: tiragomak eta holakoak, en fin!

4.17. Eskolara joan barik umetatik artzain

- **Hizlaria(k):** Arregi Mendiagarai, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** AMO-139/002
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Bere ama artzaina zen eta umeak mantarrean ebatuta egoten ziren ama ardiak zaintzen zebilen bitartean. Errege egun inguruan Larrabetzura joaten ziren eta bertan egoten ziren maiatzera arte. Krispinek 16 bat urte zituztena arte egon ziren bertan. Bere gurasoak biak ziren etxepe batekoak. Osabarekin batera txakur lanak egindakoa ere bada. Maiatz aldean behin landak egoten zirenean, ardiak basora bidaltzen zituzten. Zortzi urte zituela hasi zen behar horretan.

Transkripzioa

- Ta orduen ba bakizu zer egoten zan. Gure ama ardidexekin ibiltzen zan eta hirurogei bat ardi edo hirurogeta hamar edo. Ta mutiko bat urteko bikue, nire anaixe defuntue zaharraue eta ni han mantarrien batute intxaurpien etzunde, kumie be intxaurpien, ta ardi batzen ama. Aitte biherrien ibiliko zan ba orduen ba basuetan-edo ba egoten zan modue egoten zan lekuen, ze ez zan egon beste etorritik iñundik eta, holantxik. Ta gero ba juten

gintzezan beti orduen Larrabetzure ardidxekin gu, Erregen inguruen-edo, erregen bezperatan edo bixamonetan edo holan joan, Larrabetzure maietzera arte. Maiezien egoten gintzezan Larrabetzun. Nik hamasei urte neukezenera arte Larrabetzun egon gintzezan gu. Eta Larrabetzun gero, Larrabetzun gauzela, aitte, gure aitte teillape batekuek zien ama ta aitte, ama albokue eta handikue eta hemengue. Oin garien moduen. Eta osabak hartu abien errebañue erdidxe euki abien ta danak hartu aurazan gure aittek, etxeko uzaba geratu zen maiorazgoa-edo, karga guztidxekin. Ta orduen txakurrik ez zan egoten ardidxetarako ta ni jun nitzen osabakin Larrabetzure txakurren zerbizidxe eitten. Ba soluen ardidxek zaintzeko ta atzetik eraitteko-ta. Paliza bat hartun biher bazan /bibazan/ be baten bateri emon biher jakon ta ba zaparrueri. Holantxik! Ta aitte juten zan astien behin edo haambostien hametik, beste anaidxe difuentuegaz aitte egon zan Euban. Eubatik goratxuau Maridxelarren baserridxen egon zan etorten gintzezan hona ba maiezien batien aprillen atzenien holan. Ze lehena artue ereitten zan danetan, artue eta babie ta landak behidxentzako ta ardidxek basora juten zien. Ta hamen gero txabolara idxoten giñun ardidxekin. etxien denboraldi bat eta gero txabolara. Txabolan ardidxek batu, gabeko esnie ipini kartin baten hotzitzen ta aparidxe ein biher izeten gendun han ta osabie be, amen nebie be hara juten zan, eta nire osabie mantsue eta ni ardi batzen. Ta osabie juten zanien, ha juten zanien eitten aben txokolatie ta "arroz con lechie". Ta arroz con leche" jana kristona ein eta gero txokotale-jana toketan zanien, urik ez han goidxen ta handik [...]. Jera etorri eta egongo die ez daitz zemat kilometro eta erdi bai onak, kristelezko garrafoiaz uretan zaparrue, ure nehikoa edan neuk ta hareri eruen eta haidxe izeten zan bizimodue. Bidxamona goidxien batu ardidxek, hartu esniek, zemat esne egongo zan ba? hamalau-halmabost urtegaz? Iepuen bajatzen genduzen danak, honakoxe erripatik behera, gaztaiek ein eta gero armozeu eta artajorran edo bedarra ebaten edo egoten zan eitten urtetan giñun. Hori zen nik hamasei urte ein artekeiño pastoretzie.

- Ta zemat urtegaz hasitte?

- Ba zortzi urtegaz eskolara barik ardidxekin hasitte.

4.18. Aitak andre beharrak egiten zituen

- **Hizlaria(k):** Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-141/011
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:28:07. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Aita Deustun (Bilbo) egon zen morroi umetan. Bertan, andre beharrak egiten ere ikasi zuen; gerora ere, ezkondu ostean, garbitasun lanez arduratzen zen etxean. Beraien etxea jauregi baten modukoa zen.

Transkripzioa

- Ta gure aitte defuntuek ba laguntzen dotsien han neskieri, kridxedieri erropak siketzen zienien danak, bidxen artien tiretu, dobleu ondo-ondo-ondo ta plantxeu ta etxie garbittuten be igual eta edozetan, ta jakin zeuen andra batek ein leken biherrak eitten horretako geuzek. Andra baten

biherrak etxie eukitten zeuen berak gu txikidxe izen giñenien be, dana lustriegaz, zure etxie zan palazidxo baten moduko etxie, ze eurek eta uzandrie bizidxe zan.

5. Euskara

5.1. Eskolak erdaraz; aita euskaltzalea

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-002/008
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:17:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Lejarraga, Irati
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Eskolan hasi zenean, erdaraz berbarik ere ez zuen egiten. "Escuelas Vascas" hasi zirenean, ez ziren publikoak eta ordaindu egin behar ziren. Pepa eskola publikora joan zen. Pepa gaztea zenean, eleganteagoa omen zen erdaraz mintzatzea. Aita oso euskara zalea zen. Pepak dioenez, frantsesak nahiz ingelesak izan, umeei beti euskaraz zuzentzen zaie.

Transkripzioa

- Eskolan, euskeraz?
- Ez, ni hasi nintzenien eskolara ez nekien berba bape euskeraz.
- Erderaz.
- Ez, ez nekien berba bape erderaz, ez nekien. Ta beste batzuk eitten eustien barre. Baiña hiru hillebete barru ia bestien moduen nekien nekien erderaz be. Baia orduen denporan ez zan erakusten. Jentiek deko errakuntze bat euskerien alde, bueno euskerieneri buruz, ze orduen denporan errepublikie izen zan eurretik, ta monarkia be bai, baia. Ze ni akordetan naz errepublikiek urte euenien zelan kendu zien ba zerak, kuadruek, “de sagrada escritura” ta horrek gauzok egozanak eta zera be bai kurtzek eta danak kendu ein ziren. Halandaxe, hori oztaz-oztaz akordetan naz, baia, akordetan naz, “mil novecientos treinta y uno”n izen zan hori. Ta orduen ba, diñotsut, ez zala euskerarik emoten ezta iñun be Euskal Herrixen, urten arte “Escuelas Vascas” urte eurien orduen. Ta haixek “Escuelas Vascas” maistre batzuk, baia zan pribau antzien hori, ez ofiziala. Ta bueno, ni ibilli nintzen zeren eskolara, hori, nazionala ta orduen han ez zan erderarik eitten ezetarako be. Maistrek beti eitten zeuen euskeraz, ez zan eitten euskerarik. Ta jentiek ba gu gazte gintzazenien ba elegantiagua zan erderaz eittia. Ta bueno, desietan gu erderaz eitteko ta etxian zelan gintzezan lau neska ba pelukerixe ta eitten-ta juntetan gintzezan ba gaztiek gintzezanien, ta erderaz eitten gendun, baia gure aittek entzuten euenien: “Hori erderiori!”. Ta “Ez Jose, ez Jose “ gure lagunek be, “Eindo dogu /eingu/ euskeraz, ez Jose!”. Ta bueno, holantxik, holantxik eitten gendun euskeraz, da holantxe segidu duu euskeraz eitten. Ta niri asko guste jat beti be euskeraz eittia ta umiari oin be umiari pentseu bez. Baina umia bada frantsesa be euskeraz eitten dotset nik berba, ta umia bada inglesa be euskeraz. Ze ez doste urtetan beste moduten umieri eitterik berba.

5.2. Zornotzan auzorik auzo aldatzen da euskara

- **Hizlaria(k):** Izagirre Esturo, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-017/043
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:57:28. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Eubatik Bernara euskara aldatu egiten da. Zornotzakoekin ere aldea nabaritzen dute, txikia bada ere. San Migelen eta Autzagane aldean Eubako euskara bera egiten dute. Boroan, oster, Lemoako kutsua nabaritzen zaie.

Transkripzioa

- Zuk igertzen dozu diferentzirik Eubako berbetatik Zornontzako beste auzune batzutara?
- Bai, diferentzixe bai. Hemendik eta Bernara be bai. Han itten daurie “ni banoa” ta [...] esaten daurie “ni banue”. Edo holan... [“due”]. Ta beittu e, dauz kilometro bi bakarrik. Eta Zornontzara be ba apurtxu bat diferentzixua dekie. Igual e, zelan esango dotsut /esangoitzut/ ba? Berba gitxi da iguala, baia... Eubeko Eube-Eubekoa...
- Ta Boroa ta San Migel eta...?

- Bai, San Migelek eta guk betik, San Migelek eta guk euskera bardiñe.
 - Ta San Bartolome, Autzagane, Boroa...?
 - Nik pentsetan dot bardin. Boroan be apurtxu bat akabekerie
 diferentetxuau edo. Lemoatarra-edo hartzen deurie, bai. Ta hamen be
 askok -Euben bizi arren- Durangoko hori -ue, "astue" edo -guk "astoa"
 ezta?- "astue" edo. Dautz etxe batzuk, Euben izin arren, euren gurasoak
 izen direnez hango Durango aldeko hortik... Ze Durangon eitten da hori,
 "astue" edo "[banue]". Ta, ostearrean, itten daurie hiketa edo polittau
 eitten daurie [honekin] neskak...
 - Bai, ezta?
 - Bai, [hiketa asko]. Itten daurie.
 - Ba, bueno, ba eskerrik asko, Jesusa.
 - Zeuri be bai.
 - Hemen egongo zara [...]
 - Ondo pasa.
 - Hemen egongo zara beste zornotzar batzukaz batera, eta... bueno, zure
 permisoagaz, ba, hamen egongo diez zure kontuek.
 - Bai, eskerrik asko.
 - Zeuri, zeuri.

5.3. Zornotzan euskarak izandako atzerakada

- **Hizlaria(k)**: Areitioaurtena Bikandi, Mari Tere; Euba Irakulis, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: AMO-021/007
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:13:38. **Bukatu**: 00:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Zornotzan euskara asko galdu da. Euskaraz egitea
makurkeria zen lehen.

Transkripzioa

-Zer dala-ta galdu da?
 -Nik ez dakit /eztait/ ba, gerra ostien "de menos" euskerie "como
 aldeanos", "era cosa...".
 -Baiña hori herri askotan! Beste herrixetan ez da galdu hemen galdu dan
 beste.
 -Hamen nik ez dakit /eztait/ ba nik e..., hamen jente zera eon da, apur bet
 e... -ta Durengon gitxiau Zornotzan baiño, e!- jente kategorikoagoa edo
 eure... inportantzidxe. Euskerieri "como bajona", bajue topetan eben.
 Euskera eittie bajue.
 -Baserritarra.
 -Bai ordinaridxo, ordinaridxo. Nik ez dakit, ba, horregaittik galduko zan.
 -Horixe, horixe piztu biher da /bida/. Hori, hori, hori aldendu ein biher da /
 bida/, ta [euskerieri indderra emon biher jako zelan-halan]. Guk [eukigu],
 baia bestieri...
 -Bai ahalegiñek badabiz eitten, e.
 -... lagundu ein biher jakie /bijakie/.
 -Baia kostako da ondiño urte batzuk e, urte batzuk kostako da.

6. Politika

6.1. Zamudiotik Burtzeñara, eta handik etxera

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-002/015
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Fernandez, Ander
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Zamudiotik Burtzeñara (Barakaldon) joan behar izan zuten, amaren neba baten etxera, ganadu-tratularia zen hura. Francoren tropak sartu ziren arte egon ziren bertan. Gerrak Gasteizen harrapatu zituen aitaita-amamak.

Transkripzioa

- Ta gero handik joan gintzetzan, handik be Zamudiotik urten biher izen gendun, ze han be jeusi zien bonbak ta joan gintzezan Burtzeñara. Ta Burtzeñan amak euken anaia, nebia, bere nebia. Ta harek euken etxe bat, bueno, bera dediketan zan ganaue erosten, tratantia zan. Ta orduen euken etxe bat, pisuek eindde, berak eindde. Ta pisuek ba seme-alabentzako bakoitzentzako bana. Ta gero behien holan, desnibelien egoan ta gero behien kortak ganaue erosten euenean ta hau eukittek. Ta han euki genduzen, hartu genduzen ta han bizi izen giñen ba zerak sartu artiño beste tropak, Francoren tropak sartu artiño. Ta moroak sartzez etorri ziren, ta ``Moro no malo!`` esatoskun /esaten oskun/ guri "Moro no malo", ta zerak bota, txuskuek, ogixek bota. Ta bueno. Baia han egon gintzezan ta txarto bez, ze beti egoan gure ama beti agertzen zen zeren bille, urunen bille, ba ez dait nora, ta hartu trena edo egoan, zera joateko, tranbixe edo dana dalakoa ta han etorren bere zorroagaz edo bere geuzekaz. Halandaxe, gosea guk ez gendun paseu, ze oilloak be bageunkozan ta noizian behin hil / "ya está"/ ta han osabienien be ba ez egoan, dana zan danena, emoten oskuen ta bueno ondo ondo konpondu gintzezan. Ta gero, ba gure aittite ta amama orduen denporan egon ziren Bitturixen ta Bitturixetik klaro gerriak han harrapau zittuzen ta izeko, Bitturixeko izekoa, etorri zen gure etxera Karmengo jaixek pasetan ta harrapau zebe gerria ba Zornotzan, ta orduen gure izekoa bere ume bixekaz bizi zen gugaz, ze ezin izan zan Bitturixera joan ta bere gizonak biher eitten euan Bitturixen ta orduen ba han, han aparte eon zien, batzuk Bitturixen ta beste batzuk ba beste alderdixen. Ta orduen ba bere zeregiñe izen zan osabie etorri zen gure bille ta bera kotxe batz ta joan gintzezan Zornotzara ta gure aittite ta amama zelan Zornotzara etorri zien gu, gu zeragaz Francoren tropakaz hartu orduko ba aittite ta aittittek eta amamak etxia garbi-garbi eindde euki eurien ta joan gintzezan etxe garbire behintzet, Aldekoenera.

6.2. Lemoatxeko bataila

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-002/020
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:48:12. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Villanueva, Bea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Francoren tropak Bilbo hartu eta berehala bueltatu ziren Zornotzara, ganadu eta guzti. Etxean altzari batzuk aizkoraz apurtuta zeuden. "Peña Lemoa"ko batailan Zornotzako gudariak eta asturiarrak borrokatu ziren Francoren kontra.

Transkripzioa

- Zenbat denpora egon ziñien ebakueta?
- Nun?
- Kanpoan
- Kanpoan? Ba gu eon gintzezan zenbat denbora izengo zan? ba, tropak honantza etozan honantza etozan ta bueno ba, Bilbo hartu eta gero segiduen. Bai, baia gu gero han ez gintzezan egon ensegida geure etxera joan gintzezan ta suertea izen gendun aittitte eta amama etorri zirela Bitturixetik gu heldu baiño lehenau ta etxie garbittute ta bueno, ortue be eindde ta egoan, garbittute.
- Ta ganauekaz ta danakaz buelte ziñien?
- Bai, bai.
- Orduen ez zenduen ezebez galdu.
- Bueno galdu, irabaz baiño gehixau, baina bueno, ze eingo dozu ba? ze eroan ahal dana eroaten gendun, baia zer eroan leitteke gurdi baten ba? Etxe, etxeko guztiko muebliek eta danak etxien ittitte.
- Ta buelteu zinenien etxien?
- Bueno etxien topeu gendun garbittute ta holan ta mueble batzuk eta bai, baia beste batzuk aizkoriegazz apurtute be bai. Bai, hondiño han dekot zera, komoda bat, zera materixela oso ona ta konpondute eroan zerari han antikuario bateri konpontzen dittuzenari ta konpondu eurien ederto eta han dago. Bai.
- Han soldaduek eta egongo ziren ? Esan dozuna soldaduek eta zuen etxien egongo zirela?
- Bai, bai, bai, loittute ta dana ba, ganora barik, baia gero amumak eta aittittek garbittu eurien.
- Nongo soldaduek egon ziren Zornotzan?
- Ba han eon zien, bueno, ez dait zein batailloi izango zan, baia eon zien asturianuek, batzuk, eta beste batzuk ba bertoko soldauek, bertako gudarixek. Bai, bai.. ze zerak ba, bat Peña Lemonan izen zan, zera, ezta? batailla gogorra ta hiru egunien egon zan ta egun batien juan ziren ba bertoko gudarixek ta bueno aguanteu eurien. Gero, hurrengo egunien joan ziren asturianuek, ta asturianuek itzi ta berriro arrapeu eurien zerak, beste Francoenak.

6.3. Sozialistak etxean errefuxiatuta

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-002/026
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:01:17. **Bukatu:** 01:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goikoetxea, Itsaso

- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Eibartar jendea eduki zuten errefuxiatuta etxean. Intendentziako komandante sozialista bat eta bere familia egon ziren Peparen etxean.

Transkripzioa

- Zuek gerra sasoiaren, e, artoa ta garixe ta etxien ereitten zenduen?

- Bai

- Ta entregeu bihera eukiko zenduen, ezta?

-Bai, guk esan dutsut guk ez gendule txarto... nik ez dekot holango burutantiño, ez goserik ez holangorik pase dogunik. Ez geuze... txutxerixek baia... ademas txutxerixek be bai ze guk etxien refujerixuek euki genduzen, eibartarrak. Ta ziren, bera gizona zan "Comandante de Intendencia" ta ziren... ezkertixek ziren, ez ziren gudarixek. Bueno gudarixe da soldau baia horrek gudarixek guk esaten geuntsen ba zerari, Bizkaitarrari, baia horrek ez ziren, horrek ziren sozialistek. Ta orduen hartu ein biher ziren /bizien/ ze eurek hartu... gure euzaok, gure euzokoak hartu eurien famelixe bat euren fameli zana, ta haren lagunek ziren honek. Eta ba gure etxera, ta hartu genduzen ta zan jente ona, ta eukien baia zelango bizimodue eukien eurek, eurek guri danetik, danetik e! Ta Gabonak be paseu zittuezan geurien, ta eurek emon gure oskuzen euren geuzek, guri, baia kaviar ta danak, ta ardau onak eta gauza guztixek; baia aittek esan oskun, gure amari esan otsen "Maria, ez ezer hartu, gu geuriagaz ta eurek eurenagaz, ez ezer hartu". Ta halantxik ein gendun, eurek ein eurien afarixe ta geuze guztixek geure etxien, ta baia ez eurien... ta familixek ta lo, ba geure geletan ta eitten eurien, baia ez gendun ezer hartu. Euren borondatie zan hartzeko, baia aittek ez oskun itxi, ta ez gendun hartu. Ta bueno...

6.4. Gose denboran estraperloa

- **Hizlaria(k):** Bikandi Ibarretxebea, Pepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-002/028
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:05:36. **Bukatu:** 01:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sanz, Raquel
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Goserik ez zuten pasatu, baina kalean batzuk egoera txarrean egon ziren. Baserrietara jateko eske edo lapurretan ere etortzen ziren. Bakailaoa jaten zutela gogoan du. Etxean gauzak sobera zituenak, estraperloan saltzen zituen. Etxeko atarietan irina saltzen zela gogoratzen du. Etxean labesua egiten zuten, baina kontu handiekin.

Transkripzioa

-Txokolatie ta holakoak?

-Txokolatie ez, ez eurien emoten, ez dot pentsetan neu ez naz akordetan.

-Azukerie?

-Azukerie bai, azukeria zan estimedue. Ze azukerea kanpotik zelan etorren, baia ostantzien etzien ba babak eta baegoza ta, patatie ta horrek

guztixok eta bueno, guk ez geunken... goserik ez gendun paseu. Jentiek paseu euen /paseuen/ e? horrek e neskiorrek, esan dotsudana, horrek ta horrelangoak paseu eurien bai, txarto.

-Kaleko jentie baserrixetara ta jatekoa eskatzen ta...

-Bai

-Ortuetan ta ibilko zien...

-Ostu be bai eitten eurien /eitteurien/, ez gitxi.

-Baina ezin ezer esan, ezta? Gosie kentzeko izen ezker...

-Bai bai zelan esango dozu ba, zelan esango dozu ba. Baia bueno, ba horrek geuzok e, zelan gero ortuarixe be egoan ta ba, [...] ze, patatie be patatie, porru patatak ba geuberako afarixe zan, ezta? Baia halanda guzti be makailloa be topetan gendun, hareri botateko e? ta egosteko ta bai, bai.

-Arraiñe jaten zenduen?

-E?

-Arraiñe jaten zenduen?

-Makailloa zan siketue. "Bakalao"...

-Ta, jenero asko estraperloan helduko jatzuen, ezta?

-Bai, baegoan estraperlue baegoan. Baia estraperlue eitten euen jentiek sobra eukenak etxien. Harek, harek eitten eurien estraperloa. Ta gero baitte jentia, ba negozihoa zan, batzuentzako. Batzuentzako, urune ta horrek geuzok saltzen eitten zittuezan. Ta nun? Ba portale baten, ta bueno, ba erosi killo bat edo dana dalakoa, ta igual ogixe eitteko etxien, ta bueno.

-Ze labeko sue ta eitten zenduen etxien?

-Guk bai, guk bai, ein gendun, baia ein biher zan sano kontuz, ta nozonozko baten bakarrik ze ikusten baeurien sue ta horrek geuzok ba baekixien ein dozune, ta bueno.

-Gabaz edo?

-E?

-Gabaz?

-Bai, baia ez, ez, ez gendun sarriten ein hori. Hori izen zan iñoz eindde, gero jakittearren zelan ba umiari ointsu be, nire aitziek eitten euen sue ze labia deku zan modu-moduen; ze gure amak, baia bobedata guzti e? ba zelan ez euen gure ha apurtzerik eta kentzerik. Askok ein deu ba garajie laban, baia amak gure euen itxi dan moduen, zan moduen, da halantxik deku oin be, zan moduen, bai.

6.5. Frontean, alde batetik bestera

- **Hizlaria(k)**: Azueta Obieta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Esturo, Idoia
- **Erref**: AMO-004/001
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Aristimuñe batailoiko kide izan zen eta berarekin zegoen Jose Bikandi aipatzen du. Elosun hasita, Ubidean, Oviedoko "Toma de Oviedo", Bilbon eta Gorbeian egon zirenekoa kontatzen du. Asturiasen txarto pasatu zuten gosea zela-eta. Beranduago preso hartu eta nazionalekin joan behar izan zuen. Bruneteko batailara eraman zuten eta handik atzera Santanderrera joan zen. Picos de European gaixotu ostean, Mirandara etorri zen eta handik Teruelgo bataila ezagunera joatea egokitu zitzaion artilleriatik.

Handik Gasteizera eta berriro Mirandara. Alde batetik bestera ibili ostean, azkenean Segovian lizentziatu zen.

Transkripzioa

«Batallon Aristimuño», Jose Bikandi tte bijjok laguník andijjenak ixen giñien gerra gustijjen. Juen giñien egundo lelengo <<Elosu>>re, Elosun batalla aundi bat euki giñun ta gero andik erretirei giñien «Ubidea»ra eta gero Ubideatik eruen giñusen ba. ..., «Toma da Oviedo», Oviedoko kalien, Jose apurtxu bat atzeratxuau ibili san, ni, an Oviedon eon giñien, da ba, an be baja andijjek euki giñusen, guk, «Eusko Indarra», <<Meabe>>, «Larrañaga» da UGT... «Quinto de la UGT», onek danok ibili giñien arkalas, da an gero ba, apurtu giñuesenien atzera baja andijjek euki giñusen eta gero ba bakixu... Andik etorri giñen barriro, atras, Bilbora. Gero Bilbotik artu giñusen, Gorbeijjara, da Gorbeijjan gausela, ba sartu sien <<nacionalak>> ...Asturiasen, emen bestietan Elosun da orretan ondo, Asturiasetan: txarto; jaten be, ba esebes, ba esba, urrek etorten sien astuekas baserrittarrak, aixei erosten geuntzesan urrek da jan, da eseguen da, aixekin pasetan gaiñun egune ba politto, ba ser..., tirorik eseguen, tirorik oten etzanien ba ederto. Da gero ba asi sienien emendik Donostiatik eurrerasken, eurrerasken, eurrerasken ba, juen giñien berantza da gero or artu giñuesenien ba jaulan, ba gero eurekas juenbier.

...(Da gero emengue esatie gurusu beste beste alderdikue?)... Emendik eruen giñusan, an juen giñien <<Brunete>>ra, eta gero Bruneten ixen giñun batalla aundi bat ya esestidu sanetik orduko andijjenetaikue da ba, baja andijjek euki giñusen, andijjek eta andijjek, da gero ba, angue akabeu giñunien, ba etorri giñie barriro ba serera, Santanderko frentera, da Santanderko frentetik Asturiaseraño juenintzen ni. Gero Asturiasen eridu, eridu es, gixotu einintzen en «Los Picos Bajos», «Picos de Europa», andik geixotu, tan andik etorri nintzen ospittelera, ba Torrelavegara, da Torrelavegan osatu nintzenien, gero mostien amabost eguneko konbalesentzizije, dajuen giñien gero Burgosera, da Burgosen eingiñusen ilen bete ba an ba txutxerijjak eitten, treneko errekuak utzittu, da andik ortik emendik. Da gero bialdu giñusen andik, serera. «antiarijjuetara», Mirandara, da gero Mirandan, ba, ongiñien e sortzizijenbat illebete edo sera, olakonbat ingo giñusen Mirandan. Da gero ixen san, bakixu... ori...Teruelgo batalla nausizije, da gero selan faltasien artilleruek, ba juen giñien artillerijjas,serera, ba, Teruelera, da Teruelen egingo giñusen, ba, batallie akabeuarte, da batallie akabeute gausela apurtu jjakusan baterijjak, dei aundijjek eitten geñusen, onako metro bateko edurren edo geijjau, da lei andijjekas, ba... esploteu eiaben kañio batek. Da bestiek apurtu abasan. Da gero etorri giñien Bittorijjara eta gero barriro Bittorijjatik bialdu giñusen ostera be anterijjuetara, ba Mirandara, oseake, Mirandan eingiñuen amaika illebete. Gero amaika illebetetik gero, ori Ebroko desastrie ixen sanien ya altzeuabie san barriro onek antearijjuetakuok ta zelan frentie urrinddujen ba altzeu giñusen barriro kuartelera, da gero kuartelien egon giñien ba or, iru-lau illebete edo ba, guardizije gora guardizije bera, guardizije gora guardizije bera, ortxe Bittorijjan egon giñien eta gero, ba, askenengo au Ebro da ori elimineu sanien, Kataluñako frentie akabeu sanien, da asi sanien Valentziarako joten, ba askenengo finala asi sanien, urten giñun barriro frentera, baya gero barriro frentera urten giñunien, ba, esebes, ya selan artuabien Barcelona, Cataluña, Lerida dana artuabien. Gero joabien Valenciara, da Valenciatik ba... artuabien, da Madrillen ba geratu san ba, barruen, esabien, da Madrillen ba geratu san ba, barruen, esabien erresitentzizijarik eiñ. Gero guk artu barriro baterijjak etajuen giñien Toledotik. Baia Toledotik Ciudadreal, bueno, Toledo dana, da gero

Ciudarrealgo zati bat, sartu ingo sien bestaldetik da gero ba,... alan juen giñien, da gero ba antxe, akabeu san gerriori, da gerrie akabeusanien, ba, batien leku batera bestien bestera, ba an egoten giñen, askenien ba... lissentzijeu gíñien zerien: Segovian.

6.6. Unerik txarrenak Oviedon eta Bruneten

- **Hizlaria(k):** Azueta Obieta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Erref:** AMO-004/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Fronteko unerik txarrenak Oviedokoa eta Brunetekoa izan zirela dio. Orduan, infanterian zeuden; Teruelen, ostera, artillerian. Bertan bizitakoak kontatzen ditu.

Transkripzioa

Momenturik estuena neuretzako neuretzako, lelengo lelengo Oviedokue. Oviedon kalera sartu giñien gu, ametralladoratan egon giñien gu, konpañia bat san. Konpañia Aristimuño nombre «Amaya» euken orrek, lelengo konpañia san ori, da gujuen da juen ein giñien, oseake, «Naranko» dau oixe <<Oiz>> egotieletxe mendi andibaten, «Eskanplero» dau olantxi bestien, da Oviedo dau... estaitt iños egonda basausie, onakoxe trokarro, trokarro baten dau Oviedo, da klaro arek, Narankotik gu juen giñen aurrera da aurrera da aurrera da asi jjakusenien andik kañooska da guk esiñ eutzi ixen geuntzen, eselanbes, erre ein giñusen, kanposantu sar baten sartu giñien batzuk, kuadrilla andi batzuk, da baya andik ametralladora bakixu disparetan danien asko, ke asko botaten deu, da andik keiyetatik lokalixeu eiñeskusen gu nun gausen, estosu, aitzen, da geu! Geugara! Asi sien, da gero klaro, sartu san koluna gallega batetik da arrapeuskuen atzien, baiya neuretzako, esan duana, estuen estuenak ixen dienak: Oviedo da Brunete. Orduen infanterijjan egon giñen gero, Teruelen ya artillerijjas egon giñien, artillerijjan, badakixu ba, artillerijje ba bakixu ba, apurtxu bat atzeratxuau egoten da, da defentza geitxuau ba, baina Brunete askena, Brunete san askena, beruaz, emengo euskaldunek itto giñien, bueno itto giñien es, itto sien, esin resitidu, bakixu, amengo jentie freskotxuau, da gero or eurek euki abiesan «Brigadas Internacionales» esateutziena, «Lister» da «Canpesino» euki abiesan, or egon sien gure eurretik joten, «Batallones de Choque» esaten jjakien, «Brigadas de Choque» esaten jjakien da, orrek, bala danak apurtu sien, emendik, eurek gogor egon sien, gogor bi, ba eurek, batallie jo eiabien, oseake gure abien arek Brunete ,artu eskero Madrilgo pasue sarratzotzien ba, serari, ba, nacionalari, Madrilgo pasue sarratzotzien, da an ixen san batalla negargarrijje, baia Meabe ta Larrañaga neuk uste, neure lagun batek esaten deu, orrek Barselonatik urtetabien orrek brigadok, da ortxe apurtu siela danak, serien ba, Bruneten. Neuretzako ixen diēnik estuen estuenak orrixek: Oviedo da Brunete.

6.7. Frontean jateko gutxi: gosea

- **Hizlaria(k):** Azueta Obieta, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Erref:** AMO-004/003
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Frontean zeudela, jateko gutxi zuten eta ura be eskas.

Transkripzioa

Jatekue, beittixu jatekue, guk e ..., eskenken, bakixu, nacionalak, edo... emendik Euskadittik lelengotan jateko asko egoten san, baina gero bakixu, an au frontierie ta onek artutzuesenien, au selan dan txikijje, ba askenerako frentien desente emotoskuen, Asturiasen es e. . ., Asturiasen txarto, txarto, txarto... be txarto, da geu be txarto ikusten giñuriesan se pentzetabien arek guk Oviedo derrigor artu biule, demanerake eurek an eurek bixi gustijjen egon sien, esin eser ein ixebien, da gu juen giñien, gu juen giñien illtten, illtten eruskuen ara guri, illtten eruskuen, emenguek emenguek geratusien an baia, an trenak eta trenak osuen etorrisien gero... kajakin, ona Bilbora, ori etorrisienak! An geratusienak jangoikuek jakin sertzuk sien! angue... da onekin nacionalakin, ba bakixu, abansetan suesenien beti esinsinke ondo jan. Uras be txarto, bakixu or Castilla erdijjen uripes, xiarre (?) in bier beruas, iguel cuarenta grados an serien euskitten, da antxe onbier, ostantzien ba, onekin nasionalakin, estosu aitzen ba, bueno nasionalakin edo Francon seretatik, abantzien ixenesik, ba jaten ondo, ondo egoten san, baia abantzietan jueten sanien es urik, es jatekorik, sardiñak eta atunek, eta latak artu ta blis-blas bota, ba estorbu eitteabien da, beruas da fusillas da, mosketoyas da manta da inguru kargeute da denporie berue... Txarto ibili giñien, baia ostantzien jaten... Gero posisiñuetan jueten giñienien da, ondo, baia bakixu frentien e. . . gure dan lekuen estau, jateko orduen iguel atakie etorten san, ari euntziñ einbijjakon, jatekue batolloire etorten sanien, eutziñ einbijjakon.

6.8. Ogi barik gosea ezin kendu

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/028
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sulibarria, Unai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ogi eskas ibili omen ziren, eta ogi barik gosea kentzea zaila dela dio Eliasek. Errotak itxita egon ziren, eta irin falta zegoen. Guardia Zibilek zaintzen zituzten errota inguruak. Oromiñoko Erdiko errotara eramaten zuten alea ehotzera.

Transkripzioa

- Eta, esan dozu jateko faltie eukin zenduela. Jateko faltie, raziñoagaz esan

dozu.

- Emaztea: Hor ogixe ta.
- Ba, ogixe-ta, ta bakizu.
- Baia, ogixe ez zenduen etxien eitten?
- Emaztea: Bai, baia hor urunen faltan, urune galazota euen.
- Ogixe ona da, ta ogixek gose asko kentzen deu, ogixe falta badekozu egun askotan, gosie ez da kendu be eitten. Ez, ogixek bete eitten deu.
- Zer eukin zenduen, urun faltie?
- Bai. Urun faltie. Baia errotak be ba eruen ein bier ixeten zan ta.
- Konteu, konteu.
- Bai, konteuko dotset, bai.
- Emaztea: Urun kontuek.
- Bai. Orduen errotak be zertu egon zien, galazota-edo, ta urune eittie be. Ta ba iguel jun biher izeten zien geubetan-ta jun biher errotara. Guarda zobiliek edo ostien harrapeu edo ezkerro ba kendu edo zorrue be iguel. Ta geubetan-ta jun biher ta errotarixek be billurrez egoten zien ixoteko. Bai.
- Ta nungo errotara joaten ziñen?
- Hara Oromiñora. Gorromiño bakizu nun dauen? Hara.
- Zer errota, dauena han? Ba Oromiñon badau bat baiño geixau, ezta?
- Bai Oromiñon Erdikoerrotie, Erdikoerrotara. Ta Bekoerrotan dau beste bat. Ta gero gorau be egongo da besten bat. Txarroan-edo.

6.9. Txerria hiltzea; diru-aldaketak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/033
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:57:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Bilbao, Julen
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Txerria hiltzea libre zegoen, baina hiltzeagatik zerga bat ordaindu behar izaten zen. Errepublikazaleek lehenengo, eta nazionalak gero, dirua aldatu egin zuten.

Transkripzioa

- Eta esan dozu errota asko zarratute eta, txarrixeta behixek eta hilttie?
- Ba, txarrixeta hilttie libre egoen.
- Ah, bai?
- Bai... Txarrixeta hilttie... gero zeozer pageu ein biher izeten zen, zeozer inpuetoen bat egoen txarrixeta hilttiagaikk, errekonozidutiegaikk edo ez dakit zer, zeozer. Baia txarrixeta hilttie libre egon zan.
- Eta esan dozu igual zozer pageu biherko zala, baña pageu ze dirugaz? Ze hor kanbixoa egon zan, ezta? Gerra eurreko dirue ta...
- Bai, baia hemen eon zirenien zerak ba alderdi batzuk, zerak, errepublikanuek edo zerak ta harek diru bat euki ebien /eukibien/, ta haixeaz diruaz. Ta gero bestiek etorri zirenien beste diru klase bat, kanbixeu ein ebien, bai, dirue kanbixeta ein ebien.
- Eta ondo atondu ziñien?
- Eh?
- Ondo atondu?

-Nik ez dakit gure aitte edo zer izengo zan, ba, galtzarixaz izengo zan irabaziaz barik. Iguel ehun emon ta eurek berrogeta hamar iguel, ta... bai, ez zan izengo emotie gehixau.

6.10. Benetako gosea

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/008
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:10:16. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Benetako gosea ezagutu zuten. Bera soldadu zegoela, 1950. urtean, jarri zuten ogia salgai. Bere aita hargina zen, etxegilea, baina gerra apurtutako Ibarrako zubia konpontzen zebilela gaixotu egin zen.

Transkripzioa

- Ta gero egon zan hamen gosie, baia gosie e! Neu soldau nauela ogixe benta librien pareu zen, cincuantan. Soldau nauela neu Burgosen, bai. Baia txarto-txarto, "miseria". Biherrik bez, gero paseu jakun aitte euki giñun [...] ofizial bat, hargiñe, etxegiñen-eta ibiltzen zana ta hasi zen biharrien, Iberreko zubixe, Iberreko zubixe bakizu zein den? Hori gorrixen bota ein zeren, ba bonbiaz, apurtu. Ta haren kostruziñoan joan zan, hargiñe zan ta biharrien, ta hotza zera ta zer jan edo zer eitten ete zeren, ze erropa-edo, ta alderdixe paralisixek harrapau otson ta gero txarto, bakizu "miseria".

6.11. Fronteko gutunak

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/021
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:31:57. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Gerran, neba-arrebak non zeuden ere ez zuten jakin. Noizean behin karta batzuk heltzen ziren frontetik. Bere gurasoek ez zekiten irakurtzen, aita sinatzen baino ez; hori dela-eta, beste norbaitek irakurri eta idatzi behar izaten zituen gutunak.

Transkripzioa

- Zure ama eta aitte bittartien jakin barik nun dauzen seme-alabak-eta?
- Ba klaro. Frentien dauena zelan jakingo zauen nun dauen? Eskribiten zien halako baten kartaren bat, baia. Idatzi eitten zeuen bai.
- Ta zure amak eta aitte jakin eben leiduten?
- Ez amak letra bat bez; ta aitte, on be akordetan naz, bere firmie eitten jakin zeuen, baia beste batek einde leiduten ez zeuen jakin. Bai!

- Nok leiduten bazen eta eskribidu?
- Honbre, ba gaztie-edo bai. Hau nire anaixe zaharrenak be hori be honbre, "escolastico ese", manejetan giñen, manejetan giñen, bai gizona!

6.12. Gose eta jeneroa entregatu behar

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gerraostean gosea izan zuten: labrantza gutxi denentzako nahikoa ez. Nahiz eta errentadorak izan, etxeko jeneroa Etxanoko herrira entregatu behar izaten zuten Kaitanan. Orduan agintarien ganaduek asko jaten zutela dio.

Transkripzioa

- Eta herrire buelte ziñenien, gerraostie gogorra etxera buelteta, Urumiñera?
- Bai, gogorra, gosie, honbre! Ta honek propietarixoak, baserrittar fuertiek horrek hartzen zebelez jeneroa.
- Soloatakoa-eta be ez zenduen hartzen zuek?
- Bai, baia labrantza txikixe, eskasa, hor goizen, txikixe eta eskasa-ta famili handixe ta zera, ezebez. Bai, ezebez bai, batzen giñun ta gero danok.
- Baia artoa ta garixe ta babie-ta eukiko zenduen.
- Bai noberak gure deuen beste ez, gitxi urterako. Ta txarri bet hiltze zan etxien, eta harexeaz ze eitten zeñun ba? ensegida amaittuten zan!
- Ta zuek ez ziñien propietarixoak eta orduen, zuek errentadore moduen entrege ein biher izeten zenduen?
- Bai, bai, bai, bai. Herrire. Bai bai, ez dotsien beittuten. Baia ni akordetan naz, guk herrire entrege, Etxano orduen, ta Kaitanara entregeu, han almalzen handi bet, hara danok burdixekaz joanda, ta honen alkate, teniente alkate honen ganauek lar jaten zerien [...]. Handik eurek "pa casa", bai, patatie eta garixe eta artoa ta dana entregeu biher.

6.13. Ama Saturrarango kartzelan gerra garaian

- **Hizlaria(k):** Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-105/003
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Ama Saturrarango kartzelara eramane zuten gerra garaian. Amaren familiako emakume ugari egon ziren kartzelan nazionalistak

izateagatik; ama Zornotzako batzokiaz arduratu zen gerra aurrean denbora gutxian. Ama ona zen matematiketan, eta horri esker kartzelan kontabilitatea eramaten zuen.

Transkripzioa

- Eta ama Saturraranera zer dala-eta eroan eben?
- Zer dala-ta? nazionalista zalako!
- Baia zozetan ibiltzen zan herrixen?
- Keba, bai bueno euki zeuen bai, batzoki bera euki zeuen sasoi baten, baia denpora gitxi, bueno eske familia osoagaz egon zien: bera, beran izeko eta beren lehengusiña hamazapi urtegaz be egon zan han, ba famili osoa, familia osoa egon zien, egon giñen nazionalista zegaittik izango zan ba? hori dalako. Hori izen zan.
- Batzokixe euki eban zure amak?
- Bueno baia egon zan denpora gitxi, ez dakitz zemet denpora, ze egon zan probisional edo zoker, baia karo.
- Nun egon zan batzokixe ba?
- Zornotzan? bakizu nun dauen "la calle Luis Urrangoetxea", zein dan? Han egon zan, dau farmazixe, farmazi ganien egon zan batzokixe, gerran denporan baiño ariñau ta gero be be egon da hor, oin ya ez oin dauz "en calle Cantarranas"en dauz, baia bueno hor ez zan egon batzokixe horixe bakarrik, ze egon zan Aranzeta etxie, ein zeuen batzokixe, izen zan konstruktora, berak ein zeuen eta gero bueno, ez dala, herri guztiek ipini zeuen dirue hori eitteko, baia bueno.
- Eta zure amak ezer kontetan eban Saturraranekoa?
- Ez, ez. Bueno nire amak euki zeuen suerte pixka bat euki zeuen suerte. Ze nire ama beti izen da numerozko, osea kolejioan ibillitte ta mojetan, hemen egon zan "lan monjas" bakizu Zornotzan nun dauen?
- Oin bai.
- Oin, bai, bai, bai. "Las monjas", ez "el edificio de las monjas" egon zan hemen Etxanorantza hartzen dozu hemen, da etxe bat handixe, hor egon zan un "Colegio de monjas", [...] paseu baiño ariñau.
- Emaztea: kanpo-fubola ezagutzen dozu? ba han ingeruen.
- Eta bueno ba bueno numeroak eta hartun otsien "como como de furriel" osea berari "pa llevar las cuentas, de les daban un pan o no sé que" eta berak errepertidu ogixe ta bakizu, ba berak errepertiduten deu ta "el que reparte reparte siempre se queda" zozegaz, ezta? Ta ba eitten zeuen amak, ba igual herriko jentie egon zan han umiegaz, ume txikiñegaz, umiek kartzelan, ba titixe emoten ama eta bueno ba hareri ba igual sobretan badien hiru-lau ogi, ze antza jente asko egon zan geixorik ta ospitalien ta bueno berak euki zeuen, berak euki zeuen beren eskuen nozepeiñien kendu ogi, ta izen zan horrerri emoteko "a las que estaban criando", ta horrerri emoteko ba lagunduten. Ta bera egon zan txarto egon zan, oso txarto, baia bueno "de lo malo malo malo pues" gosie behintzet bestiek baiño apurtxu bet gitxitxuau. Ze klaro ostu eitten zeuen, klaro! berentzako ta bere lagunentzako ze Zorrontzatik egon zien pillo bat Saturraranen, pillo bat hemedik egon ziren. Badiñotsut, beren izeko ta lehengusiñe be bai, hamazazpi urtegaz lehengusiñe, nire aman lehengusiñe Saturraranera aber ze, ta karo ha be izen zan politikiegaittik klaro, politikiegaittik.

6.14. PNV eta ANV Zornotzan

- **Hizlaria(k):** Lopez Lauzirika, Josean
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-105/011
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:22:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Zornotzan PNVk indar handia izan zuen; ANVko sortzaileetako bat, Luis Urrengoetxea, Zornotzakoa zen eta jarraitzaile ugari izan zituen Zornotzan. PNV eta ANV zertan desberdintzen ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Egon zan Zornotzan egon zan nazionalista asko, ezta? Ta hemen egon zan ademas PNV fuerte eta gero egon zan be bai ANV, ze horko dirijente bat izen zan herrikoa, Luis Urrengoetxea, oin kalie deko Zornotzan, ba bera izen zan fundatzaille ANVkoa, ta bueno ba egon zan Zornotzan jente asko beren.

- Ta sedie euki eban ANVk, bakotzixe moduen ba ANVn?

- Uste dot baietz, ta nire aitte izen zan ANVkoa, baia ez naz ez dekogule gogoratu bez aitteri. Ta nire aitte moduen pillo bat Zornotzan, izen ziren, klaro izen zien "los no" PNV izen zan "cátolico" ta honek izen zien ba elizie ta honek geuzek aparte, ezta? ta egon zan Zornotzan ze karo jente asko Luis Urrengoetxea izen zan bertokoa eta karo beti beti jente gehixau, izen zan abogaue.

6.15. Gerran etxea utzi behar

- **Hizlaria(k):** Barrena Larruzea, Txaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-113/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Amantegi, Oihane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Gerra Zibila Bilbon bizi izan zuen. Etxetik alde egitea egokitu zitzaien, eta Santanderrerranzko bidea hartu zuten. Etxera bueltatu zirenean, teilatua zulatuta zutela-eta, beste etxe batera joan behar izan zuten konpondu arte.

Transkripzioa

- Orduen zuk baserriko bizimodurik ez dozu ein umetan!

- Ez.

- Gero ein zara.

- Gero ein naz, bai.

- Ordun zuk gerrie be Bilbon bizi zendun.

- Bai, bai, joan gintzezan ebakueute ez dait noraiño. Hori ba zenbat urte?

“El año treinta y seis”ien, treintaisietien, sietien izen zan ebakuaziñoa, ba

sei urte eitteko, ze setienbrekoa naz.

- Klaro, sei eitteko.

- Sei eitteko. Akordetan naz untxe Jesuseaz. Zelan juen gintzezan danok eta umiak eta autobus beten jente asko ta ez dait noraino joan gintzezan, lekuteraino joan gintzezan!

- Ta luzero-edo?

- Ez dot pentsetan. Gu han pentseten dot /pentsot/ zortzi egun edo paseu, ze gu egon gintzezan Santanderreko bidien eta pase zienien zerak, harantza tropak, gu ia etxerantza etorri gintzezan, baia gure gure etxiak kamiñoa deko eurreti ta atzeti norteko trena pasetan da ta zubixek dauz, ta zubixe errekan be han, errekia dauen lez zubixe, ta zubi bixek, goikoa ta behekoa, danak gerra denporan bota zertu ein zittuezan, bota eittuezan, bonbardieu-edo. Ta ez dakit zelan etorri gintzezan ba, danok batera etorri ta etxia be guria abiaziñoa zertute egon zalez, zulotute, goixe tailletue dana euriz beteta ta beste etxe baten edo bizi gintzezan harik eta konpondu arte.

- Orduen etxia apurtute.

- Apurtute tailletue! Apurtute goittik, ze zubixe bastante altu dau norteko trenen zerien, eta ..ba ..bota eurielez egon gintzezan zertute, beste etxe baten bizitten, beste lonjan baten edo ez dait nik zelan egon gintzezan harik eta konpondu arte, bai.

- Zeuona zan etxie?

- Ez, ez, ez, ez, ez.

- Arrentadorak-edo.

- Orduen ez zan egoten etxia. Uzandrak eoten zien han bizi zien ondoan ta, jenterik gehixena izeten zan zera arrentadoria. Orduen errentarik be ez zan egoten kasi bape ta, diru gitxi pagetan zan ta, pisuek ederrak, handixek, baia.

- Ta famili txikixe ziñien zuek.

- Bai ba, nire aitte eta anaixia bixi zien, ezkondu zien ta batera bizi gintzezan, baia gu nire lengusiñe nire edadekoa ta ni komuniñoa eindde ensegida joan ein zien harek. Nire tiok Lezamako estaziñoan, Bilbon, han Calzadas de Mallonan eitten euen biher, estaziñoan eta han emon otsien pisue, ta harek hara joan zien ta gero gu bakarrik.

6.16. Maistra euskalduna, baina ezin euskaraz egin

- **Hizlaria(k):** Agirre Uranga, Basilisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-120/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Montorra auzoko eskolako maistraren alaba bere laguna zen. Maistra zornotzarra eta euskalduna izan arren, ezin izaten zuten euskaraz egin.

Transkripzioa

- Bai, gero maistrien alabie lagun itzela zan nirie.
- Nor zan maistre hori?
- Doña [Benita], Zornotzakoa.

- A, euskeldune?
 - Bai.
 - Eta euskeraz eiten zenduen eskolan?
 - [...] bai.
 - Jo, baina maistrie zornotzarra izenda...
 - Baiña orduen ez zebe ametitzen euskeraz eitten, koittae! Iñun bez!
 Dana erderie. Ta nik halan-holan justo samarrien erderie jakin nauen. Ta maistrieri esan notsen: "Nik ez dakit erderaz". Ta "Tú lo que no sabes es morder". Ze ni juaten nintzen amagaz plazara, ta eruaten notsen maistrieri gaztaiek eta arrautzek eta [hurak]. Ta han askori. Ta danak [ezetuten zien].

6.17. Liberazioaren eta garaipenaren jaia

- **Hizlaria(k):** Ibaibarriaga Sarrionandia, Josebe; Ibaibarriaga Sarrionandia, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-129/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:39. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena:** Durangon apirilaren 28a, Joseberen urtebetetze eguna, egun handia izaten zen, Liberazioaren Eguna ospatzen baitzuten. Durangon beti egon dira karlista asko. Apirilaren 1ean "fiesta de la Victoria" zela-eta, beraien etxe aurretik gobernadorea pasatzen zen Axpera bidean. Umeak ziren eta adi-adi egoten ziren gobernadorea ikusteko.

Transkripzioa

- Mila: Oin akabeu zen ha. Lehen urtietan zelebretan abien, baia oin akabeu zen.
 - Bai? zer zelebretan abien, ba?
 - Mila: Durengon?
 - Josebe: Durengon jai itzela zelebretan zan!
 - Mila: Durengon karlistak asko egon zien.
 - Josebe: Karrerak-era, bizikleta karrerak-eta bueno! Durengo zan ikusgarrixke, pelota-partiduek-eta. Jai konpletue eitten zan Durengon.
 - Mila: [...] egune? Ha egune zera zan orduen. Honek liberaziñuok, "Fiesta de la Victoria, uno de abril, fiesta de la Victoria". hametik gobernadorie pasetan zan.
 - Josebe: Axpera.
 - Axpera, Axpen ze eitten abien?
 - Josebe: Suek-eta
 - Mila: Suek. Eta beste zeozer be eitten abien, apaldu
 - Josebe: Apaldu eitten abien.
 - Mila: [...] atzera Bilbora. Hametik pasetan zien.
 - Josebe: Gabien.
 - Mila: Gabien.
 - Josebe: Goberndarie noz paseuko geu be begire egoten giñien umiek-eta.
 - Mila: Eta gero toketan zan batzuetan eguen santu-edo.
 - Josebe: Bai ba, zera izeten da, jaidxe izeten da.

- Mila: Aste Santuen, eguen santue, bariku santu. Eta zapatu santuz gu juten giñen Bernagoittire mezara eta ariñeketan gobernadorie ikusteko. Ez eizu ein! Holantxik zan, goittik behera. Toketan zanien horidxe fetxieori e, "uno de abril, uno de abril"

- Josebe: "Uno de abril"

- Mila: Fiesta de la Victoria" izeten zan. Gero garizumiek ibiltten deuz gorabeherak, gorabeherie ipiñi ezkerro ba... Ha beti "uno de abril"". Ta garizumie atzenien izeten da. [...].

- Ta Durengoko Liberaziño Egune?

- Josebe: Ha Durongon, Durongoko erromeridxara. Ze jai handidxe izeten zan Durongon, ene!

- Mila: Handixe izeten zan.

- Josebe: Handidxe, handidxe.

- Mila: Gerrien ostien barriz. Horidxe handidxe egoten zien.

- Josebe: Bizikleta-karrekak, pelota-partiduek.

- Mila: Herri batzuetan gehidxau izen zan beste batzuetan baiño.

- Josebe: Baia Durengo zan, bueno Durengo! Durengon karlista askoe gon zielako.

- Mila: Karlista asko egon zielako. Karlistak zera zan Durengon, esaten abien, izen be halan izengo zien, ze holan izeten zien-eta. Eta gobernadorie be Axpera-eta. Honako zera egon zen behintzet zeozer. Zeaittik ba, guk be entzunde.

6.18. Balio bariko dirua

- **Hizlaria(k)**: Iturriondobeitia Larruzea, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-136/003
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:04:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- **Laburpena**: Gerra Zibilean bere amak kolkokada diru zuen. Francoren tropak sartu zirenean, denda batera sartu ziren bakoitzak abarketa pareta eros zezan. Ordaintzerako orduan, diru hark ez zuela balio eta ezin izan zuten erosi. Ihes eginda zeuden tokitik oinez bueltatu behar izan ziren Zornotzara.

Transkripzioa

- Ba zera izen zan, karo dirue. Geure amak kolkokan kolkokada diru euki eban. Ta sartu zienien honek, Francuen tropak, honantza mobidu giñen eta denda bat. Denda baten sartu giñan danok eta amak esan oskun: "Benga bakoitzak jantzi oiñetako bat". Ze ortozik giñezen. "Ipiñi oiñetakoak eta abarketak". Jantzi geñuzen danok, badoa pagetan eta orduntxen prezioa eta...: "Senora, este dinero no vale, este dinero.... Venga pues, a quitar las alpargatas otra vez". Eta atzera erdi ortozik etor giñen Zornontzara arte, oiñez. Karo dana apurtute eguan, ez eguan ez trenik ez ezebez eta oiñez. Eta dirurik ordaintzeko bez, ta bueno!. Gero ba bizimodue hartun gendun.

6.19. Jose Olariaga Alzola gerran desagertua

- **Hizlaria(k):** Olariaga Esturo, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Durango 1936
- **Erref:** AMO-185/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:06:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:**

Transkripzioa

- Beste anaixa bat be hil jakien horrerri gerran, nire aitteri.
- Zure osaba bat?
- Nire osaba bat.
- Ta izena-ta badakizu?
- Bai, Joxe izena.
- Jose Olariaga?
- Gure [Edurnen] aittebitxi.
- Jose Olariaga?
- Jose Olariaga.
- Eta bigarrena ez dozu jakingo.
- Alzola.
- Eta nun hil zan edo?
- Ba ez dakigu nun hil zan. Esaten oskun, bialtzen otsien kartie. Nik han entzun eitten naben, nun-nun ikusi dabiela bixirik. Ta, ba, han preguntez-ta, juen-ta be ein zien, baia ez zan agertu.
- Ez zan agertu.
- Beren antzekon bat edo. Ez zan agertu. Baia esan eitten otsien, e!
- Baiña idearik be ez dekozu Gipuzkoan izen bazan edo...?
- Ez, ez Gipuzkoan ez, e! Bilboti eruen ein abien, makalik, zeozter heridute. Hamen Bilboti. Ta gero, ba, han ikusi abiela, hor ikusi abiela, baia ez abien ikusi. Ez zan agertu, e. Ez, ez.
- Ez zan agertu barriro?
- Gero ez zan barriro agertu, ez.

6.20. Gerra hasi: bonbardaketak eta ebakuazioa

- **Hizlaria(k):** Ugalde Agirre, Florencio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Durango 1936
- **Erref:** AMO-186/001
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:**

Transkripzioa

- Gerra hasi zanien, zuk zelan jakin zenun gerra hasi zala?
- Ezer be ez, gurien amak esaten euen, ba, abioiek agertzen ziela, ta papelen batzuk botaten zittuezela, ta, ba, eurek hareri begire, zer ete zien. Zer ete zien? Ez zeurien jakitten ezer ta. Halango baten gero, ba, gerrie,

gerrie zala, gerrie zala, ta, ba, etxetik urten ein biher. Etxetik urten giñun...
 -Parkatu apurtxo bat, e. Etxetik urten baiño lehenago pasatuko zan
 Durangoko bobardeue, ezta?
 -Bai, bai...
 -Ta Durangoko bobardeue egon zala jakin zenuen?
 -Hori... hau bonbardieu ebenien, ba, guk, “badatoz honantza, honantza datoz” ta “honantza datoz” ta, ba, urten ein giñun. Ta joan giñen
 Lezamara, ebakuauta. Behixek burdixegaz hartu, oge bat burdixen, ta, ba, jittanuen plana orduen.
 -Eta zegaitik ein abien alde zure gurasuek baserritik ba?
 -Gerran urten ein biher. Gure etxiek, gure baserrixek, ... teillatuen euki eben kañonazoa, ta etxien atzetik horman be bai ta biximodu biko [etxie] zan ta aldamenekoan be balkoien kontratik beste kañonazo bat. Hiru kañonazo euki [giñuzen] harek etxiek.
 -Zuek bertan egon ziñenien?
 -Ez, guk eskapeu ta gero, guk eskapeu ta gero. Lezamara joan giñen. Ta Lezaman egon giñen ebakueute.
 -Eta zeren bilddurre euki eben zure gurasuek, ba? Kontatzen otsuen zuei? Zeren bilddurra?
 -Bilddurra, ba, beste guztixek goixen, abioiek goixen, igual dozena bat abioi pin-pun, pin-pun botaten ta. Ta urten ein biher zan, urten ein biher zan. Han eon bagiñen, jai euki giñun, e, han garbittuko giñen danok.

6.21. Ama 17 urterekin etxean bakarrik. Beste guztiak kartzelan

- **Hizlaria(k):** Zubero Ormaetxe, Elena; Zubero Ormaetxe, Esther; Zubero Ormaetxe, Kepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Durango 1936
- **Erref:** AMO-187/005
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:08:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:**

Transkripzioa

- Etxeko denak zeuden gartzelan, bera bakarrik zegoen, eta zegoen, gainera, abereekin, ba, etxeko...
 - Eta emakume bat.
 - Etxeko egoerarekin.
 - Eta emakume gazte bat.
 - Ta orduan egin zioten tutoretza bat montatu zioten eta tutoretzan sartu zioten aittitte, euzokidea eta nik uste dot lau pertsona ziela. Eta bestea bat zen Zornotzako tipo bat Sisto Montoia eta, ba, ez dakit, laugarrena ez naz gogoratzen. Baina nik informazio hau gehiena daukat etxeko paperak arakatuta ta irakurrita eskutitzak eta hori. Ta gero, ba, antza denez, ba, aitite nola hil zen, jakin zutenean, ahizpak Saturrarango gartzelan zeudenez, ba esaten diote egoteko lasai, aber ondo lo egiten duen. Eta berak esaten dio ba ezetz ze ez duela ulertzen zergaitik aita hil duten, pentsatzen dagoela edo egun guztidixan buruari bueltak emoten ari dela, eta besteak erantzuten diote, ba, lasai eoteko, ama bi dekozela eta ama bi hoidxek aterako direla laster ta etorriko direla bera zaintzen, eta egoteko lasai.

7. Baserria

7.1. Garia ereiten azkenak

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/037
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:04:37. **Bukatu:** 01:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Azkarate, Asier
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Soldadutzan zegoela, etxetik dirua igortzen ziotenean pozik hartzen zuen. Soldadutzatik itzuli zenean baserrian jarraitu zuen lanean. Inoiz ez du baserritik kanpo lanik egin. Ganaduez gain pinu basoak ere bazituzten etxean. Garia ereiteari utzi zioten azken baserria izan zen Elisasena. Antzinako auzolaneko gari-jotzea desagertu zenean, eurak ere garia ereiteari utzi egin behar izan zioten.

Transkripzioa

-Eta kartatan zeozer bidaltzen zendun zuk dirue edo eurek, dirurik edo?
-Ba, jirue edo botaten zan korreetik ta paketiek be bieltzen zien.
-A bai?
-Bai, ta jirue aillege zanin [...] allegetan zanin pozik, ba jirue dekola-ta.
-Ze ba? Zer zan hori jirue?
-Ba, jiro postal edo izengo zan, ba ez dakit ba nik zelan ixete zan, geixena kobreu eitten zan-ta, hamen depositue ezkerro ba kobreu, ba Sarjentuei esatie baiño zelan jirue dekoan edo ez (...)
-Eta gero hori zuk soldadutzatik buelte ziñenien hemen zertan hasi ziñen?
-Hemen zetan?
-Bai biherrien, kanpoan, baserrixen?
-Ba, baserrixen.
-Beti baserrixen?
-Bai
-Kanpoan sekule ez zara ibilli.
-Ez
-Eta baserriko biherragaz bizitteko moduen ta hori seme-alabari estudixoak emoteko-ta?
-Bai, ba basuek euki giñuzen ta basuetan be bihera egoten zan ta piñuek eta ba goberneu ein biher, bota be bai ta sartu-ta, holantxik, hementxe ganauek ta ba artue-ta erain ta garixe be bai ereitten giñun, gu azkenekuk izen giñen garixe ereitteari itxi gentsela azkenekuek . Bai hemen jentiek... nik, guk baiño ariñau itxi otsien /itxitsien/ garixe ereitteari ta guk hondiño erain eittten giñun ta azkenien ba itxi izen biher giñun ze bakarrik geldittu ezkerro ez egoen laguntasunik be, joteko be garixe joteko-ta be ta zer ein-ta itxi gentsen.

7.2. Azal-biko taloak egiten zituzten

- **Hizlaria(k):** Atutxa Orobiobasterra, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-013/040
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Izagirre, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Azal-biko taloak egiten zituzten, oso gozoak. Esnearekin, arrautzekin edota urdaiarekin jaten zituzten taloak. Labean egindako artoa ere oso gustuko du Eliasek.

Transkripzioa

- Taloa-ta be eingo zenduen?
- Bai, taluek, bai, taluek goxuek eitten zien, ba, zer bikoaz esaten da, azal bikue talue, aittu dozu? Ba, azal bi, taluek alderdi bixetatik azalak, ta ba goxuek izeten zien. Lelengo ba, hori, urune ta zerien ta bolie, ta jo-jo ta ipiñi talo parien ganien ta lehenengoko bueltie emon, ta gero atzera be talo parien ganien,ta gero, zera gero iguel han astinddu eitten zien, bakizu zer dan? "hinchar", ta gero taluek ba zera, azala eukitten eben. Ta, esniaz be iguel, edo gero pernilaz edo arraultziaz nahasteute, pernille sartanien, ta gero, taluaz jan, zelako goxue. Bai, ta urdaixe-ta, urdaixe bai talo bittartien, zelako goxue izeten zan. Untxe be agora etorten jat gustue. Bai.
- Oin ez dozu jaten talorik iñoz?
- Oin ez deku urunik eta ez dogu jaten.
- Ta morokille?
- Morokillik bez, ba, hor Elorrixoko batek, elektriziste batek, ekarri oskun artue laban eindde, artue. Ta Gabonetan zera, txiki-txiki ein zatixek, ta esnetara bota, ta esnetan irikin bat emon, ta jan gozo, ha be artue, bai.

7.3. 11 urtegaz morroi

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-104/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Mutikotan inguruko fronteetako bala-kaskilloak batu eta saltzen zituzten. Guztira 8 egunez ez ei zen joan eskolara. 11 urtegaz joan zen morroi ondoko auzoko baserri batera eta lau urte eta erdi egin zituen bertan. Lehen urtean 100 pezeta irabazi zituen;; gero 30 ogerleko, 150 pezeta.

Transkripzioa

- Gero ba gu mutikotan, hamen egon zan frente fuerte bat, hamen San Migeldik, hor San Migel mendixetan, Urremendin, Zabalen-ta, eta hor

hainbeste tiro bota zebelez, bala-kaskilloak egoten zien, eon zien, ta harek batuten giñuzen ta saldu, apur bet zertzeko, ta gero biherrera, hona ta bestera ta ba eskolara zortzi egunien ez nitzen joan ni, ta defendidu naz, ez dekot. Ta gero hamaika urtegaz krixeu.

- Hamaika urtegaz?

- Bai. Ta gero ba [Akusandik] esan osten, nire bille etor zanien, nire amari ta eitteri esan otsien: "hau geuk botako dogu eskolara ta geuk ez daitz zer ta". Nik ez dakit zein aldetan eskolie egon zan, ez eskolarik ez Jesukristorik. Goizien seietan jagi, behixek batu, hor beheko etxe baten egon nitzen, kondorra dauena, kondor, hametxe Ibarrako zubi ondoan, ta hortxe egon zan basarri edar bat ta horra. Ta goizien seiretan jagi, behixek batu eta zortziretako tranbire, tranbixe etorten zan Zorrontzaraiño, ta a hara esnie eroan biher etxietako, ta handik etorri ta biher. Ta penarik handixena dekot haixe denporie, krixeu egon nitzena, baie nire amak euki bazeuen nire jaten emoteko, ez osten botako krixeu, baia ez egoan ezer ta. Ta pena haixe dekot, sikanen hairexek urtie.

- Zemat denpora egon ziñen ba?

- Lau urte eta erdi. Bai, lelengo urte bixen ehun pezeta urtien irabazten nittuen.

- Ta ehun pezetak zetako emoten eben, ba?

- Ba amari pagetako, nire soldatie urtekoa. Ta gero hogeta hamar ogerleko, ehun eta berrogeta hamar pezeta. Bai miserixe, hamen egon ginttezan matxakeute pobriek. Oin "que hay" esaten da, baia orduen ezin leiken esan ezer. "Total-total dominaus".

7.4. Etxanoko 7 errotak prezintatuta

- **Hizlaria(k)**: Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMO-104/025
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:36:24. **Bukatu**: 00:38:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Etxanoko errotak prezintatuta egon ziren. Zornotzara bidean sei errota daude, banan-banan aipatzen ditu. Nafarroakoa zen zazpigarrena. Ibarruriko (Muxika) Mauma auzoko Oxinbaltza errota prezintatuta egon arren, zabaldu egiten zuen bertako Pedrinek. Errotaria ehotako hamarrenagaz gelditzen zen.

Transkripzioa

- Prezintoak be apurtu edo kendu, ipini ta bai, bai. Etxanon? Etxanon dauz linean Zorrontza orduko sei errota: Altziber, Aritzako errota, Biriñekoa hiru, Panaderixe lau, Txolonena bost, ta Jeubarriko sei errota. Han Durungoko kamiñora orduko, ta gero Nafarroakoa zazpi, Nafarroa be Etxano zan. Nik esan dotsuana zubi ondolik Nafarroa da, Nafarroako zelaixek, ha be Etxano da, zazpi errota, bai.

- Ta danak prezinteute.

- Prezintaute. Oxinbaltzeko be prezintaute egon zan, baia manejetan zien harek edo unteu edo kristoak, Pedrin, Pedrin, bu! "¡que salvaje de hombre!". Hak astoa lotu ta zorroa-ta, zera, killo bi eskuen ibiltteko moduen zorro bueltie, zan, bai!

- Zu joaten ziñen askotan zorroagaz?
- Bai nik hainbeste, oniño Joneri esaten netsen zapatuen: "Hi, handik Urumiñetik hona etorten gentozen gau hutsien gu, goizaldien etxera.
- Astoan?
- Bai, astoan.
- Zenbat eroaten zenduen?
- Joño ba, berrogeta hamar killo edo hirurogei, astoa segun zelako asto fuertie edo zelakoa dan.
- Eta ixotu ta dana etxera?
- Ez, /pentsetot/ pentsetan dot hamarrik bat /kentzetsela/ kentzen zotsela, osake dirue barik eurek /kentzetsen/ kentzen zotsen euren biherrerako hamarrik bat.
- Eta urune bakarrik hartzen zenduen, txokorrak-eta ez zenduezan eta ekarten?
- Txokorrak garandute eroaten artoa, bai ta garixe ta artoa garandute, bai.

7.5. Saiak Mugarra inguruan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Mendiolarai, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref**: AMO-139/020
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:40:40. **Bukatu**: 00:42:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
Natura » Fauna » Basoko animaliak
- **Laburpena**: Mugarra aldean sai (putre) asko zeuden, baia errespetu askokoak. Orduan elkarrizketa garaian baino sai gutxiago zeuden eta ez zuten horrenbeste kalterik egiten.

Transkripzioa

- Mugarra aldien saidxek-eta ibilko zien, ez?

- Askok. Askok, baia hamen baiño errespeto gehidxaiko saidxek. Ze oin saidxek ardidxe etzunde-edo harrapetan badeu billotsa eitten hasi eitten dabie. Jaten ta billotsagiñen, partuen badau ardidxe zein behidxe saidxek hasi eitten dabe iñor ez badaue. Eta hori zerk erakutsitte dauen badakizue? Jaten emon dotsielako jentiek. Jatie botaten otsie edonun eta 'ri-rau'. Horrek erakutsitte dau hori danori, bai. Saidxe oin baiño gitxiau bastante egon zan orduen. Bai, bai. Eta saidxe asko ibiltten da. Gure aittitte defuntuek esaten aben Mugerran harrapeu saidxe batan batek eta txiliñe ipiñi eutsela eta Azgorrin be ikusten biela saidxe txiliñegaz. Horrek asko. Eske horrek hori bidie buelta hori eitten askorik ez dabe biher saidxek, karo! Baia oin baiño saidxe gitxiau egon zan orduen. Hamen Orduña aldien edo horra juten bazara, hor saidxek ardi bat suelto ikusten badaben, saidxe baltzittute dau atuen. Ta hamentxe San Kristobalen be ointxe dala urte bi-edo, hor ardi bat garbi-garbidxen galdu zen. Bua! Segunduetan trituru abien dana, bai, holan. Horrek, horrek erakutsi otsie dana. Jaten eruen, bota eta hor jaten dabie.

7.6. Artilea gauza asko egiteko ezinbestekoa

- **Hizlaria(k):** Arregi Mendiolagarai, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** AMO-139/031
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:57:12. **Bukatu:** 00:58:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Artilea gauza asko egiteko erabiltzen zen: koltxoiak , galtzak, kordelak... Trailak (abarka-kordelak) txabilarekin egiten ziren. Uztarriaren zapa gainekoa, estalkia deiturikoa, ere egiten zuten.

Transkripzioa

- Esan dozu lanie koltxoietarako.
- Bai.
- Zertako gehixau ibiltzen zan?
- Ba galtzak eitteko be bai, kordelak eitteko be, honako... honako trailla-kordela ta orduen etxien eitten zien. Honeek, honek kordelok etxien eitten zien. Bai, bai. Gero txabilliaz ein traillak, ta eitten zien.
- Zapak?
- Zapak ardi-uliaz ez zien eitten, e. Zapa ganekue bai, buru ganekue, estalgixe esaten jakon horri, bai, idixen buruetako behixen buruetako narrue. Horretarako narruek izeten zien, narrue.
- Zapie narrue ta...
- Bai, zapie eitten daurien beste... lana fiñauaz-edo zapak. Ta gero galtzak eitteko asko. Galtza asko eitten zan orduen, etxeko galtzak usetan zien ta, etxeko galtzak edo txapiñuek edo hori izeten zan.
- Oin be aldien dekozuzenak etxien eiñikuek dire?
- Bai, etxien eiñekuek horrek, andriek eiñekuek.

7.7. Malatsa

- **Hizlaria(k):** Arregi Mendiolagarai, Krispin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** AMO-139/041
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:04:09. **Bukatu:** 01:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Artzain zebilela jatekoa gordetzeko makutoa erakusten du, eskuz egina eta behi-larruzkoa. Gazta freskoa apurtzeko malatsa ere badu esku artean. Malatsa gorostiaren egurrarekin egindakoa da.

Transkripzioa

- Ta hamen ogidxe edo gaztaie edo urdaidxe edo sartun lepuen eta izeten zan. Hau eskuz eindde dau. Honegaz apurtzen da gaztaie, gazta mamiñe apurtzen da.
- Zer da [...].
- Malatsa, bai. Malatsa honexez apurtzen da, gorostidxe, gorotidxegaz eindde dau hau.
- Eta bestie ze narru da ba?

- Behi-narrue. Behi-narrue eta behi-narruaz jositte. Lehenau abarkak be honakoxiek eitten zien. Txize sarri eittekoa zan hona, siku egoten zanien laban eitten zan eta busti ein biher eta txize ein eta hantxe hankari igurdi-ta. Bai, holaxe ibiltzen giñezan. Ta piño-orrixe edo behien egoten bazan sikue tente egon ezin.

7.8. Beraien jaiotetxea Zornotza zen lehen, orain Etxano

- **Hizlaria(k):** Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-141/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Bere jaiotetxea gaur egun Etxano izan arren, lehen Zornotza zen. Bera Zornotzako parrokiaren bataiatu zuten. Urak ebakitzen zuen muga. Lehen jaunartzea Etxanon egin zuen. Aita Etxanokoa zuen eta ama Boroakoa.

Transkripzioa

- Arrindden, Markos jaidxo zan Lekuen. Arrindde Arrindas, Zornontzako partie da.

- Etxano.

- Etxano Arrindas Etxano sekule be ez da izen. Oin Etxano-Amorebieta dana da, baia Arrindas. Ni nau bautidxeute Zornontzako parrokidxen. Arrindas gure etxie izen zan, ba Urumin esate baterako. Urumin.

- Etxano zan.

- Etxano Agustin jaidxo zan alderdidxe eta Bitor bizi, ointxe, ontsu urtebetie lehengo domekan izen zan, Bitor jaidxo zan eta Jose Arza-ta be Zornontzako partiek. Urek ebaitten zeuen, Zornontzako partie. Ta gure etxie ya Zornontzako partie.

- Errekien beste partien.

- Bai. Haren uren beste partie. Ure errekie ez zan izen, ur txarko bat pasetan zana. Ta gu Arrindas jaidxota etxien ta bautidxeute Zornontzako parrokidxen eta ezkondu be Zornontzan ein nintzen eta lelengoko jaunartzie ein neuen Etxanon. Ta ama gure ama letxerie izen zan ezkondu zanetik eta gehidxau, ze amamagaz Boroan jaidxo bera, ta nire aitte jaidxo zan Etxanon, Etxanoko partien. Ta Zirillen-ta aitten anaidxie zan. Ta harek Etxanoko partien jaidxoak. Ta gure ama Boroan: oin ha benenoen fabrikie, ez daitz er dan. Hantxe baserri baten Boroan jaidxoa.

7.9. Aita umezurtz umetatik morroi

- **Hizlaria(k):** Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-141/010
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:28:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Bere aita umezurtza zen eta umetatik joan behar izan zen morroi Bilbo aldera, Deustura hain zuzen ere. Etxean ez zuten urik izaten eta iturritik ekartzen zuten ura. Aitak han zuen bizimodua kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta aitte zan ba umezurtze izen zien aitte ta neba-arrebak. Ta zortzi urterako kridxeu joan zana baserri batera. Ta handik hamalau urtegaz Bilbora, Deustura, ta orduen sasoien ba Bilbon ez zan egon urik, ba menditik etorten zana tuberidxetan hartute eta zer ekarten zerienak labadero, osea, lehenau eitten zien modure, ba ein erropie garbitteko harrixegaz ba labaderoa. Ta orduen etxietan ez zanala lez egoten urik, iturri gorritik ekarten zerien ure edateko ta pitxerretan edo potijuetan edo kantiñetan-edo nonondik, baserridxetan gero eitten izen dogun modure geuk. Eta Deustun joan zan etxien eukin zerien laba, osea hori, pozue erropie garbitzeko ta alanbradure handixek ipinitte eskeitteko. Ta hori neska bat kridxedie ta gizona izeten ei zen, andrie bendejakaz akostunbertan zeuena. Amental zuri-zuri-zuri-zuridxegaz eta señora itzela lodidxe ez zerien eukin famelirik. Eta gizona ei zen behi bet esnie eukitteko etxerako ta nonorako be bai euzetarako eta be bai. Ta burdidxe karroak ibiltten zien modure batzeko ba basurie esaten dana, satsa, etxietan eitten dana ba oin kontenedoretara-eta botaten dienak modure, ba orduen basurerueri txistu bet jo eta bejatu. Ta oilloak eukitten ei zeriezan korralien eta ortuek ta andrie izen ei zen ba ortuetan hartzen zerien jeneroa batzen zerien satsakaz, zaramakoakaz, aparteu papelak eta zerak eskobara bategaz ta satsa ein eta behidxe eitten zeuen satsagaz, ba ortu-jeneroa.

7.10. Goizean goizetik baserriko beharretan

- **Hizlaria(k):** Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-141/017
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Etxean bakoitzaren beharrak ondo banatuta zituzten. Goizean goizetik hasten ziren eginbeharrak beraien etxean. Arlo handiak zituzten jorratzeko. Bordatzen eta josten era aritu zen; nebak, oster, Deustuko saletarretan ikasi zuten.

Transkripzioa

- Ba bere biherretan, bakoitza bere biherretara. Ta etorten giñen gero zortziretan ba etorten giñen danok armozetan eta ez bagiñen, libre eukitten bagañun-edo joaten giñenien, libre egoten zienak, osea, solora barriro ta soloan handidxe arlo handidxe ta erain. Aiztiak makiñe baten modure esan doana, zulotzen zeuzen, erraidxetxu bet aittek hiru hortzeko zeragaz, illarak artez egon deitazan, ta gero besteik, zulotu. Ta nik arto eta babie edo zera erain atzetik eta gero behe-behien pareu eta danok ganauegaz barik, eitten gañun uruntxutsuena bota zulora eta danak artez-

artez ipini, dana bardin-bardin-bardintsu ipini eta solo arlo handidxe labrantza handidxe ta bueno. Ta holantxe, ta holan zan bizimodue. Gero josten, bordetan ta hatan eta horretan eta nebak, neba gaztiaua, ni baiño lau urte gaztiaua, Pablo, ta Kalisto sei urte ni baiño gaztiaua, horrek egon zien bosna urte salesianuetan Deustun, ba ezetuko dozu "Salesianos" entzunde, ezta? Deustun. eta hori eitten, zera.

8. Lanbideak

8.1. Dendan saltzen zutena

- **Hizlaria(k):** Izagirre Esturo, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-016/014
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:24:53. **Bukatu:** 00:26:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Dendan zer saltzen zuten azaltzen du: galletak, ardoak, xaboia, olio, ogia, sardina zaharrak, kafea, azukrea... Arraina eta haragia nondik ekartzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Zer egoten zan dendan?
-Ene! Danetik.
-Be bai?
-Dendan? A! e...
-Gaurko beste gauza?
-Ez, ene! Lelengotaz zuk pentsetan dozu oingo moduko... bueno, galletak eta ardauak eta likorrak eta horrek asko saltzen gaiñuzen. Ardaia beti saltzen zan asko. Baia zer esango dotsut, ba? hainbeste, oin dauen beste geuze horrek galletak-eta be Maria edo bizkotxo edo zera, baia oin dauz... Ez zan ez. Jaboie, ta orixoa, ta ogixe, ta horrek e... sardiñe zaharrak asko saltzen zien. Bueno, gerra ostien sardiñe zaharra...! Niri be asko gustetan jate, e! Ta oin, klaro, oin kapritxo bat da, oin karuei ei dauz. Eta orduen asko ba... hori, basarriko gauzie, basarrixe izen zan danak eta. Ta zer esango dotsut ba?
-Peskerie etorten zan?
-Kafie betik. Kafie eta azukerie eta horrek... basarrixe izen arren, asko gustetan zan kafie, e.
-Ta hori: arraiñe eukittek, peskaterie etorten zan?
-Etorten zan astien baten edo. Bai, horrek bermeanak-eta etorten zien, bai, euren karro zerakaz edo. Ta okelie be Zorrontzatik karro baten etorten zan, okeliaz be bai ezetute dekot. Karnazerixe gero Euben ipini eurien, baia ariñau etorten zan karrotxuagaz -Raimundo-edo eukien izena pentsetan dot eta- saltzen.

8.2. Ama esne-saltzailea, goizean goizetik beharrean

- **Hizlaria(k):** Gerediaga Gastelu, Teodora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** AMO-141/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:19:52. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Arrindan bizimodu gogorra eta polita zuten, poza zen nagusi. Labrantza handia zuten eta lau behi zituzten. Ama esne-saltzailea zen eta goizean goizetik hasten zen beharrean, zortzietako etxetik irteteko. Auzoko esneak etxerik etxe batzen zituen. Etxera bueltan ogia ekartzen zuen.

Transkripzioa

- Ba beittu, ba bizimodu gogorra ta politte ta poza. Ni ba labrantzan handixe eukin geñun ta jeneralien lau behi egoten zan. Ama esniekaz goizien zortziretan urtetan zeuen, goizien goizetik seietan jagi eta beren kantiñek eta beren geuzek ipiñi ta zortziretan urtetan zeuen. Euzoetako esniek be ekarten dotsiezan eta asto baten esnez beteta, etxerik etxe esniek. Ta gero bueltan, panaderidxetik ogidxek eta erreziñoko denporan be reziñoa be bai. Ta erreziñoko denporan ogidxek ekarten zeuzenak.

9. Herria, azpiegitura

9.1. Zornotzak Etxano ostu zueneko

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMO-104/013
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena:** Etxanoko herria ostu egin zutela dio. Beraiek ez zuten nahi izan Zornotzagaz batzerik, baina Francoren sasoia zenez, eta agintean zeudenak Francoren aldekoak zirenez, ezin zuten ezer egin.

Transkripzioa

- Geure herrixe be ostu /eiskuen/ ein zoskuen, Etxano herrixe izen zen. "El año cinquenta y uno"an, ni soldau etxera etorteko nauela.
- Ostu.
- Ostu! zera haixe izena emottiegaittik bakarrik, "Amorebieta-Etxano" ipinttiegaittik.
- Zuek ez zenduen gure izen Etxanokoak, iñundik iñora?
- Keba! gero be hainbet batzar be ein geñun, baia nundik.
- Zelan bizi izen zendun ha epokie, Zornotzagaz batutie-eta.
- Ba zer? guk ezebez, orduen ez euan txirristadarik eitterik. Francoan denporie zan, frankistek zien, alkate, teniente alkate, danak frankistek zien, ta hoixe, besterik ezebez.

9.2. Tranbia; plazara saltzera

- **Hizlaria(k):** Legorburu Uriarte, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMO-104/032
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Bere ama domekero joaten zen Zornotzako plazara bendejarekin, horrela errekaduak egiteko dirua ateratzen zuten. Durangorako tranbia gerra aurretik egon zen, bonbardaketetan apurtu egin baitzituzten bideak. Gerraostean Bilboranzko noranzkoan zegoen, behin San Mamesera joan zen partidu bat ikusten tranbian. Zeanurira ere joan zen bertako errota batera. Bilboko plazara erregaterak eta esne-saltzaileak joaten ziren. Zornotzako merkatu-plaza parkeko arbolapeetan eta udaletxe aurrean ezagutu du.

Transkripzioa

- Bendejerie zanak, gure ama diarixo joaten zan diarixo, domeketan, Zornotzan plazie. Ta eroaten zeuen porruek edo patatie asko eukitten zeuenien edo babie askotxu eukitzen zeuenien, errekaduek eitteko dirue hartuten zeuen, bai.
- Ta Durengora tranbixen-edo.
- Tranbixe Durengora ez dot ezetu nik, bueno ezetu dot gerra eurrien. Ta gerraostien etorten zan Zornotzaraiño, ze honek biok aputu ein zezan bonbardeoagaz ta zerakaz, baia Zorrontzaraiño bai. Zorrontzara nik eukiko nittuen hamasei urte? hamasei, hamazazpi igual ez. San Mamesera joan nitzen partdiue ikusten tranbixen, haixe akordue dekot, bai, bai. Ta joanda nau Zeanuriraño ba errotara, arto-zakue artu eta ixoten. Zeanurire allegetan gauzela baño arintxuau, kamiño zaharretik, errotie ta hareixeño-ta, hamengoa miserixe zan.
- Ta ama ez zan joaten Bilbora-edo bendejiegaz?
- Ez, ez. Bilbora joaten zien ba erregeterak esaten jakien horrek erosten zittuezan baserrixen arrutzek ta bendeja onak-eta, bai Etxanotik Bilbora letxeruek be bi egon zien, esnie.
- Ta zuek be esnie saltzen zenduen?
- Bai apur bet. Bueno segun, behixe txahala eindde edo zelan egoten zien, bai. Eta letxeru bi Bilbora joaten zienak be bai.
- Ta plazie nun euen Zornotzan plazie?
- Bueno nik ezetu nauen parkien, lelengoko ezetu neuena, ta gero aiuntamientuen eurrien ta han azpixon, oin hori dana kendute dau.
- Hori neuk ezetu dot.
- Bai ba, bai ba. Zuk ezetuko ez dozu ba! gero hor be.
- Orduen aiuntamientukoa antziñeko kontue da be bai.
- Bai, bai ta nik ezetu neuen parkien arbolapietan eb bai.
- Arbolapietan ta eurixe zanien-edo?
- Ba ahal dan bezela, ahal dan bezela, ez zeuan hamen, ahal dan bezela zan, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Txinboak gozoak dira frejituta jateko (AMO-001/005)

Txikitan tiragomagaz harrapatzen zituzten txoriak. Perdigoia jarri, eta txinbotan egiten zuten asko. Txinboa gozoa zen, koipe asko zuen, eta gustura jaten zuten, frijituta.

2. Usotan Zugastietan (AMO-001/007)

Usotan ere egin izan dute. Amorebieta eta Zugastietan artea leku ona da. Zaletasuna ere handia izan da beti inguru horretan.

3. Trena errailetik irten zenekoa (AMO-002/002)

Zornotzarantz trenez zetorrela, trenbidetik irten eta haitzaren kontra joan zen trena, Lemoa inguruan. Bena bat hainbat lekutatik puskatu zitzaion. Hogeitaka anbulantziatan eraman zituzten zaurituak ospitaleetara.

4. Merkataritza-peritu ikasketak egin zituen (AMO-002/005)

Jauregibarria auzoko Aldekoena baserrian jaio zen. Zornotzako eskolak amaituta, Durangora bidali zuen amak ikastera. Pepak merkataritza-peritu ikasketak egin zituen. Lau ahizpatatik zaharrena izan zen Pepa. Ama etxekoa zen, eta aita, berriz, Ibarra auzotik etorritakoa.

5. Gertuago zegoelako, Etxanoko eskolara joan zen (AMO-002/007)

Bera umea zenean, Zornotza eta Etxano udalerri ezberdinak ziren. Etxanoko eskola gertuago zegoenez, Pepa bertan eskolatu zen. Eskolako maistra Udaleko idazkaria ere bazen.

6. Gerragatik Zamudiora egin zuten alde (AMO-002/014)

Gerra Zornotzara etorri zenean, ganadu guztiarekin Zamudiora egin zuten alde. Aita "Hidroeléctrica Ibérica"ko (gero Iberduero) langilea zen eta Bilbora bidali zuten lanera. Ama Zamudiotik Zornotzara joan zen behin baserria ikustera, eta soldaduz beteta aurkitu zuen.

7. Burtzeñatik itzuli eta Zornotza erreta (AMO-002/016)

Zornotza inguruan dagoen Burtzeñatik itzuli ziren etxera. Zornotza erreta ikusita pena handia sentitu zuen Pepak. Aldekoena baserria ondo zegoen.

8. Venezuelara jende asko joan zen Zornotzatik (AMO-002/018)

Zornotza erre zutenean, zornotzar askok alde egin zuten herritik. Bilbo edo inguruko herrietara joan ziren asko. Venezuelara ere jende asko joan zen. Baserritar batzuek euren baserriak berreskuratu zituzten itzuli zirenean, baina beste batzuei baserriak kendu zizkieten.

9. Zornotzako emakumeak Saturrarango kartzelan (AMO-002/019)

Espetxeratutako baserritar batzuek den-dena galdu zuten. Zornotzako emakume asko Saturrarango kartzelan egon ziren, batzuk hiru urte. Batzokiko zerrendatan zeuden emakume guztiak eraman omen zituzten kartzelara.

10. Lemoatxeko gorabeherak (AMO-002/022)

Gerra Zibilean, inguruetako bideak laster konpondu zituzten. Gudari asko hil omen ziren "Peña Lemoa"ko batailan. Hiru bider galdu eta berreskuratu omen zuten Lemoatxa. Bilbon sartzeko bide garrantzitsua zen Lemoatik zihoana.

11. Mairuei beldurra (AMO-002/024)

Auzoko mutil bat hil zen Ebroko batailan. Gaztetan gauza txarrak azkar ahazten direla dio Pepak. Gogoan du nola, gerra denboran, aitarekin irratia entzuten zuen eta nola mairuei beldurra hedatu zen. Gerrako inpresiorik handiena Zornotza erreta ikustea izan zela dio.

12. Gerraren ondorenean, tuberkulosia (AMO-002/025)

Etxearekin batera, negozioa ere erre zitzaion familia bati. Familia horrek tuberkulosiaren izurria ere jasan zuen geroxeago. Tuberkulosi izurri larria izan zen orduan.

13. Kupoarekin udaletxeak tranpa egiten zuen (AMO-002/027)

Etxean izan zuten militar sozialistaren familiak kotxea eta txoferra ere bazituen. Txoferra Ormaiztegiko Santi izeneko bat zen. Santi hil zen arte izan zuen Pepak harekin harremana. Kupoaren garaian, pisuan tranpa egin eta soberak zinegotzien artean banatzen zituzten. Errazionamenduko olio, arroza eta azukrea gogoratzen ditu.

14. Ogia egiteko labea auzunearena (AMO-002/029)

Aitak etxea erosi zuenean, ogia egiteko labea auzune osoarena zen, baina auzoekin tratua egin eta beraientzako bakarrik geratu zen labe hori. Pepa umea zenetik bere jaiotetxeak aldaketa nabarmenak izan ditu.

15. Administrari, frantses irakasle eta itzultzaile (AMO-002/032)

Durangoko Areitio baratzezainaren negozioaren administrazioa eramateari ekin zion lanean, eta hamar urtez jardun zuen bertan. Zornotzako akademia batean beste hamar urtez frantsesa irakasten egon zen. Handik "Forjas de Amorebieta" lantegira joan zen itzultzaile lanetara eta bertan geratu zen 25 urtez.

16. Ahal zen modura hizkuntzak ikasten (AMO-002/033)

Itzultzaile-zuzendaritza idazkari bezala hasi, eta kanpo-merkataritza sailean jarraitu zuen. Frantsesa Durangoko moja batekin ikasi zuen, eta aitaitaren laguna zen itsasontzi kapitain batek ingelesa irakatsi zion. Lanean hasi aurretik, Frantziara joan zen urtebeterako hango mojetan frantsesa ikastera.

17. Gerran Larreara eta Zaldibarrera (AMO-003/003)

Eskola aldundiarena zen, eta lapitzak eta eskolako materiala doan ematen zituzten. Jolas-orduetan, perretxiko bila bidaltzen zituzten. Gerra hasi zenerako, oraindik lau erregelak ikasi gabe zituen. Gerra hasi zenean, ganaduekin Larreara joan ziren, eta handik soldaduek Zaldibarrera eraman zituzten. Zaldibarren, taberna batean bizitzen egon ziren hilabetez, aita Autzaganen ganaduekin zegoen bitartean.

18. Gerra gogorra, baina goserik ez (AMO-003/006)

Gerraostean uzta handia izan zuten, ordura arte, oster, gutxi. Hala ere, ez zuten goserik pasa. Txarrena etxeokak non zeuden ez jakitea zen. Nazionalak Bilbo hartu zutenean, bere ahizpak etxera bueltatu ziren.

19. Etxetik frontea bistan (AMO-003/007)

Beraien familian inori ez zitzaion ezer pasatu gerran, nahiz eta askotan balak hurbil sentitu. Frontea San Martinen eta "Peña Lemona"n egon zen eta etxetik dena zuten bistan. San Martinetik obus bat bota zieten etxera.

20. Baserriko jeneroa udaletxean entregatu behar (AMO-003/009)

Artoa, garia, patata... entregatu egin behar izaten zuten udaletxean. Bakoitzari 3-4 anega eskatzen zizkieten. Ez zieten begiratzen familia handia bazen edo ez.

21. Errazionamendua eta ogia (AMO-003/010)

Errazionamenduan azukrea, arroza... jasotzen zuten. Auzokoak ei ziren txarrenak, sekula behar egin gabeko alferrak. Labakoa sua, ogia, astean behin egiten zuten. Errazionamenduko ogia ezin zen jan.

22. Errotara gauez, ostenduta (AMO-003/011)

Ogia egiteko, irina behar zuten. Garia edo artoa ehotzea galarazita zegoenez, gauez joan behar izaten zuten errotara, ostenduta. Zeanuriraino joaten ziren. Boroan ez zegoen errotarik, Larrean eta San Pedron, oster, bai.

23. Odolostak eta txerri-hiltzea (AMO-003/015)

Txerria etxerako hazten zuten urtero. Odolostak lehen eta orain berdinean egiten zirela dio. Hala ere, etxerik etxe desberdina da prozesua. Auzoen artean beti izan dute trukatzeko ohitura, eta askoren ezin izaten du jan. Beraiek odolarekin batera kipula eta porrua bakarrik sartzen zizkieten. Txerria gabon ostean eta gabon aurrean hiltzen zuten, betiere ilbeheran. Txerriaren atal guztiak aprobetxagarriak dira.

24. Danetariko lanak behiak erastea baino (AMO-003/016)

Behiak lehen eskuz eransten zituzten. Juanak sekula ez ditu behiak eratsi, gainerako lanak bai, baina hori ez. Etxean errentan bizi ziren eta basoak ere sartzen ziren hor. San Roman basora joaten ziren ira bila.

25. Arropak garbitzeko bide luzea (AMO-003/018)

Bere etxe ingurua nahiko sikua zen. Errekan izaten zuten ura, baina udan ia agortu egiten zen. Sasoi batean urrunera arte joaten ziren arropak garbitzera, Izarrerraino. Arropa buru gainean eramaten zuten.

26. Xaboia etxean egiten zuten (AMO-003/019)

Bere amak etxean egiten zuen xaboia seboarekin. Zelan egiten zuten azaltzen du. Gerora "bolas maravillosas" izenekoak etorri ziren.

27. Koltxoia garbitzen (AMO-003/020)

Koltxoia garbitzeko barruko artilea soltatu egin behar izaten zen eta astindu, jo eta jo; ostean, berriro josi behar izaten zen. Artilea tina handi batean beratzen jarrita garbitzen zuten, lan asko izaten zuten.

28. Lutozko arropak tindatu behar (AMO-003/021)

Arropak astean behin garbitzen zituzten, nahikoa zen hori. Lutozko arropak tindatu egiten zituzten sarritan, baina askotan arin gorritzen ziren. Tindategira eramaten zituzten tindatzera. Zornotzan tindategia non zegoen azaltzen du.

29. Etxeko eta kortako garbiketak (AMO-003/022)

Etxea belauniko garbitzen zuten. Ereinotza usain ona emateko erabiltzen zuten. Zuritzeko karea erabiltzen zuten, baita kortan ere. Korta garbitzea ez omen zen hain gaitza.

30. Gaztetako arropa eta oinetako motak (AMO-003/023)

Gaztaro gehiena lutoz pasatu zuten: lehenengo aita hil zitzaielako eta gero amama. Oihala erosi ostean jostunak josten zizkieten, ez zuten erosten. Prakarik ez zituen nagusia izan arte jantzi; jantzitako lehenak txandalarenak izan ziren. Denetariko oinetakoak ibiltzen zituzten: abarkak, abarketak, zapatak... Erromerietarako abarketak janzten zituzten, koloretako zintekin.

31. Permanentea eta makillajea (AMO-003/024)

Permanentea egiten zuten gaztetan. Elenaren ile-apaindegira joaten zen, Larrabidera. Lagunek elkarri makillatzen ziren, begiak eta ezpainak baino ez, baina amak ikusi orduko kendu behar izaten zuten. Gonak janzten zituztenez, galtzak beti erabiltzen zituzten; hori dela-eta, ez ziren depilatzen. Bitxiak ez zituzten erabiltzen, belarritakoak baino ez.

32. Domeketako erromeria (AMO-003/025)

Bizkargi egunean, bertako erromeria amaitu ostean, Zornotzako erromeriara bajatzen ziren. Domeketako erromeria Zornotzan izaten zuten, Boroan ez. Martzelino aritzen zen soinua jotzen, oso estimatua zuten. Gaiztoak ei ziren, zaplazteko batzuk ere amandakoak. Baltseoan zein soltean aritzen ziren dantzari. Mutilek eurak atera beharrean, eurek ateratzen zituzten mutilak. Kalbarioko komentuko presoak ere joaten ziren erromeriara.

33. Lehengo hiletak (AMO-003/029)

Hiletak beti goizez izaten ziren. Elizkizunaren ostean tabernara joateko ohitura zegoen. Hurrengo domekan, olata-meza ospatzen zenean, bazkaria egiten zen. Hiletak oso garestiak izaten ziren. Gaubeila egiten zen. Hiletak gaztelaniaz eta latinez izaten ziren, euskaraz hasi zirela ez dira urte asko.

34. Konfesatu beharra (AMO-003/030)

Konfesatzea nahitaezko kontua zen. Bere lagun bati behin abadeak konfesategitik bota zutela kontatzen du. Penitentziak. Errezatu ere gaztelaniaz egiten zuten. Abade asko ezagutu ditu Zornotzan Juanak.

35. Abadeari, medikuari eta alkateari errespetua (AMO-003/031)

Abadeari eta fraideari errespetua zor zitzaionez, "don" jartzen zuten bere izenaren aurrean eta berari "Jauna" esan. Berorikan hitz egin behar izaten zitzaion. Alkateari eta medikuari ere tratu bera ematen zitzaien. Kapatxu medikua izan zuten eurek, zaldiz ibiltzen zen. Medikua etxerik etxe joaten zen.

36. Dentistara Durangoraino eta oinez (AMO-003/033)

Gerraostean Durangoko dentista batengana joan zen, oinez, ez baitzegoen tranbiarik.

37. San Pedroak Karmenak baino gustukoagoak (AMO-003/035)

Bere gaztaroko Karmen jaiak gaur egungoak baino politagoak izaten ziren. Hala ere, beraiek gogokoago zituzten San Pedro jaiak. Denetarik egoten zen: erromeria, probak, asto-karrerak... Karmenetan karroza politak egiten ziren.

38. Tabaka, taietan, pilotan... (AMO-003/038)

Umetako jolasak: tabaka, taietan, pilotan... Automobilik ere ez zenez pasatzen, errepidean bertan jolasten zuten. Tabaka neskak bakarrik aritzen ziren; jokoa azaltzen du. Pilotak gomazkoa izaten ziren. Bere ahizpek bazituzten trapuzkoa panpinak, baina berak ez, ez zen panpina zalea.

39. Bizikleten alkilerra (AMO-003/039)

Behin beraien etxe ondoan zeuden mutil batzuei bizikleta hartu zienekoa kontatzen du. Bizikleten alkilerra "Mokopalu"k zuen.

40. "La dinamita"ko lana (AMO-003/042)

15 urterekin Galdakaoko "La dinamitan" hasi zen lanean obusak egiten, 17 urte zituela esanda. Zazpi hilabete baino ez zituen aguantatu, oso lan gogorra zen, osasunerako kaltegarria. Juana belarrietatik odoletan hasi zen. Zein lan egiten zuen azaltzen du.

41. Soldata ona, baina arriskutsua (AMO-003/044)

Ez du gogoan zenbat kobratzen zen, baina "La dinamita"n ondo kobratzen zuten. Egunero-egunero egoten zen langileren bat txarto, anbulantzia egunero joaten zen.

42. Lehengo ilusioa galbidean; Gabonak (AMO-003/049)

Lehengo bizimodua alaiagoa zen, gaur egun ez dago ilusiorik. Gabonetan aza, bakailaoa eta turroia jaten zuten.

43. Hondartzari beldurra (AMO-003/056)

Behin Sukarrietako hondartzan susto itzela izan zuten eta ordudanik beldurra ematen dio itsasoak. Kanala aldera sartu ziren eta korronteak eraman zituen Juana eta beste lagun bat. Bainujantziak goitik hasita izterretarainokoak izaten ziren.

44. Umeak bataiatzera eta konfirmazioa egitera Boroatik Etxanora (AMO-006/001)

Boroa Amorebieta-Etxanoko auzoa da. Garai batean umeak Etxanora eraman behar izaten ziren bataiatzera, oinez, 7-8 kilometroan. Bera sasoi onean jaio zen, San Antolin egunean, baina ahizpa gazteagoa neguan jaio zen, eta elurrarekin joan behar izan ziren. Umea eramaten zihoan emakumea erori egin omen zen bidean. Geroago, artean txikiak zirela, konfirmazioa egitera eraman zituzten segidako hiru neba-arreba.

45. Jaunartzeko oroitzapenak (AMO-006/002)

Lehen Jaunartzea Larrean egin zuen, gerra hasi aurreko urtean. Zuriz jantzi zen eta ospakizun garrantzitsua izan zen berarentzat. Gero, izebarekin tranbia hartu eta Durangora, "Foto German" en argazkiak ateratzera. Gero lurretako izebaren etxean bazkaldu zuten.

46. Gerran Bilbo aldera, ebakuatuta (AMO-006/003)

Jaunartzea egin eta laster, gerra zibila hasi zen eta ebakuatu egin zituzten gurasoak, lau neba-arreba eta izeba. Aita Larraskitura joan zen behiekin; umeak amarekin Santutxura, osabaren etxera. Denak ez ziren kabitzen osabarenean eta beheko solairuko gela bat utzi zieten. Sirenak jotzen zuenean, babeslekura joaten ziren, komentuko sitora. Umeak jolasean ibiltzen ziren.

47. Gerra sasoiaren, Bilbon, bonbak etxe ondora (AMO-006/004)

Behin, gerra sasoiaren, Bilbon elizan zeudela, sirena-hotsa hasi zen eta bonbak bota zituzten euren etxe ondoan. Soldadu bat zauritu zen eta odoletan eraman zuten. Ahizpa txikia eskaileretatik behera erori zen danbarradarekin eta, konortea galduta, bere onera etorri ezinik egon zen.

48. "Kaittanako" eskolaraino oinez; jateko eskasia gerraostean (AMO-006/005)

Etiket gertu auzo-eskola zuten, baina Zornotzako partean zegoenez eta beraiek Etxanokoak zirenez, ez zieten uzten hara joaten. "Kaittanako" eskolara joaten ziren, lau kilometroan, oinez. Etiket eramaten zuten bazkaria. Gerraostea zen eta, sarritan, bazkaltzeko talo gogorra eta txokolate ontza bat besterik ez. Iluntzean gosetuta etxera. Baina etxean ere ez zen asko egoten: berriz taloa eta esnea edo porrusalda. Udara partean patatak saltsa berdean edo baba zuriak.

49. Osabaren hilobira Etxanora (AMO-006/006)

Senideren bat hiltzen zenean, 2-3 urtean hilarrira joateko ohitura zegoen. Gerra sasoian osaba hil zitzaien eta amama joaten zen haren hilobira, Etxanora. Batzuetan amamak beraiei eskatzen zien joateko, txakur handi baten truke. Artean argimutilik ere ez zegoen Etxanoko elizan; atrilak egoten ziren. Derrigortasun antzekoa izaten zen senideen hilobira joatea eta norbera joan ezin bazen, eliza inguruan bizi zen norbaiti ordaintzen zitzaion. Ahizpak txandaka joaten ziren. Ahizpa gazteak amamari bizikleta eskatu zion hilobira joan ahal izateko. 1200 pezeta balio zituen bizikletak.

50. Zornotza eta Etxano banatuta, 1951ra arte (AMO-006/007)

Zornotza eta Etxano banatuta egon ziren 1951ra arte eta zorrotz betetzen zen hiletak edo bestelakoak bakoitzak tokatzen zitzaion herrian egitea. Aitona-amonak eta gurasoak Etxanon lurperatu zituzten.

51. Baserrian neskame; domekero mezara; jatekoa (AMO-006/008)

13 urterekin neskame joan zen eta bi urte egin zituen. Lau kilometroko bidea zuen herrira eta oinez joan behar domekero, mezara. Bestela, inguruan zegoen San Antonio auzora joaten zen, goizeko 7etako mezara; neguan, linternarekin edo suziarekin. Suzia zer den: garia jo ostean geratzen den "eskutia", su emanda. Asteaz zehar soroko lanak egiten zirenez, domeketan etxeko lanak: etxea garbitu, hareaz igurtzi... Jatekoa ere berezia egoten zen domeketan: garbantzuak, aza eta zopa eta garbantzuarekin egositako haragi pixkaren bat ere bai.

52. Zornotzan eta Bilbon neskame (AMO-006/009)

Neskame egon zen baserritik etxera itzuli zen, aitona zaintzearren, eta geroago Zornotzako etxe batera joan zen neskame. Bi urte han egin ostean, Bilbora joan zen neskame. Bilbon ugazabandrea ona izan omen zuen eta jateko nahikoa ematen zieten. Hiru urte egin ostean, etxera itzuli zen. Senargaia ezagutu eta gazterik ezkondu zen, 21 urterekin.

53. Gorpua elurtzan oinez Etxanoraino eraman behar (AMO-006/010)

Amama hil zenean, elurtza izugarria zen. Artean gorpua oinez eramaten zen Etxanora. Abadea eta "aurrerixe" esaten zitzaion emakume bat joaten ziren aurretik eta atzetik andariak gorpuarekin. Orduko ibilerak. Handik bi urtera aitona hil zen eta ordukoan ere eguraldi txarra tokatu zen. Hura ere andariak eraman behar izan zuten. Orduetik aurrera hasi ziren gauzak aldatzen: ehorztetxea sortu, bideak berritu...

54. Baso-erromerietan dantzan, abarketak apurtu arte (AMO-006/011)

Gaztetako kontuak. Zornotzara joaten ziren erromeriara, baina baita baso-erromerietara ere. Dantzan ibiltzen ziren, abarketak apurtu arte. Bizkargiko Santa Krutzeekin hasi, San Isidro, Erkolesko Pazkoak... Erkoles urrutia geratzen zitzaion eta goiz bueltatu behar etxera; batzuetan nebarekin edo auzoko mutilen batekin bizikletan, ahal zen moduan.

55. Durangoko San Antonio jaietatik etxera orduko berandu (AMO-006/013)

San Antonio jaietan Durangora joaten ziren. Musika egoten zen. 11etako trenean etxera. Trena ez zen garaiz ibiltzen beti eta batzuetan Zornotzara orduko 12ak izaten ziren, eta handik artean ordubeteko bidea Boroara. Etxean errieta gero. Halakoetan, aitzak goizeko seietan esnatzen zituen biharamunean, soroan behar egiteko. Orduko bizimodua. Pozik bizi ziren.

56. Pasadizoa: lapurtu egin nahi ziotelakoan, ihesi (AMO-007/004)

Ezagun bati gertatutako pasadizoa. Poltsa diruz beteta jaitsi zen tranbiatik eta, etxerantz zihoala, norbait atzetik zuela sumatu zuen. Larri joan zen, iheska, eta ez zen konturatu inguruan bizi zen artzain bat zela eta biak elkarrekin joatea besterik ez zuela nahi.

57. Ama lehen aldiz zinemara joan zenekoa (AMO-007/005)

Ama lehenengo aldiz zinemara joan zeneko kontuak.

58. Kuadrillan erromeriara; bizikleta bakarra auzoan (AMO-007/007)

Kuadrillan joaten ziren erromeriara, neskak eta mutilak elkarrekin. Bizikleta zuena "señorito handia" izaten zen orduan. Bizikleta bakarra izaten zuten denentzat, beharra zegoenerako.

59. Kobazuloan gertatutako pasadizoa (AMO-007/009)

Behin aita lehengusu apaizarekin kobazulo batera joan zenean gertatutako pasadizoa. Txori gorri-gorri bat ikusi omen zuten. Aitari "Ezkerra" esaten zioten, bola ezkerrekin botatzen zuelako.

60. Bedeinkazioen indarra; zenbait adibide (AMO-008/002)

Urte batean udaberrian eguraldi txarra egin zuenez, maiatzean artean patatak erein gabe zituzten. Artoa ereiten zebiltzala, soro erdi patata erein zuten, baina koko ugari egin zitzaion. Abadea ekarri zuten patata bedeinkatzera eta biharamunean patatak ez zuen kokorik. On Simon Zenarruzabeitia lehengusuak eta Larreako karmelitek arratoiak uxatzeko egindako bedeinkazioak. Amamak ere kontatzen zituen halako kontuak.

61. Makuludun emakumeari gertatutako miraria (AMO-008/003)

Emakume ezagun bat makuluekin ibiltzen zen urteetan. Elorriora joan zen Balentin Berriotxoaren peleginaziora eta meza erdian zerbait erori omen zen goitik behera. Emakumea makulu gabe irten zen elizatik eta ez zituen gehiago behar izan.

62. Etxean entzundako kondairak (AMO-008/004)

Abadeari galdetu zion eta sorginak existitzen ziren eta izena duen guztia badela erantzun zion. Zenbait istorio edo kondaira. Kobara joan eta txori gorri bat ikusi zutenekoa. Mari Urrikaren inguruko kontuak.

63. Bedeinkazioak urtero; konjurua (AMO-008/005)

Abadeak urtero bedeinkatzen zituen etxe inguruak. Denbora txarra eta ekaitz-arriskua nabaritzen zenean, elizpera irten eta konjurua egiten zuen.

64. San Juanetako kanta (AMO-008/006)

San Juanetako kanta eta ohiturak.

65. Garai bateko erromeriak (AMO-008/007)

Garai bateko erromeriak: Santa Krutzak izaten ziren lehenak, ondoren San Migelak, San Antonioko Pazkoak Arkotxeko San Bizente jaiak...

66. Denda nola jarri zuen (AMO-009/008)

Baso txikitxo bat zuen pinuekin. Hura salduta eta amak emandako diruarekin, 40.000 pezetarekin, denda jarri zuen. Dendarako generoa hiru hilabeteen ordaindu zuen. Denda gutxi zegoen eta jendea joaten zitzaion. Aitak lanean jarraitu zuen. Goiz jaiki eta berandura arte lanean.

67. 22 urterekin baserrira ezkondu (AMO-009/010)

Gerraostean baserrira joan zen osaba-izebengana eta orduan ezagutu zuen senarra izango zena. 22 urte zituen ezkondu zenean. Baserrira ezkondu ziren. Alaba eskolara hasteko garaia iritsi zenean, erabaki zuten kalera jaistea. Dena euskaraz egiten zutenez, alabak ez zekien gaztelaniaz. 7 urterekin maistra euskaldun batzuek irakatsi zioten gaztelania. Gero mojen eskolan ibili zen. Semeari asko kosta zitzaion gaztelania ikastea.

68. Orue baserria; taberna-ostatua izan zuen (AMO-010/002)

Pasiotarren komentua dagoen tokian, Orue izeneko etxea zegoen, bere amaren jaiotetxea; eta, gerra denboran, apurtu egin zuten. Gerraostean, familia luzaroan egon zen txabola batean. Komentua egiten ziharduten langile giputzak Tereren taberna-ostatuan zeuden ostatu hartuta. Autobideak kendu zion taberna Tereri.

69. Andrak etxean eta gizonak tabernan (AMO-010/006)

Orduko denboretan andreak eta umeak ez ziren tabernetara joaten. Meza ostean gizonak tabernara joaten ziren eta eurak etxera. Umeek ez zieten gurasoei erantzuten gaur egun egiten duten moduan.

70. Domeketan meza eta erromeria (AMO-010/008)

Meza entzun eta etxera joaten ziren. Igande arratsaldeetan San Antonioko erromeriara joateko ohitura zuten. Aremarixako (abemariatako) kanpaiak noiz joko zuten zain egoten ziren.

71. Aremarixako kanpai-hotsekin etxera (AMO-010/010)

Nobiorik izan ezean, aremarixakoak (abemariatakoak) jotzen zutenean etxera joan behar izaten zuten. Joaten ez baziren, hurrengo igandean zigorra jasoko zuten. Gazte asko zeuden San Migel auzoan; eskola ikaslez beteta egoten zen.

72. San Migelgo eskola (AMO-010/012)

Neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten maistra batekin, doña Pascualarekin. Eskolara gustura joaten zen, baina itaurrean egin behar zenean etxean geratzen zen. Itaurrean egitea etxeko zigorretako bat izaten zen.

73. Eskolan euskaraz; bandera egunero jarri (AMO-010/013)

Eskolan berba euskaraz egiten zuten, baina liburuak erdaraz zeuden. Ikasle guztiek gela batean ikasten zuten. Eskolako ordutegiarekin batera, bandera egunero atera eta kentzen zuten. Gerraostean, Tere ez zen eskolara joan. Eskolan josten ere ikasi zuten apur bat.

74. Bilboko bonbardaketa (AMO-010/016)

Gerra denboran Bilbon egon ziren, izeko baten etxean. Pagasarrira behiekin zihoazela bonbardaketa hasi zen. Aitak ganaduentzako belarra Mungiatik ekartzen zuen. Lau familia elkarregaz egon ziren.

75. Aita kartzelan (AMO-010/018)

Gerra Zornotzara ailegatu zenean, Bilbora ebakuatu zituzten. Aita preso hartu zuten Karmelon, Bilbon. Aita bisitatzeko sekula ez zuten eragozpenik izan, baina behin amamagaz zihoala salbokonduktua eskatu zien.

76. Goserik ez (AMO-010/020)

Gerran ebakuatuta joan zirenean Bilbo aldera ganaduak ere eramane zituzten,. Eurak Irala kalean egon ziren. Bi hilabete egon zituzten guztira kanpoan. Bueltan etxea okupatuta eta hustuta aurkitu zuten. Ahal zen bezala atera zuten aurrera bizimodua; hala ere ez zuten goserik pasatu. Sasoian sasoikoa jaten zuten ez gaur egun bezala.

77. Porruak, baba eta esnea saltzen zuten (AMO-010/021)

Solo handiak izan zituzten etxean, baina autobidea egoterakoan arlo handiak kendu zizkieten. Diru apur bat jaso arren gutxi izan zen. Bendejearekin ezkondu aurretik joaten zen plazara, betiere Bilboko san Anotngo plazara han izan baitzituzten bezeroa finkoak. Porrua eta baba zen gehien saltzen zutena. Esnea inguruan banatzen zuten. Esne-kantinak tranbiara eramaten zituen bere aitak eta horrela banatzen zuten.

78. Baserriko jatorduak (AMO-010/023)

Euban eta San Migelen taberna-dena egoten zen eta bertan erosten zuten behar zutena. Jaten zuten arrain bakarra aitak erreka harrapatutakoa zen. Bestela, zegoenarekin konformatu behar. Itsasoko arrainik ez zuten jaten, baina bakailaoa bai. Gabonetan zer jaten zuten.

79. Behiak eta txerriak hiltzen (AMO-010/024)

Behiak ezkutuan hil behar baziren ere hiltzen zuten eta ez zuen goserik ezagutu. Txerria hil aurretik abisatu egin behar izan zen eskubideak ordaindu behar izaten baitziren. Matarifeak beti eramaten zuten zati bat.

80. Arropak garbitzen (AMO-010/026)

Zelako arropak izan zituzten. Ez zuten askorik izaten baia aldatzeko beste bai. etxean ematen zioten xaboia arropen eta erreka joaten ziren garbitzen. Txinbo eta lagarto xaboiak erabiltzen zituzten. Gizonen lantegiko arropak zikin asko zutenez, irakiten jartzen zituzten. Izarak kirrukoak izaten ziren.

81. Antzinako sehaskak eta pixoihalak (AMO-010/028)

Sehaskak egurrekoak izaten ziren, azpian ol bat izaten zuten eragin ahal izateko. Umeen pixoihalak zelako ziren azaltzen du. Pixoihal horiek paxarekin lotzen ziren gerrian, eror ez zitezen.

82. Hilerokoari eta umeen jatorriari buruz ezin berbarik egin (AMO-010/029)

Emakumezkoak hilerokoarekin egoten zirenean, toallen antzeko oihal batzuk erabiltzen zituzten. Hilerokoa ez zen hitz egiteko gai arrunta, ezkutukoa baizik. Umeak ere zikoinek ekartzen zituztela esaten zen. Beraien auzokoen neskameari lehen aldiz hilerokoa etorri zitzaionean, neska hark ez zuen jakin hura zer zen ere ez.

83. Hilerokoarekin egonez gero ezin hainbat lan egin (AMO-010/030)

Hilerokoa izaten zutenean baserriko hainbat lan ezin ziren egin: kipula txikitu, odolostak egin... "Eskuek garbi dekozuz?" galderak, ea hilerokoarekin zauden esan gura zuen.

84. Ilargiaren eragina (AMO-010/031)

Baserriko lan asko egin aurretik, kontuan hartzen zen ilargiaren egoera: ortuariak erein, txerria hil, gazta egin...

85. Bere haurdunaldiak (AMO-010/032)

Senarra Oromiñoko lurreta aldekoa izan zuen. Erromeria ezagutu zuten elkar. Ezkondu aurretik gelditu zen haurdun eta jendearen artean burrundara sortu zen. Adibidez, Bakixa auzoko erromerian dantzan zebilela, beste bati entzun zion"Hi, Teresa enbarazada dauela guzurre dok e!".

86. Bekatu txikiak eta handiak (AMO-011/002)

Fraileak apaizak baino gogorragoak zirela dio. Konfesatzera joaten zirenean, apaizak galdetu egiten zien bekatu handia edo txikia egin zuten. Bekatu txikia zer izaten zen azaltzen du. Hamabost egunean behin joaten ziren konfesatzera.

87. San Migeletako kantaren zati bat (AMO-011/004)

Jaiak San Migelak izaten ziren. Kantaren zati bat abesten du.

88. San Migel jaietan meza, dantzarako musika eta gonbidautzak (AMO-011/005)

San Migel eta San Migeltu egunetan jai egiten zuten. Gonbidautzak egiten zituzten. Dabonlintxeroak aureskua jotzen zuen meza ostean. Arratsalde zoinujolea izaten zuten dantzarako. Senarra ezpata-dantzaria izan zen lurretan.

89. Aratosteetan tostadak eta txitxiburduntzia (AMO-011/007)

Aratosteetan tostadak jaten zituzten, ogiarekin edo ahiarekin egindakoak. Txitxiburduntzia egiten zuten, domekan.

90. Gabonetako kanta (AMO-011/010)

Gabonak ospatzen zituzten. Gabonetako "Gabon gabeen" kanta abesten du. Errege bezperan zapata ipintzen zuten, ondo garbituta. Goxoren bat jasotzen zuten oparitan.

91. San Juanetan soroak bedekatzeko (AMO-011/011)

Sutondoan kontuak kontatzen zizkien amamak eta amak. Gariarekin eskutadak egiten zituzten San Juanetan, soroak bedekatzeko. Konjuroa esaten du. "San Juan de la porta" abestia abesten du.

92. "Neska zaharrak juaten dira" kanta (AMO-011/013)

"Neska zaharrak juaten dira" kanta abesten du.

93. Hizkeran aldea lurretakoekin (AMO-011/015)

Inguruko hizkeren inguruan berba egiten du. lurreta aldekoek "ue" esaten dute eta beraiek "oa".

94. Soldadutza luzea (AMO-013/004)

Soldadutza Iruñearen hasi zuen. Handik Castellón; eta, geroago, Teruelera eramane zuten. Fronteko bigarren lerroan egon zen beti, tirorik bota gabe. Bilbon ere egon zen bi urtez, afaldu eta lo etxean egiten zuen.

95. Soldaduen soldata (AMO-013/008)

Hasieran erreale bat (pezetaren 25 zentimo) eta geroago erreale bi egunean izan zen orduko soldaduen soldata. Zigarroak erretzen soldadutza ikasi zuen; tabakoa errazionatuta izaten zuten.

96. Mezak eta elizak (AMO-013/014)

Domekatarik San Antonioren ermitan entzuten zuten meza. Larreako jaietan Larreako joaten ziren mezara. Zornotzako zein San Migueleko elizara ere joaten ziren lantzean behin.

97. Juan XXIII (AMO-013/015)

Latinez emandako mezak ezagutu zituen. Sermoiak euskaraz ere bai. Abade batek sermoilaritzari buruz esaten zuena azaltzen du Eliasek. Abadeak jendea bizkarra ematen ematen zuen meza. Juan XXIII.a Aita Santuak aldatu omen zuen hori, abadea eta eliztarrak aurrez aurre jarri meza emateko orduan.

98. Tren elektrikoa; argindarra etxean (AMO-013/017)

Garai haietan andreak eta gizonak aparte esertzen ziren eliza barruan. Gernikako trena ikatzarekin berotutako tren-makinarekin mugitzen zen, baina orduko Durangoko trenak elektrizitatez ibiltzen ziren. Elias gaztea zela ekarri zuten argindarra etxera Eubako zentral txiki batetik. Lapurrak argindar-haria harrapatu eta hilabetez egon ziren indarririk gabe.

99. Karburua eta petrolio-ontziak (AMO-013/018)

Argindarra jarri aurretik karburuarekin edota petrolio-ontziekin argitzen zuten etxea. Ganbaran sua ez pizteko atentzio handiekin ibili behar izaten zuten.

100. Erregearen irudia eta gurutzea kendu zituzten errepublikan (AMO-013/020)

Maristetan ikasi zuen Eliasek. Asturiasko Iraultza gogoratzen du, eta baita erregea kendu eta errepublika jarri zutela ere. Erregearen irudia eta gurutzea kendu zituzten eskolako ikasgeletatik. Dotrina eskolatik kanpo ikasten zuten.

101. Igandetan ondo jantzita eta kolonia usainarekin (AMO-013/025)

Igandetan kalera joateko hobetoxeago janzten ziren astegunetan baino. Neskak ere hala egiten zuten.

102. Artoa Oromiñoko errotara (AMO-013/030)

Errotariak ehotze lanagatik alearen %10a kentzen zuten. Etxeko alea Eliasek eramaten zuen astoan errotara. Artoa Oromiñoko errotara eramaten zuten, baina garia Zornotza edo Durangokoetan ehotzen zuten.

103. Baserritarren ekoizpenaren zati bat udaletxera (AMO-013/032)

Etxeko gariaren eta artoaren zati bat udaletxean eman behar izaten zuten. "Abastos"ek kudeatzen zituen baserritarrek emandako kupoak.

104. Soldadutzan zorriak ugari (AMO-013/034)

Etixerako ura errekatik edo iturritik ekartzen zuten baldeen laguntzaz. Arropak etxean garbitu ondoren, garbitokian astintzen zituzten. Soldadutzan alkandorak sugarren gainetik pasatzen zituzten, zorriak kentzeko.

105. Kuartelean zimitzak nagusi (AMO-013/035)

Soldadu egon zenean, kuartelean ez zegoen zorririk, baina zimitzak (txintxeak) ziren egonezina sortzen zutenak.

106. Garia irinetarako (AMO-013/038)

Garia eskuz jotzen ez zuen ezagutu Eliasek. Makinaz nola jotzen zuten azaltzen du. Garia gehienbat irinetarako erabiltzen zen, baina oiloei ere ematen zieten apur bat. Irinarekin egiten zuten ogiak astebete ondo irauten zuten.

107. Labesuko ogi distiratsuak (AMO-013/039)

Aza-orria jartzen zien amak labesuko ogiei. Horrek distira berezia ematen omen zien ogioi. Amak ogia nola egiten zuen azaltzen du.

108. Artoaren atal guztiak aprobetxatzen ziren (AMO-013/042)

Arto irina galbahetu eta gero geratzen zen azala oiloei ematen zieten. Azal horri "kapatxa" deitzen diote. Arto bizarrarekin erretzeko zigarroak egiten zituzten. Koltxoiak artilearekin egiten ziren. Arto txokorrek sutarako onak ziren. Umetan txokor dorreak egiten jolasten ziren.

109. Laia eta goldea (AMO-013/044)

Etxean laiak bazituzten, baina berak lan gutxi egin zuen laian. Goldeak ordezkatu zuen laia. Sei-zortzi lagun elkarrekin laian ikustea gogoan du Eliasek.

110. Lehengo lan gogorak orain makinek egiten dituzte (AMO-013/046)

Lehenagoko baserriko lan gogorak gaur makinekin egiten dira. Goldeari eskuz buelta eman, satsak atera, azpigarriak ekarri... lan gogorak izaten ziren. Orturako landareak etxean hazitakoak edo erositakoak erabiltzen zituzten. Satsa hobe da orturako ongarri kimikoak baino.

111. Berorika, zuka edo hika (AMO-013/048)

Abadeei berorika zuzentzen zitzairen, baina eurek mutilei hika. Dimako mutil baten konfesioa kontatzen du. Eliasek gurasoei, arrebei eta semeei zuka berba egin die beti. Lagun artean, baina, hika egiten zuten.

112. Anaiei fraide ibilerak (AMO-014/002)

Fraide joatekotan egon zen. Zortzi urtetik hamazortzira amaren jaiotetxean egon zen. Anaiak gomendatu zion handik irtetzeko, behiak zaintzen besterik ez zuela jakingo bestela. Anaiei fraide ibilerak. Aita Santuak zoriondu egin zituen pertsonalki.

113. Soldadu joan behar (AMO-014/003)

Anaiak fraide izateko ikasketak egiten ari zirenez, ez zuten soldadutzara joan beharrik izan. Berak soldadu joan behar izan zuen. Bi arreba moja izan zituen.

114. Gerrako lehen egunak (AMO-014/005)

Gerrak irten zuenean, Zornotzan jaiak ziren. Lehenengo aldiz neska batekin dantza egin zuen. Hala zeudela, milizianoak fusilekin iritsi ziren kamioeitan eta dantzaldia bukatu behar izan zuten. Bonbardaketak gertatu zirenean, Lezamara joan zen ganaduak hartuta. Handik Argentesera joan zen eta nazionalak sartu zirenez, etxera bueltatu zen. Zornotza guztia erreta topatu zuen.

115. Lizarran soldadu; bizipen gogorak (AMO-014/006)

Hemezortzi urterekin Lizarrara eramán zuten soldadu. Hango bizipen gogorak kontatzen ditu.

116. Francoren gerrako azken partea (AMO-014/007)

Lizarratik Lleidara joan zen frentera. Zorriek janda egon ziren. Bartzelonan entzun zuen Francoren gerrako azken partea. Orduan pentsatu zuten etxera joango zirela baina han zaindari lanetan jardun behar izan zuten.

117. Iheslariak harrapatzen (AMO-014/008)

Seu d'Urgellen (Katalunia) ihes egiten zuten presoak harrapatzen aritu behar izan zuen, negu betean. Gabon gauean Andorran dantzan ibili zirenekoa kontatzen du.

118. Presoak sendatu eta gero fusilatu (AMO-014/009)

Reusen (Katalunia) egon zen gero. Presoak ospitalean izaten zituzten zauriak sendatzen, gero fusilatzeke.

119. Iheslari bat hil zutenekoa (AMO-014/010)

Andorrarekin mugan zeudela, hango nekazari batek jakinarazi zien euren etxeko sabaian gizona bat zegoela. Hiru boluntario joan eta han bertan hil zuten.

120. Laidako kanpalekuan, tanke eta guzti (AMO-014/014)

Pedernalesen zegoela, etxera sarri joaten zen. Laidako kanpina dagoen lekuan egon ziren kanpatuta, tanke eta guzti. Sei urte egin zituen soldadu.

121. Gosearen ondorioz, hesteak izorratu (AMO-014/016)

"Zorri berdea" izeneko gaitza zabaldu zen Reusen (Katalunia) zegoela. Gosearengatik ur gordinak jan zituen; hesteak izorratu zitzaizkion.

122. Etxea, taberna eta ostatu harginentzat (AMO-015/003)

Aitak egin zuen etxean hazi eta bizi izan da Elias. Harginen lantegiak zeuden etxe inguruan. Aitak taberna eta ostatua ipini zituen eta ondo joan zen, baina gero hil egin zen. Dantzaldia ermita aurrean egiten zen, baina euria bazen, beraien etxean.

123. Harriak, Derioko panteoiak egiteko (AMO-015/004)

Harriak Deriora eramaten zituzten, idiekin eta gurdiekin, han panteoiak egiteko. Zementoa agertu zenean, harginak lanik gabe geratu ziren.

124. Bonbardaketak herrian (AMO-015/005)

Bonbardaketak egin zituztenekoa kontatzen du. Kazak (gerrako hegazkinak) launaka etortzen zirela gogoan du. Soroan baserritarra eta abereak hil zituztenekoa kontatzen du.

125. Bonbardatu egin zituztenekoa (AMO-015/006)

Frontetik gertu zeudenez, leihoak josi egin zituzten. Hurrengo egunean alde egitear zirela, kazak gerturatu ziren eta ezkutatu egin ziren denak. Ametrailatu egin zituzten baina ez zituzten zauritu.

126. Aita ganaduak hartuta ihesi; itzuleran etxea kaltetuta (AMO-015/007)

Aitak, behiekin eta gurdiekin, etxeko jeneroa eta abereak eraman zituen Somorrostroraino, basorik baso. Aita etxera gerturatu zen, abereak ikustera, baina bidali egin zuten handik. Etxeratu zirenean, ez zegoen abereen arrastorik ere; Etxearen gailurra erreta, etxea hutsik eta pintadaz beteta topatu zuten.

127. Hildakoak mendian (AMO-015/008)

Elias ebakuatuta etxeratu zenean, mendian gizon bi topatu zituen hilda. Hiru fusil Belatxikietan gorde zituzten eta erabiltzen ikasi zuten. Ez zien dokumentaziorik begiratu eta damutu zaio harrezkero. Gerran hildakoak aipatzen dituzte.

128. Anaien kontra jarduteko beldurrez (AMO-015/009)

Bere anai fraideak jakinean egoten ziren etxe inguruan zer gertatzen ari zen. Ez zuten soldadu joan nahi izan, beren anaien kontra jardun beharko zuten beldurrez.

129. Osaba fraidea fusilatu egin zuten (AMO-015/010)

Bere aitaren anai bat, fraidea, hil egin zuten milizianoek; bera eta komentuko fraide guztiak. Errusiarrak omen ziren miliziano haiek.

130. Gerra hasi eta alde egin behar (AMO-015/011)

Gerra hasi zenean, hamabost urte zituen Eliasek. Lehenengo aldiz dantzan egin zuen eguna izan zen. Amamarenera joan zen. Han zegoela bonbardatu zuten Gernika, eta etxea ere mugitu egiten zen. Abereak hartu eta alde egin zuen, hala agindu ziotelako. Lezamaraino bakarrik joan zen.

131. Hildakoak kamioira botatzen (AMO-015/012)

Lezaman bondartatu egin zituzten. Hildakoak kamioira botatzen aritu behar izan zuen. Garaiko bizilagunak, ama-semeak eta moja, hil ziren.

132. Bigarren Errepublikaren eragina (AMO-015/014)

Errepublika garaian, erregeen argazkiak kendu zituzten eskoletatik. Hilketarik ez zen gertatu garai hartan. Kapitalistek dirua gorde eta industria gerarazi egin zuten; horrek gosea eragin zuen.

133. Irakasle euskaldunaren ostean, maistra frankista (AMO-015/017)

Gerra amaitu eta Mari Tere etxeratu zenean, eskolak itxita zeuden. Eibartik familia bat etorri zen elizaz arduratzeko eta gizonak eskolak ematen zizkien, euskaraz. Ondoren, maistrak etorri zirela eta, Eubako eskolan hasi zen Mari Tere. Zirgotu egiten zituen euskaraz egitearren. Orduan ikasi zuen Franco nor zen.

134. Eskolara Montorrara, Zornotzara klase partikularretara (AMO-015/019)

Bost urte zituela hil zitzaion aita Eliasi. Ama Zornotzara joaten zen lanera eta berak arreba txikia zaintzen zuen. Ondoren, Ibarra baserrira joan zen bizitzera eta handik hasi zen Montorrako eskolara joaten. Etxeko lanak bidaltzen zizkien maistrak eta osabak ere laguntzen zion. Hamabi urterekin Zornotzako klase partikularretara joaten hasi zen, hilean pezeta bi ordainduta.

135. Soldadutzan ikasi nahi eta ezin (AMO-015/021)

Soldadu zegoela, teniente batek ematen zituen klaseetara joaten zen. Reusen baimena eskatu zuen lan-eskolara joateko baina ukatu egin zioten.

136. Diktadura gogorra; boluntarioak Mundu Gerrarako (AMO-015/023)

Soldadu zeudela, zorritz beteta egoten ziren. Gutunazaletan "Arriba España" idatzi behar izaten zuten, bidal zezaten lortu nahi bazuten. Presoei gutunak pasatzeagatik, zigortu egin zuten bere soldadutzako lagun bat. "Division Azul"era joateko boluntarioak eskatu zituztenekoa kontatzen du.

137. "Division Azul"ean ibilitakoen pribilegioak (AMO-015/025)

"Division Azul"era joan zirenei ondoren ordaindu egiten zieten eta postuak eta jabetzak eman. Desertore baten berri ematen du Eliasek.

138. Presoen zaindari ibili behar (AMO-015/026)

Soldadu zegoela, preso bat bere etxekoengana eraman eta zaintzeko ardura eman zioten eta estuasuna pasatu zuen. Ihesean zihoan preso bat harrapatu zuenekoa kontatzen du; hil zezan eskatu zion. Presoak goseak egoten zirela dio.

139. "San Pijon" jaiak (AMO-016/002)

Eubako jaiak zirenean, bizikleta-lasterketa antolatu zuten. Festa haien izena "San Pijon" izan zen, beraien tabernaren izena bezalaxe. Ordutik hona oraindik jarraitzen dute jai horiek.

140. Frankismoko giroa tabernan (AMO-016/004)

Gerra ostean euskara galarazita zegoen, baina bezeroekin euskaraz egiten zuten tabernan. Herritar batzuek zigorra izan zuten frankismoan, ezin izaten zuten etxetik irten. Haietakoren bat tabernara joanez gero, norbaitek salatu egiten zuen. Bezeroekin oso gertuko tratua zeukaten lehen tabernan.

141. Jarrera irekia eta gertukoa tabernan (AMO-016/005)

Lehen bezeroekin oso gertuko harremana zeukaten. Alde askotako jendea etortzen zen tabernara. Aitak pentsamolde irekia zuen eta jarrera hura izaten ikasi zuen Jesusak. Gerra osteko giroaren oroitzapen ona du, salaketen kontua kenduta.

142. Eubako Pazkoak (AMO-016/007)

Eubako jaiak beraiek jarri zituzten martxan; baina lehenago Pazkoak ospatzen ziren Euban. Orduko giroa gogoan du.

143. Ermitarik ezean, meza non? (AMO-016/010)

Lehen mezarik ez zen izaten Euban, ez baitzegoen kanpoan mezarik emateko baimenik. San Antonio ermitara joaten ziren orduan mezara: denak batera oinez joaten ziren musikaren doinuarekin. Gerora, meza kanpoan emateko baimena lortu zutenean, Eubako frontoian ematen hasi ziren. Hasieran etortzen ziren apaizak aipatzen ditu.

144. Tabernako kontabilitatearen arduraduna (AMO-016/011)

Umetatik egin izan du lan tabernan, kontabilitatea eramateaz arduratu izan da.

145. Errazionamendu garaiko salmentak (AMO-016/015)

Errazionamendu garaian, ogia banatzen zuten dendan. Dendako janaria saltzeko, aita baserrietara joaten zen astoarekin. Abarkak ere saltzen zituzten dendan, Azpeititik ekartzen zituzten.

146. Kartutxoak saltzen zituztenekoa (AMO-016/016)

Ehizarako kartutxoak saltzen hasi ziren dendan eta asko saltzen zuten. Ehizarako zaletasun handia zegoen lehen; bezeroak ilara egiten egoten ziren denda parean. Hilero-hilero Zornotzako kuartelera joaten ziren zenbat kartutxo saltzen zuten berri ematera. Kuartela non zegoen azaltzen du.

147. Gizonen eta emakumeen ospakizunak (AMO-016/019)

Orduko ospakizunak aipatzen ditu: kinto-janak, ezkondu aurreko agurra... Gizonak etortzen ziren gehienbat tabernara, emakumeak gutxiago ibiltzen baitziren taberna-giroan.

148. Nesken eta mutilen ikasketak (AMO-016/022)

Emakumeek etxean egon behar zutela uste zuten familia gehienetan; horregatik, normalean mutilei ematen zitzairen ikasketak izateko aukera.

149. Txikiteoko ohiturak (AMO-016/024)

Astegunetan txikiteoan eta jokoan aritzen ziren gizonak tabernan. Txikiteoan ardo beltza edaten zuten normalean, baina baita kopak ere. Txikitoak edalontzi txiki sendotan zerbitzatzen ziren; gerora, ordea, baso finagoak erabiltzen zituzten. Orain bezalaxe, lehen ere asko edaten zuten gazteek.

150. Kafea saltzeko neurriak (AMO-016/027)

Kafea saltzeko neurriak aipatzen ditu.

151. Barraren atzeko emakumeak (AMO-016/031)

Gizonek ondo tratatzen zituzten tabernan lan egiten zuten emakumeak; lanak gogortu egiten zituen emakumeak.

152. Bezero bati tabernako ateak itxi (AMO-017/003)

Bezero batek etxetik ez irteteko zigorra eduki zuen, politika kontuak zirela eta. Gauean Jesusaren tabernara joaten zen zerbait hartzera eta horregatik denuntzia eduki zuten. Gehiago ez etortzeko eskatu behar izan zion.

153. Razioak: bakailoa, gazta, sardina-zaharrak (AMO-017/005)

Lehen razioak jartzen zituzten: bakailoa, gazta eta sardina-zaharrak. Gero hasi ziren pintxoak egiten.

154. Inguruan fabrika, eskola eta kooperatiba (AMO-017/006)

San Migelen eta San Antonion egon ziren bolatokiak. Lehiaketak ere egiten zituzten bertan. Euren tabernaren ondoan ez zegoen lekurik. Frontoia egiteko ere, bertan zegoen etxe bat bota behar izan zuten. Fabrika bat, eskola eta kooperatiba ere egon ziren bertan.

155. Barberia eta ile-apaindegia auzoan (AMO-017/008)

Barberia ere egon zen etxe ondoko lokal batean. Andreentzako ile-apaindegia, osteria, fabrikaren gainean egon zen. San Antonion ere bazegoen ile-apaindegia.

156. Durangorako joera (AMO-017/010)

Eubatik joera handia izan dute Durangorako, josten ikasten joateko, esaterako. Hala ere, hurbilago daukate Zornotza.

157. Euren denda errazionamendu denda (AMO-017/011)

Euren denda errazionamendu denda izan zen. Bezeroak libretarekin joaten zitzaizkien eta handik zerbitzatzen zitzairen. Jateko gutxi zegoen banatzeko eta horregatik estraperloan ibili behar izaten zuten.

158. Soldaduek denda eta taberna hartu (AMO-017/012)

Bermeon eta Durangon gerra sartu zenean, denda itxi eta ebakuatuta irten ziren Karrantzara. Irten orduko milizianoek denda eta taberna hartu zituzten. Etorri zirenean dena hutsik topatu zuten, baina apurka-apurka aurrera egin zuten.

159. Alkate gogorra gerra ostean (AMO-017/013)

Aita ezkutatuta ibili zen gerra ostean. Orduan alkate gogorra eduki zuten Zornotzan eta jendea fusilatu ere egiten zuten. Gero, beste alkate bat sartu zen eta harekin lasaiago ibili zen aita.

160. Ebakuazioan Karrantzako etxe batean (AMO-017/014)

Ebakuazioan kamioi batean joan ziren Karrantzara, dendako gauzak ere bertan sartuta. Karrantzan, etxe batean egon ziren eta bertako ugazabari dendako jeneroa ematen zioten baserriko produktuen truke.

161. Erromeria San Antonioko bolatokian (AMO-017/017)

Erromeria San Antonioko bolatokian edukitzen zuten: akordeoia eta panderoa. Mutilak izaten ziren ordaindu behar izaten zutenak, neskak ez. Hamabost bat urterekin hasten ziren erromeriara joaten.

162. Tabakoa estraperloan saltzen zuen (AMO-017/019)

Tabakoa eta puruak ere saltzen zituzten tabernan. Tabakoa estraperloan saltzen zuten sasoi batean. Behin denuntzia jaso zuen Jesusak eta isuna ordaindu behar izan zuen.

163. Lapurrak tabernan (AMO-017/024)

Behin, lapurrak tabernara sartzeko puntuan harrapatu zituen Jesusak.

164. Gerratik bueltan etxea hutsik (AMO-017/026)

Gerratik bueltatu zirenean, etxea hutsik topatu zuten. Aurrera egiteko, taberna jarri zuten martxan berriro eta auzokoak koltxoiak utzi zizkien lo egiteko lekua eduki zezaten.

165. Gerra ostean lapurreta asko (AMO-017/027)

Gerraostea gogorra izan zen, jatekoa ere eskasa zen eta. Gosea zuten askok ostu egiten zuten. Geltokian zeuden apeak ere eramanez egiten zituzten etxean su egiteko. Baserrikoek hobeto egin zuten aurrera.

166. Tabernako bezeroak inguruko fabriketakoak (AMO-017/029)

Inguruko industria hasi zenean eduki zuten bezero gehien tabernan. Sasoi batean, Agriara ere eramaten zuten bazkaria tabernatik.

167. Jesusa fededun handia (AMO-017/031)

Aita fededun handia izan zen, domekero joaten zen San Antoniora meza entzutera. Jesusa ere txikitatik izan da fededun: gaztetan Hijas de Mar*&*taldean ibili zen eta gero Pasionistekin. Orain ere aita Martzelekin ibiltzen da laguntzen.

168. Inauteri sasoian "baso-koipetsu" (AMO-017/033)

Inauteriak ere ospatzen zituzten, gutxi asko. Sasoi horretan txitxi burruntzia, "baso-koipetsu", egiten zuten gazteek. Etxean tostadak prestatzen zituzten.

169. Tostadak eta txerri-hankak Kandelarion (AMO-017/034)

Lehen, Kandelario egunean tostadak prestatzen zituzten eta baita txerri-hankak ere. Egun horretan kandelak bedeinkatzen zituzten elizan.

170. "Kandelerixo, lerixo, hatxak ure darixo" (AMO-017/035)

Kandelario egunean honela abesten zuten: "Kandelerixo, lerixo, hatxak ure darixo, errotiak urune, gora kandelerixo egune!"

171. Kordoi bedeinkatua San Blas egunean (AMO-017/036)

Beti jarri izan dute kordoi bedeinkatua San Blas egunean. Bederatzi egunean edukitzen dute aldean eta gero erre egiten da. Trenez ere joan izan da inoiz Abadiñora.

172. Merkantzien garraioa trenez (AMO-017/037)

Eubako geltokian behargin bi egon ziren. Apeak eta harrobiko harriak kargatzen zituzten merkantzetako trenetan. Orduan dena garraiatzen zuten trenez, kamioiak gero etorri ziren eta.

173. "San Juanetako portaletaña" eta "San Juan, San Juan, bixamonez" kantak (AMO-017/039)

San Juan bezperan sua egiten dute eta horrela kantatzen dute: "San Juanetako portaletaña, zapatu arratsaldean, hamalau atso tronpeta jotzen, motrillu baten gaiñian. Orra, orra, orra, San Juanera, jantzan egingo dogu ifarraldera. Orra, orra, San Juanera goaz gu!". Beste abesti bat ere badaki: "San Juan, San Juan, bixamonez, gure soloan lapurrik bez, zaporik bez, sugerik bez, badago, badago erre deitzez!"

174. Hiketan egitea bekatu (AMO-017/041)

Aitak hiketan berba egitea bekatua zela esaten zien. Zaharrei berori egon behar zitzaizela esaten zuen eta gainontzekoei zuka.

175. Baserrian beti lanean (AMO-018/002)

Gerran eskolak zarratu zituzten eta eskola barik geratu ziren. Ordura arte Eubako eskolara joan zen. Baserrian lanean hastea beste irtenbiderik ez zuten izan. Txakolina saltzen zuten eta behar asko zuten etxean.

176. Gerran etxetik irten behar Bilbo aldera (AMO-018/003)

Durango bonbardatu zutenean, Orue ere bonbardatu zuten eta 18 behi eta bertako gizona hil zituzten. Etxetik irten behar izan zuten eta Erletxetara joan ziren izeko baten etxera. Izeke-osaba haiek taberna zuten eta lapur batzuek gerraostean hil zituzten. Handik Marurira eta Pagasarri mendira joan ziren. Bilboko Doctor Areilza kalean egon ziren. Mendian hildako asko ikusi zituzten.

177. Hiru behi eta astakumea kendu zizkietan hil eta jateko (AMO-018/004)

Soldaduek hiru behi eta astakumea kendu zizkien Bilbon. Kendutakoa berreskuratzen joan zenean astakumea hilda zegoela ikusi zuen, jateko hil zuten.

178. Gerratik bueltan zubiak eta bideak apurtuta (AMO-018/005)

Gerran Bilbora joan ziren ihesi. Handik bueltatzerakoan, Zornotzako Ibarako zubia eta Eubakoa apurtuta egon ziren. Beraien etxe ondotik Bernagoiti auzoa erasotzeko kanoiak egon ziren jarrita. San Antonio bezpera batean heldu ziren etxera.

179. Abioien erasoak Austoan (AMO-018/007)

Gerraostean, behin lehengusinarene etxera zihoala, abioiak metrailatzen hasi ziren eta zanga batean ezkutatu ziren. Etxeko hormak ere balaz zulotu zituzten.

180. Idi-uztarria kakatzatik ateratzeko metodoa (AMO-018/011)

16-17 urte zituela, idi-uztarriagaz zihoala estartan gelditu ziren ez aurrera ez atzera. Sabaira igo, galtzu-eskutari sua eman eta hanka artera bota zien idiei. Sekula gehiago ez ziren inon gelditu idiok.

181. Gurdikada egiten ikasi (AMO-018/012)

Gerran fusilatu zuten auzoko batek erakutsi zion Anastasiori gurdikada ("burkada") bat zelan egin eta lotu behar den.

182. Austoagoikoako txakolina (AMO-018/014)

Etxean zituzten mahastiei probetxua ateratzeko txakolindegia jarri zuten etxean. Garizuman jende pila bat joaten zen bertara, baita autobusean ere. Hiru labesu (labeko sua) egiten zituzten, bakoitzean dozena bat arto. Bi txerri hiltzen zituzten eta txerriak banatzen zuten.

183. Guardia zibilek errotako zorroak kendu zizkieten (AMO-018/015)

Gerraostean inguruko errotak prezintatu zituzten. Zeanurin errota zabalik zegoela-eta, harako bidea hartu eta guardia zibilekin topo egin eta Areatzara

bueltatu ziren. Zorroak kendu zizkieten eta hutsik bueltatu ziren etxera. Baina handik astebetera ezusteko berri bat jaso zuten eta zorroak berreskuratu ahal izan zituzten.

184. Buldak ordainduta okela jatea libre zen (AMO-018/017)

Jende asko joaten zen beraien etxeko txakolinera. Garizuma garaian, buldak ordainduz gero, librea zen okela jatea eta bildotsak hiltzen zituzten bertan.

185. Irratia balkoiko bozgorailuetatik (AMO-018/019)

Inguruetako etxeetan ez zegoen ez telebista ez irratiarik. Etxeko balkoian bozgorailua jarri eta horrela entzuten zuten irratia txakolina edatera joaten zirenek. Txakolin-pitxerretan idatzita agertzen ziren esaldiak edo esaerak aipatzen ditu.

186. Ur bila Oromiñora arte (AMO-018/021)

Etxeko txakolindegirako ura Oromiñoko (lurreta) errekatik ekarri zuen behin idien laguntzarekin. Ur hura platerak-eta garbitzeko erabiltzen zuten lixibarekin batera. Komunik ere ez zuten etxean.

187. Txakolina zelan egin (AMO-018/023)

Txakolina zelan egiten zuten azaltzen du pasarte honetan.

188. Sagar motak eta sagardoa (AMO-018/027)

Sagar mota asko izan dituzte: urdin sagarra, limoa sagarra, urtebete sagarra... Sagardoa zelan egiten zuten azaltzen du.

189. Lurra lantzeko tresnak eta prozesua (AMO-018/030)

Baserriko beharrak eskuz egin behar izaten zituzten. Aberatsenek ere ez zuten golderik. Goldea pasatu ostea txilindroa eta area pasatzen zen. Kategoriako lurak dira ingurukoak eta alogeran aritzen ziren.

190. Neskatan egiten zutenekoa (AMO-019/011)

Parrandako anekdota bat kontatzen du. Neskekin erabiltzen zituzten jolas eta gaiztakeriak kontatzen ditu.

191. Sorginak hegan (AMO-019/026)

Amamak kontatzen zion Anbototik Oizera sorginak hegan pasatzen zirela gauez. Aita kontularia zuen.

192. Zuka jarduteko ohitura (AMO-019/028)

Neba-arreben artean zuka egiten dute, baita aita berarekin ere. Lagun artean ikasi zuen hika, baina zuka jarduteko ohitura dauka.

193. Bernagoitiko eskolako oroitzapenak (AMO-021/002)

Gerra ostean Bernagoitiko eskolan nola ikasten zuten azaltzen du: orduko maistra, zigorrak, instrukzioak, Cara al Sol...

194. Erdaraz ez jakitea arruntagoa zen garaia (AMO-021/004)

Mari Tereren etxera etortzen ziren hainbat mutil, baina ahizpak erdaraz ez zekienez, amari esaten zion haiekin hitz egiteko. Lehen jende askok ez zekien erdaraz.

195. Ezin denek hika egin (AMO-021/008)

Mari Tereren etxean hika egiten zuten gurasoek, baina seme-alabei ez zieten uzten hika egiten beraien artean. Eliasek lagun artean hika egin izan du beti.

196. Bi meza emateko baimen eske (AMO-021/012)

Lehen apaizek ezin izaten zuten bi meza eman, eta behin auzoko denak joan ziren gotzainarengana hartarako baimena eskatzera.

197. Konfesatzean, apaizak sekretua gorde behar (AMO-021/015)

Lehen erlijioak garrantzi handia zeukan eguneroko bizimoduan: denek konfesatu behar izaten zuten eta apaizak sekretua gorde behar izaten zuen.

198. Zineko kartela begiratzea bekatu (AMO-021/017)

Apaiz batzuk gogorregiak ziren konfesioak entzutean. Behin zineko kartelari begiratzeagatik, apaizak ez zion komuniorik eman lagun bati.

199. Predikariak Nafarroan (AMO-021/020)

Eliasen anaia predikaria izan zen; behin Nafarroa aldean izandako anekdota kontatzen du

200. Heriotzaren aurrean, errespetua (AMO-021/027)

Kanpaien bidez norbait hil zela entzuten zutenean, txapela kendu eta aitagurea erreztatzeko ohitura zegoen lehen.

201. Arrosarioa erreztatzean lokartu (AMO-021/029)

Eliasen osabak arrosarioa erreztatzean lo hartu zueneko anekdota kontatzen dute.

202. Heriotzaren ondoko ohiturak (AMO-021/030)

Norbait hiltzen zenean, gaubeila egiten zen; orduan zer egiten zuten azaltzen dute. Hiletara etortzen zen jendeari bazkaria eman behar izaten zitzaion eta kantuan aritzen ziren.

203. Sepulturaren inguruko ohiturak (AMO-021/033)

Familiako norbait hiltzen zenean, meza nagusira joan behar izaten zen sepultura berean beste norbait hil arte. Sepulturaren inguruko ohiturak azaltzen dituzte.

204. Tifusa ez diagnostikatzeagatik hil zen anaia (AMO-021/034)

Eliassen bi anaia tifusak jota hil ziren, baina bat medikuen akatsagatik hil zen. Tifusa zuen jendea gauez lurperatzen zuten, inor ez zegoenean; kutsatzeko beldur handia zegoen garai hartan.

205. Haginetako minak (AMO-022/001)

Lehen medikuak egiten zuen dentista. Durangoko medikua eduki zuten eta pobreak zirela ikusten zuenei eezer gutxi kobratzen zien. Haginetako mina zutenean, farmazian botika bat erosten zuten. Behin, Eliasi anestesia barik atera zioten hagin bat, minari ezin eutsi egon zen eta.

206. Gerraostean etxean zegoena jan (AMO-022/002)

Baserrian beti zeukaten zeozer jateko, baina kaletarrek oso txarto pasatu zuten gerraostea. Eurek etxekoa jaten zuten: txerria, auma, bildotsa... Ama bendejarekin ibiltzen zen. Ogi falta zen gehien nabaritzen zutena gerraostean.

207. Hamabi urte zituela amamaren baserrira beharrean (AMO-022/003)

Amamak dirua utzi zion amari eta Eliasek, hamabi urte zituela, amamaren baserrira joan behar izan beharrean. Goizean taloa eta esnea hartzen zuen, eguerdian baba eta gauean taloa eta esnea atzera. Gerraostean ama ere joan zen bertara eta bendejarekin ibiltzen zen.

208. Anaia ezagutu ez (AMO-022/005)

Elias San Migelgo eskolara hasi zenean ez zuen anaia ezagutzen. Anaia beste baserri batean bizi zen eta maistrak esan arte ez zuen jakin hura bere anaia zela.

209. Gabonetan "txakolin, txakolin, txakolinak oin egin" (AMO-022/006)

"Txakolin, txakolin, txakolinak on egin" dantza egiteko ohitura egon zen Gabonetan. Ogi erreari ardoa eta azukrea botatzen zizkieten; 'zapoa egin' esaten zioten. Mari Tereren etxean amak panderoa jotzen zuen.

210. Gabonetan txerriki kazola eta arraina (AMO-022/008)

Mari Tereren amak kazolak prestatzen zituen txerri belarriekin, hankekin eta muturrekin Gabonetarako. Arraina ere ez zen falta etxean, etxerik etxe ibiltzen ziren saltzaileei erosten zieten eta. Okela ere sarri edukitzen zuten etxean; gerraostean, esaterako, erbiak harrapatzen zituzten.

211. Etxean txakolina egiten (AMO-022/011)

Etxean mahatsa edukitzen zuten: zuria eta beltza txakolinerako eta dultzea saltzeko. Neguan mahastiak jorratu eta mozten zituzten eta udan sulfatoa bota. Gero, txakolina prentsarekin egiten zuten eta botiletan sartu. Garizuman ez zenez erromeriarik egiten, orduan joaten zen jendea txakolina edaten.

212. Baserriko beharrak: ortua, bendeja eta basokoak (AMO-022/012)

Mari Tereren Komunioan bankete itzela egin zuten etxean. Hala ere, euren etxean behar handia egiten zuten: bendeja prestatu, mahastiak mantendu, ortua, irak basotik ekarri...

213. Umeak Parisetik (AMO-022/014)

Mari Terek umeak Parisetik datozela uste zuen. Baten, astoa astarrarengana eraman behar izan zuen. Astarra astoaren gainean ikusi zuenean, berak ez zekien hura umeak ekartzeko egiten zutenik.

214. Mozkorra San Bizenteko jaietan (AMO-022/016)

San Bizenteko jaietan ardoa edan zuten, txakolina eta ondoren kafea anisarekin. Kristoren mozkorra harrapatu zuen Eliasek eta etxeko atarian hartu zuen loak.

215. Komunioa eta konfirmazioa (AMO-022/017)

Jaunartzean Durangora joan zen Mari Tere argazkia ateratzera, Germanenera. Eliasek ez zuen argazkirik atera. Zornotzako parrokian egin zuten biek komunioa. Gero, urte batzuk pasatuta, konfirmazioa egiten zuten eta obispoa etortzen zitzairen.

216. Arropak Bilboko senideek ekarri (AMO-022/018)

Komunioan marinel jantzi zen Elias. Bilbon hobeto bizi ziren senideak zituzten eta haiei esker edukitzen zuten arropa. Hala ere, ez zeukaten urik etxean eta arropok errekan garbitu behar izaten zituen amak.

217. Begoñan ezkondu eta bidaia Madrilera (AMO-022/019)

Eliasek lehenengo atera zuen argazkia ezkondu zenekoa da. Begoñan ezkondu ziren eurak, ordu batean. Gero, Madrilera joateko hegazkina hartzeko izan ziren, baina denboralea zegoen eta trenean joan behar izan zuten.

218. Bataioa eta elizara sartzea (AMO-022/021)

Jaio eta jarraian bataiatzen zituzten umeak; bestela, hilez gero linbora zihoazela uste zuten. Aitabitxi-amabitxiak eta aita joaten ziren bataiora. Amak berrogei egunean etxean egon behar izaten zuen eta gero umearekin elizara sartu.

219. Umea egin ondoren, amari oilo-salda (AMO-022/022)

Umea jaio ostean, amari oilo-salda ematen zioten odola garbitzeko, eta gizonak oiloa jaten zuen. Andreak goseak hilik egoten ziren sarri. Eliasen etxean hamabi jaio ziren partera batekin, bertako etxeko Rosarekin.

220. Umeei aitabitxi-amabitxiek izena jarri (AMO-022/024)

Askotan umearen izena aitabitxik eta amabitxik aukeratzen zuten. Santuen izendegiari ere asko begiratzen zitzaion. Seme-alabei izen euskalduna jarri diete eurek, baina hasieran erdaraz jarri behar izan zieten.

221. Izena erdaraz jarri, baina euskaraz deitu (AMO-022/025)

Gerra aurrekoen izenak ere erdarazkoak ziren. Hala ere, batzuek izena erdaraz jartzen zuten, baina gero etxean-eta euskaraz deitu.

222. Udaletxeko erregistroan apuntatu barik ezkondu arte (AMO-022/026)

Mari Tere ezkondu arte erregistratu barik egon zen udaletxean; elizan, ostera, bai. Askori pasatu zitzairen hori Jose sekretario egon zenean.

223. Zornotzako gerra aurreko zinema (AMO-022/027)

Zornotzako zinema tren-geltokirako bidean zegoen. Gerra aurrean joan zen lehenengoz Elias zinera, "Cine Zelaieta" zeritzonera. Anaiak ordaindu zion sarrera, erreal bi.

224. Herrian alkateak, botikariak eta abadeak agintzen zuten (AMO-022/028)

Zineman, filmearen beheko aldean markatzen zuen zein adinetakoentzat zen saioa. Arau horiek ondo betetzen zituzten orduan. Herrian alkateak, botikariak eta abadeak agintzen zuten.

225. Etxeko erremedioak egiten (AMO-022/029)

Ebaki-belarrak, mamukioa eta enplastuak erabiltzen zituzten etxeko erremedioak egiteko. Eliasen osabak asko zekien belarren inguruan eta ganaduentzako erremedioak ere prestatzen zituen.

226. Zaintiratuarena bihurkadentzat (AMO-022/030)

Bihurkadentzat zaintiratuarena egiten zuten. Hainbat eta arinen egin behar izaten zen mina arin kentzeko. Trapu beltz batean puntadak ematen zituzten bitartean otoitzak esaten zituzten eta minduta zegoen lekuan gurutzeak egin.

227. Zaldarrak leherrarazi (AMO-022/031)

Zaldarrak leherrarazi behar izaten ziren eta barruko materia atera. Eliasi medikuak egin zion bisturiarekin. Zaldarrak txikiak zirenean jostorratzarekin ateratzen zituzten.

228. Asunekin egiten ziren erremedioak (AMO-022/032)

Askok, gogo txarra kentzeko, asunekin jotzen zuten lepoa eta gero alkoholarekin edo binagrearekin igurtzi. Beste askok asun-infusioak hartzen zituzten tentsioa jaisteko, baita limoi ura edo sagarraren haziak ere.

229. Enplastuak txakur-eztularen kontra (AMO-022/033)

Katarroarentzat ezti da ona. Mari Terek txakur-eztula eduki zuen gaztetan eta amak enplastuak egiten zizkion paparrean eta lepoan jartzeko. Azeri-buztanaren ura ere hartzen zuten batzuek tentsioa bajatzeko.

230. Berakatz ura bizioentzat eta kipula zaldarrentzat (AMO-022/034)

Berakatzaren ura hartzen zuten bizioentzat. Zaldarrak kentzeko, oster, olio apur batekin pasatutako kipularekin. Lehen gutxitan joaten ziren medikuarengana.

231. Astoak begian jo ostikada (AMO-022/035)

Behin, Mari Tereri asto batek begi ondoan jo zion ostikada. Kurak egin zizkieten eta gero olio emateko esan zioten orbainik ez geratzeko.

232. Beldurra gauez errotara joateko (AMO-022/036)

Behin, errotatik berandu etorri behar izan zuen Mari Terek. Ez zuen ezer ikusten eta astoari buztana helduta joan zen pinudian barrena. Beldur itzela pasatu zuen.

233. Sakamantekasen beldur (AMO-023/003)

Bildur handiak pasatutakoa da Mari Tere, Sakamantekasen kontuarengatik.

234. "Mesias sarritan" kanta (AMO-023/009)

"Mesias sarritan" kanta abesten du.

235. "Ikusten duzu goizean" kanta moldatuta (AMO-023/011)

"Ikusten duzu goizean" kantaren moldaketa abesten du.

236. Toponimia: Altzibargoikoa baserri inguruko soroak (AMO-024/003)

Altzibargoikoa baserriaren inguruko soroen izenak. Santa Luzia ermitaren inguruko sailei Santa Luzi deitzen diete, adibidez.

237. Etxean beti ezagutu du ura; bestela, Berroetako iturrira (AMO-024/005)

Lolik beti ezagutu du etxean ura, Altzibargoikoa baserrian. Bestela, Berroetako iturrira edo erreka joango ziren. Errekaren izen zehatzik ez dakite.

238. Altzibar auzoaren inguruko auzoak (AMO-024/006)

Altzibar auzoaren inguruko auzoak: Urumin, Alakao, Arrinda...

239. Etxano auzoko toponimia (AMO-024/007)

Etxano auzoko toponimia: tontorrak eta sailak. San Martin ermita. Etxano eta Muxikaren arteko muga Muniketa inguruan; mugan dauden etxeak.

240. Erromeriara Zornotzara; Etxanoko ermitak (AMO-024/009)

Erromeriara Zornotzara joaten zen Loli, neguan udaletxeko arkupera eta udan parkera. Geroago, dantzalekuetara. Durangora edo Gernikara ere joaten ziren, baina ez zituen ezagutu auzuneetako erromeriak. Senarra, berriz, Muniketara. Ez dago ermitarik Muniketan. San Martin jaiak. Inguruko ermitak eta jaiak.

241. Etxanoko otarregileak (AMO-024/013)

Loliren aita otarregilea izan zen eta aitona ere bai. Etxanon baziren gehiago ere: Begiristain, "Taju"...

242. Aita eta aitona otarregileak (AMO-024/015)

Etxe ondoan "taillarra" esaten zioten txabolatxoa zuten. Aitak eta aitonak hantxe egiten zituzten zestoak. Labea. Ogiak ere egiten zituzten. Olarik eta lantegirik ez zegoen inguruetan.

243. Altzibargoikora ezkondu zenean, etxean bazuten ura (AMO-025/002)

Altzibargoikoa baserrira ezkondu zenean, etxearen atzealdetik, Berroeta iturriaren ingurutik, jarrita zegoen etxerako ura. Etxearen maila berean zegoenez, bonbarekin ekartzen zuten kortan jarritako depositura. Aurretik pitxarrarekin joaten omen ziren.

244. Toponimia: Altzibargoikoa baserriaren soroak (AMO-025/004)

Altzibargoikoa etxearen inguruko soroen izenak. Santa Luzia ermitaren inguruko sailei "Santa Luzi soloak" esaten zieten. Senarra zen Altzibargoikoa baserrikoa.

245. Senarra mendira, egur bila, zestoak egiteko (AMO-025/006)

Senarra otarregilea zen eta menditik ekartzen zuen egurra. Zeanurira eta Orozkora joaten zen "paluen" bila eta handik ezagutu zuten elkar. Egurra etxe ondoko putzuan edukitzen zuen. Otsaila izaten zen "paluek" ebakitzeko sasoi ona.

246. Etxanoko ermitak (AMO-025/007)

Etxanoko parrokiara joaten ziren mezara. Santa Luziako ermitara, bertako egunean. Inguruetako ermitak.

247. Altzibar inguruko auzoak (AMO-025/008)

Gaur egun erresidentzia dagoen lekuan bi baserri zeuden lehen, baina erori egin ziren. Altzibar auzoaren inguruko beste auzoak: Alakao, Arrinda, Urumin... Etxe bakarrek.

248. Etxanoko errota (AMO-025/009)

Etxanoko errota.

249. Berna auzoan suitzarrarekin gertatutako pasadizoa (AMO-026/002)

Zornotzako Berna auzoan gertatutako pasadizoa. Bertako jaiak nola hasi ziren. Behin gizon bati kotxea izorratu zitzaion Berna parean. Auzoko batzuk laguntzera joan zitzaizkion. Gidaria suitzarra zen eta auzoaren izena Berna hiriarekin lotu zuen. Gizona enbaxadorea omen zen eta hura etorri zenean eman omen zitzaien hasiera jaiak.

250. Asko hazi da Zornotza (AMO-026/004)

Garai batean Zornotza txikia zen eta denek elkar ezagutzen zuten. Asko hazi da eta jende asko etorri da kanpotik. Zornotzan egin ziren lehenengo pisuak.

251. Garai batean denak elizara (AMO-026/005)

Garai bateko kontuetatik jendea elizara joatea botatzen du faltan Agedak. Garai batean denak joaten ziren. Beraiek oraindik ere domekero joaten dira normalean.

252. Soldadutzara joaterako atera zuen gidabaimena Eliasek (AMO-026/007)

Eliasek duela gutxira arte gidatu duela dio Agedak. Soldadutzara joaterako atera zuen gidabaimena. Baina gero 40 urterekin erosi zuen kotxea eta hasieran pixka bat kostatu egin zitzaion, denbora luzez ibili gabe zegoelako. Orduan askoz kotxe gutxiago ibiltzen ziren.

253. Gaur egun askoz ume gutxiago jaiotzen da (AMO-026/008)

Agedak garai bateko kontuetatik jendea elizara joatea botatzen du faltan eta Eliasek, berriz, umeak. Gaur egun askoz ume gutxiago jaiotzen da. Durangora joaten direnean, ea zenbat emakume ikusten dituen haurdun begira ibiltzen da; "akabau ez daitten mundue".

254. Erromarakoa baserriaren inguruko azalpenak (AMO-027/002)

Dudea auzoko Erromarakoa baserriko Juan Luis Ormaetxek baserriaren izenaren jatorria azaltzen du. Antza denez, erromara asko zeuden baserriaren inguruan. Baserriaren estiloa eta historia eta baserriari lotutako beste zenbait kontu.

255. Umetan "Hazur-toki"ko hezurrekin jolasten zuten (AMO-027/003)

Juan Inazio Irakulisek Aretxaga baserriaren inguruko azalpenak ematen ditu; antza denez, bi fasetan egina dago. Umetan eliza inguruan jolasten zuten. "Hazur-tokixe"n aurkitzen zituzten hezurrekin jolasten zuten.

256. Epaltza auzoko baserriak; Sagarnabekoan taberna (AMO-027/005)

Pedro Larrinagak Epaltza auzoaren berri ematen du: zenbat baserri eta etxe dauden, baserrien izenak... Sagarnabekoa baserrian taberna antzekoa zegoen eta auzoko gizonak eta beste auzo batzuetakoak bertan batzen ziren igande goizetan, musean jokatzeko. Ardo zuria limonadarekin nahastuta eta gailetak.

257. Asteitza baserria; txakolina eta sagardoa egin izan dituzte (AMO-027/006)

Pascual Uriartek "Astitxe" (Asteitza) baserriaren inguruko azalpenak ematen ditu. Garai batean txakolina egiten zen bertan, gero saltzeko. Sagardoa ere egiten zuten. Gaur egun oraindik etxerako egiten dituzte bai sagardoa eta baita txakolina ere. Baserri inguruetan haritz asko zegoen eta ikatza ere egiten zen etxetik nahiko gertu. Karobien aztarnak ere badaude. Baserria gainontzeko etxeengandik aparte zegoen eta Pascual umea zenean ez zuten ez argindarrrik eta ez urik.

258. Asteitza baserri ondotik pasatzen zen andabidea (AMO-027/007)

Asteitza baserriaren ondotik andabidea pasatzen zen. Hildakoak hilerria eramateko bidea izaten zen eta, oinezkoek erabiltzen zuten arren, errespetatu egiten zen. Hildakoak lepoan eramaten ziren. "Zordanbideak" ere bazeuden.

259. Garai bateko auzolana eta auzokoen arteko harremana (AMO-027/009)

Pedrok dio bizi-kalitatea asko hobetu dela, baina berak garai bateko auzolana eta auzokoen arteko giroa botatzen du faltan. Juan Inaziok ere lehen jendearen artean harreman handiagoa zegoela dio. Etxeetako ateak zabalik egoten ziren. Pascualek, adibide gisa, azaltzen du gari-jotzea auzolanean egiten zela, baserri batek besteari lagunduta.

260. Paisaia asko aldatu da eta errespetua galdu (AMO-027/010)

Juan Luisek dio paisaia asko aldatu dela garai batetik. Lehen begiak itxita jakin zitekeen zer urtaro zen, lurraren edo belarraren usainagatik. Laborantza aldatzeaz gain, lurrak postez eta hariz (argindarrarena, telefonoarena...) beteta ikusten dira. Garai batean dena irekia zen; orain dena mugatu edo itxi egiten da. Gainera, errespetu gutxiago dago: norberarena mugatu eta, gainera, besteena ez da errespetatzen.

261. Bizitza soziala murriztu egin da (AMO-027/011)

Bizitza soziala asko murriztu dela dio Juan Luisek. Garai batean meza ostean egiten ziren tertuliak. Bertako jokoak; gazteek ez dituzte ezagutzen.

262. San Migel eta Etxano auzoen arteko muga (AMO-028/004)

San Migel eta Etxano auzoen arteko muga. Errotetan bi baserri daude, bata Etxanokoa eta bestea San Migelgoa.

263. Derandaingoikoa baserriaren inguruko toponimia (AMO-028/008)

Euren baserriari nola deitzen dioten. Soro eta basoen izenak. Erreka eta iturrien izenak.

264. Arribaltza toponimoa (AMO-028/010)

Arribaltza bidea, San Martinera doana.

265. Etxanoko basoak; harrobia (AMO-028/013)

Derandainbekoa baserriaren basoen izenak. Harrobia egon zen lekukoari "Kantereta" esaten zioten. Ez dakite harrobiak zer izen zuen. Handik ekarri zituzten harriak "Derandainandikoa" etxea egiteko. Beraiek "Andikoa" esan izan diote, baina haiek ere hala esaten zieten lehen, "aldamenekoa" esateko.

266. Etxano auzoko toponimia (AMO-028/015)

Toponimia. Etxanoko basoen izenak. San Martineko landa. Elguengo zelaia non dagoen.

267. Derandaingoikoa baserri inguruko trokak (AMO-028/018)

Derandaingoikoa baserri inguruko trokak. Bekotxorroa, bertan garbitzen ziren arropak garai batean. Edateko ura, berriz, Arribaltzetik hartzen zen.

268. Uratsa eta garai batean aluminioa ateratzeko egindako tunela (AMO-028/019)

Derandaingoikoa baserri inguruko errekek: Errekabarrena eta bi erreka txiki, Larrabetik datorrena eta Kaiskitrokatik datorrena. Uratsa; ur sufretsua izaten da, gauza askotarako ona, azalerako adibidez. Garai batean Bekotxorroa etortzen zen ur hori eta bainuetxea ere bazegoen. Baina Iñakik kontatzen du aspaldi aluminioa ateratzeko tunela egin zutela orain uratsa dagoen lekuan, eta orduan joan zela ur sufretsu hori hara. Gerratean tunel horietan egon zen jendea ezkutatuta.

269. Gerra garaiko trintxerak dituzten mendiak (AMO-028/021)

Ganzabal mendia da inguruetako ezagunena, gerra sasoian liskar handiak egon zirelako bertan. Oraindik ere trintxerak ikus daitezke. Beste mendi batzuetan ere badaude trintxerak: Zamalloamendi, Urramendi... Beste mendi batzuk.

270. Gauez Osinbaltzeko errotara (AMO-028/025)

Etxano inguruko errotak. Iñakik kontatzen du gerraostean errotak prezintatuta egon ziren sasoian Osinbaltzeko errotara joaten zela gauez. Bera 10 urte inguruko mutikoa eta, gainontzekoak, emakumeak. Dudeleta inguruan errepidea pasa eta gero basoko bidetik, guardia zibilen beldur.

271. Boroa auzoko baserrien izenak (AMO-029/003)

Boroa auzoko Gumuzio baserria bizitza bikoa zen. Inguruko baserrien izenak. Auzuneak.

272. Toponimoak: Zelatako iturria eta Pedroerrotia (AMO-029/006)

Zelatako iturrira joaten ziren edateko ur bila. Boroako errota: Pedroerrotia.

273. Gumuzio baserria eta ondoko San Roman ermita (AMO-029/008)

Gumuzio baserriaren aldamenean San Roman ermita zegoen garai batean. Mari Carmenek ermitaren zatiak ezagutu zituen, baina bere akorduan jada ez

zen mezarik ematen han. Baserriak armarria ere badu. Bera umea zenean, aititak esaten zuen baserriak jada 100 urte zituela.

274. Doña Satur maistra (AMO-029/010)

Eskolara nora joan zen. Lehenengo doña Saturekin. Oso zorrotza zen. Gaixotu egiten zen eta medikuak gomendatu zien ez zitzaiola komeni maistra harengana joatea. Gero San Pedron eta Zornotzan ere ibili zen eskolan.

275. Txosna auzunean hiru taberna eta erromeria (AMO-029/012)

Txosna auzunean bost etxe zeuden. Hiru taberna zeuden eta San Pedro jaietan erromeria egiten zen. Gaztetan ere joaten ziren hara, jolasera. Arriagagana auzunea. Hango zenbait etxe bota egin zituzten.

276. Gerra sasoiko bizipenak (AMO-030/002)

Bere lehenengo lanbidea "beranietan joatea" izan zela dio, eskola etxetik urrun zuten eta. Amak 12 ume izan zituen. Gerra sasoian senideak banatuta egon ziren: anaiak frontean, arreba Frantzian... Beraiek Deriora joan ziren ebakutatuta eta gero handik Sopuertara. Derioko seminarioan milizianoen kuartela egon zen. Mutikoak hara joaten ziren platerarekin eta "rantxoa" ematen zieten. Sopuertatik etxera itzuli zirenean, miseria.

277. Urumin baserriak (AMO-030/003)

28 urtera arte Urumin auzoko Urumin baserrian bizi izan zen. Ura pasatzen zen izen bereko bi baserrien erditik; baserri bata Etxanokoa zen eta bestea Zornotzakoa.

278. Inguruetako auzoak (AMO-030/005)

Inguruetako auzoak: Larrabe, "Astitxe" (Asteitza)...

279. San Martin ermita eta ingurua (AMO-030/007)

San Martingo basoa. San Martingo ermita auzolanean konpondu zuten. Bera ere ibili zen, ordurako erretiroa hartuta zegoenez, astia zuelako. Hamar haritz dauzka San Martingo landak eta egun-pasa joateko prestatu zuten, mahai eta guzti. Iturria ere jarri zuten 1985ean.

280. Arrinda auzoko eta inguruetako basoen izenak (AMO-030/009)

Arrinda auzoko eta inguruetako basoen izenak.

281. Gerratean hildako ugari Ganzabalen (AMO-030/010)

Ganzabal tontorrean jende asko hil omen zen gerra sasoian. Osabek kontatzen zuten hildakoen gurdikadak atera zituztela hiru astean.

282. Gerraostean dirua nonbaitetik atera behar (AMO-030/011)

Aita hargin ona zen. Zornotzatik Durango aldera dagoen Ibarreko zubia berregiten ibili zen, gorriek gerra sasoian apurtu egin zuten eta. Baldintza txarretan ibiliko zen lanean eta gaixotu egin zen. Etxean pobrezia ezagutu zuten, aitaren soldatarik ez zuten eta. Gerraostean balen zorroak ("kaskilloak") batu eta saldu egiten zituzten diru apur bat ateratzeko.

283. Anaia bi errekan ito (AMO-030/013)

Berroetako erreka. Ibaizabal edo Errekabarreneta. 11 eta 13 urteko bi anaia, seniderik gazteenak, errekan itota hil zitzaizkion. Amak 12 ume izan zituen.

284. 11 urterekin morroi; eskolara gutxi (AMO-030/015)

Bizimodua nonbaitetik atera behar eta 11 urterekin morroi joan zen. Ugazabandreak egunero eskolara bidaliko zutela agindu zien, baina ez zuen eskolarik ikusi. Oso gutxi joan zen eskolara. Geroago Larrabera joaten zen neguan, gizon batengana, gau-eskolara. Etxanon zegoen eskola, baina bera ezin zen hara joan ordaindu egin behar zelako. Anaia gazteagoak han ibili ziren.

285. Amorebieta-Etxanoko erroten izenak (AMO-030/016)

Inguruko erroten izenak.

286. Amorebieta-Etxanoko ermitak (AMO-030/017)

Inguruetako ermitak: San Martin, Santa Luzia, San Antolin (Epaltzekoa)...

287. Amorebieta-Etxanoko iturriak (AMO-030/018)

Inguruetako iturriak: Larrabeko iturria, Tajueneko iturria... Tajuenekoak otarre-egileak ziren.

288. Amorebieta-Etxanoko troken izenak (AMO-030/020)

Inguruetako troken izenak.

289. Gaztetako erromeria-lekuak; bolatokiak (AMO-030/022)

Gaztetan auzoetako erromerietara joaten ziren. Zornotzan erromeria egiten zen plazan. Leku askotan zeuden bolatokiak. Belatxikietara ere joaten ziren.

290. Mendian zehar egindako ibilaldiak (AMO-030/024)

Dimako Artaun auzotik gora ganadua edukitzen zuen eta kilometro asko egin izan dituela joan-etorrietan dio. Mendi-bide asko ezagutzen ditu. Dimako partean iturri bat egin zuten. Mendian egin izan dituen ibilbideak. Behin Santa Eufemiara (Markina) joan-etorri oinez egin zuen.

291. Leginetxebekoa baserriaren ingurua (AMO-031/004)

Leginetxebekoa baserriaren ingurua nolakoa zen. Azken urteetan Covimar marmol-lantegia egon dela, baina garai batean soroak zirela kontatzen du. Fruta-arbolak ere asko. Lehengo bideak eta berriak.

292. Leginetxeko iturriko ura, trokarik troka datorrena (AMO-031/008)

Leginetxeko iturria. Ura Untzetamenditik trokarik troka datorrela dio Anparok.

293. Taloen eta Antonmendikoa auzuneak (AMO-031/011)

Zubizabala, Santa Luzia eta Leginetxe. Taloen eta Antonmendikoa auzuneak. Non dauden azaltzen du Anparok.

294. Larrea inguruko errota (AMO-031/016)

Leginetxe inguruan ez zegoen errotarik. Errotak Etxanon eta Larrean zeuden. Olea. Olabarriko errota.

295. Zornotzako plazan errota, ferratokia eta eskola (AMO-031/020)

Zornotzako plazan Uria errota eta ferratokia. Gero etxea egin zuten. Bera joaten zen eskola nazionala ere ondoan zegoen.

296. Ola baserria; inguruko etxeak (AMO-032/002)

Ola baserria. Garai batean kobrezko galdarak egiten zituzten bertan eta hortik datorkio izena. Beraien etxea biltegia zen garai batean, baina gerra aurrean etxe bihurtu zuten. Inguruko hiru izenei deitzen zaie Ola. Inguruko etxeen izenak.

297. Berna inguruko basoen izenak (AMO-032/008)

Berna inguruko toponimia: basoak. Zornotza eta lurretaren arteko muga. Bernak ez du baso askorik.

298. Berna inguruko toponimia; lurretarekin muga (AMO-032/009)

Berna inguruko toponimia: errekek, iturriak. Zornotza eta lurretaren arteko muga. Oromiñon errekek adierazten du muga.

299. Berna inguruko tontorrak (AMO-032/011)

Berna inguruko tontorrak: Mugarra, Marmole...

300. Bernako ermita, txikoria-biltegia izandakoa (AMO-032/012)

Bernako ermita garai batean txikoria-biltegia zen. Paper-lantegiko langileak igandeetan ere lanean hasi zirenean, ermita bihurtu zuten, langileak mezara joan ahal izateko. Aurretik Bernagoitiko parrokiara joaten ziren. Eskolara ere hara joan ziren. Bere amama han dagoela lurperatuta dio Anak.

301. Bernako errota (AMO-032/013)

Bernako Errota baserria non zegoen. Anak ez du gogoan halakorik, baina Dabidek gogoan du artoa nola eramaten zen zakuetan ehotzera. Torre baserrian ganadua izaten zuten eta gurina egiten zuten.

302. Bernako Olan galdarak egiten ziren (AMO-032/014)

Ola baserria lantegia zen garai batean eta kobrezko galdarak egiten zituzten, kobrea labeetan urtuta. Zerrategi bat ere egon zen Bernan garai batean.

303. Gaur egun lantegiak dauden lekuan txikoria landatzen zen (AMO-032/015)

Berna inguruko lantegi garrantzitsuak: paper-lantegia, Agria eta Lux-May. Ez zuten baserririk bota horiek egiteko, dena lur-sailak ziren eta. Katalana eta Kamiñeruena baserriak. Garai batean inguru horietan txikoria landatzen zen. Erremolatxaren antzekoa dela txikoria dio Dabidek.

304. San Bartolome auzoko baserrien izenak (AMO-033/002)

San Bartolome auzoko baserrien izenak.

305. Beaskoa baserriaren inguruko soroen eta basoen izenak (AMO-033/003)

Beaskoa baserriaren inguruko soroen eta basoen izenak.

306. San Bartolome auzo inguruko toponimia (AMO-033/005)

San Bartolome auzoko eta inguruetakoko mendi-tontorren, erreken eta iturrien izenak. San Bartolome ermita. Auzoan ez zegoen errotarik; inguruko erroetak. Eskolara nora joaten zen.

307. Beaskoa baserria bonba batek jo zuen (AMO-033/006)

Auzoan ez da baserririk erre izan. Bere jaiotetxea, Beaskoa baserria, bonba batek jo zuen gerra sasoian. Etxea hondatuta zegoenez, berria egin zuten.

308. Bañera auzoko bainuetxea (AMO-034/003)

Elortzabekoa baserria. Dueda. Trokarro auzoko etxeak. Bañera auzoan bainuetxea zegoen garai batean. Ur sufretsua zegoen bertan eta jendea etortzen zen kanpotik egunak pasatzera.

309. Maiatzeko loretan San Juan ermitara (AMO-034/005)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Osendogane mendia. San Juan ermita. Maiatzeko loretan joaten ziren. Inguruetakoko ermitak: San Antolin Epaltzan, Santa Luzia Alakaon...

310. Amorebieta-Etxanoko toponimia: basoen izenak (AMO-034/007)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Elortzabekoa baserriaren inguruko basoen izenak.

311. Amorebieta-Etxanoko toponimia: erroten izenak (AMO-034/008)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Erroten izenak.

312. Argindarra Etxano auzoan (AMO-034/009)

Iberduero jarri aurretik Forjas-ek banatzen zuen Etxanorako argindarra. Aurretik "Jualionen" errostatik. Auzokoren batek bonbilla handiagoa jartzen bazuen, besteentzat argi gutxiago iristen zen.

313. Kaputxako presoak Bermeorako trenbidea egitera (AMO-034/010)

Kaputxan garai batean mojak egon ziren. Gerraostean presoak egoten ziren. Presoak Gernikara eramaten zituzten handik Bermeora bitarteko trenbidea egitera. Guardia zibilak egoten ziren auzoan. Auzoko neska batzuk guardia zibilekin ezkondu ziren. Presoetako batzuk ere bertan geratu ziren ezkondu.

314. Etxanoko udaletxea; mugak (AMO-034/013)

Etxanora joaten zen eskolara. Garai batean Etxanok udaletxea izan zuen. Non zegoen azaltzen du. Etxano eta Zornotzaren arteko mugak.

315. Garai bateko bideak eta bidezidorrak (AMO-034/015)

"Zordanbideak". Gaur egun jada ez dira zaintzen bideak. Garai bateko bidezidorrak. Etxanora artez joaten ziren.

316. Urritxe ingurua (AMO-034/017)

Gaur egun erresidentzia dagoen lekuan "Tajueneko" etxea zegoen. Otargileak ziren "Tajuenekoak". Betidanik ezagutu du Urritxeko futbol zelaia. Institutua dagoen lekuan bi etxe zeuden. Zornotzako lurak dira.

317. Aduanazaina Zugazabeitia bodegan (AMO-034/019)

Zugazabeitia bodega garai batean Etxanoko udaletxearen eta eskolaren ondoan zegoen. Gero bota egin zituzten hango eraikinak eta lekuz aldatu zen bodega. "Aduaneroa".

318. Larrabe baserriaren inguruko toponimia (AMO-035/002)

Larrabe baserria. Urumin auzoa, "Diandin" (Derandain). Inguruetako toponimia.

319. Amorebieta-Etxanoko errotak (AMO-035/005)

Amorebieta-Etxanoko errotak.

320. Amorebieta-Etxanoko ermitak (AMO-035/008)

Amorebieta-Etxanoko ermitak eta elizak.

321. Bernagoitiko galtzada; inguruko auzoak (AMO-036/002)

Begoña Bikandi, Zabalagoikoa baserrian jaioa. Galtzada. Bernagoitiko eskolara joaten ziren. Inguruko auzo eta auzuneak.

322. Bernagoiti inguruko baso eta mendien izenak (AMO-036/004)

Bernagoiti inguruko toponimia: baso eta mendien izenak.

323. Bernagoiti inguruko trokak (AMO-036/005)

Bernagoiti inguruko toponimia: trokak. Baserriak.

324. Bernako txikoria-fabrika kapera bihurtu zuten (AMO-036/008)

Bernan txikoria-fabrika zegoen garai batean, baina kapera bihurtu zuten, paper-lantegiko langileak meza entzutera joan zitezten. Paper-lantegia jarri zutenean, hasieran ez zekiten usain txarra nondik zetorren.

325. Amorebieta-Etxanoko auzune eta ermitak (AMO-036/010)

Bernan parrokia dago. Inguruetako auzo edo auzuneak eta bakoitzaren ermitak.

326. Ganbelar tontorrera jolasera (AMO-036/016)

Amorebieta-etxanoko toponimia: tontorrak, mendiak... Umetan asko joaten ziren Ganbelar tontorrera.

327. Bitartea baserriaren izenaren jatorria (AMO-037/003)

Bitartea baserriaren izenaren jatorria.

328. "Listeruena" eta "listero" kontzeptua (AMO-037/009)

Baserri baten eskriturretan "Listeruena" izena ageri zela kontatu zioten Pedrori. Txaroren osaba izan zen Astepeko lantegiko "listeroa", baina aurretik ere besteren bat izango zen. "Listeroa" zer den.

329. Astepe auzoaren izaera (AMO-037/013)

Astepe auzoaren izaera. Toponimo gutxi ditu. Lantegiarekin batera etxe berriak egin ziren langileentzat eta kanpoko jendea etorri zen.

330. Markesasti, Aresti, Zugazaga (AMO-037/014)

"Markesasti" toponimoa, "Marques de Aresti", eta Gabriel Arestik idatzitakoa. Osaba, Zugazaga, Zornotzakoa zen.

331. Astepe auzoa erdaldundu egin zen (AMO-037/016)

Astepe auzoa erdaldundu egin zen lantegiaren eraginez, etxe berriak egin eta kanpotik etorri zelako jendea lanera. Auzoko emakume batek gutxi zekiela gaztelaniaz dio Txarok. Mugimendu handia zegoen auzoan. Astepeko emakumeak.

332. Dudeako San Migel auzokoa (AMO-038/002)

Dudeako San Migel auzoko Zubieta baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen 22 urterekin ezkondu eta Zornotzara joan zen arte. Zazpi urte eta gero auzora itzuli zen eta bertako taberna-dendaren ardura izan zuen. Dudea auzoko etxeen izenak.

333. Dudeako San Migel auzoa (AMO-038/003)

Dudeako San Migel auzoko etxeen izenak.

334. Bolatokiko erromeriak aspaldikoak (AMO-038/007)

San Antonioko bolatokiko erromerietara joan ziren gaztetan. Berak umetatik ezagutu ditu bertako erromeriak. Eubako jaiak berriagoak direla dio.

335. Belatxikieta eta inguruak (AMO-038/009)

Belatxikietak "refugixoa" eta inguruetako mendi, tontor eta basoen izenak.

336. Solobarreneko kanterak (AMO-039/002)

Beraien auzo ondoan harrobia bat dago eta bertako harria eraikuntza desberdinak egiteko erabili izan da. "Solobarreneko kanterak" deitzen diote. Laberako hariak eta adreiluak egiten ziren bertan. Lehen 5 harrobi egon ziren eta bakoitzean sei lagun inguru ibili ziren beharrean.

337. Iturriak (AMO-039/004)

Larraldeko iturria, Bediagako iturria eta Arkotxako iturria aipatzen ditu. "Bedixako iturrixe" metal-ura du. Iturri barrenean putzua sortzen zen eta horko ura ganaduarentzako aprobetxatzen zen.

338. Burdin-meatzeak eta txondorak (AMO-039/008)

"Inburriñe" basoan burdina ateratzen zuten bertan baitzegoen "Miñezulo", kalamina ateratzen zuten bertatik. Arrieta deituriko lekuan beruna ateratzen zuten. Beste leku batzuetan ikatza egiteko, txondorra egiteko, lekuak egoten ziren, "Larrenak".

339. Orue ingurua (AMO-039/010)

Lauaxeta ikastola eta Orue egoitza dagoen lekuan lehen Orue baserria egon zen. Orue zeri esaten zaion azaltzen du.

340. Andareak eta hilkutxak (AMO-039/012)

Eskolara Eubara joan zen, Eubari "Eube" esaten diote. Inguruko etxeren bat Etxano dela aipatzen du. Errekak bereizten ditu Etxano eta Zornotza. Andari moduan ibilitakoa da, hildakoak lepoan eramaten baitziren lehen. Andariak ezkongabeak izan edo ez desberdina zen: hildakoa ezkondua bazen andariak ere ezkonduak ziren, eta ezkongabea bazen, andaria ere bai. Hildakoak ez baldin badu lehen jaunartzea egin "aingerua" da eta beti hilkutxa zuria izaten zen.

341. Soldadutzan sei urte; gainontzean beti Austoalarra baserrian (AMO-040/002)

Elias Atutxa, 87 urte. Austoa auzoko Austoalarra baserrikoa. Basoan ibili zen lanean. Abereak ere bazituzten etxean. 18 urterekin soldadu joan zen eta sei urte egin zituen soldadutzan. Gainontzean, baserrian bizi izan da beti. Bera lanean ibili zen basoen izenak.

342. Amorebieta-Etxanoko toponimia I (AMO-040/006)

Inguruetako tontor eta mendien izenak. San Pedro eta Santa Kurutz ermitak. Gorago Zamalloa mendia. Inguruetako toponimia.

343. Amorebieta-Etxanoko toponimia II (AMO-040/008)

Inguruetako toponimia.

344. San Kristobal egunean erromeria Oizen (AMO-040/011)

San Kristobal egunean erromeria egiten zen Oizen eta inguruetako jende asko batzen zen.

345. Garai batean errekan arrantzan (AMO-040/014)

Ibaizabal ibaiari "Errekanausixe" deitzen zioten. "Oromiñoko errekie". Arrantzan ibiltzen zen jendea lehen.

346. Eubako "San Pijon" jaiak (AMO-040/016)

Eubako "San Pijon" jaiak, beraiek asmatutakoak. Euban ez zegoen ermitarik eta hango partez San Antonion ematen zen meza.

347. Tranbian Durangora, maristetara (AMO-040/019)

Elias Eubako eskolan ibili zen umetan eta gero maristetan, Durangon. Tranbian joaten zen.

348. Bilbo-Durango-Arratia tranbia (AMO-040/021)

Garai batean Bilbo-Durango-Arratia tranbia egon zen. Nondik pasatzen zen. Gerra sasoian zubiak apurtu ziren eta ez zuten berriz jarri. Gerora autobusak.

349. Durangoko maristak (AMO-040/022)

Durangoko maristak. Garai batean irakasle guztiak maristak. Notak asteka ematen zizkieten.

350. Hainbat lekutako urak elkartzen dira Zornotzan (AMO-040/025)

Inguruetako errekek. Zornotzan hainbat aldetatik datozen urak elkartzen dira eta euriteak direnean erraz egiten du gora.

351. Galdarak egiten ziren Bernan (AMO-040/027)

Garai batean Bernan galdara-lantegia zegoen eta kobrezko galdarak egiten zituzten. Esaten zuten hango langileak gortu egin zirela ateratzen zuten zaratarekin.

352. Kurutzeta, aitak egindako etxea (AMO-041/002)

San Antonio auzoko Kurutzeta etxean jaio zen. Bere aitak egin zuen etxea eta 110 urte inguru izango dituela dio. "Forja Vizcaina" dagoen lekuan garai batean jauregi bat zegoen (Taubmann); ondoan administratzailearen txaleta zuen. Amak han lan egiten zuen, zerbitzatzen.

353. Elgezabal edo "Errekazabal" auzoa (AMO-041/005)

Elgezabal auzoari "Errekazabal" deitu izan diote beraiek. Auzo horretakoa zen Eliasen aitita eta harenak ziren lur-sailetan lantegiak egin ziren gero. Garai baten soroak ziren lurretan gerora zer lantegi egon diren azaltzen dute.

354. Ibarako errota I (AMO-041/009)

Amaren jaiotetxea zen Ibarra baserriaren atzean errota zegoen. San Antonio auzoan ez zegoen errotarik. Zentrala.

355. Ibarako errota II (AMO-041/011)

Zornotzako lehenengo zentrala Ibarakoa izan zen eta errota ere oso inportantea izan zen.

356. Amorebieta-Etxanoko errotak (AMO-041/013)

Amorebieta-Etxanoko errotak.

357. Ibarra inguruan desagertutako etxeak (AMO-041/014)

Ibarra auzoan eta inguruetan bota zituzten baserriak.

358. Eliasek inauguratu zuen Montorrrako eskola 1928an (AMO-041/015)

Montorra ingurua. San Lorentzo ermita. Eliasek dio beraiek inauguratu zutela Montorrrako eskola 1928an. Aurretik baserrian lanean. Inguruko iturriak.

359. Amorebieta-Etxanoko toponimia (AMO-041/017)

Orain San Migelera arte ez dagoela iturririk diote. Mari Tereren baserri ondoko iturriak metal-ura. Beste iturri batzuk. Basoen izenak. Baserrien izenak. Keriketena baserria erre egin zen gerra sasoian.

360. Eskola eta erresidentzia Oruen (AMO-041/019)

Orue baserria erre egin zen gerra sasoian. Gerraostean pasiotarrek erosi zituzten inguruko lur-sailak eta eskola (gaur egin Lauaxeta ikastola dena) eta erresidentzia egin ziren bertan. Eskolaren bilakaera eta izan dituen izen ezberdinak.

361. Milaka pertsona hil ziren gerra sasoian San Martinen (AMO-041/020)

San Martin, "la cota 333, la cota de la muerte". Milaka pertsona hil ziren bertan gerra sasoian.

362. Erromarakoa baserria (AMO-042/002)

Juan Luis Ormaetxe, Erromarakoa baserrikoa. Baserriaren izena inguruan zeuden erromaretatik datorrela uste du. Baserria gaur egun nekazal turismoa da eta oso aldatuta dago. Aurretik nolakoa zen. Horma bitarteetan egurrezko koilarak aurkitu zituzten.

363. Inguruko etxeak; Abadetxea (AMO-042/006)

Inguruko etxeak bertan bizi direnen abizenetatik ezagutu izan dituzte, nahiz eta etxeek beren izenak eduki. Goiriena, Abadetxea eta Zesteruena. Gerra aurretik nor bizi zen Abadetxean. etxeen inguruko azalpenak.

364. "Zesteruena" etxea (AMO-042/007)

"Zesteruena" etxea garai batean ostatu antzekoa izan omen zen, baina ez zuen inork kudeatzen. Hutsik zegoen eta, handik pasatzerakoan, behar zuenak erabiltzen zuen.

365. Etxegalanta edo "Sakristauena" (AMO-042/008)

Etxegalanta etxea. Jatorrizko izena erdi-galduta zegoen arren, beraiek horrela ezagutzen zutela dio Juan Luisek. Jendeak "Sakristauena" deitzen zion, familia horretako kideek egiten zutelako sakristau lana. Bera orain bizi den etxearen inguruko azalpenak: garai batean labea zegoen eta aitita-amamek etxea egin zuten.

366. Etxanoko eskola; auzoaren mugak (AMO-042/009)

Etxanoko eskola auzokoen artean egin zuten: batzuek dirua ipini zuten eta beste batzuek esku-lana. Etxanoko auzuneak. Etxanoren mugak. San Martin mendia, ingurua eta ermita.

367. Zinturi, Bañera eta Antzarzubi toponimoak (AMO-042/012)

Aretxaga baserriaren inguruan dauden Zinturi eta Bañera toponimoen inguruko azalpenak. Bañeran ur sufretsuak zeuden eta bainuetxea egon zen garai batean. Beherago Antzarzubi.

368. Aretxaga baserria eta ondoko arte zaharra (AMO-042/014)

Aretxaga baserriaren ondoan 500 urte baino gehiago dituen arte bat dago. Juan Inaziok dio hutsik dagoela barrutik eta umetan haren barrura sartzen zela. Aretxaga baserriaren egitura; inguruetako zaharrena dela esaten dute.

369. Epaltza auzoko etxeak (AMO-042/017)

Pedro Larrinaga Lauzirika, 55 urte. Etxanoko Epaltza auzokoa. Epaltza auzoko etheen izenak. Sagarnabekoa baserria bizitza bikoa zen, baina gaur egun galduta dago. San Antolin ermita.

370. Galdutako bi baserri (AMO-042/020)

Torreburutik aurrerantz joanda, bide bat dago Muniketa aldera. Han gaur egun basoa besterik ez dagoen arren, garai baten bi baserri ei zeuden: Txabolaondo eta Zenteno. Muniketa, Ibarruri auzoaren muga. Muniketako zati bat Etxanokoa izango dela uste du.

371. Sagarnabekoa, auzokoen bilgune (AMO-042/022)

Garai batean Epaltza auzoko Sagarnabekoa baserriak (gaur egun galduta dagoena) taberna gisa funtzionatzen zuen. Bertako emakumea astoarekin joaten zen Zornotzara eta auzo guztiarentzako ogia eta ardo zahagia ekartzen zituen. Domeketan Sagarnabekoa baserrian elkartzen ziren auzokoak.

372. Aldaketak toponimoetan (AMO-042/023)

Sanjuanmendi. Goikoelortza, Urizar edo "Uxar"... Izenak nola aldatzen eta galtzen diren.

373. Etxanoko zenbait toponimo (AMO-042/025)

Etxanoko toponimia. Troken izenak: Abeletxe, Alakargeta. Lapurbaso basoa.

374. Etxanoko harrobiak (AMO-042/027)

Epaltza auzoan garai batean baserrietatik bizi zen jendea. Etxanoko harrobiak. Etxanoko harearekin eta harriarekin egiten ziren eraikuntza gehienak Bizkaian. Harea gorria, lanerako erraza.

375. "Astitxe" baserriko txakolina "Malespera"n saldu (AMO-042/032)

"Astitxe" baserriaren bi sorok "mahastixe" dute izenean: Bekomastia eta Bazterreko mahastia. Berak ez du ezagutu, baina aurrekoek esaten dute garai

batean txakolina egiten zela. Gero, San Antonio auzoko Malespera baserrian saltzen ei zen txakolina, taberna egon zen eta.

376. Larrene toponimoa (AMO-042/034)

"Astitxe" baserria gainontzeko baserrietatik pixka bat aparte dago. Paskualek etxe berria egin zuen baserriaren ondoan eta hango toponimo baten izena jarri zion: Larrene. Toponimoaren inguruko azalpenak. Garai batean garia jotzeko erabiltzen zen leku hori. Inguruko basoetan ikatza egiten zela ere azaltzen du.

377. Larrabe, baserri esanguratsua (AMO-042/036)

Larrabe baserria esanguratsua izan zen auzoan. Bolatokia zuen. Eskolak ematen zituzten bertan auzokoentzat. Inguruko baserri-etxe zaharrenetakoa izango da. Senideak bizi ditu bertan. Larrabe ondoko toponimo bat: Eperzelai.

378. Etxanoko ermitak (AMO-042/041)

Etxanoko ermitak. Larreako zati handi bat Etxano da eta Orobion ere errekek banatzen ditu lurak.

379. Etxanoko errekek (AMO-042/042)

Orobioko errekarari "Oromiñoko erreka" esaten diote Etxanoko errekek. Karramarro asko egoten ziren.

380. Etxanon saskigile ugari (AMO-042/045)

Etxanon saskigile asko egon ziren garai batean: Taju, Zurinagatarrak...

381. Tunturreko bidezidorra (AMO-042/050)

Etxanoko mendi edo tontorrak. Eskolara Tunturreko bidezidorretik joaten zirela azaltzen dute. Harrizko galtzada. Oinez ibiltzen ziren denera.

382. Epaltzako San Antolin ermita "tunturrean" (AMO-042/052)

Epaltza auzoan San Antolin ermita "tunturrean" (tontorrean) dago eta "tunturrera goaz" esatean, ermita dagoen lekura esan nahi dute.

383. Bizkargirako bidezidorra (AMO-042/054)

Santa Krutz egunean Etxanoko abadeak letania egiten zuen Bizkargiko ermitara. Bizkargira joateko bidezidorra. Zabale.

384. Torreburu; Esturo auzoa; harrobiak (AMO-042/055)

Oiz mendira joateko bidezidorrak: San Martinetik edo Txabolaondo-Esturo-Muniketa. Etxano eta Ibarruri auzoen muga. Torreburu baserriak elizaz Etxano, baina lur-sailak Ibarrurin. Hara bidean, Esturo auzoa. Hango jendeak Etxanoko harrobian lan egiteko joera. Bi harrobi zeuden: "Goiriena" eta "Gorriño".

385. Zordanbideak (AMO-042/058)

Zordanbidea hitzaren inguruko azalpenak. Bidea zegoen lur-sailaren jabea bat izan arren, baimena ematen zitzaien besteei pasatzeko. Liskar handienak zordanbideen kontura egon izan dira. Denborarekin utziz joan dira bide horiek eta lur-sailak eskuz aldatzean erabilera-ohiturak ere galdu egin dira.

386. Andabideak (AMO-042/059)

"Andari-bideak" edo andabideak. Auzo guztiek izaten zuten andabidea, hildakoen gorpuak hilerria eramateko. Garai batean lepoan edo gurdian eramaten ziren hildakoak. Etxanoko ortu santua.

387. Jolas-orduan elizpeko "hazurtoki"ko hezurrekin jolasean (AMO-042/060)

Etxanoko hilerria egin aurretik, elizaren azpian lurperatzen ziren gorpuak. Beraiek umeak zirenean atera zituzten hango aztarnak. Elizpeko "Hazurtokixe"n, era guztietako hezurak aurkitzen zituzten. Eskolako jolas-orduan hara joaten ziren eta hango hezurrekin neskak beldurtu nahirik ibiltzen ziren. 48 neska-mutil ibiltzen ziren batera eskolan. Maistra egunero etortzen zen Bilbotik eta eskolan bertan bazkaltzen zuen.

388. Etxegalanta baserriaren historia; inguruko etxeak (AMO-043/003)

Etxegalanta baserriaren historia. Kalahorrako kapilautzarena zen garai batean. Ergoienetik etorritako familiak erosi zuen gero. Inguruko baserriak, zeintzuk diren zaharrenak eta zeintzuk berriagoak. Elizaren "Hospederia". Bertako aitita zen sakristaua. Gerra sasoiari kartzelara bidali zuten eta "Hospederia" kendu egin zioten. Idatzietan Etxegalanta izena ageri arren, jendeak "Sakristauena" bezala ezagutzen zuen etxea, aitita sakristaua zelako.

389. Inguruetako auzoak (AMO-043/008)

Inguruetako auzoak: Alaka, Epaltze, Arrinda... Errekak.

390. Leginetxe inguruko hainbat toponimo (AMO-043/010)

Leginetxe eta Santa Luzia auzoa ondoan daude eta bi auzoekin zuten harremana. Beraiek errenteroak ziren eta besteen sailak erabiltzen zituzten. Inguruko hainbat toponimo aipatzen ditu.

391. Etxano inguruko ermitak (AMO-043/015)

Etxanon Andra Mari eliza. Inguruetako auzoetako ermitak.

392. Etxanoko eskola (AMO-043/016)

Etxanoko eskola auzotar batzuen artean egin zutela dio, duela 85 urte inguru. Bertako izebetako bat izan zen eskolako lehen ikasleetako bat. Aurretik eskola non zegoen. Erkoles auzotik ere etortzen ziren.

393. Durangora jesuitetara bizikletan (AMO-044/006)

Bernako ermita. Garai batean txikoria-fabrika zegoen lekuan gero kapera egin zuten. Elizara Bernagoitira joaten zen eta, bizikleta izanez gero, baita Durangora ere jesuitetara. Eskolara ere Bernagoitira joaten zen.

394. Markesaresti auzoko etxeak (AMO-045/002)

Markesaresti "maior" baserrikoa. Aldamenean Markesaresti "menor". Etxeei nola deitzen dieten. Auzoa ere Markesaresti. Astepe auzoa. Garai batean denek zuten ganadua, baina gaur egun jada ez da inor bizi laborantzatik. Gaur egun lau etxe daude auzoan, baina bi gerraostean eginak dira.

395. Markesaresti ingurua; mugak (AMO-045/005)

Markesarestinagusikoek besteen basoak erabiltzen zituzten. Etxe gainaldean dagoen Izarango basoa garai batean Jauregirena zen. Paper-lantegiari saldu zion eta geroago Foru Aldundiak erosi zuen. Errekak bereizten ditu eremuak. Lemoarekin muga.

396. Edateko ura Astepetik; arropa garbitzera errekarra (AMO-045/007)

Astepen kapera zegoen lekuan iturria dago. Garai batean Asteperaino joaten ziren edateko ur bila. Duela 54 urte jarri zuten herriko ura Markesaresti auzoko etxeetan. Arropa garbitzera, berriz, erreka txiki batera.

397. Lemoan erromeria domekero (AMO-045/008)

Gerraostean Lemoara joaten ziren erromeriara, Zornotzan baino erromeria hobea egiten zen eta. Domeka guztietan egiten zen erromeria. Beste auzo batzuetan, Erkolesen adibidez, urtean behin erromeria, jaietan.

398. Astepeko ermita (AMO-045/009)

Astepeko ermita. Garai batean "La concepción" zen, baina Astepeko lantegiak gero ama birjina aldatu zuen eta Santa Ana ipini zuten, ehun-fabrikaren izena hori zelako. Ermita jada erdi jausita zegoen eta duela 8-10 urte guztiz kendu zutela azaltzen dute.

399. Industriaren bilakaera Astepen (AMO-045/011)

Paper-lantegia, duela 54 urte egina. Aurretik lur-sail horiek Jauregirenak ziren. Jauregiren fundizioa. Errailak egon ziren jarrita, hango eskoria bagoietan ateratzeko. Gero paper-lantegia eta ehun-fabrika. Ehun fabrika kendu ostean, beste hainbat lantegi.

400. Lemoako errotara bizikletan (AMO-045/013)

Markesaresti auzotik Lemoara joaten ziren errotara edo, bestela, Zornotzara, Nafarroako errotara. Lemoako errotara bizikletan joaten zen Eusebia zorroarekin. Non zegoen azaltzen du.

401. Zornotzara eskolara, oinez (AMO-045/017)

Zornotzara joaten zen eskolara, oinez. Nondik joaten zen. Trenbidetik joanda topatzen zuten bide-zidorra.

402. Larrea auzoko etxeak eta inguruko auzoak (AMO-046/003)

Larrea auzoko garai bateko etxeak. Inguruko auzoak. Ategorri.

403. Fraideen jauregia Larrean (AMO-046/010)

Larrean fraideek jauregi handi bat zuten: "Palacio de los carmelitas". Handia zen, frontoi itxia zuen barruan. Apaizgaiak egoten ziren. Beraiek hara joaten ziren eskolara.

404. Torreburubarri etxea gurasoek egina (AMO-047/002)

Imanol Amuriza Sarrionandia, 1937ko martian jaioa, Gernikako bonbardaketa baino hilabete lehenago. Amama Torreburukoa zen eta bere gurasoei lur zati

bat eman zien etxe berria egiteko. Halaxe egin zuten Torreburubarri 1935ean eta bertan jaio zen Imanol. Harlanduzko etxea da. Etxea egin zuten sasoian bi gauzak zituzten beharrezko: lurra eta harria. Idi-parea erosi zuten eta inguruetakoko harriak gurdian ekartzen zituzten.

405. Torreburu; artzainen bidea (AMO-047/003)

Torreburu baserriak 1500 urte inguru izango dituela uste du. Lurrez eta harez egindakoa. Ardiak edukitzen zituzten. Leku garrantzitsua zen: "camino pastoril". Artzain guztiak handik pasatzen ziren ardiekin, oinez, negua pasatzera. Bilboko Matikon bukatzen zen bidea. Artzain euskaldunekin elkar ulertu ezinda ibiltzen ziren. Eskolan ez zuen askorik ikasi.

406. Desagertutako baserriak: Txabola eta Zenteno (AMO-047/006)

Autzaganatik Muniketarantz Urdaibai da, jada ez da Etxano. Torreburutik Muniketara bidean Txabola izeneko etxea zegoen, baina gerra sasoian erre egin zen. Handik gertu "Kanpañe" edo "Zenteno" esaten zioten etxea zegoen. Bertakoek alde egin zutenean, etxea jausi egin zen eta gaur egun desagertuta dago. Ondoan "Kanpañeitturri" iturria zegoen, ur-begia. Hango urak irten ahala, lur-jausi handia egon zen.

407. Autzaganan taberna bi (AMO-047/007)

Torreburutik Muniketa aldera badaude Etxanokoak diren basoak. Muniketa jada ez da Etxano, Ibarruri da. Autzagana Etxano da. Garai batean etxe bi egon ziren, biak tabernak. Sagarra taberna oso famatua izan zen, baina errepidea zabaltzeko bota egin zuten. Orduan, Autzagana bakarrik geratu zen.

408. Torreburu eta Etxano arteko toponimoak (AMO-047/010)

Etxanotik Torreburura bitartean dauden toponimoak: Munazelai, Kapellanena... Toponimoen inguruko azalpenak. Gaianda eta Abeletza bidegurutzeak.

409. Bedeinkazioak Bizkargiko ermitatik (AMO-047/018)

Bizkargiko ermita Etxano partean dago, nahiz eta letania hiru herritatik joan. Etxanoko abadeak eman izan du beti meza, eguerdiko 12etan. Garai batean bedeinkazioak egiten ziren Bizkargitik.

410. "Pijon" jatetxean jaioa (AMO-048/003)

"Pijon" jatetxea zegoen etxeak Zepamendi zeukan izena aurretik. Han jaio zen bera. Etxeak hiru bizitza zeuzkan, bi goian eta behean beste bat. Tabernari hasieran Izagirre jarri zioten izena, baina herriak jarritako izena zen "Pijon" eta hala deitzen zioten denek.

411. "San Pijon" jaien hasiera (AMO-048/004)

Herriak jarri zion "Pijon" izena euren tabernari. Jaiak antolatzekeo gunea ere huraxe izaten zen eta berari ematen zioten jaien egitaraua prestatzeko ardura. Auzokoak euskal giroko jaiak antolatzen hasi ziren, "San Pijon" izendatuta. Francoren sasoian Udaleko idazkariarekin izandako tira-birak.

412. Denetarik saltzen zen "Pijon" taberna-dendan (AMO-048/005)

Pijon taberna zegoen etxeak ez zuen lur-sailik. Auzoan beste taberna bat ere bazegoen. Pijon tabernak denda gisa ere funtzionatzen zuen eta denetarik edukitzen zuten: elikagaiak, ongarriak... Jatetxean hasieran jangela txiki bat zuten; gerora, handitu egin zuten trenbideko lurrak erosita.

413. Euba auzoko toponimia: eraikinak (AMO-048/008)

Gaur egun etxe asko daude Euba auzoan, baina berriak dira. Garai batean lau etxe zeuden: Zepamendi, Eubazarra, sindikatua edo "cooperativa agrícola" eta "Bernardiñena" esaten ziotena. Beraiek Zepamendiren ondoan etxe berria egin zuten gero. Handik gertu fabrika eta eskola. "Turbiñie".

414. Arkotxaerrotako erreka (AMO-048/010)

Arkotxaerrotak ingurutik errekatxo bat joaten da Ibaizabalera. Errota, presa. Galduta dago orain.

415. Arkotxa-Bediagako toponimia (AMO-048/011)

Bediaga aldera metal-ura zuen iturri bat zegoen. Eubakoak ere joaten ziren. Arkotxa-Bediaga San Bizente auzoa direla dio, San Bizente ermita dagoelako bertan. Inguruetako etxe eta eraikinak. Handik gora Belatxikieta.

416. Bernagoitia inguruko toponimia: eraikinen izenak I (AMO-048/012)

Bernagoitiko kaminoa. Sindikatua. Bernagoitia inguruko etxebizitzaren izenak. Astorekaren etxeak. Arratiako Zugazabeitiatarren etxeak.

417. Bernagoitia inguruko toponimia: eraikinen izenak II (AMO-048/014)

Bernagoitiko eliza, San Migel. San Isidro jaiak ospatzen dituzte. Abadetxea. Inguruetako beste etxe batzuen izenak.

418. "Sociedad deportiva Gainzorrotz" (AMO-048/019)

Belatxikieta eta Gainzorrotz mendiak. Frankismo sasoian Pijon tabernan elkarteak sortu zuten: "Sociedad deportiva Gainzorrotz". Euskarazko izena zelako denuntzia jarri zieten eta gero "Peña Carmelo" jarri zuten, onarpena lortu ahal izateko.

419. Karpoena, Belatxikietan (AMO-048/020)

Garai batean Belatxikietan baserri bakarra zegoen: Karpoena. Jendeak gaitzizena zela uste izaten du, baina Polikarpo zen hango bizilagunaren izena.

420. Euba-San Antonio inguruko toponimia (AMO-048/023)

Euba-San Antonio inguruko toponimia: Goikoetxe, Taloena, Egurbide eta Kimera. Hango bizilagunak Eubara joango zirela geltokira uste du. Kimeran, gainera, trenbideetan lanean jardun duten hiru belaunaldi ezagutu ditu. Garai batean dena eskuz egiten zen trenbideetan, baina gaur egun dena makinarekin.

421. Bernabeitia inguruko toponimia (AMO-048/025)

Bernagoitia eta Bernabeitia auzoen artean Zabala ("Zabale") auzunea. Bernabeitian zerrategia zegoen. Lau etxebizitza zeuden.

422. Bernan kobrezko galdarak egiten zituzten (AMO-048/027)

Berna auzoan presa bat dago. Olakoa esan zitzaion. Garai batean kobrezko galdarak egiten zituzten ola edo lantegi bat zegoen. Ondoan, Txosna; taberna zegoen bertan.

423. Berna-Euba inguruko toponimia: eraikinak (AMO-048/029)

Berna auzoko toponimia, eraikuntzak: Zearrena ("Zigerrena"), Bideondo (gerora egindakoa), errota. Euba alderantz Lux-May lantegia. Garai batean "Kamiñeruena" etxea zegoen eta kamineroa bizi zen bertan. Gerra sasoiaren etxea erre zioten eta preso sartu zuten. Bernatik Eubara bitarteko eraikinak.

424. Euban esnea erosi eta Bilbon saldu (AMO-048/032)

Saratsu auzoko Arruabarrena izan zen berak ezagutu zuen lehen "letxeroa". Esneak Eubara eramaten zituzten, hark erosi egiten zituen eta gero Bilbon saldu.

425. Errekan harrapatutako karramarroekin askaria (AMO-048/036)

Zamalloa auzoko etxeen izenak. "Berrioerrota"tik (Errotazarra) pasatzen zen erreka Ibaizabalera sartzen zen. Kutsadurarik gabe garbi egoten zen eta karramarroak harrapatzen joaten ziren. Gero merienda egiten zuten karramarroekin.

426. Ercolesko zubipeko iturria (AMO-048/040)

Euban Zubizarraren azpian iturria zeukaten. Geltokiko erraitzainak kanpotarrei esaten zien zubipeko iturrira joateko ura edatera eta ez zirela gehiago Eubatik joango. Inguruko errota: Arkotxaerrota eta Errotazarra.

427. San Antonio auzoko toponimia: eraikinen izenak (AMO-048/049)

San Antonio auzoko eraikinen izenak: "Juliren tabernie", "Erreruena", eliza... Ondoan "Pontxeria" auzunea. Handik gora Kimera. Keriketena eta Malespera.

428. Bañera etxean jaioa; izenaren jatorria (AMO-049/002)

Aretxagabarri izena bere aitak ipini zion etxeari. Jaiotzez Bañera etxekoa. Bañera izenaren jatorria. Ur sufretsak zeuden bertan eta garai baten bainuetxea egon zen. Bilbo aldeko jende aberatsa joaten zen, bainuak hartzen. Nolakoa zen etxea.

429. Aitona Dimatik etorria; bainuetxean lanean (AMO-049/004)

Bere aitona Dimakoa zen izatez. Sei urte ingururekin morroi joan zen Etxanora. Bainuetxean hasi zen lanean, garraio-lanetan. Gero nagusiak hango etxeetako bat saldu zion. Bainuetxearen gainbehera nondik etorri zen.

430. Etxanoko toponimia; basoak (AMO-049/006)

Arrindamendi basoa. Txolonmendi.

431. Etxanoko errota (AMO-049/008)

Etxanoko erreka inguruan baziren gutxienez sei errota. Banan-banan aipatzen ditu. Juan Leonen errota argia ematen zuten, Iberduero argindarra jarri aurretik.

432. `Taju´ otarregileak (AMO-049/009)

Galdutako bi etxeren berri ematen du. `Taju´ otarregileak, famatuak ziren. Lagun asko egoten ziren, otarreak egiten. Afrikara esportatzen zutela entzun izan du. Erre egin zen etxea. Alboan zegoen beste etxe txiki batean ere otarreak egiten zituzten.

433. Zornotzako toponimia: etxeen izenak (AMO-049/011)

Etxano eta inguruetako etxeen izenak.

434. Kaputxako presoak eta guardia zibilak (AMO-049/013)

Trokarro, Kaputxa. Mojen pabiloia. Garai batean presoak egoten ziren bertan. Zornotzatik Bermeora bitarteko trenbidea egitera eramaten zituzten presoak. Guardia Zibilak ere inguruan zeuden. Batzuek bertako neskekin ezkondu ziren eta baita preso batzuk ere.

435. `Taju´ familia (AMO-049/015)

`Taju´ familia famatua eta garrantzitsua izan zen inguruetan eta inguruko leku askok izen hori hartu zuten (nahiz eta jabetzaz haienak ez izan): Tajuen etxea, Tajuen iturria...

436. Uratsa edaten zuten (AMO-049/017)

Euren etxe inguruan urats-iturria zegoen. Jendea bainuak hartzera joaten zen Bañerara, baina beraiek uratsa edaten ohitu ziren. Aldamenean bazegoen beste iturri bat eta normalean jendeak hango ura edaten zuen. Arropak garbitzera errekaratzen.

437. Lehenbizi Etxanoko eskolan eta gero Zornotzara (AMO-049/023)

Garai hartan beharbada ez zen arruntena, baina lau urterekin hasi zen bera Etxanoko eskolan. Neskak eta mutilak elkarrekin. Irakaslea langilea zen; egunero etortzen zen Bilbotik. Denbora gutxi egin zuen Etxanoko eskolan Jones; Zornotzara jarraitu zuen gero, lehenbizi eskola partikular batean eta gero eskola publikoan.

438. Mezara eta eskolara Etxanora (AMO-050/004)

Santa Luzia ermita. Inguruari ere Santa Luzia esaten diote. Urtean behin egoten zen meza, bertako egunean. Mezatara Etxanora joaten ziren. Bertan egin zuen jaunartzea Mariak. Eskolara ere Etxanora. Auzolanean egin zen Etxanoko eskola. Lehenengotako ikaslea izan zen Maria.

439. Edateko ura Berroetako iturritik; ganadua erre kara (AMO-050/008)

Maria gaztea zenean, Berroetako iturritik ekartzen zuten edateko ura. Ganadua erre kara eramaten zen ura edateko. Bi erre ka daude inguruan, bata San Martinetik datorrena eta bestea Muniketa ingurutik. Oraindik ez dute herriko urik; ura nongo iturburutik datorkien azaltzen du Jose Andresek.

440. Inguruetako erro tak (AMO-050/009)

Errota asko daude inguruan, baina bat ere ez martxan. Izendatu egiten dituzte. Txoloneneko errota bota egin zen; gaur egun futbol zelaia dago bertan. Zer etxe gehiago zeuden.

441. Letanian Bizkargiko ermitara (AMO-050/016)

Inguruko zer ermitatara joan izan diren. Bizkargiko ermita. Letanian joaten ziren gurutze handi batekin. Goiko zelaian Gorozikakoak eta Muxikakoak ere elkartzen ziren eta ermitara arte joaten ziren batera.

442. Gerra sasoian erromeria Muniketan (AMO-050/017)

Mariak dio Zornotzara joan izan dela erromeriara. Gerra sasoian Zornotzan ez zegoen ezer eta Muniketan egoten zen erromeria. Han elkartzen ziren inguruetakoak.

443. Gerra zibileko arrastoak San Martin mendian (AMO-050/021)

San Martin mendia gerra sasoian esanguratsua izan zen, frontea egon zelako bertan. Gerra sasoiko arrastoak zeuden: trintxerak, bala-zorroak, zuloak... Gaur egun galduta daude gehienak, bideak zabaltzerakoan hondatzaileek apurtuta.

444. Goienengoetxebarri baserri inguruko toponimoak (AMO-051/006)

Goienengoetxebarri baserri inguruko toponimoak. Gaztañodi toponimoa. Garai batean gaztainak ziren inguruetan, baina gaur egun gutxi dago, galdu egin ziren eta. Lexartza. Bidezabaleta toponimoa; hiru bidegurutze daude bertan.

445. Iturriak; garbitokia; ura etxeetara (AMO-051/010)

Bernagoitiko elizaren ondoan eskola zegoen garai batean eta iturria zegoen bien bitartean. 1968an jarri zuten ura etxeetara, baina ez zegoen nahikoa denentzat eta gero Betzuen ingurutik ekarri zuten ura, Udalak emandako hodiekin. Tabernak etxeek baino ur askoz gehiago behar izaten zuen eta eskas ibiltzen ziren garai batean. Metal-ura duen iturri bat ere badago inguruan. Erreka eta garbitokia.

446. Bernagoiti inguruko toponimia: basoak, tontorrak (AMO-051/011)

Troka handirik ez dago inguruetan. Inguruetako mendi, gain eta basoen izenak. Eperlanda toponimoa: aurrekoei entzun izan die garai batean eperrak ibiltzen zirela bertan.

447. San Bizente ermita, Arkotxa eta Bediaga bitartean (AMO-051/014)

Maria Angeles Arkotxakoa da. Arkotxa eta Bediaga auzuneen artean San Bizente ermita dago.

448. Ezberdintasunak euskaran auzo batetik bestera (AMO-051/015)

Bernagoitiko eskola. Maria Angeles Eubako eskolara joan zen. Senar-emazteek euskara ezberdina darabiltela diote. Arkotxatik Bernagoitira jada aldatu egiten da euskara, adibidez: artoa/artue. Jose Antonioren aurrekoak ere Dimatik etorriak ziren.

449. Bernagoitiko lapurren inguruko kontuak (AMO-051/022)

Garai batean lapur batzuk izan omen ziren Bernagoitin. Polizia bila zetorrela jakinda, leihotik salto egin eta ihes egin omen zuen anaietako batek. Mendian orbel azpian ezkutatuta egon ostean, Frantziara alde egin omen zuen. Harrez gero entzun izan du hara joandako norbaitek haietakoren batekin topo egin zuela han. Etxanoko abadeari lapurretan egin omen zioten eta abadea nahigabe haren ondorioz hil omen zen.

450. Lapurrak aiteitaren atzetik (AMO-051/023)

Behin aititak txahala edo ikatza saldu eta dirua jaso zuen ordainetan. Lapurrek ikusi egin zuten eta etxera jarraitu zioten. Ozta-ozta sartu omen ze etxean, arin mugitu zelako.

451. Gerra sasoian, ezkutuan (AMO-051/025)

Gerra sasoian Jose Antoniok 5 urte zituen. Hiru familia etxetik irten gabe egon omen ziren hiru astean, bi fronteren erdian zeudelako. Aita zinegotzi zegoen Udalean. Inguruko karobi batean ezkutatuta egon zen lau egunean lagun batekin batera.

452. Txirriena baserrian jaioa (AMO-052/002)

Txirriena baserrian jaio zen. Etxearen ondoan txerritokia eta labea zituzten; aita garajea egin zuen gero. Baserria bota egin zuten. Gutxienez berrehun urte izango zituen etxeak, aita bertan jaio zen eta.

453. Tranbia Trunbillagana azpitik (AMO-052/004)

Garai batean baserri gehienetan errenteroak zeuden. Trunbillagana baserrian ere bai. Azpitik tranbia pasatzen zen eta hortik omen datorkio izena. Tranbiaren ibilbidea. Gerraostean "El alto" deitzen hasi ziren eta gaur egun jendeak "Gane" deitzen dio. Aldapen ferratokia zegoen. Ferratokiaren eta olaren arteko ezberdintasuna (ferreria vs. herreria).

454. Condor industrialdearen jatorrizko izena: Zubipunte (AMO-052/007)

Butroibaso. Zubipunten bi bizitza zeuden, baina bota egin zituzten gero. Garai baten inguruari Zubipunte esaten zitzaion, baina 60ko hamarkadan Condor lantegia etorri zenetik industriagune osoari Condor izena eman zitzaion. "Astitzepe" (Asteitzepe) ere deitzen zioten inguru horri.

455. "La sombrilla" izenaren nondik norakoak (AMO-052/009)

Untzetamendi mendian zuhaitz ederrak zeuden (haritzak, lizarrak...) eta hango paraje bati "La sombrilla" deitzen zioten batzuek. Gerraostean pinua sartu zen leku askotan, baina aurretik gaztainak eta bestelako zuhaitzak zeuden.

456. Urgeldi toponimoa (AMO-052/012)

Urgeldi toponimoa, ur gutxi eta mugimendu gabekoa. Aldekoa baserritik zanga bat zetorren, ganaduentzako putzura; sobratzen zen ura Urgeldira joaten zen. Etxanoko erreka. Bi zubi zeuden. Gero erreka desbideratu egin zuten. Ingurua asko aldatu da.

457. San Bartolome inguruko toponimia (AMO-053/004)

Arazotza auzunaren inguruko auzoak. San Bartolome inguruko toponimia; eraikinen izenak. Gaur egun jada galduta dagoen Isidu etxearen inguruko kontuak.

458. Inguruetako ermitak eta errotak (AMO-053/007)

San Pedro eta San Bartolome ermitak daude inguruan. Gorago, Ergoien auzoan, San Juan. Eta gorago, Bizkargin, Santa Krutz. Inguruko zulo bati "Errefugidxo" deitzen zioten, antza denez, gerra sasoiaren jendea bertan ezkutatzeko zelako. Gogoan du aitarekin behia intseminatzera nola eramaten zuen Autzaganara.

459. Mintegia eta Berezia, asko errepikatzen diren toponimoak (AMO-054/002)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Aldana inguruko soroen izenak. Mintegia eta Berezia, auzo gehienetan errepikatzen diren toponimoak dira. Iturria.

460. Urtziako ama birjina (AMO-054/004)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Aldanatik Zornotza alderantz dauden toponimoak. Urtzia toponimoa. San Isidro elizako ama birjinari Urtziako ama jarri zitzaion izena, nahiz eta gerora jendeak Urtza esan.

461. Errotatxu toponimoa (AMO-054/005)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Errotatxu toponimoa. Badirudi garai batean errotaren bat egon zela, baina bere aititak ere ez omen zuen ezagutu. Etxearen hormak ikus daitezke oraindik.

462. Aldana inguruko baso eta tontorrak (AMO-054/006)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Aldana inguruko basoen izenak. Otsoeta toponimoa. Badirudi garai batean otsoak ibiliko zirela inguruetan. Gorantz igota, Arburu. Muxikako Gorozika auzoarekin mugan dago, baina puntu batzuk Zornotzako lurretan egon daitezke.

463. Aldana, Aurtenengo eta Larrabetzuko muga (AMO-054/008)

Aldanaburun bi etxe-multzo daude: Aldanagoikoa eta Aldanabekoa. Gune bakoitzean zenbat etxe dauden. Beste aldean Aurtenengo etxe-multzoa. Etxe

bakoitzaren izena. Gorago "Gaittibitti" etxeak. Etxe horiek Zornotzako lurretan daude, baina Larrabetzuko muga bertan dago.

464. Aldana inguruko iturriak (AMO-054/010)

Aldanabekoa baserriaren ondoan iturria zegoen. Hango ura motela zela eta etxekoei ez zitzaien gustatzen. Beraiek Larrabetzu partean zegoen iturrira joaten ziren. Iturri asko daude inguru horretan, Bizkargi mendi bueltan. Zornotzako partean, Arrilabaneko iturria, Askarragako iturria... Urondo. Baserrietarako ura. Egurrezko askak.

465. Inguruetakako errekek, presak eta errotak (AMO-054/013)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Inguruetakako errekek. Erreka garrantzitsuena Bekoerreka. Garaitondon errotarako presa. Presa gehiago ere baziren. Olabarriko errota ezagutu du berak gehien. Mutikotan hara bidaltzen zuten zakuarekin.

466. Aldana auzoa, lau ermitaren erdian (AMO-054/014)

Aldana auzoa lau ermitaren erdian dago: behean San Isidro, goian santa Krutz, ezkerretara San Migel eta eskumatara San Juan. San Isidro zuten gertuen eta hara joaten ziren gehien, domekero egoten zelako meza. Besteetan jaietan bakarrik. San Isidro ermitaren ondoan zegoen eskolan ibili zen bera. Gaur egun botata dago.

467. Itzultzaile gisa sartu zen "Forjas de Amorebieta"n (AMO-055/002)

Merkataritza-peritu izan da lanbidez. "Forjas de Amorebieta" lantegian lan egin zuen. Frantses-itzultzaile moduan sartu zen, ingeniari frantsesekin itzulpen-lanak egiteko. Aurretik akademia batean jardun zuen frantsesa irakasten. Forjan kotxe eta traktoreentzat piezak egiten zituzten. Lehenengo kotxeak eta automozioko lehen lantegiak.

468. Jauregibarria auzoko hamahiru etxe bota zituzten (AMO-055/004)

Aldekoena baserrian jaio zen. Non dagoen baserria. Auzuneari Jauregibarria deitu izan diote. Etxeen izenak. Auzoko hamahiru etxe bota egin zituzten. Udalekoei behin landa-eremua hondatzen ari zirela esan zien eta uste du orduantxe hartu zutela kontzientzia pixka bat.

469. Karlistadetan etxea erre ostean etorri zen amamaren familia Aldekoenara (AMO-055/005)

Jauregibarria etxeak eta Aldekoenak egitura bera dute eta garai berekoak izan daitezkeela uste du. Amama umetan etorri zen familiarekin Aldekoenara, euren baserria gerra Karlistaren eraginez erre ondoren. Jauregi familia aberatsa eta garrantzitsua zen herrian; liberalak ziren. Aitita Galdakaakoa zen, baina Jauregiren fabrika lan egiten zuen Astepen. Garai hartan garraiolari asko pasatzen zen, esaterako, Errioxatik portura ardoak garraiatzen zituztenak eta haietzako etxeak egin ziren. Jauregik Peparen familiari eman zion Aldekoena etxea, haiena erre zenean.

470. Jauregibarria auzoan botatako etxeak (AMO-055/007)

Jauregibarria ingurua hamahiru etxe bota zituzten. Izenak esaten ditu. Andrandegi etxea ez zuten bota, Zornotzako zaharrena zela esaten zutelako. Txabola antzeko etxea zela dio. Beraiena eta Jauregibarria, berriz, etxe sendoak ziren. Jauregik porrot egin zuenean, bai beraien familiak eta bai beste batzuek etxeak erosi zituzten. Beste etxe batzuen inguruko azalpenak. "Gane".

471. Jauregizarra, Segundo Larrinagak egina (AMO-055/009)

Jauregizar etxearen inguruko azalpenak. Pepak uste du garai batean etxe zaharren bat egongo zela eta gero Segundo Larrinagak etxe handia egin zuen bertan. Mundu Gerran kapitaina izan zen eta diru asko irabazi zuen bertan. Izar lantegia ere berak sortu ei zuen.

472. "Patxikasetas" eta "Pepena" edo "Porruena" (AMO-055/011)

"Patxikasetas" esaten zitzaion etxearen inguruan "Ferrocarriles Vascongados"en etxeak zeuden eta geltokiko nagusia bizi zen bertan. "Pepena" etxea; "Porruena" ere esaten zioten. "Kintzena".

473. Ibarako palazioa eta turbina (AMO-055/013)

Ibarran palazioa zegoen, itxitako ortu handiarekin. Madrilgo aberats batzuen zen etxea, baina administratzailea bizi zen bertan. Turbina. Aita bertakoa zen eta familiakoek bertan lan egin izan zuten. Gerora zentral guztiak Iberdueroren eskutara pasa ziren.

474. Jauregizarko errota; Ibinaga eta Belaustegigoitiarrak (AMO-055/015)

Jauregizarran iturria zegoen. Etxea nork egin zuen. Errota ere bazeukan. Nortzuk ziren errotariak. "Ibinagana" ere esan izan zaio, baina Belaustegigoitiarrarena zen. Ibinaga medikua zen. Belaustegigoitiarrak. Izar lantegia ere euren izan zen. Jauregizarko iturrian metal-ura zegoen eta etxean ez zitzaien gustatzen, marka uzten zuelako.

475. Patina (putzua) zuten etxean (AMO-055/016)

Bere sasoiak ez ziren ur bila kanpora joaten, etxea aurreratua zelako. Patina (putzua) egin zuten etxean. Larraburun ere putzua zutela aipatzen dute.

476. Umetan difteria izan zuen; `Txoridxe´ medikua (AMO-055/017)

Ibaizabal erreka. Amamak beldurra zion eta asko zaintzen zuen Pepa, umetan difteria pasa zuelako. `Txoridxe´ medikuari esker irten zen bizirik.

477. Montorrako San Lorentzo ermita (AMO-055/019)

San Lorentzo ermita Montorran. Loreekin eta kantuan joateko ohitura.

478. Umetako jolasak Jauregibarria inguruan (AMO-055/020)

Eskolatik etorritakoan Jauregibarria ondoko zegoen landan jolasten zuten.

479. Exanoko Kaietanako eskolara; Satur maistra (AMO-055/022)

Etzanoko eskolara joaten ziren, "Kaittana"ra (Kaietanara). Neskak eta mutilak aparte. Doña Satur (Saturnina Olañeta) maistra ona zen, baina gogorra. Zornotzako ume batzuk ere, alkatearen alaba, adibidez, harengana joaten ziren, ondo irakasten zuelako.

480. Satur maistraren izaera (AMO-055/024)

Kaietanako eskolako Satur maistraren izaera erakusten duten pare bat gertaera azaltzen ditu. Oso zuzena zen.

481. Errepublika sasoian Bilbora azterketa egitera (AMO-055/025)

Errepublika sasoian lege batzuk jarri zituzten hezkuntzan: Bilbon azterketa bat gaindituz gero, Batxilergoa egin zitekeen. Juanita ikaskidea eta biak eraman zituen Satur maistrak eta biek gainditu zuten. Gero, horren harira, klasean egiten zizkien komentarioak.

482. Berna auzoko eraikinak (AMO-056/002)

Berna auzoko etxeak. Olan kobre lantegia egon ziren. Kobrezko galdarak egiten ziren. Torre etxea Bernako markesarena ei zen. Errota. Kateoste etxea bota egin zuten. Izena nondik zetorkion.

483. Bernako kapera, garai batean lantegia izana (AMO-056/005)

Bernako kaperari "Tabernako kapillie" esaten diote. Garai batean xaboi-lantegia zegoen bertan, geroago txikoria-fabrika eta gero kapera bihurtu zuten. Aralarko San Migel santua dago bertan. Bernan elizarik ez zegoen garaian San Antoniora, Bernagoitira edo Zornotzara joaten ziren mezatarak.

484. Domekero erromeria San Antonion (AMO-056/010)

San Antonion domekero egoten zen erromeria. Bolatokia ere bazegoen. Inguru guztietako jende asko batzen zen. Durangoko soinu-jotzailea egoten zen. Kobratu egiten zuten dantza egiteagatik. Goizeko zazpietako mezarako joaten ziren oinez .

485. Etxeak zergatik duen Txosna izena (AMO-056/015)

Txosna etxeak 110 dituela dio Juanek. Txosna izena nondik datorren. Kapera dagoen lekuan xaboi lantegiaren aurretik oholezko etxea zegoen eta bertan jaio zen Joseberen ama. Aitita-amamek tabernatxoa jarri zuten bertan, txosna. Amak hiru urte zituela, etxe berrira aldatu ziren. Han ere taberna jarri zuten eta Txosna izena jarri zioten.

486. Zepamendi izenaren jatorria (AMO-056/020)

Euban garai baten zeuden etxeak. Juanen etxea Zepamendi zen. Izena nondik datorren. Beste eraikinak: sindikatua egon zen etxea, taberna, geltokia, fabrika, eskola...

487. Errekak bereizten zituen Etxano eta Zornotza (AMO-056/024)

Garai batean Etxano eta Zornotza bereizita zeuden. "Amorebieta" ez dute esan izan, beti "Zorrontza". Zein auzo ziren Etxanokoak eta zein Zornotzakoak. Errekaldena, Erkoles, Erroteta... Etxanokoak. Errekak bereizten zituen Etxano eta Zornotza.

488. Etxanoko toponimia; inguruko basoen izenak I (AMO-057/003)

Etxanoko Altzibar auzo inguruko basoen izenak.

489. Etxanoko toponimia; auzoak, ermitak, errotak... (AMO-057/004)

Etxanoko Altzibar auzoaren inguruan dauden beste auzo batzuen izenak. Inguruko ermitak eta errotak. Errekak eta iturriak.

490. Etxanoko toponimia; inguruko basoen izenak II (AMO-057/006)

Inguruetan ez dago trokarik. Altzibar inguruko tontor edo basoen izenak.

491. Garai batean dena Dudea (AMO-057/010)

Berroeta etxea Etxano barruan dago. Garai batean dena Dudea zen. Gaur egun auzo bakoitzari bere izenetik deitzen zaio.

492. Gaztetan inguruko jaietara; Gernikarako joera (AMO-057/011)

Gaztetan leku askotara joaten zen erromeriara. Inguruko jaiak eta erromeriak. Durangora baino Gernikarako joera handiagoa zuten.

493. Bekobenta, Erdikobenta eta Goikobenta izenen arrazoia (AMO-058/003)

Maritxuk azaltzen du gerra sasoian "karramateroak" (batetik bestera zebiltzan saltzaileak?) etortzen zirela eta inguruko etxeei Bekobenta, Erdikobenta eta Goikobenta esaten zitzaizela. Bekobentak izena mantendu du gerora, baina ondoko etxeari Etxebarri esaten diote eta beraienari Muniketa. Beraiena da Etxanoko bakarra.

494. Muniketa eta inguruko auzo eta etxeak (AMO-058/010)

Muniketa da auzoaren izena. Inguruko auzoak. Etxano eta Zornotza arteko muga eta Muxikako Ibarruri auzoarekin mugan dauden etxeak.

495. Muxikako Ibarruri auzoko ermitarako joera (AMO-058/015)

Muniketa inguruan bi ermita daude Orobioko San Markos eta Ibarrurikoa (Muxika). Beraiek elizaz Etxanokoak ziren, baina Ibarrurikoa gertuago geratzen zitzaenez, euren gurasoak elizaz aldatu ziren.

496. Zornotzako toponimia: tontorrak (AMO-059/008)

Inguruko tontorrak.

497. Etxanora eskolara (AMO-059/010)

Lehen Zornotza eta Etxano bereizita zeudenez, Etxanora joan zen eskolara.

498. Etxanon lurperatu behar (AMO-059/012)

Inguruko sei etxe Etxano partean zeudenez, norbait hiltzen zenean Etxanon lurperatzea tokatzen zitzaien. Gaur egun aldatuta dago; orain badutela non lurperatu dio.

499. Bernagoitia auzoko toponimia (AMO-061/003)

Bernagoitia auzoko toponimia; basoak eta tontorrak.

500. Bernagoitia auzoko etxeak (AMO-061/004)

Bernagoitia auzoan sartzen diren etxeak. Etxeen izenak.

501. Epaltza auzoko baserrien izenak (AMO-062/002)

Epaltza auzoko baserrien izenak.

502. Epaltza inguruko auzoak eta errota (AMO-062/005)

Epaltza auzoaren inguruko auzoak eta etxeak. Inguruko errota.

503. Bizimodua asko aldatu da (AMO-063/001)

Niko Oregi Ganboena baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da. Bizimodua asko aldatu dela dio. Garai batean basotik azpigarria ekarri behar, belar sikua, garia egin behar... Orain kanpora joaten dira lanera denak.

504. Dudagoitia auzoko etxeen izenak (AMO-063/003)

Dudagoitia auzoko etxeen izenak.

505. Basoen izenak; iratara edo egurretarara basora (AMO-063/005)

San Martin ermita. Inguruetako basoen izenak. Garai batean basora joaten ziren iratara edo egurretarara.

506. Sikutea zenean, Errotazarrera arropak garbitzera (AMO-063/007)

Beti izan dutela ura dio. San Martinetik behera errekatxo bat dator. Euriarekin lohitu egiten zen. Sikutea zenean, Errotazarrera joaten ziren arropak garbitzera.

507. Ura Errotazarretik (AMO-063/009)

San Martinetik behera zetorren erreka Errotazarrera eta bertako urarekin ibiltzen zen martxan errota. Berriok, errotaren jabeak, ura eman zien errotatik. Auzoko gizonak zangak egin zituzten urarentzat aitzurrekin eta palekin eta ur-andela egin zuten. Etxanon errota asko zeuden, baina inguruetan ez zegoen Errotazar besterik. Etxanora ere joaten ziren errotara.

508. Eskolara, eguraldi txarra zenean (AMO-063/012)

San Migelera joaten zen eskolara, baina eguraldi txarra egiten zuenean. Eguraldi ona zenean, basora, aitari laguntzera.

509. Amabitxik bakarrik deitzen zion Frantzisko (AMO-064/002)

Berez Frantzisko du izena, baina amabitxik bakarrik deitzen omen zion izenetik; besteek hainbat izen eman izan dizkiote: Patxi, Patxiko, Patxo... Otsuena baserrian jaio zen. Inguruko etheen izenak.

510. Zamalloa inguruko toponimia (AMO-064/009)

"Karretero" moduan ibiltzen zen idiekin, basotik egurra ekartzen. Inguruko baso eta tontorrak. Zamalloa auzunea; lau etxe daude. Inguruko etxeak. Ingurua ondo ezagutzen du, bertan jaioa delako. Bertan jaiotako abadeak ere ezagutu ditu. San Migelgo abadetxea.

511. "Txuloene" izenaren jatorria (AMO-065/003)

Baserriari zergatik deitu izan dioten "Txuloene" azaltzen du. Ama lau anai-arrebatan neska bakarra zen eta etxerako josten zuen. Aititari apurtutako prakak oso txukun josi omen zizkion eta baita txaleko bat egin ere. Dotore joan zelako, Juan "Txulo" esan zioten eta handik geratu zitzaion izena etxeari. Familiako hainbat kidek ere jaso dute goitizen hori. Etxeak berez Egiartebarri edo Egiartebarrena du izena.

512. Amorebieta-Etxanoko toponimia: tontorrak (AMO-065/008)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Tontorrak. Ganzabal eta Zamalloaburu ez ziren jendea batzeko lekuak, pasalekuak baino. San Martinen bai elkartzan da jendea, ermita ere badago eta.

513. San Migelgo kofradia eta barnean hartzen dituen ermitak (AMO-065/009)

Garai batean San Migelen kofradia zegoen eta jendeak lur-sailak ematen zizkion dohaintzan. Francoren sasoian erregistratu gabeko ermitak elizaren edo gobernuaren esku geratuko zirela abisatu zuten eta auzotarrek ermitak erregistratu egin zituzten. Zazpi ermita geratu ziren San Migelgo kofradiaren barruan. Garai batean Madalenako ermita zegoen, baina ermita erori zenean hango irudia San Lorentzora eraman zuten. Eraikin guztiak egoera onean daude, auzolanean konponduta.

514. Egiarte baserria (AMO-065/013)

Egiarte baserria, ugazabarena edo etxe nagusia, etxe dotorea eta ondo eraikitakoa da. Garai batean meritua zuten etxeak horrela egiteko. Etxearen eta teilatuaren egituraren inguruko azalpenak ematen ditu Javierrek. Egurra ere ona.

515. San Antoniorako edo Eubarako joera (AMO-065/018)

Etxano aldera gutxi joan izan dira. San Antoniorako joera zuten, autobus geltokia zegoelako bertan. Eubara ere bai, tren geltokira. Horrez gain, Euban denda ere bazegoen, "ekonomato"a. Etxe multzoa zegoen Euban eta denetik egoten zen.

516. San Migel inguruko toponimia (AMO-066/003)

Amorebieta-Etxanoko toponimia; Dudeako San Migel auzo ingurua. Tontorrak, trokak, errekek... Zamalloa. Errekatzu erreka Errotazar errotatik pasatzen da.

Inguruan ez dago beste errotarik. Bera ez zen joaten, baina Usinbaltzeko errotara ere joaten ziren, Orobiora ("Oromiño"). Errota gutxi daude martxan gaur egun.

517. San Migel auzoko etxeak; inguruko ermitak (AMO-066/005)

San Migelekoa eliza nagusia da eta inguruko sei ermita hartzen ditu bere baitan: San Martin, San Lorentzo, San Bizente, San Antonio, Santa Krutz eta San Pedro. San Migel auzoko etxeak.

518. Arropa garbitzera Iturrialdeko putzura (AMO-066/009)

Garai batean errekarra edo geroago putzura joaten ziren arropak garbitzera. Iturrialde. Udan ere txorro txiki bat egoten zen beti.

519. San Migelgo eskolan, euskaraz eginez gero, zigortuta (AMO-066/011)

San Migelgo eskolara joaten zen. Euskaraz egitea debekatu egiten zieten eta dena gaztelaniaz ikasi behar. Osaba, berriz, haserre, euskaraz egin behar zutela esanez. Zornotzatik etortzen zen Jazinta Zabaleta maistra ez zen hain zorrotza, baina Barakaldo aldetik etortzen zen Trinitadek zigortu egiten zituen euskaraz egiteagatik. Dotrina abadearekin ikasten zuten San Migel elizan. Astean bitan joaten ziren, jolas-orduan. Abadea ere zorrotza zen eta harekin ere dena gaztelaniaz. Gerora ikasi ditu errezoak euskaraz.

520. Solatxupeko iturria (AMO-067/004)

Garai batean etxe inguruan iturri bat zegoen: Solatxupeko iturria. Gerora, etxera ura jarri zutenean, galdu egin zen. San Isidroko erreka.

521. Etxakoxinagara edo Olabarrira errotara (AMO-067/005)

Etxakoxinagara edo Olabarrira joaten ziren errotara. Larrean ere bazegoen errota, baina hara ez ziren joaten. Hara Aldana aldekoak joaten ziren. Inguruko auzo edo auzuneak.

522. Derteano eta Derteanobekoa (AMO-067/007)

Amorebieta-Etxanoko toponimia: eraikinen izenak. Etxe-multzoak daude: Derteanon hiru etxe daude, Derteanobekoan bi. Izenaren jatorria eta ahozko era. Inguruan San Juan ermita dago. Urtean behin egoten da meza eta, horregatik, San Isidrorra joaten dira.

523. Boroako eraikinen izenak (AMO-068/004)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Boroako eraikinen izenak. Errotak. Aurtenengo baserria erre egin zen eta ez zuten berriz egin.

524. Amorebieta-Etxanoko toponimia: errotak (AMO-068/006)

Inguruetako errotak. Lopenen errotaren ondoan ferratokia ere bazegoen. Taberna ere bai.

525. Boroa inguruko errekek eta trokak (AMO-068/010)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. Boroa inguruko errekek. Trokak.

526. Garai batean Larreatik gora biderik ez (AMO-068/014)

Garai batean Larreatik gora ez zegoen biderik, eta basoetatik joan behar izaten ziren. Bidea noiz egin zen. San Juan auzoa; izen bereko ermita dago bertan. Ergoienen, berriz, San Migel ermita.

527. Kortederra, herri askoren muga (AMO-068/019)

Boroa handia da lurrez, Larrabetzuraino iristen da. Kortederran muga asko elkartzen dira. Garai batean etxea zen eta gaur egun jatetxea.

528. Montorra auzoko etheen izenak (AMO-069/003)

62 urtean Montorran bizi dela dio. Auzoko etheen izenak. San Lorentzo ermita. Urtean behin egoten zen meza. Bestela, mezatara Zornotzara joaten ziren.

529. Bediagan jaioa (AMO-069/010)

Inguruan ez dago errotarik. Euban Arkotxaerrota. Bere ama gaztetan hara joandakoa. Bera Bediaga auzoan jaio zen. Beraiena eta beste hiru etxe jabe berarenak ziren. Etxeei jabeen izenetik deitzen zieten. Udan San Antonio errekarra joaten ziren ur bila; neguan, putzuak egiten zituzten soroan.

530. Arkotxaerrota urak eraman zuen (AMO-069/012)

Ama Arkotxaerrotan bizi izan zen gaztetan, osaba hangoa zen eta. Etxea urak eraman zuen, presa lehertu zenean, eta bertako bi anai-arreba ere eraman zituen. Nola gertatu zen azaltzen du.

531. San Antoniora mezatara; hilarriak Zornotzako elizan (AMO-069/014)

Bediaga auzotik San Antoniora joaten ziren mezara. Zaharragoak batzuk San Migelera ere bai. Zornotzara ere joaten ziren. Batzuek hilarria izaten zuten elizan eta urte guztian joan behar, hura zaintzera. Olatak.

532. Zinemara Durangora; auzoetako jaiak (AMO-069/016)

Oinez joaten ziren auzoetako jaietara. Gaztetan, ezkondu aurretik, Durangora joaten ziren zinemara eta handik bederatzi etako trenetan etxera. Inguruko auzoetako jaiak. Bernako jaiak berriagoak dira, paper-lantegiak jarri zuen ermita eta. Etxanora gutxi joaten ziren; Larrara gehiago.

533. Bi aldiz erretako etxea (AMO-069/023)

Galdutako baserriak. Garai batean baporezko trena ibiltzen zen eta esaten zuten ondoko baserri batek (Garai) su hartu zuela haren txinpartaren batekin. Etxea berriz eraiki zuten, baina gero berriz ere erre egin zen.

534. San Migel auzoko baserrien izenak (AMO-070/004)

Amorebieta-Etxanoko toponimia. San Migel auzoko baserrien izenak.

535. San Migel auzoko iturriak; ura etxeetara (AMO-070/007)

Elخالde ondoan iturri bat ezagutu izan du. Gogoan du umea zenean bazela beste iturri bat ere. Aitak eta auzoko batek Egiarte ingurutik ekarri zuten ura beraien etxeetarako. San Migel auzoan ez dago etxe asko, baina auzo zabala da.

536. San Migel elizaren ermitak (AMO-070/008)

San Migel auzoan San Migel eliza dago. Elizak bere 5-6 ermita ditu: San Lorentzo, San Bizente, San Pedro... Inguruko auzoak.

537. Boroako toponimia: eraikinen izenak (AMO-071/004)

Boroako toponimia: eraikinen izenak.

538. Galdutako baserriak Boroan (AMO-071/006)

Inguruetan hainbat baserri bota egin ziren pabiloiak egiteko.

539. Atxarroko iturria (AMO-071/008)

Boroako toponimia. Errekari ez diote izen berezirik eman izan. Metal-ura duen iturria dago Atxarron. Berez Zugatzabekoa zen baserriaren izena, baina jabearengatik Atxarro deitzen zioten.

540. Boroako eskolan dena gaztelaniaz (AMO-071/012)

Boroako San Pedro elizaren ondoan zegoen eskolan ibili zen. Eskolan dena gaztelaniaz; bestela dena euskaraz. Etxera joateko orduan, eskolari bueltaka ibiltzen ziren, ' Cara al sol ' abesten.

541. Gerra Zibilean etxea erre zien (AMO-101/003)

Neba-arreba guztiak hasi ziren gazterik lanean. Aita otzaragilea zuen eta bera ere hasi zen langintza horretan. Gerra Zibilean Boluetan (Bilbo) ebakuatuta zeudela, etxeari su eman zioten. Balio askoko gauzak ostu zizkieten.

542. Etxetik ihes egin behar (AMO-101/004)

Gerra Zibilean Boluetan, Kastrexanan eta Gueñesen egon ziren ebakuatuta. Batetik bestera ibili ziren etxera bueltatu aurretik.

543. Bala zorroak eta esku-bonbak batzen (AMO-101/005)

Gerran ebakuatuta egon ostean, etxera bueltatu eta astoa hartuta San Martin aldera joaten ziren bala-zorroak (kaskiloak) batzera. Bala zorroen kobreak diru asko balio zuen eta horiek batzen zituzten saltzeko. Arboletan gerran hildakoen gorpuak ikus zitezkeen eskegita. Hainbat gazte hil eta zauritu egin ziren.

544. Baserriko jeneroa entregatu; errotak zarratuta (AMO-101/007)

San Martinen hildako asko ikusi zituzten. Gerraostean, "abastos"ek baserriko jeneroa entregarazten zien: garia, artoa... Errotak itxita zeuden eta urruneko errotetara joan behar izaten zuten. Harrapatuz gero, isuna ezartzen zien.

545. Bonbardaketak aireplanoak etxe gainetik (AMO-101/008)

Eskolara joateko astirik ere ez zuten. Eskolara hasi orduko gerra eta inguruetako bonbardaketak hasi ziren. Aireplanoak etxe ondotik pasatzen ziren. Auzoko batzuk Durangoko bonbardaketan desagertu ziren. Etxanon ez zuten bonbarik bota.

546. Kanoikadaka etxea apurtu (AMO-101/009)

Gerra Zibilean, etxea behartuta utzi behar izan zuten. Etxeak hiru kanoikada izan zituen, Etxanon apurtu zuten etxe bakarra izan zen.

547. Etxeko kortan bizi behar (AMO-101/010)

Gerran etxetik alde egin behar izan zuten eta hilabetetik gora egon ziren kanpoan. Beldurra zen nagusi. Ganadu eta guzti etxera bueltatu zirenean, kanoikadek apurtuta zegoenez, kortan hasi ziren bizitzen eta auzoko etxe batean egiten zuten lotan.

548. Behi lapurrak (AMO-101/011)

Gerran Boluetan (Bilbo) ebakuatuta egon zirenean, Asturiasko senar-emaztea batzuek ganadua ostu eta haren okela saltzen zuten. Beraien behiei ez zien ezer egin.

549. Kaletik jateko bila baserrira (AMO-101/012)

Errotara gauez joaten ziren estraperloan egunez ezin zelako. 10 ogerleko isuna ordaindu behar zen harrapatuz gero. Errazionamenduan ematen zien ogia oso-oso txarra zen. Gerraostean Bilbo aldetik arbi bila etortzen zen jendea gosearen gosez. Baserrian batutako jeneroaren erdia-edo Udalak kentzen zien. Denetarik lantzen zuten lehen; gaur egun, ostera, ezer ere ez.

550. Olio litroa 100 pezeta (AMO-101/013)

Errazionamenduan gauza gutxi jasotzen zuten. Olio-litroak 100 pezeta balio zituen eta urdai-kiloak 90 pezeta. Ohiko jornal bat 2 pezetara ere ez zen ailegatzen askotan.

551. Etxanotarrak preso (AMO-101/017)

Hainbat etxanotar kartzelaratu zituzten gerran. Horietako bati 100 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten eta epaileari eskua eman zion horrenbeste urte bizitzeko esperantzarik ez zuela esanez.

552. Meategietarako otzaragile (AMO-101/019)

Gorrien aldeko dirua aldatu egin zen, baina beraiek ez zuten ezer igarri ez baitzuten dirurik. Beraiek meategietarako otzarak egiten zituzten. Nuarben (Azpeitia) eta Gorozikan (gaur egun Muxika) ere egiten zituzten. Bere aitak Oromiñon (Iurreta) ikasi zuen otzarak egiten.

553. 20 urtetik gora otzarak egiten (AMO-101/021)

12 urte ingurugaz hasi zen Jesus otzarak egiten eta 20 urtetik gora aritu zen horrexetan. Meategietarako zein baserritarrentzako egiten zituzten. Tamaina desberdinetakoak egiten zituzten, erabileraren arabera. Gaztaina zen egurrik erabiliena, baina Lizarra eta hurretxa ere erabiltzen zen. Orozkoko eta Goizuetako gaztainak oso onak ziren horretarako.

554. Otzara bat zelan egin (AMO-101/023)

Otzara bat egiteko pausuak azaltzen ditu.

555. Otzarak egiteko gaztaina zelan tratau (AMO-101/025)

Otzarak egiteko gaztaina zen egur erabiliena. Egurra zelan lantzen zuten azaltzen du.

556. 18-20 bidaia azpigarritan (AMO-101/028)

Zapatuetan ere lan egiten zuen. 12 ordu eta gero baserriko beharretan hasi behar izaten zen. Azpigarria kodainagaz batzen zuen eta urte guztirako ekartzen zuten 18-20 bidaiatan. Belarra metetan eta sabaian gordetzen zuten.

557. Sei kiloko aza (AMO-101/029)

Beraien etxean sei kiloko aza izan dute inoiz, hor ikusten da satsak (simaurre) duen garrantzia.

558. Goldea, area eta narra (AMO-101/032)

Behiak lagunduta goldatzen zuten lurra. Horretarako, bi pertsona behar ziren, bata behiaren atzean eta bestea atzean. Goldearen ostean, area eta narra pasatu behar da. Denetarik ereiten zuten: patata, garia, artoa... Ez zuten saltzen, baina auzoen artean asko banatzen zuten.

559. Egunekeo jatorduak (AMO-101/033)

Goizean taloa eta esnea edo bakailao edo sardina erre, eguerdian baba eta gauean porru-salda. Arraina dendan saltzen zuten. Errazionamenduan ogi gutxi ematen zioten, txusko txikia. Ogia astean behin egiten zuten, beraiekin zapatuetan.

560. Frontoira eta bolatokira gaztetan (AMO-102/004)

Etzanon ez zen tabernarik egon, bere gazte garaian. Zapatuetan frontoira joaten ziren. Frontoiarekin alboan probalekua zegoen. Bolatokia non zegoen azaltzen du.

561. Andramariak eta inguruko erromeriak (AMO-102/009)

Andramarietako soinuak aipatzen ditu. Udaletxeak ordaintzen zion. Oizera eta Urkiolara erromeriara joaten zen. Helduta eta soltean dantzatzen zuten.

562. Garai bateko dirua (AMO-102/012)

Garai bateko txanponak zelakoak ziren deskribatzen du.

563. Maisuarekin euskaraz abesten (AMO-102/014)

Eskolarik bat ere ez zuela izan dio, gerrak eten baitzuen. Maisuak zein izan zituen kontatzen du. Eguen arratsaldetan maisuarekin euskaraz abesten zuten.

564. Hika mutilei bakarrik (AMO-102/019)

Lagun artean hika egin izan dute, baina emakumei ez. Abadei eta medikuei berori esaten zieten.

565. Abioiak ikusi eta ezkutatu (AMO-103/003)

Gerran abioiak agertu eta Gernika bonbardatu zutela du gogoan. Zer edo zer ikusi eta tunel batean zelan ezkutatu ziren amaren ondoan.

566. Gerraosteko miseria (AMO-103/005)

Gerran ebakuatuta egon ostean, etxera bueltatu eta ez zuten zer jan eta ezta dirurik ere. Gurasoak beranduago etorri ziren. Gerora ondo maneiatu ziren, lan eginez gero gauzak lortzen dira-eta.

567. Soldadutzan ere bizikleta lagun (AMO-103/008)

Tetuanen egon zen soldadutzan, Ceutatik 40 kilometrotara. Ia egunero joaten zen Ceutara bizikletaz. Soldadutza ona pasatu zuen. Melillara ez zieten uzten pasatzen. Ostera, Chauen-era (Maroko) eta joaten zen. Soldadutzan zegoela ere, parte hartu zuen hainbat txirrindularitza-lasterketetan. Mutikotan hasi zen lasterketetan parte hartzen. Soldaduen jatekoagaz txirrindularitza ez zela bateragarria esan zien arren, ahal zuena egiten jarraitu zuen.

568. Soldadutza entrenamendurako aprobetxatu (AMO-103/011)

Soldadutzan Tetuanen egon zen eta kostaldea 40 kilometrotara zuten. Hala ere, bizikletan leku denetara heltzen zen. Hilabete jai izanez gero, asko ibiltzen zen. Betidanik izan du txirrindularitzarako afizioa.

569. Etxanon denek zuten bizikleta (AMO-103/014)

Etxanon denek zuten bizikleta, lanerako joateko behar zuten. Neskek ez zutenez etxetik kanpo lan egiten, ez zuten horrenbeste erabiltzen.

570. "Sociedad ciclista Amorebieta"ren sorrera (AMO-103/016)

1948. urteko azaroaren 30ean "Sociedad ciclista Amorebieta" fundatu zuen Markosek. Alfonso Jimenez izan zen lehen presidentea. Soldadutzatik bueltan erabaki zuten lagun-talde batek zerbait egin behar zutela eta horrela sortu zen.

571. Txirrindularitza-lasterketa askoren sortzaile (AMO-103/017)

"Sociedad ciclista Amorebieta" sortu eta lasterketa asko antolatu zituzten. Hiru-lau urtetan 44 lasterketa antolatu zituzten, Zornotzan zein beste herri askotan ere enkarguz. Herri askotan txirrindularitza-elkarteak sortzeko laguntzen ere aritu zen.

572. 'Udaberri saria' lasterketaren hasierak (AMO-103/018)

Lagun-talde baten ekimenez sortu zuten "Sociedad ciclista Amorebieta". Gaur egun hain ezaguna den 'Udaberri saria' txirrindularitza-lasterketa eurek sortu zuten. Urtero ospatu da domekaz behin izan ezik; orduko zinegotzi bategaz izandako arazoak tarteko zapatuz ospatu baitzen.

573. Txirrindularitza arbitroak (AMO-103/021)

Txirrindularitza probetan Bilbotik etorritako arbitroak egoten ziren. Hala ere, tranpak egiten ziren. Gernika aldeko txirrindulari bat fitxatuta zuten eta ondorioz oso ondo zainduta.

574. Herri askotan zeuden txirrindularitza-taldeak (AMO-103/022)

Herri ezberdinetan zeuden txirrindularitza-taldeak, baina onena beraien zela dio, "Sociedad ciclista Amorebieta". Hala ere, ez zuten aparteko pikerik.

575. Lasterketetara ere bizikletaz (AMO-103/023)

Txirrindularitza-lasterketetara antolatzaileak ere bizikletaz joaten ziren. Txirrindulariek lehen ere maillota erabiltzen zuten.

576. Bizkaiko Bira (AMO-103/025)

24 urtean Bizkaiko Bira antolatzen aritu zen. Beraien elkartetik pare bat profesional irten dira.

577. Ziklo-kroseko Batzorde Nazionaleko presidentea (AMO-103/036)

Ziklo-kroseko Batzorde Nazionaleko presidentea izan zen 16 urtez. Postuari zegozkian beharrak zeintzuk ziren azaltzen du. Zaletasun asko zegoen.

578. Munduko ziklo-kros txapelketa Etxanon (AMO-103/037)

1978. urtean munduko ziklo-kros txapelketa Etxanon antolatu zuen. Antolatzeko zailtasunak izan arren, diru apur bat irabazi zuten.

579. Zornotzako etxe asko berak eginak dira (AMO-103/040)

Igeltseroa izan zen ofizioz eta herriko etxe asko berak egindakoak dira; horietako batzuk aipatzen ditu.

580. Gaztetako parrandak (AMO-103/043)

Gaztetan parranda asko egindakoa da, baina ez berandu erretiratzekoa. Hamabietarako etxera joatea berandu zen. Neska-laguntzeak.

581. Emakumezkoei zuka, gizonezkoei hika (AMO-103/046)

Emakumezkoei zuka egin behar zaiela berba irakatsi zien. Mutilei, oster, hikan egiten die. Beste errespetu bat zor zaie emakumeei.

582. Gerran neba-arrebak bananduta (AMO-104/005)

Gerra Zibilak bere anaia Lizarran harrapatu zuen soldadu zegoela. Etxekoak banandu egin ziren: eurak Deriotik Sopuertaraino joan ziren ebakuatuta, ahizpa bat Frantziara, anaia bat tifusak jota Basurtuko ospitalera, beste anaia bat Balmasedako frontean...

583. Durangoko eta Gernikako bonbardaketak hurrean sentitu (AMO-104/006)

Durangoko bonbardaketa hurretik bizi izan zuen; San Migel auzoko gizon bat behiekin zegoela hil zuten. Gernikakoa izan zenean, dotrinara zihoan, eta zaratak bertatik entzun zituen.

584. Derion ebakuatuta (AMO-104/007)

Gerra zibileko ebakuazioan txarto pasatu zuten, familia handia ziren-eta. Derioko seminarioan, milizianoen batailoi bat zegoen eta bertara joaten ziren jateko bila, ebakuatuta joan zirenean. Izan zuten gosea negargarria zela dio.

585. Ekin kooperatiba zabaldu zuten (AMO-104/010)

Morroi aritu ostean basoko beharrei ekin zien. Gero, Etxanoko harrobi batean hasi zen. Ezkondu ostean, Izarra lantegira joan zen beharrean. 6 urtetara, 1962. urtean, kooperatiba bat jarri zuten martxan, Ekin.

586. Etxanon fusilatu eta preso hartutakoak (AMO-104/014)

Hainbat etxanoar preso hartu zituzten. Etxanon egon zen gizonik argiena eta ondratuena fusilatu egin zuten, abadearen, alkatearen eta alkateordearen sinadurak ez zituelako lortu.

587. Etxerako itzulera gogorra (AMO-104/018)

Gerran, derrigortuta egin zuten alde; auzoko askok ere berdin egin zuten. Etxanon gelditu zirenek, ostera, ahal zuten guztia bereganatu zuten. Etxera bueltatzerakoan, txerrikeria aurkitu zuten.

588. Ostu beharra, jan ahal izateko (AMO-104/020)

Gerra zibilean, neba-arrebak bananduta egon ziren. Sopuertan zeudela, akorduan du patata ostu zutela, zerbait jan ahal izateko. Arreba zaharrenak Bilbon neskame zebilela, Frantziara egin zuen alde. Gerraostean denak etorri ziren bueltan.

589. Errotara gauez (AMO-104/023)

Errotara gauez joaten ziren ezkutuan. Ibarruriko (Muxika) Mauma auzoko Oxinbaltza errotara, lurretako Oromiño auzoko Erdikoerota eta Bekoerrotara eta Muxikako Okara joaten ziren.

590. Gari-jotea (AMO-104/026)

Gari-jotea oso gogorra zen. Harri-losak jartzen zituzten eta dozena erdi gizon aritzen ziren horretan. Ostean, kaxan gordetzen zuten.

591. Arto-atalak: lastamarrarako, erretzeko... (AMO-104/027)

Arto-kapatxagaz lastamarra egiten zuten, oherako koltxoia. Arto-bizarrek erre egiten zituzten. Txokorrak su egiteko erabiltzen ziren.

592. Etxanoko tabernak eta dendak (AMO-104/034)

Errazionamendua miseria hutsa zela dio. Etxanon ez zuten non jaso errazionamendua eta Zornotzara joaten ziren. Etxanon zeuden taberna-dendak, estankoak... aipatzen ditu. Alondegia ere bazuten. Tela-dendak eta aparteko dendak Zornotzan zituzten.

593. Harrobiko lanak; errementariak (AMO-104/040)

Harrobiko harea gorria zen, eraikuntzarako erabiltzen zen, porlanarekin nahasteko. Dozena erdi behargin ziren, denak bertakoak. Aitzur-buruarekin apurtzen zen harria, erraz apurtzen zen-eta. Aitzurrak errementariak egiten

zituzten, hainbat zeuden. Garraioa kamioiek egiten zuten, lehenagoko harginak idiekin aritzen ziren.

594. Adreiluak lantzerakoan gaixotzen ziren harginak (AMO-104/041)

Hargin asko harria lantzerakoan, adreilua egiterakoan, harearen hautsarekin gaixotu egiten ziren. Boroa, Zornotza eta Santa Apoloniako (lurreta) harrobietan egiten ziren adreiluak, labetarako adreiluak.

595. Harrobian lan asko eta jornal ona (AMO-104/042)

Harria ez zuten ebakitzen, apurtu bakarrik. Gaur egun abantaila handiak daude rotaflexagaz. Jornala beharraren arabera zen. Lan asko zuten asko eraikitzen zelako sasoi hartan.

596. Zornotzan izandako joera politikoak (AMO-105/013)

Nazionalismoaz gain, baziren beste zenbait joera politiko Zornotzan: karlistak, sozialistak, falangistak... Joseanen aitona Etxanoko alkate izan zen karlisten aldetik.

597. Gose garaian goserik ez zuen pasa (AMO-105/015)

Lehen maizter ziren etxean eta errenta nola ordaintzen zuten aipatzen du. Goserik ez du pasa izan Joseanek, beti eduki izan baitute janaria etxean. Garai hartan zer jaten zuten aipatzen du.

598. Gurasoak Baskonian eta Bar Gloria lanean (AMO-105/021)

Gurasoek gerra ostean Baskonian egiten zuten lan. Gerora, Zornotzan Bar Gloria jarri zuten eta ama aritu zen han lanean.

599. Etxean egindako pilotak edo Erregenetakoak (AMO-106/001)

Futbolean eta esku-pilotan jokatzen zuten. Sarritan eurek egiten zituzten pilotak: potroa satu, artilearekin babestu eta josi. Erregenetako oparia beti izaten zen berdina: gomazko pilota. Horrez gain, arineketan ere jolasten zuten edo frutak lapurtzen.

600. Udan errekan jolasten eta arrantzan (AMO-106/003)

Udan errekan ibiltzen ziren jolasten, goiko presan edo elizaren ondoan. Inoiz mozkorra kentzera joaten ziren erreka eta behin baino gehiagotan biluzik harrapatu zituzten mezara zihoazen emakumeek. Horrez gain, arrantzan ere ibiltzen ziren: karramarroak, ezkailuak, barboak, aingirak... Alokatzeko txalupa ere egon zen errekan.

601. Errekako arrantza (AMO-106/006)

Karramarroak eskuz harrapatzen zituzten, salabardoarekin ("erretelegaz") edo butroiarekin ("butrinoagaz"). Ezkailuak "remangiegaz" harrapatzen zituzten. Nahiz eta debekatuta egon, arrantza ugari hartzen zuten. Loinak ere mordoa hartzen zituzten.

602. Zornotzako palako pilotariak (AMO-106/007)

Frontoia orain dagoen leku berean egon zen, baina estali barik. Frontoia-aren ondoan alondegia zegoen. Zornotzan, palako zenbait pilotari egon zen, batzuk profesionalak: Amorebieta IV, Ugalde, Aurtenetxe... Pilotara baino, paletarako zaletasuna eduki zuten herrian.

603. Bilboko Maristetan ikasi zuen (AMO-106/012)

Bilboko Maristetan ikasi zuen Joseanek. Bilboko izekorenean ematen zituen astegunak orduan. Bederatzi bat urte zituela hasi zen Bilbon. Asteburuetan tranbia hartzen zuen Arriagan Zornotzara etortzeko. Maisu onak eduki zituen Maristetan, fraideak.

604. "Profesor mercantil" ikasi zuen Bilbon (AMO-106/014)

Ikasketak hogeita bat urte zituela amaitu zituen, "profesor mercantil" egin zuen eta. Bilboko Komertzio Eskolan ikasi zuen. Ikasketak amaitu zituenean soldadu joan zen eta gero beharrera banketxera.

605. Zornotzako banketxeak (AMO-106/016)

Bakuan egon zenean, bezero gehienak langileak zituen: pisuak erosi, etab. Orduan bost mila biztanle inguru zituen Zornotzak. Askok hasi da herria ordutik. Hasieran lau banketxe baino ez ziren egon, baina gero ugartzen hasi ziren.

606. Zornotzan erdara ugari (AMO-106/018)

Askok erdaldundu da herria, orain gaztelania eta errumaniera asko entzuten dira. Beti entzun izan da erdara herrian. Hala ere, gaur egun euskara asko entzuten da gazte jendearen artean.

607. Udan freskatzeko, iturriko ura (AMO-106/020)

Taberna jarri zutenerako ura eta argia eduki zuten, kalean bizi ziren eta. Beti ezagutu izan du ura Zornotzako etxeetan. Hala ere, udan iturriko ura hartzen zuten freskatzeko. Urgozo esaten zioten Zornotzako iturriari.

608. Frankisten izenak kaleetan (AMO-106/022)

Lehen Jaime Jauregi izena zeukan euren kaleak, frankista batena. Horrelako kale asko egon zen Zornotzan, Jeneral Mola esaterako. Franco hil zenean, izen guztiak aldatu zituzten: Txiki Otaegi, Gudari kalea... Orain, oster, horiek ere kendu nahi dituzte.

609. Zornotzako parkea lehen (AMO-106/023)

Parkean beti egon izan da Urgozo iturria eta baita kioskoa ere, nahiz eta lekuz aldatu duten. Lorategi modukoak zeuden lehen, futboleko eta jokatzeko. Alde batean, goikoleatarren jauregia zegoen eta hau bota zutenean parkea handitu egin zuten.

610. Auzoko mutilek egindako bihurrikeriak (AMO-107/001)

Behin auzoko mutilek behiak gurditik askatu zituzten auzoko gizon bati, tabernan zegoen bitartean. Beste behin arranekin arto artean sartu ziren eta astoak zebiltzala esan. Berari ere oiloak ezkutatu zituzten behin. Mutikoak elkarrekin haserretu zirenean, amari aitortu zioten zer egin zuten.

611. Josten ikasi eta etxerik etxe josten (AMO-107/003)

Josten ikasten hasi zen gazterik. Orduan jostunak etxerik etxe ibiltzen ziren. Pixka bat ikasi zuenean gurasoek josteko makina erosi zioten. Anaiari prakak josten hasi zen eta bera ere etxerik etxe ibili zen gero. Anaia soldadu egon zuenean, berak irabazitakotik emateko anaiari eskatu zion amak.

612. Domeketan eskolara; ustekabeko saria (AMO-107/004)

Domeketan eskola jarri zuten. Berak aurretik ez zuenez izan eskola askorik ikasteko aukerarik, hara joaten hasi zen. Ordurako 16-17 urte zituen. Eskolara hutsik egin gabe joatearren, arropa egiteko oihala eta 10 pezeta eman zizkioten Gabonetan.

613. Auzokoen arteko harremana (AMO-107/005)

Auzoko emakume aberats batek pontxe freskoa eramaten zien jorran lanean jarduten zutenean. Auzolanean garia jotzen ibili ostean festa egiten zuten. Orduko pasadizo bat.

614. Artoaren eta gariaren inguruko lanak (AMO-107/007)

Artoaren eta gariaren inguruko lanak. Igitaiarekin ebaki. Garai batean, makinak hasi aurretik, eskuz jotzen zen garia. Gaur egun aurrerapen handiak baserrian.

615. Sorginen inguruko kontuak (AMO-107/010)

Auzoko gizon batek kontatzen zituen sorginen inguruko kontuak. Dudagoitiko emakume bat sorgintzat zeukaten, gauez ibiltzen omen zelako. Abadeek ez zela sorgin konturik sinistu behar esaten zuten.

616. Bilbon egon zeneko kontuak (AMO-107/012)

Amamak mokorra apurtu zuenean, izebaren etxean egon zen Bilbon, eta bera hara joan zen, laguntzera. Esnea tranbian bidaltzen zieten Bilbora. Amama eta biak ogi zaleak ziren, baina amamak ezin zuen ogirik jan. Amamak dirua eman zion ogia ekartzeko, baina lehengusinek esan zioten okindegiak greban zeudelako esateko. Orduko bizipenak.

617. Arrautza "arinak" (AMO-107/013)

Ingurukoen pasadizoak kontatzen ditu. Gernikako gozotegi batera arrautzak hutsik nola eramaten zituzten.

618. Aitita-amamen inguruko pasadizoa (AMO-107/014)

Aitita gaixorik zegoen bateko pasadizoa. Amamak txokolatea eraman zion kikanen eta aititak airean bota. Kikara osorik geratu omen zen. Pazientzia handiko emakumea zen amama.

619. Peru eta Marixeren iibilerak (AMO-108/002)

Peru eta Marixeren iibilerak.

620. Bost urterekin ardi-zain; Belatxikietara ardiak batzera (AMO-108/003)

Bost urterekin ardi-zain hasi zen; aitarekin batera ibili zen, bederatzi urtera arte. Uda baten aita eta neba nagusia gaixotu egin ziren eta bera joaten zen

Belatxikietara (han izaten zituzten ardiak) goizeko 4retan jaikita, hiru litroko kantinekin hartuta, ardiak batzera. 11etarako Astitzera itzultzen zen esnearekin.

621. 10 urterekin neskame; gaztetako gaixoaldia (AMO-108/004)

10 urterekin neskame joan zen Egiartera, ume-zain. Urtebeteren ostean etxera itzuli zen. Gero beste zenbait lekutan ere ibili zen neskame. Gaixotuta itzuli zen etxera eta zazpi hilabete egin zituen gaixorik. 19 urterekin ezkondu zen eta 20rekin semea izan zuen.

622. Laietan soroan; gariaren inguruko lanak (AMO-108/005)

Laietan egiten zuten soroan. Gariaren inguruko lanak: lurra prestatu, garia erein, ebaki... Garai batean igitaiarekin ebakitzen zen eta eskuz jo, harriaren kontra. Geroago makinekin. Artoa ereiteko, lurra laiatu eta nola prestatzen zuten.

623. Fruta arbolen inguruko azalpenak (AMO-108/006)

Fruta arbolak izaten zituzten: makatzak, sagarrak, pikuak, intxaurrak... Fruta bakoitza noiz biltzen zen.

624. Erromeria domekero (AMO-108/007)

Erromeria non egiten zuten domekero. Etxanoko Lino izaten zen soinu-jotzailea; pandero-jotzailea Arkotxekoa.

625. Lihoa ereiten zen; gero kirruarekin haria egin (AMO-108/009)

Garai batean lihoa ere ereiten zen. Garia heltzen zen garai bertsuan heltzen zen. Igitaiarekin ebakitzen zen eta landara bota lehorteaz. Lehorteazkoan, azala gogortzen zitzaion. Orduan, errekan beratzen zen eta berriz landara bota. Sikatutakoan, horzdun makina batekin kirrua ateratzen zitzaion eta kirru harekin haria egiten zen goruarekin eta ardatzarekin. Hari-bolak egindakoan, oihala egiten zen, izarak eta bestelakoak egiteko.

626. Emakumeen ekintza asko txarto ikusiak (AMO-110/004)

Lehen gorputz biluziak ikustea ezinezkoa zen. Emakumezko alargunek galarazita zuten beste gizonezko batzuekin harremanak, txarto ikusita zegoen. Emakumeak beti egon dira gizonezkoan menpe, eta eskerrak hori aldatzen ari dela; hala ere, denbora asko beharko da gauzak aldatu ahal izateko.

627. Bizimodua ikaragarri aldatu da (AMO-110/006)

Amak berari hikan egiten zion berba. Sei urte zitueneko bizimodua ere gogoan du eta bizimodua ikaragarria aldatu dela dio. 14 urtera arte eskolara joateko aukera izan arren, etxean lagundu behar izaten zenez, gutxiak aprobetxatu zuten aukera.

628. Gaur egun (AMO-110/007)

Lehen edo orain bizi gara hobeto? zeren arabera. Bizitzan ez, baina beharrean-eta hobeto. Lehen dena egiten zen eskuz eta orain burua gehiago

nekatzen da. Lehen gorputza nekatuta zutela joaten ziren ohera, orain ez. Lehen umetako lagunak bizi guztirako izaten ziren auzokoak izaten ziren-eta. Gaur egun, ostera, auzokoak ezagutu ere ez dira egiten.

629. Lehen auzoko denak ziren hurbilekoak (AMO-110/009)

Lehen barriadan 12 auzoko ziren eta egunero egoten ziren, denen barri zuten; gaur egun, ostera, ondo konpondu arren, ez dute elkarren berri.

630. Baserriko tresnak: ferrak, laiak, goldea... (AMO-110/012)

Ganaduari ferrak jartzen zitzaizkien eta ferratokira eroan behar izaten ziren. Ganadua soloko eta basoko beharretarako erabiltzen zen. Laiak, goldeak... erabiltzen ziren.

631. Futboleak bidean bertan (AMO-110/017)

Eubako eskolara joan zen Domingo. Errepidean aritzen ziren futboleak olgetan. Auto guztiak ezagutzen zituzten.

632. 60 ume maistra bakarragaz (AMO-110/018)

Eskolan 60 lagun ibiltzen ziren maistra bakarragaz. Sarri aldatzen zizkien maistrak.

633. Aste osoan arropa bera (AMO-110/021)

Lehen bizimodu eskasagoa zuten: eskasago jantzi, jan... Aste osoan zehar arropa bera izaten zuten soinean, domeketan aldatzen zuten. Guardasolaren ordezkua erabiltzen zuten.

634. Ondasun guztiak maiorazgoarentzat (AMO-110/023)

Lehen ondasun guztiak seme zaharrenari ematen zitzaizkion, maiorazgoari.

635. Lau ikasgai liburu bakarrean (AMO-110/025)

Eskolan matematika baino ez zuen ikasi. Lau ikasgai liburu bakarrean izaten zuten. Historia ere ikasi zuten, baina gerora ikasi zuen pinuak tasatzen.

636. Dotrina euskaraz eta erdaraz (AMO-110/026)

Dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuen.

637. Txarrena etxerako, onena saltzeko (AMO-111/003)

Garia, baba eta denetarik entregatu behar izaten zuten gerra ostean, alerik onenak gainera. Seirehun litro txakolin egiten zituzten. Martxoko ilbeheran probatzen zuten. Txarrena izaten zen etxerako, onena saltzeko.

638. Txakolina egiten (AMO-111/005)

Lehen mahatsa zestora botatzen zuten eta hankekin apurtzen zuten. Gero prentsara botatzen zuten.

639. Eibarrerako eskopetak egiten etxean (AMO-111/008)

Bere lehengusuak Eibarrera joaten ziren lanera eskopetak egitera; etxean egiteko aukera izaten zuten. Atarian tailertxoak jarri zuten.

640. Etxeko aseguruaren kontura lanean (AMO-111/010)

Trenez egiten zuten Eibarrerako joan-etorria. Baserriko aseguruarekin moldatzen ziren lanerako, eskopetak etxean egiteko.

641. Eskopetetako egurra (AMO-111/012)

Eskopetak zela egiten zituzten azaltzen du. Eskopeta bakoitza besteekiko desberdina izaten zela dio. Pagoarekin egiten zituzten gehienak. Hagina onena izaten dela dio. Arin hasten den egurra, erraz usteltzen dela dio. Horiek ez ziren eskopetak egiteko erabiltzen.

642. Milizianoak etxeko soroan (AMO-111/014)

Gerra garaian, hiltzeko beldurrik ez zutela izaten dio. Etxe aurreko soroetan trintxerak egin zituzten eta beraien etxeko atarian munizioa pilatu zuten. Munizioa eramaten laguntzearren, tabakoa eta pattarra ematen zizkieten.

643. Zornotzan frontea non egon zen (AMO-111/016)

Frontea non egon zen azaltzen du.

644. Tabakoa, pattarra eta tiroak debalde (AMO-111/017)

Tabakoa eta pattarra ematen zizkieten debalde "Gorriek". Pattar hari "saltaparapetos" esaten zioten. Fusilarekin hamar tiro egiten lagatzen zioten.

645. Lemoara ihesi (AMO-111/018)

Milizianoek etxe inguruan hogeai egun egin ostean, handik alde egiteko agindu zieten Domingo eta etxekoei. Zubiak apurtu zituztenez, ezin ziren bidez inora joan. Lemoara joan ziren.

646. Etxeratutakoan, erreketek bertan (AMO-111/019)

Nazionalak heldu zirenean, gizonezkoak koba batean egon ziren ezkutuan. Etxe inguruan zuloak egiten zituzten, babesleku modura. Etxea erreketek nafarrez beteta topatu zuten. Jaten ematen zieten berari eta beste bi mutikoei.

647. Hildako milizianoak (AMO-111/024)

Etxe asko apurtu zituzten nazionalek obusekin. Egunero botatzen zituztela dio. Hildako milizianoak lurperatu egiten zituzten baina azalean, eta zakurrek jan egiten zituzten. Basoan topatutako hildakoak hilerrira eramaten zituzten.

648. Tabakoa zela erein, jaso eta gorde (AMO-111/029)

Milizianoek emandako tabakoa eta pattarra hartzen zituzten, gaztetxoak izan arren. Tabakoak gustu gozoa zeukala dio. Erein eta hartu izan du tabakoa etxean. Artoaren moduan ereiten da; kontatzen du zela batu, lehortu eta gordetzen den.

649. Txondorra zela egiten zuten (AMO-112/002)

Berak ez du ikatzik egin izan baina egiten ikusi bai. Egurra egosi egin behar izaten da, ez erre. Txondorra zela egiten zuten azaltzen du. Zoia zeri esaten zaion azaltzen du.

650. Txondorra zela egiten zuten II (AMO-112/003)

Txondorrari su emandakoan, barrutik kanpora erretzen da. Zuloak egiten bazaizkio, zoiarekin tapatu behar izaten da. Zakuetan garraiatzen zen.

651. Andero ibilitakoa (AMO-112/009)

Andero ibilitakoa da. Andero gizonezkoak ibiltzen ziren. Hildakoa ezkondua bazen, gizonezko ezkonduak eramaten zuten eta ezkongabea bazen, ezkongabeek. Hildakoa umea bazen, jaunartzea egin arte, zuriz janzen zuten; gero beltzez.

652. Lamina edo antzeko zerbait bai (AMO-112/012)

Sorgin konturik ez du sinetsi izan. Laminak egoten direla dio: inoiz ikusi duela egunsentian edo ilunbarrean zeruan pasatzen halako korrante moduko bat, baina ez dakiela zer den.

653. Kopla zahar bi (AMO-112/013)

Kopla zahar pare bat abesten ditu.

654. Artilezko koltxoia (AMO-113/014)

Koltxoia artilezkoa ziren. Hustu eta garbitu egin behar izan zen artilea berriro josi orduko. Arto-azalarekin (kapatxa) egindako koltxoia ere ezagutu zituen.

655. Jaietako gonbidautzak eta jatorduak (AMO-113/015)

Lehen askoz pozago bizi ziren bere ustez. Jaietan gonbidautzak egiten ziren eta poz handia ematen zien. Auzoko jaietan jatordu berezia egiten zuten. Oilaskoa egun berezietarako gordetzen zen.

656. San Juanetako kanta (AMO-113/018)

San Juan suaren inguruan abesten den kanta abesten du.

657. Gabonetako jana eta ohiturak (AMO-113/020)

Gabonetako jatekoa: bakailaoa, oilaskoa, turroia... Bere gazte denboran karakolak ez ziren jaten; azalorea eta bisigua zen ohikoa. Hamabietako mezara (misa el gallo) joatea ere derrigorra zen. Txakur amorratuarentzako ogi koskorra moztu eta gordetzen zen.

658. "Erregen, erregen" abestia (AMO-113/022)

Azpira irina gordetzeko kutxari deitzen zioten. Errege eguna ere ospatzen zuten. "Erregen erregen" abestia abesten du. Etxerik etxe Santa Agedatan baino ez zuten abesten.

659. Basomartxo eta kandelario (AMO-113/025)

Basomartxo eguneko ohitura. Karnabaletan ez zen ezer berezirik egoten, baina martitzenez ospatzen zen garizuma aurreko azken erromeria. Kandelario egunez ere jaten zituzten tostadak.

660. Hamarrenak (AMO-113/026)

Garizuma sasoiko bijilia derrigor egin behar izaten zen. Buldak ordaintzen ziren, hamarrenak, "diezmos y primicias" deiturikoa.

661. Lizarra, gurutzeak eta ur bedeinkatua (AMO-113/027)

San Juanetan etxeko atarian lizarra eta soloetan gurutzeak jartzeko ohitura beti izan dute. Pazkoetako ur bedeinkatuarekin soloak bedeinkatzen ziren.

662. Bizkargirako letania eta San Juan denboraletik babesteko (AMO-113/029)

Txarok ezagutu duen letania bakarra Etxanotik Bizkargira egiten zena da; maiatzeko Santa Kurtzetan ospatzen zen. Eguraldi txarra egingo zuela aurreikusitakoan San Juan santua ateratzen zuten kanpora beraien auzoan.

663. Bizkargi eguna (AMO-113/030)

Bere gazte sasoiko Bizkargi eguna oso polita zela dio. Gustura egiten zituen etxeko lanak bertara joan ahal izateko.

664. "Tximista", "oñaztue", "hodaixe" (AMO-113/031)

"Tximista" zein "oñeztue" bi berbak erabiltzen dituzte. Trumoiari "hodaixe" esaten diote.

665. Oinaztu eta trumoientzako kandela bedeinkatuak (AMO-113/033)

Oinaztuak (tximista) eta hodeiak (trumoiak) hasterakoan kandela bedeinkatuak pizteko ohitura.

666. "Harria", "txingorra" eta "inetasia" (AMO-113/035)

"Harria", "txingorra" eta "inetasia" berbak desberdindu egiten dituzte. Horrelakoek eta haizeak inoiz egin die triskantzaren bat edo beste.

667. Ermandadea (AMO-113/036)

Ez du gogoan baserrian asegururik izaten zuten edo ez. Ermandadea izaten zuten, horren funtzionamendua azaltzen du. Bere aita zen "listerue", kontuak eramaten zituena.

668. Ugariagoak ziren pizti edo animaliak (AMO-113/038)

Lehen baziren hainbat animalia orain ikusten ez direnak: mixarra, igelak, kirikolatzak... Zapaburuari zelan deitzen dioten.

669. Eskolan jarraipena, mezetara eta konfesatzera joan ote ziren (AMO-114/003)

Konfesatzeko ezer ez izan arren, konfesatu egin behar izaten zuten. Gaueko hamabietatik aurrera, ezin izaten zuten urik edan ere. Eskolan jarraipena egiten zieten, mezetara eta konfesatzera joan ote ziren.

670. Maiatzeko loreak eta San Isidro (AMO-114/005)

Maiatzeko loreak eta San Isidro eguneko ospakizuna zelakoak izaten ziren kontatzen du.

671. Senarra soinujolea (AMO-114/006)

Bere senarra soinujolea izan da; solfeoa eta soinua jotzen ikasi zuen Bilbon. Dantzan egiten zuten gizonezkoek hogeita bosna zentimo ordaintzen zioten soinujoleari.

672. Tergalezko arropak, ongi lixatuta (AMO-114/008)

Tergalezko arropak eta abarketak janzten zituzten erromeriarako. Orraztu eta makilatu egiten ziren; berari ez zitzaion gustatzen makilatzea. Depilatu ez da egin izan, beharrik ez zeukalako. Lixatzeko zela moldatzen ziren azaltzen du.

673. Hainbat erremedio (AMO-114/009)

Errez gero, ur hotzetan eduki eta ondoren olio a ematea da ona; erleak ziztatuz gero, berakatzarekin igurtzi. Hesteetako bizioentzat labatibak egiten zituzten. Katarroarentzat jarabea izaten zen eta lepoko minarentzat partxeak. Zaldarrak berotutako tipularekin sendatzen zituzten. Katarroarentzat esnea eztiarekin hartzen zen, baita koñakarekin ere.

674. Hilekoarentzat oihalak (AMO-114/010)

Hilerokoari buruz ez zuten berbarik egiten. Oihalezko konpresak erabiltzen zituzten. Ez ziren dutxatzen hilerokoarekin; debeku asko izaten zituzten hilerokoarengatik.

675. Umeentzat oihalezko pardelak (AMO-114/011)

Oihalezko pardelak erabiltzen zituzten ume txikientzat. Zelakoak izaten ziren azaltzen du. Zorrientzat likido bat botatzen zieten buruan.

676. Garai bateko sehaskak (AMO-114/012)

Sehaskak egurrezkoak eta eragiteko modukoak izaten ziren. Artilezko koltxoiak jartzen zizkieten.

677. Umeen izenak euskaraz eta erdaraz erregistratu behar (AMO-114/014)

Umeen izenak berak aukeratu zituen. Udaletxean erdaraz erregistratzen zituzten eta elizan bietara. Gerora aldatu zituzten izenak paper ofizialetan.

678. 'Cara al Sol' kantarazi euskaraz berba egiteagatik (AMO-115/002)

Aitak Baskonian egiten zuen behar eta ama Neguri (Getxo) aldean neskame ibilitakoa zen. Umetan emakume batek kalean Cara al Sol kantarazi zien euskaraz berbetan zihoazelako. Mota horretako zapalketa asko zeuden.

679. Etsaia etxean: heriotza-zigor eskaerak hurbilekoak sinatuta (AMO-115/003)

Heriotza-zigorerra kondenatua zegoen batek herriko hiru pertsonaren sinadura behar zuen. Horietako batek kondenatutakoaren kontrako gutuna idatzi zuen gorria zela eta ez zelan elizara joaten argudiatuz. Etsai bila ez da zertan kanpora joan behar, askotan herrian edo auzoan bertan ditugu-eta. Idazki horren dokumentua gordeta izan du etxean, "flechas y pelayos"en ikur eta guzti.

680. Ikastolaren hasierako arazoak (AMO-115/005)

Zornotzan euskararen aldeko zer edo zer egin behar zela, euskarazko lehen eskolak sortzeko apustua egin zuten. Sabin Euba "Pelopintxo" izan zen lehen maisua. Askotan zarratu beharra izan zuten traba ezberdinak tarteko. Andereño bat topatzea ez zen lan erraza izan.

681. Karmeldarren oilotokiko ikastola (AMO-115/006)

Ikastolaren hasierako urteetan lau-bost leku ezberdinetan egon ziren. Karmeldarren oilotokia garbitu eta bertan egon ziren. Baina handik denbora batera, fraideak eta mojak ere hasi ziren euskarazko eskolekin hasi zirenean, leku hura utzi behar izan zuten.

682. Batetik bestera gaur egungo ikastola lortu arte (AMO-115/007)

Karmeldarren oilotokian ikastola ian eta gero hainbat tokitan egon ziren: Iser kalean, Goiriatarren txaletean, elizako lokaletan... batetik bestera bidaltzen zuten inongo baliabide barik. Ikastola gero eta handiagoa zen eta gero eta beharrian gehiago zituzten. Iurretako bi emakumeren laguntza azpimarratu beharreko izan zen, denbora askoan ezer kobratu barik egon zelako eurentako bat. Gaur egungo ikastola izan arte, une gogorrek pasatu behar izan zituzten.

683. Hasieran andereñoak lortzeko zailtasunak (AMO-115/008)

Elkarrizketa egin baino 41 urte lehenago-edo (60.hamarkada bukaeran eta 70. hamarkada hasieran) hasi ziren ikastola sortzeko lehen pausuak emanez. Lehen andereñoa Miren Artetxe arratiarra izan zen.

684. Ikastolako lehen batzarrak EAJkoen etxeetan egin behar (AMO-115/011)

Ikastolako lehen batzarrak EAJren inguruan zebiltzanen etxeetan egiten ziren, txarto ikusiak saihesteko. Hala ere, indarraren %80a ezker abertzalearen baitan zebilen jendeak egin zuen.

685. Ikastolako bide lupetzez beteta zegoela-eta, askok atzera egin (AMO-115/012)

Ikastolaren lehen urteetan ez zuten materialik. Kaleak ere asfaltatu barik zeuden eta lupetzez (lokatzez) beteta zegoen dena. Hori dela-eta, edo hori arrazoitzat hartuta, abertzaleak ziren familia askok mojetara eroan zituzten beraien umeak, ikastolarako bidean zikindu egiten zirelako. Horrelako ekintzen eta jarrerak min asko sorrarazi zuten.

686. Aita Lorentzori esker ona (AMO-115/013)

Karmeldarretako aita Lorentzok ikastolakoak bertatik atera zituztenean, disgustua hartu eta Markinara joan zen. Bera alde egon ez arren, berak eman behar izan zien lekua uzteko agindua.

687. Ikastolak hasieratik izan zuen herritarren babesa (AMO-115/016)

Zornotzarren babesa izan zuen ikastolak hasieratik. Eraikin bat erosteko aukera izan zutenean, dirua behar zutenez, etorri asko zuen jendearengan joan ziren. 25.000 pezeta behar ziren eta pertsona bakarrak eman zien dirua, gehiago behar izanez gero eskatzeko esanez.

688. Ikastola kooperatibista (AMO-115/018)

Ikastola hasieratik kooperatiba bezala sortu zen. Kooperatiba bezala funtzionatzearen garrantzia aipatzen du

689. Euskararen egoera Zornotzan (AMO-115/020)

Gaur egun Zornotzan (herrigunean behintzat) lehen baino euskara gehiago egiten da. Nortasun falta nabaritzen die euskaldunak direnei eta euren artean erdaraz egiten dutenei. Guardia Zibilak ere asko beldurtzen zuen.

690. Gaurko gazteek ez dute lehengokoen espiriturik (AMO-115/023)

Bere sasoiko gazteek beste espiritu bat zuten, beharrian asko zituzten-eta. Gaur egungo gazteei dituzten erosotasunak kendu eta beraien lekua topatzeko aukera eman behar zaie. Euskal Herrian zuten beharrianaren ondorioz, gaitza zen arbola batean heldutako fruta bat topatzea; normala zen ostea jateko.

691. Beharrian askoko bizimodua (AMO-115/024)

Berak kaleko etxean beti ezagutu du komuna, baina baserri inguruetan ez zegoen horrelakorik. Bideak ere ez zeuden egokituta. Lan egiten zuenak 'kafe konpletoa' hartzen zuen, besteek ez zuten horretarako aukerarik. Beharrian asko zuen jendea zegoen eta elkarrizketa garaiko krisiak ez zuen zerikusirik ordukoarekin.

692. Abadeak erosi zion trajea (AMO-115/026)

Mutikotan Elizako zineman pelikulak ematen laguntzen aritu zen. Behin arkondarako lepoa apurtu eta abadeak traje osoa erosi zion.

693. Filmak zela zentsuratzen ziren (AMO-116/002)

Filmak apaizak zentsuratzen zituen. Zinemaren funtzionamendua azaltzen du, eta nola zentsuratzen zuten ere bai. Euskarazko filmik ez zen egoten.

694. Lehenengo aldiz telebista ikusi zuenekoa (AMO-116/008)

Zinema ez zen garestia, edozeinentzako modukoa zen. Lehenengo aldiz telebista Igeldon (Donostian) ikusi zuen; Frantziako emankizunak ziren.

695. Zornotzako zinemark (AMO-116/009)

Hiru zinema egon ziren Zornotzan; non egon ziren eta norenak ziren azaltzen du. Horiez gain, parrokiako zinema zegoen.

696. Orduko egunkariak (AMO-116/012)

"El Correo", "La Gaceta" eta "Hierro" egunkariez gogoratzen da. Aulestiko emakume batek herri kirolen berri euskaraz ematen zuen.

697. Soldadutzara joan beharrik ez (AMO-117/002)

Bernagoitiko Goienengoaetxebarrin jaio eta bizi izandakoa da Jose Antonion. Soldadutzara joan beharrik ez zuen izan aitak 60 urte zituelako eta seme bakarra izan zelako. Familia txikia du gurasoak ere beraien artean lehengusuak ziren-eta.

698. Durangora eta Zornotzara joateko dotore jantzi (AMO-117/012)

Zornotzara eta Durangora joateko trajea eta gorbata janzten zuten gizonezkoek. Almidoiagaz lisatzen zuten eta ez zen eroso. Bariku Santu egunez eta San Antonio egunez estreinatzen zituzten soineko berriak. Erromeriara abarkekin joaten ziren.

699. Apaintzeko "Visnús" krema (AMO-117/013)

Neskak ondo apaintzen ziren: orraztu eta makillatu. Ile-apaindegira ez ziren joaten. "Visnú"n izeneko krema erabiltzen zuten.

700. Bernagoiti jendez lepo (AMO-117/015)

Ez dute Gerra Zibileko akordurik. Jose Antonio Bernagoitin bertan zegoen eskolan ibili zen. Ume asko batzen ziren, Berna auzokoak ere bertara joaten baitziren. Elkarriketa garaian, oster, auzoan oso jende gutxi bizi zen.

701. Eskolan ezer ulertu ez (AMO-117/016)

Bernagoitiko eskolan denak batera aritzen ziren: mutil zein neska, ume zein nagusi. Dena zen gaztelaniaz eta ez zuten ezer ulertzen. Euskaraz egitea galarazita zegoen, elizan ere ezin zen.

702. Eskolara ahal zenean (AMO-117/017)

Jose Antonioren etxean abadea bizi izan zen urte askoan. Aitaren asmoa semea Durangora ikasten bidaltzea zen, baina abadeak baserritarrak horrelakorik ez duela behar esan eta ez zen joan. Maria Angelesen etxean, oster, mutilek zuten ikasteko lehentasuna eta beharra zegoenean ez ziren joaten. Maria Angeles Euba auzoko eskolara joan zen, bertan ere denak batera aritzen ziren.

703. Maistra erdaldunak (AMO-117/018)

Bernagoitian Bilboko maistra bat izan zuten, oso ona zen eta konforme zeuden. Euban, Barakaldoko maistra gogorra zuten, ez zitzaion euskaraz egitea gustatzen.

704. 'Cara al Sol' abestu eta elizarako oster, derrigorrezkoa (AMO-117/020)

Eskolara sartu orduko bandera altxatu eta Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Iluntzean elizara joan behar izaten zuten. Eskolan inspekzioak izaten zituzten opor aurretik.

705. Eskolako pizarra eta liburua (AMO-117/022)

Eskolan pizarra erabiltzen zuten eta liburu bakarrean izaten zituzten ikasgai guztiak. Gustura aritu arren, etxean beharra zuten eta ikasten hasterako uzten zioten eskolara joateari.

706. Elizari errespetua eta beldurra (AMO-117/024)

Gaztelania kalean ikasi zuten; hala ere, sekula ez dute erraztasunik izan. Abadeagaz euskaraz egiten zuten, baina errespetu handiz. Horrelako egoerak diktadura bezalakoak zirela diote. Arrosariora joatea derrigorra zen eta neska-mutilak elkarregaz ibiltzea txarto ikusita zegoen. Fraideak baserriz baserri joaten ziren jenero bila eta bertako etxeetan egiten zuten lo. Abituari musu emanez agurtzen zitzairen. Errespetuaz gain beldurra ere sentitzen zutela diote.

707. Elizak beteta, erdaraz eta latinez (AMO-117/025)

Elizak erraz betetzen ziren, domeketan bi meza egoten ziren eta biak betetzen ziren. Abestiak erdaraz, Aita Gurea eta sermoia euskaraz eta mezak latinez izaten ziren.

708. Aste Santuetako ejerzizioak (AMO-117/026)

Aste Santu inguruan ejerzizioak ospatzen zituen elizak. 8 egunean kanpoko abadeak egoten ziren. Zelan burutzen ziren azaltzen dute.

709. Gaubeila eta gaixoarentzako elizakoak (AMO-117/028)

Norbait hilez gero gaubeila egiten zitzaion: arrosarioa erreztatu, pattarra eta gailetak hartu... Gaixoa etxean zegoenean, meza-laguntzailea (monagiloa) joaten zen elizakoak ematera (Geure Jauna) txilina eskuan hartuta.

710. Hil-kanpaiak (AMO-117/029)

Mota desberdinetako hil-kanpaiak daude, sexuaren arabekoak. Ostean, abadea joaten zen azken otoitza egitera.

711. Hildakoa elizara lepo gainean (AMO-117/030)

Hildakoa lepoan hartuta eroaten zuten elizara. Berna auzoko batzuk bertara joaten ziren eta beste batzuk Zornotzaraino, trenbideak banatzen du muga. Hildakoaren eta monagiloaren atzetik joaten ziren denak. Andariak (hildakoa eroaren zutenak) senitartekoak eta auzokoak izaten ziren. Aurretik joaten ziren andrazkoak auzokoak izaten ziren, "eurogixek". Hileta ostean, tabernan batzen ziren.

712. Lutoa (AMO-117/032)

Hurbilekoren bat hilez gero, gutxienez urtebeteko lutoa izaten zuten. Gizonezkoak seinale beltz bat eroaten zuten paparrean, lutoa beraientzat ez zen hain zorrotza. Sasoi horretan ez zuten dantzaldietan parte hartzen; ondorioz, ezta nobiorik topatu ere.

713. Sepulturak (AMO-117/035)

Sepulturak domekero jartzen ziren elizan. Meza bukatu ostean, abadeak sepultura bakoitzean erresponstu bat erreztatzen zuen. Zer egiten zuten azaltzen dute.

714. Hildakoaren arropak erre (AMO-117/036)

Hildakoaren logelako leihoak zabaldu, arropak eta ohea erre... egiten ziren gaixoa ez zabaltzeko. Umeak zirela garbitasunerako produktu askorik ere ez zegoen.

715. Medikua abisatzeko Zornotzaraino joan behar (AMO-117/037)

Medikua Zornotzan izaten zuten eta haraino joaten ziren abisatzera. Gerora, Eubako Pijon tabernan jarri zuten telefonoa eta bertatik abisatzen zuten medikua zein albaitaria. Kapa ezizeneko medikua zaldi gainean joaten ziren autoa izan aurretik. Alegria medikua motorrean hasi zen.

716. Albaitaria izara batekin abisatu (AMO-117/038)

Albaitaria abisatu behar izaten zutenean, Zornotzaraino joan barik, albaitariak ikusi zezakeen landa batean izara bat jartzen zuten seinale moduan.

717. Izara batekin aita hil zela abisatu (AMO-117/039)

Jose Antonioren aita hil zenean, osabaren etxean egon zen gari ebakiten. Soloan jarritako izara batekin abisatu zuten etxera etor zedin.

718. Maiorazgoa (AMO-117/041)

Gurasoen herentzia seme zaharrenak jasotzen zuen normalean. Jose Antonioren aititak hiru etxe zituen eta dena eman zioten seme bati, beraiek bizi diren etxea gerora erosi behar izan zuten.

719. Bataiatu bako umeak (AMO-118/001)

Bataioak jaio eta hurrengo egunean egiten ziren lehen, bataiatu aurretik umea hilez gero linbora zihoala uste zuten eta. Gerra denborako sasoi batean ez zen abaderik egon eta horregatik etxean bataiatzen zituzten umeak, etxe-bataioa esaten zioten. Kanposantuan aparte lurperatzen zituzten bataiatu barik hiltzen ziren umeak.

720. Eliza-sartzea (AMO-118/004)

Umea bataiatu ostean, amak eliza-sartzea egin behar izaten zuen. Umearekin joaten zen elizara, kandela bat eskuan zuela.

721. Opariak umeari eta amari (AMO-118/005)

Umeari etxean egindako jertseak edo adur-zapiak oparitzen zizkioten. Amari, oster, oiloa ekartzen zioten, salda egiteko.

722. Umeak etxean emaginarekin (AMO-118/006)

Orduan auzoko bat ibiltzen zen emagin, etxean edukitzen zituzten umeak eta.

723. Begietan nabaritu andrea haurdun dagoela (AMO-118/009)

Aurpegian, begietan, nabaritzen zuten batzuek andrea noiz zegoen haurdun. Jose Antoniok, esaterako, begietan nabaritzen zien.

724. Umeen jatorria eta hilerokoak gai debekatuak etxean (AMO-118/010)

Lehen, gurasoek ez zuten esaten nondik datozen umeak. Hala ere, eurek jakin egiten zuten. Hilerokoaren gainean ere ez zuten ezer esaten, baina lagunek esanda-edo jakiten zuten zer zen.

725. Hilerokoarekin ezin txerri-beharrik egin (AMO-118/011)

Hilerokoarekin ezin da txerri-beharrik egin, odola moztu egiten ei da eta. Gainera, ez da ona alanbre azpitik pasatzea zela, haurdun zeudenean ere ez.

726. Hilerokoarekin etxeko oihalak (AMO-118/013)

Hilerokoarekin zeudenean, etxean egindako oihalak erabiltzen zituzten. Gero garbitu egin behar izaten zituzten eta eskegi.

727. Ezkontzako erropak eta eztei bidaia (AMO-118/015)

Zornotzako parrokian ezkondu ziren eta Durangoko Bolatokian egin zuten bazkaria. Maria Angeles beltzez ezkondu zen, auzoko batek egindako jantziarekin. Jose Antonio traje grisarekin ezkondu zen. Gero, Donostiara eta Lermara joan ziren bidaian.

728. Ezkon-opariak eta aitabitxi-amabitxiak (AMO-118/016)

Etixerako gauzak oparitzen zizkieten ezkonberriei; toallak, ontziteria... Lehen, aitabitxi eta amabitxi ez ziren gurasoak izaten, gehienetan bataiokoak izaten ziren ezkontzakoak ere.

729. Ipiniko ezkontzak (AMO-118/018)

Lehen, euren aurrekoen sasoian, ipiniko ezkontzak egiten ziren. Hau da, etxean esan egiten zitzaien norekin ezkondu behar zuten. Diruari begiratzen zitzaion ezkontzetarako.

730. Gaztetan Durangoko zinemara (AMO-118/019)

Gaztetan zinemara joaten ziren, baina hamarretan etxean egon behar izaten zuten. Lauretako emanaldira joaten ziren, Durangora. Bakeroen inguruko filmak izaten ziren ordukoak.

731. Egunkaria eta irratia etxean (AMO-118/020)

Etxean egunkaria irakurtzen zuten egunero: La Gaceta del Norte. Gerra sasoian euren etxean eduki zuten irratia eta Eubatik ere etortzen ziren gauetan irratia entzuten.

732. Auzokoen artean telebista bat erosi (AMO-118/021)

Auzoko guztien artean telebista bat erosi zuten gazteek sakristian ikus zezaten. Baina, argindarra baxua zen auzoan eta etxeetako argiak itzali behar izaten zituzten telebista ikusi ahal izateko.

733. 1967an ekarri zuten ura auzora (AMO-118/022)

1967an, eskola atzean zegoen iturria erabili zuten auzora ura ekartzeko. Lehenago, kantinekin ekartzen zuten ura errekatik eta udan putzutik. Etxean, hala ere, patina jarri zuten 1961ean.

734. Neguan elurte handiak (AMO-118/024)

Neguan elurte handiak izaten zituzten eta bidea garbitu behar izaten zuten. Ganadua kortan edukitzen zuten eta ura ekarri behar izaten zieten.

735. Abadea soroak bedeinkatzen (AMO-118/026)

Abadea sororik soro joaten zen bedeinkazioa ematen uztailaren lehenengo egunetan, gariak buruan zeudela. Jose Antonio ere joan izan da abadearekin batera elizmutikoa zenean.

736. Erramu egunean bedeinkatutako gurutzeak soroan (AMO-118/027)

Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen dituzte eta gero, ereitea egiten dutenean, soroan jartzen dituzte. Etxeko atean, ostera, San Juan egunean jartzen dute erramua.

737. San Juan bezperan "San Juan, San Juan, San Juanxu" kanta (AMO-118/028)

San Juan bezperan sua egiten dute, lehen soro guztietan egiten zuten. Gero, kantatu ere egiten dute: "San Juan, San Juan, San Juanxu. Gure soloan lapurrik bez, sorgiñik bez. Badago, badago, erre deitez! San Juan, besterik ez deku goguan!"

738. Santa Ageda umetatik abestu izan dute (AMO-118/029)

Lehen, asko abesten zen etxerik etxe. Maria Angeles, esaterako, lau urterekin ere joanda dago Santa Ageda abesten. Batzen zutenarekin askaria egiten zuten.

739. Errioxara ehizan (AMO-118/031)

Ehizarako zaletasuna eduki du Jose Antoniok. Errioxara joaten ziren eperretan eta pospolinetan. Hemen, pase sasoian birigarroak eta zozokoak ehizatzen zituzten eta baita hegaberak ere lantzean behin.

740. Mixarrak eta "kirikiñolatzak" inguruan (AMO-118/033)

Basakatu gutxi dago inguruan, baina mixarrak ikusten dira oraindik orain eta baita kirikinoak ere, "kirikiñolatzak".

741. Neskame Bilbora eta Negurira (AMO-119/008)

Eskolatik irten eta neskame joan zen Bilbora. Sukaldeko lanetan aritu zen. Ez du gogoan dirurik irabazi zuen edo ez. Gero Negurira (Getxo) joan zen eta han hogeita hamar ogerlekoko jornala zuen. 25 urtez egon zen azkenengo etxean.

742. Neskame zegoela gose (AMO-119/010)

Negurin (Getxo) neskame zegoela, nahiz eta aberatsen etxean egon, gosea pasatzen zuen eta hilabete baino ez zuen iraun. Hurrengo etxean 25 urtez egon zen.

743. Arrosariora ez joatearen ondorioak (AMO-119/013)

Domekan arrosariora ez joateak zigor handia zekarren. Elizako fruta-arboletatik fruta ostearren ere zigorra jasotzen zuen.

744. Emandako arrokekin (AMO-119/016)

Neskame egondako etxekeok ematen zizkien arropak beraien etxekoei. Amak trentzak egiten zizkion.

745. 'Maritxu nora zoaz?' abestia (AMO-119/024)

'Maritxu nora zoaz?' abestia abesten du.

746. Montorako eskolara (AMO-120/004)

Etxean zein etxetik kanpo egin du lan. Zornotzan, kalean, bizi zen osaba gaixoa eta haren umeak zaintzea egokitu zitzaion. Kimeratik Montorako eskolara joan zen umetan. Beraien etxea baino urrunagoko jendea ere joaten zen Montorrara. Mutilak aparte egoten ziren. Neskak tabatara jolasten ziren.

747. Idiekin soloak lantzen (AMO-120/007)

Aita artzaina zuen, baina ardiak zaintzen baino gehiago aritu da Basilisa ganaduarekin. Idiak hartu eta etxerik etxe joaten zen goldaketan eta soloak lantzen. Goldea pasatu ostean, area eta narra pasatzen ziren.

748. Gazta egiteko prozesua (AMO-120/009)

Gazta zelan egiten den, pausuz pausu, azaltzen du pasarte honetan. Gaztanontziak. Gatzura txerrientzat izaten zen, dena aprobetxatzen zuten. Gatzura kentzea erreza zen.

749. Gazta zelan gorde eta saldu (AMO-120/010)

Gazta egin eta sikatzeko 3-4 egun behar dira. Luzaroan gordetzekoak gari artean gordetzen ziren kaxan. Gazta bat egiteko litro eta erdi esne erabiltzen zuten. Zornotzako plazan saltzen zituzten. Etxerik etxe eta tabernetara ere eramaten zituzten.

750. Gaiztakeria (AMO-120/019)

Basilisak dio zantarra eta ausarta izan zela, horietako gaiztakeria bat kontatzen du.

751. Gerran etxea utzi behar (AMO-121/002)

Santiren ama gerra denbora hil zen. Turtziotik Santander aldera joan ziren ebakuatuta eta bueltan ez zieten etxera sartzen utzi eta osaba baten etxean egon ziren. 1944an erosi zuen aitak Derteano "Dertia" baserria. Lemoako eskolara joan zen aitak harrobian lan egiten zuen bitartean bera han egon zelako osabarenean.

752. Guardia Zibila baserria erregistratzen (AMO-121/003)

Gerra garaian, baserriko jeneroa (garia, artoa...) herrira entregatu behar izaten zen eta Guardia Zibilak kontrolatzen zuen hori. Umetan beldurra ematen zien guardia zibilek etxea erregistratzen baitzuten eta Santi sabaian ostontzen zen.

753. 10 urtegar errotara astoz (AMO-121/004)

10 urte zitueneko Okako (Muxika) errotara joaten zen bakarrik. Astoak berak zekien bidea; beraz, ez zegoen galbiderik. "Abastos"ekoak egoten ziren kontrolatzen erroten ehotzen zutena. Behin ilunduta beldurak jota heldu zen etxera negarrez.

754. San Juanetako erromeria (AMO-121/005)

San Juanetan Muxikako "Itsua" soinularia joaten zen Ergoien auzora soinua jotzen. Erreriatik etxeko beharrik egiten joan behar izaten ziren hurrengo egunean ere joan ahal izateko.

755. San Juanetan bedeinkatutako gurutzeak soloetan (AMO-121/006)

San Juanetan galtzu-eskutak hartu eta suaren inguruan abesten zuten. Erramu egunean saratsarekin egindako gurutzeak bedeinkatzen ziren San Juan egunean soloetan jartzeko.

756. San Juan bezperako kanta (AMO-121/007)

San Juan bezperako su inguruan ume zein helduk abesten zuten kanta abesten du Santik. Hurrengo egunean jatordu berezia prestatzen zuten eta inguruetako jende asko hurreratzen zen.

757. Letanian Bizkargira (AMO-121/008)

Bizkargi mendiko erromeriara joateko letanian joaten ziren lau herri desberdinetatik, ermita lau herriena baita: Gorozikatik (gaur egun Muxika), Muxikatik, Morgatik eta Etxanotik. Etxanok zahagia eroaten zuten. Etxanoko elizaldetik, Autzaganera joaten zen letania eta eurak han batzen ziren.

758. Ikurrina Bizkargi mendian (AMO-121/009)

Bizkargi mendiko jai-egunean, erromeria, barkillo-saltzailea eta tabernak egoten ziren. Borrokak ere egoten ziren herri batekoak bestekoen kontra. Behin ikurrina atera zuten bertan, berak ikusi zuen lehen aldia izan zen; guardia zibil asko agertu zen baso artetik egurra banatuz.

759. Bizkargitik Morgaganeko erromeriara (AMO-121/011)

Bizkargi egunera Etxanoko herriak zahagia eroaten zuten. Jende asko hurreratzen zen fama handia baitzuen. Handik Morgaganera joaten ziren erromeriara. Auzoko neska-mutilak batera joaten ziren. Bertan bazkaltzeko bazkaria ere eroaren zuten.

760. Mezara derrigorrean (AMO-121/012)

Inguruetako erromeria guztietara joaten ahalegintzen ziren; hori bai, betiere meza entzun ostean. Beraien izeko bat oso zorrotza zen horretan eta ezin zuten hutsik egin. Goizeko mezara galtzu eskutek argiztatuta joaten ziren. Behin Larreako goiz mezara joan zirenean, goizeko seietako mezara, bidean beldurra pasatu zuten anaiak eta biek.

761. Gurutzeak eta maiatzeko loreak (AMO-121/014)

Auzoko emakume batek, Felizianak, gurutzeak egiten zituen. Gurutzerik gurutze erreztatzen zuten, eta bertara ere joaten ziren gurutzeak egitean. Maiatzeko loreak ere egin behar izaten zituzten, zer egiten zuten azaltzen du.

762. Auzokoak domeketan batzen ziren (AMO-121/019)

Lehen eskeko asko egoten ziren, horietako bat lagun egin zuten. Auzoan tabernarik ez zenez egoten, domeketan ermita ondoko etxean batzen ziren auzoko denak. Eskeko hori umeak beldurtzen aritzen zen apropos.

763. Patakon Larrabetzuko lapurra (AMO-121/021)

Patakon Larrabetzuko lapurra ezaguna zen inguruetan. Hari buruz entzundakoak, berak ez baitzuen ezagutu, kontatzen ditu Santik pasarte honetan.

764. Garizumako buldea; Fraideen dozena (AMO-121/022)

Garizuma garaia oso gogorra izaten zen, baina buldak ordainduz gero okela jatea libre zen. San Jose eguna barikua izanez gero, ez zen bijiliarik egiten. Bere amama Larrabetzuko zen eta bertako okindegian egon zen neskame, eta fraideentzako dozena 13koa izaten ei zen. Abadeak gauza guztien ugazaba ei ziren.

765. Abadeari eta medikuari berori (AMO-121/023)

Abadeak eta medikuak ugazaba izaten ziren; errespetu handia zor zitzairen berorika berba eginez. Bere aitaren eskola-lagun bat fraide ezaguna izan zen, eta hark berorika ez egiteko eskatu zion gurago baitzuen hika egitea.

766. Hikaren erabilera (AMO-121/024)

Beraiek beti erabili dute hitanoa, neska zein mutilekin. Aitagaz, neska-lagunagaz, alabagaz... zuka eta osabagaz, auzokoakaz, lagunakaz... hika.

767. Auzokoak elkarri laguntzen (AMO-121/027)

Auzokoek baserriko lanak elkarri laguntzen egiten zituzten. Auzoko batek eskeko bat izan zuten morroi eta haregaz kontuz ibili behar izaten ziren edozer osten zuen-eta.

768. Dirudunek zapatak, beraiek abarkak (AMO-121/030)

Dirua izan edo ez asko igartzen zen, janzkeran batez ere. Beraiek abarkak janzten zituzten eta besteek zapatak. Euria egiten zuenean ez zen samurra horiekin ibiltzea.

769. Emakume lanak egin behar (AMO-121/032)

Beraien etxean ez zegoen emakumezkorik, ama umea zela hil baitzen; ondorioz, denetariko lanak egin behar zituen: arropak garbitu, lisatu, josi...

770. Baserritik kalerako joera; bizikleta (AMO-121/034)

Aita oso ibiltuna zen, domekero joaten zen Zornotzara, bazkaldu eta karta-jokoan aritzen zen. Beti izan dute kalerako joera nahiz eta urrun egon. Mutiko gehienek zuten bizikleta; andrazkoek, ostera, ez. Oinez joateko bide luzea dago.

771. Gernikako erromeria baserri girokoa (AMO-121/035)

Gernikako erromeriara joateko Autzaganen hartzen zuten autobusa eta gero etxerako taxia. Gernika aldean baserrietako jende gehiago egoten zen eta gurago zuten hangoa Zornotzakoa baino. Zornotzan "kategoriakoak" aparte egoten ziren. Zugastietan trena hartu eta Gernikako plazan saltzen zituzten oilaskoak eta untxiak. Zugastietako erromeria ere ezaguna zen.

772. Dantza egiteko ordaindu behar (AMO-121/036)

Dantzan egiteko ordaindu egin behar izaten zuten leku batzuetan. Bizkargin hiru korru egoten ziren eta bakoitzean pezeta bat kobratzen zuten eta txarto pasatzen zuten; ondorioz, liskarrak ere sortzen ziren.

773. Bizkargin hiru eguneko ospakizuna (AMO-121/037)

Bizkargi mendiko ospakizuna hiru egunetako izaten zen: Santa Kurtze aurreko domeka, Santa Kurtze eguna bera eta osteko domeka. Bertan egoten ziren tabernetara andreak ez ziren joaten.

774. Baso-erromerietan kalabazarik ez (AMO-121/039)

Santik gaztetan kalabaza gehien Galdakaon jaso zuen, Bilbo aldeko jende asko egoten zen bertan. Gernika aldean, ostera, gustura egoten ziren. Baso-erromerietan ez zuten ezezkorik jasotzen eta gustura joaten ziren. Zornotzan "¿Bailamos?" esan behar izaten zen, erdaraz.

775. Erromerietan nesken eta mutilen arteko hartu-emana (AMO-122/002)

Dena zen bekatu. Neskek, esaterako, eskua jartzen zuten mutilak gehiegi ez hurbiltzeko dantza egiten zutenean. Erromerietan edukitzen zuten orduan hartu-emana neskek eta mutilek. Leku guztietako dantzaldietara joaten ziren: Lezamara eta Gernika aldera, esaterako. Zornotzako erromerietara, ostera, Arratia guztia joaten zen.

776. Garizuman Larrabetzuko eta Muxikako txakolinetara (AMO-122/004)

Garizuman Larrabetzuko txakolinerara joaten ziren eta baita Muxikako Errekazabale txakolinerara ere. Gizonak baino ez ziren joaten bertara, emakumeak paseoan ibiltzen ziren eta.

777. Atsoak inauteri jantzita (AMO-122/006)

Inauterietan ez zuten ezer egiten. Santi umea zenean, orduko atsoak ibiltzen ziren inauteri jantzita. Gizonak ez ziren inauteri jantzten, emakumeen kontua zen.

778. Inauterietan azken erromeriak, tostadak eta txerri janak (AMO-122/008)

Inauteri domeka erromeriara joateko eguna izaten zen. Zornotzan martitzenean ere egiten zuten erromeria. Hauek izaten ziren garizuma aurreko azken dantzaldiak. Inauterietan tostadak prestatzeko ohitura egon da. Txerri hankak eta belarriak ere orduantxe jaten ziren.

779. Basomartxo, Eguen zuri eta Santa Ageda (AMO-122/009)

Inauteri aurreko domekan txitxi-burruntzia egiten zuten, Basomartxo. Eguen Zuri ere egiten zuten. Santa Ageda abesten irteten ziren mutikoak eta gero batutako txerriak erreta jaten zituzten basoan.

780. Erregenetako eta Urtebarriko kantan (AMO-122/011)

Erregenetan "Erregen erregen, kinbilintañe..." kantatzen zuten. Orduan ere zeozertxo ematen zieten etxeetan. Lehenagokoak Urtebarri egunean ere irteten ziren etxerik etxe abestera: "Urtebarri barri, txarri belarri..."

781. "Errabi" eta "aratoste" (AMO-122/012)

Inaureti janzen zenari "errabi" esaten zioten, "errabi jantzi". Tostadak jateko egunari, osterara, aratuste, "aratoste", esaten zioten. Kandelaria egunean ere tostadak jaten zituzten eta kandelak eta janak elizan bedeinkatu.

782. San Blaseko kordioa eztulik ez edukitzeko (AMO-122/013)

San Blaseko kordioa bedeinkatu egiten zuten eta Ave Mariak errezatzen zizkieten eztulik ez edukitzeko. Amamak laranjak ere erosten zituen bedeinkatzeko.

783. Errespetu handia osaba pasionistari (AMO-122/014)

Osaba pasionistari errespetu handia zioten. Etxera etortzen zenean muin egiten zioten eskuan, baita bere amak ere. Aparteko kopa bat jartzen zioten mahaian, Jainkoaren ordezkia zela eta.

784. Aparteko jatekoa Gabonetan eta domeketan (AMO-122/015)

Gabonetan ardoa edukitzen zuten eta jateko bereziak: olio-aza, bakailaoa bizkaitar erara edo artxoa. Domeketan ere aparteko zeozer jaten zuten. Astegunetan, osterara, beti prestatzen zuten baba-lapikoa eta gauetan porru-salda.

785. Gabonetan ogia bedeinkatu (AMO-122/016)

Gabonetan, gurutzea egiten zioten ogiari, hasi barik zegoela, musua eman eta kuskurra godetzen zuten. Gaixorik zegoenari untzioa emateko izaten zen ogi kuzkur hori. Horrelako sineskera asko zegoen lehen.

786. Larreako fraideen Garizumako sermoi gogorak (AMO-122/018)

Garizuman misioak egiten zituzten Larreako fraideek. Herritarrek ikaratu egiten zituzten euren sermoietako ifernu kontuekin. Larrean fraide asko zegoen orduan, baita gipuzkoarrak ere. Sarritan ikusten zituzten fraide nobizioak goizean goiz, kandelak eskuetan zituztela, errezatzen. Gauerdian ere altxatzen ziren errezuak egitera.

787. Ardoa gutxi baina tabakorri asko (AMO-122/022)

Santik hamabost bat urte zituela hasi ziren etxean egunero ardo apur bat edaten. Kantara erdiko garrafoiarekin bialtzen zuten Zornotzara ardoa

ekartzera. Tabakorria, osteria, zenbat-gura egoten zen orduan. Estankoan erosten zuten, baina gerra ostean errazionamenduan egon zen eta estraperloan erosi behar izaten zuten.

788. Ogia eta "labaigarra" etxeko labean (AMO-122/023)

Egun birik bat ogia saltzen etortzen ziren auzora. Astoz ekartzen zuten. Lehenago, etxeko labean egiten zuten ogia eta baita artoa ihartu ere, "labaigarra". Uruna zorroetan ekartzen zuten errotatik eta gero kaxetan gordetzen zuten urte guztirako.

789. Txitxarroak erosten zituzten plazan (AMO-122/024)

Auzoetara ez zen arrain saltzailerik joaten, plazan erosi behar izaten zieten bermeotarrei. Txitxarroa erosten zuten orduan, merkea zen eta. Etxeko jeneroekin konpontzen ziren: untxiak, arrautzak... Hala ere, arrautza gutxi jaten zuten, saldu egiten zituzten eta. Ez zuten trukerik egiten.

790. Arropak garbitzea, "bogadia egin" (AMO-122/026)

Santi ere ibili izan da arropak garbitzen: Chinborekin balde zabalean, "zine", garbitu eta gero Solagureneco iturrian jaboia kentzen zioten. Izarak hamabostean behin garbitzen zituzten. Satiren aurrekoek bokata egiten zuten, "bogadia": arropak jaboiarekin garbitu eta gero surtako hautsarekin zuritu.

791. Errekara bainua hartzen eta karramarrotan (AMO-122/030)

Mutiko berdingoak errekarara joaten ziren, inguruko putzuetara. Sarritan, frutak ere lapurtzen zituzten putzu inguruetan. Biluzik bainatzen ziren, baina urak hotzak izaten ziren. Karramarro asko zegoen orduan eta etxean jateko harrapatzen zituzten.

792. Tiragomak eta goitibeherak (AMO-122/031)

Etxean egiten zituzten tiragomak eta gotibeherak. Behin, kolpe itzela hartu zuen lehengusuak goitibeheran zihoala. Txori-txikien atzetik ibiltzen ziren tiragomarekin: txindorrak eta elaiak, "elareak". Baina bekatua ei zen elaei tiratzea. Fruta lapurretan ere ibiltzen ziren orduan mutikoak.

793. Jolasak: txapak, "kastorrien", futbola eta osten-ostenka (AMO-122/032)

Txapara edo "kastorrien" jolasten zuten orduan. Azken jolas honen helburua mugatutako eremutik ahalik eta intxaur gehien ateratzea zen. Lemoan futbolean egiten zuten gehiago eta baita osten-ostenka ere.

794. Eskola gutxi zeukaten lehen (AMO-122/034)

Anaia eta bera ez ziren ondo konpontzen erdaraz. Zatiketak egiten hasi zirenean utzi zuen eskola Santik, hamaika urte zituela. Beti nabaritu izan du eskola falta, nahiz eta zekienarekin ondo konpondu izan.

795. Aitita Etxanoko idazkari (AMO-123/001)

Aita Etxanoko eskolara joan zen umetan eta bere aita, aitita, Etxanoko idazkaria izan zen. Madrilen egon ei zen morroi eta bertan erdaraz ikasi zuelako jarri ei zuten Etxanon idazkari. Hilean pezeta bat irabazten zuen erretiratu zenean. Aitak soldadu joan behar izan zuen aititak pentsioa galdu ez zezan.

796. Kontakizuna: abadea, sakristaua eta bildotsa (AMO-123/003)

Gorozikako abadeak sakristaua bidali ei zuen basora bildots baten bila. Sakristaua agertu ez eta abadea meza esaten hasi zen. Bat-batean sakristaua mezara sartu eta meza erdian zeudela abadea eta sakristaua bata besteari kantatzen hasi ziren. Zaharrei entzundako kontakizuna dau hau.

797. "Obabatxue lo ta lo" (AMO-123/005)

Umeak lokartzeko horrela kantatzen zuten: "Obabatxue lo ta lo, zeuk orain eta neuk gero, zeuk gure dozun orduen baten bixok egingu lo ta lo. Beste batzuk hasieran "Obabatxue lo egidazu" kantatzen dute.

798. Enbeitaren bertsoa (AMO-123/006)

Enbeitaren bertsoak kantatzen ditu Santik: "Natusalen baiñago zaharrago dan behixe, trabes ipintzen deustak gaur neuri begixe..."

799. Izeko etxean bakarrik gerra sasoian (AMO-123/008)

Bakarrik gelditu zen izeko gerra sasoian, auzoan ere bakarrik. Behin, milizianoz bete zitzaion etxea, baina berak berdin-berdin egin zuen lo etxean. Hurrengo egunean, Etxanotik etxera zihoala, soldaduek hartu egin zuten eta arerioa zela pentsatu zuten boltsiloan 'Chocolates Bilbainos' zeramalak. Frontea egon zen sasoi horretan Etxano inguruan.

800. Bala-zorroak batu eta saldu (AMO-123/010)

Behin, obus bat lehertu zitzaion mutiko bati eta eskua galdu zuen. Orduan, mutikoak goiko haitzetara joaten ziren bala-zorroak, "kaskilluek", batzen gero saltzeko. Behin, Joxeperen tabernan hartu zuten askaria bala-zorroak saltzen irabazi zuten diruarekin.

801. Hildakoak Etxanora eramateko andabidea (AMO-123/011)

Auzoan baten bat hiltzen zenean, Etxanora eraman behar izaten zuten gorpua. Andabidea zegoen horretarako eta andariak izaten ziren gorpua lepoan eramaten zutenak. Bidea egin zutenean, aldatu egin zen andabidea.

802. "Errogixe" (AMO-123/012)

Etxeko baten bat hiltzen zenean, domeka guztietan joan behar izaten zuten sepulturagaz Etxanora. Hildakoa kanposantura eramaten zutenean, emakume bat joaten zen aurretik ogiagaz. "Errogixe" esaten zioten.

803. Gazterik morroi (AMO-124/003)

Maumako (Ibarruri-Muxika) Poto baserriko semeagaz umetatik aritu zen beharrean. 14 urte zituela etxekoak Etxanora joan ziren bizitzen, baina bera

13 urte zituenetik morroi lanetan aritu zen Oromiñon bertan zein Muniketan.

804. Morroi 30 ogerleko eta mantenuaren truke (AMO-124/005)

Auzoko batzuen etxean egon zen lehen aldiz morroi. Oso ondo zaintzen zuten, ondo jaten zuen bertan. 15 hilabetez egon zen bertan. Oilotokia etxetik kilometro batera zuten eta egunean hiru joan-etorri egiten zituen. Zortzi arroako txerria hiltzen zuten jateko, (arroa 1= 12.5 kg). Hamabost hilabeteko lana 30 ogerleko eta mantenuaren truke. Dirua etxerakoa zen, ez beretzat.

805. Hamar urtegaz lanera (AMO-124/011)

Hamar urterekin utzi zuen eskola eta pintxe lanetan hasi zen basoko beharretan zebiltzane laguntzen. Irabazitako dirua amari ematen zion.

806. Aitagaz ikazkin (AMO-124/013)

Aita ikazkintzan aritzen zen eta Daniel berari laguntzen. Txondorra zelan bete behar den azaltzen du. Ikatza egiteko denetariko egurra erabiltzen zuten. Ondo tapatzea da garrantzitsua.

807. Ikatza belakiagaz atera (AMO-124/015)

Hiru-lau lagun egoten ziren ikatza egiten. Gurdian kargatu eta Durangora eroaten zuten saltzera. Udagoienez (udazkenean) egiten zuten. Ikatzak egosi egin behar du. Belaikiarekin ateratzen zuten ikatza. Belakiak Danielek berak egiten zituen tailerrean.

808. Iurretako alkateari harrera eskolan (AMO-124/019)

Irakurtzeko zaletasuna izan du betidanik. Oromiñoko (Iurretako) eskolan ibili zenean, herriko alkatea eskolara joan zenean berak prestatu zuen harrerako hitzaldia.

809. Somatena (AMO-124/027)

Eskolako maistraren neba somatena zen, monarkiaren aldeko polizia zibila.

810. Gerran faxistekin bat egin behar (AMO-124/029)

Soldadutza egitera Lizarrara joan zen, errepublikako soldadu bezala. Baina gerra hasi zenean, faxisten aldera joan behar izan zen. Gorrien aldeko asko ere hartu eta Francoren aldekoengana eroan zituzten.

811. Gerrako lagun batzuk Zornotzan (AMO-124/031)

Gerran Francoren aldeko tropekin borrokatu behar izan zuen. Beraien konpainiako batzuk Zornotzako txalet batean egon ziren egun batzuetan.

812. Soldadutzan sukar paludikoak jota (AMO-124/033)

Gerran Segoviako La Granja de San Ildefonso egon zen. Sukar paludikoak jota egon zen. Orduan bizitakoak kontatzen ditu.

813. Gerran hiltzeko beldurrez (AMO-124/034)

Gerran Segoviako La Granja de San Ildefonso gaixorik egon zen eta gero handik beste leku batera joan zen. Han txarto pasatu zuten, hiltzeko beldurra ere izan zuten.

814. Osaba topatu zuen langile-batailoian (AMO-124/035)

Gerran borrokan zebilela, bere osaba Julian, aitaren anaia gazteena, topatu zuen langile-batailoian. Osabagaz batera Arratiako beste preso bat ere egon zen.

815. Arratoi piloa gerran (AMO-124/039)

Gerran zikinkeria asko zegoen. arratoi asko zeuden eta behin arratoi batek ia belarrian egin zion haginka. Patata-zakuak ere osorik jaten zituzten arratoiek.

816. Gerra bukaera eta etxera (AMO-124/041)

Gerra bukatu zenean, Madrilen egon zen soldadu eta handik Asturiasera joan ziren. Uztailaren 4 batean, Santanderrera joan eta zer bazkaldu zuten gogoan du. Balde handi batean garbitu ziren. Bertatik etorri ziren etxera lizentziatuta.

817. Gerran postari (AMO-124/043)

Gerran postari lanetan ibili zen. Etxebarritik Debara joan behar izaten zen. Denda batera ere joaten zen eta orduan bisitakoak gogoratzen ditu.

818. Kontserba fabrikan lanean (AMO-125/009)

Gerra ostean, beharra egin eta beharra egin aritu zen. Kontserba fabrikan hasi zen; zehaztasunez lan egiten zuten.

819. San Juan bezperako kanta errezitatuta (AMO-125/018)

San Juan bezperako kanta errezitatzen du.

820. Gabonetan ogi bedeinkatu zatia gorde (AMO-125/021)

Gabonetan ogi bedeinkatu zati bat gorde egiten zuten, eta txakur amorratuari emoten zieten.

821. Nesketan ermitetako erromerietan (AMO-126/001)

Gaztetan, sarritan joaten ziren ermitetako jaietara: Gorozikako Andra Mari eguneko erromeria, Oizeko San Kristobal egunera, Santa Eufemiara eta Urkiolara, besteak beste. Horrelako egunetan, neskekin batzen ziren dantzan egiteko.

822. Andrea San Martingo erromerian ezagutu (AMO-126/006)

Auzoko batekin ezkondu zen Agustin. Garagarrileko (uztaileko) lehenengo domekan ezagutu zuen bere andrea izango zena, baina San Martin ermitako erromerian eskatu zion lehenengoz elkarrekin dantza egiteko. Orduan neskak bildur izaten ziren mutilari musu emateko edo ukitzeko.

823. Abadeak sexuari buruz galdetu (AMO-126/007)

Abadeek dena galdetzen zuten konfesatzera joaten zirenean. Aste Santuan misioak egiten ziren orduan. Behin, konfesatzera joan zen Agustin eta abadea sexuari buruz galdetzen hasi zitzaion.

824. Ondo jantzita erromerietara (AMO-126/010)

Karmenetakoak izaten ziren erromeriarik handienak. Basoko erromerien artean, Belatxikietakoa, Oizkoa, Santa Eufemiakoa eta Gorbeiakoa izaten ziren gustuekoenak. Arroparik onena janzten zuten erromeriarira joateko eta baita bizarra moztu ere.

825. Gorputzaren garbi-ikuzia (AMO-126/011)

Trajetro bat edukitzen zuten domeketan janzteko. Udan, beharrak egin ostean, errekan garbitzen zuten gorputza. Neskek, ostera, balde nagusiak erabiltzen zituzten gorputzeko garbi-ikuzia egiteko.

826. Udan erre kara arrantzan (AMO-126/012)

Udan erre kara joaten ziren bainatzera. Karramarro, ezkailu eta arrankari ugari hartzen zuten Etxanoko errekan. Karramarroak eskuz harrapatzen zituzten eta ezkailuak eta arrankariak sareekin.

827. Ekaitza eta oinaztuak (AMO-126/014)

Behin oinaztu batek jo zuen Oromiñoko etxean. Beste baten ere ikusi izan du Agustinek, morroi egon zen etxean hain zuzen. Ekaitza sumatzen zutenean, kandela bedeinkatuak pizten zituzten eta erreztatzen hasten ziren. Abadeak kanpaiak jotzen zituten ekaitza zetorrenean.

828. Baso erromerietako tabernak (AMO-126/016)

Baso erromerietan taberna modukoak jartzen zituzten eta gurdiz eraman behar izaten zituzten piezak bertan montatzeko. Etxanon, Goriaren tabernara joaten ziren meza ostean. "Sol y sombra" eta gailetak hartzen zituzten meza ostean.

829. Zinemara neskarekin (AMO-126/017)

Zornotzan, parrokiari eduki zuten zinema bat eta zubi ondoan beste bat. Zuri-beltzean izaten ziren pelikulak. Orduan, mutilek ordaindu behar izaten zieten neskei zinemarako sarrera. Ezin izaten zuten neskarekin tabernara joan, bekatua zen eta.

830. Emakumeek ez erre ezta prakarik jantzi ere (AMO-126/018)

Neska gutxi ikusten zen erretzen, eta baten bat ikusiz gero "pute zahar bat" zela esaten zuten. Emakumea prakekin janztea ere txarto ikusten zuten orduan. Garai hartan, militarrek eta elizak mugitzen zuten gizartea.

831. Dotrinara eskola baino garrantzitsuagoa (AMO-126/019)

Eskolara joan behar zutenean, beti zegoen beharren bat etxean egiteko; baina dotrinara joateko ez, derrigorrez joan behar izaten zuten.

832. Irratia eta egunkariak (AMO-126/020)

1960. urte inguruan ekarri zuten lehenengo irratia etxera. Piladuna izan zen, ez zeukaten argindarrrik eta. Irratian partiduak eta arrosaioa entzuten zituzten. Egunkaria beti egon izan da, baina lantzean behin baino ez zuten erosten.

833. 1970. urtean lehenengo kotxea erosi (AMO-126/022)

1970. urtean bidea egiten zuten auzoan eta orduan erosi zuen kotxea Agustinek. 86 mila pezeta ordaindu zuen kotxea orduan, "seiscientosa". Auzoko lehenengo kotxea izan zen.

834. Lagunekin hiketan eta abadeari berori (AMO-126/024)

Familian ez zuten inoiz hiketan egiten, baina beste familia batzutean neba-arrebek sarritan egiten dute. Agustinek lagunekin baino ez du egin. Abadearekin, oster, berorika egiten zuten eta txapela ere kentzen zuten errespetu seinale. Medikuari eta udaletxeko langileei ere errespetu handia edukitzen zieten.

835. Lo kantak (AMO-126/026)

Umeek loak hartzeko kantak: "Obabatxue lo ta lo, zeuk orain eta neuk gero..." eta "Aititte dala tutulunberde, amama dala masuste..."

836. Eskola eta maistra partikularrak (AMO-127/003)

Sei urte zituela hasi zen Emilio eskolan. Behin, txizalarri zen eta maisuak ez zion komunera joateko baimenik eman. Bertan egin zuen txiza, mahaiaren kontra. Eskolan ez zuela ezer ikasten ikusi zuten gurasoek eta maistra birengana bidali zuten, 'Kojo'-ren taberna aurrera. Ostean, Larreako fraideengana bidali zuten gurasoek.

837. Larreako fraideen eskola (AMO-127/004)

Emilio kanpoko ikaslea zen fraideetan, baina barruko ikasle asko zegoen bertan. Gero, beste eraikin batera eraman zituzten barruko ikasleok, Zornotzara, eta kanpokoak baino ez ziren geratu Larrean. Maisu bi eduki zituzten eskolan: Aita Ramon eta Aita Leon. Gustura ibiltzen ziren fraideekin, nahiz eta lantzean behin zigorrak jaso.

838. Garrantzi handia garbitasunari eskolan (AMO-127/005)

"Urbanidad e higiene" izeneko ikasgaia zeukaten fraideekin eta egunero begiratzen zuten ikasleak garbi zetozen edo ez.

839. Francoren aurkako tropak Larrean (AMO-127/008)

Gerra sasoian, Larreako fraide bat fusilatu zuten, gorozikarra: Aita Roman. Bertan hil zuten, Larreako komentuko hormaren kontra. Larrean Francoren kontrako tropa asko egon zen, ANVkoak esaterako. Francotarren aurka borroka gogorra eduki zuten hauek Pajares inguruan.

840. Fusilaketak Larreako komentuan (AMO-127/009)

Komentuan abertzale batailoi asko egon zen. Erreketeak bertara sartu, eta komentuan bertan fusilatu zituzten hainbat abertzale.

841. Gerran etxetik irten beharra (AMO-127/010)

Bonbardeoa orduko alde egin zuen Emilioren familiak etxetik Apariñora. Orduan, CNT eta antzeko taldeak ibiltzen ziren etxetik etxe barruan zegoen guztia lapurtzen. Istiluak sortzen ziren sarritan eta horregatik Apariñotik ere irten egin behar izan zuten.

842. Artzentalesen gerra sasoian (AMO-127/011)

Lehenengo Bilbon egon ziren, gero Turtziozen, ostean Villaverden eta azkenik Artzentaletako baserri batean. Egunero joan behar izaten zuen Emiliok Turtziozera jatekoen bila. Mendirik mendi ibiltzen zen, oraindik lainoa kendu barik zegoenean. Behin, Artzentalesen zeudela, bonbak jaurti zizkieten etxe gainera.

843. Egunero bonbardaketak (AMO-127/012)

Turtziozera zihoala, txori-habia bat ikustera gelditu zen bidean. Orduantxe hasi ziren Turtzioz bonbardatzen. Txori-habia ikustera joan zelako ez zuen bonbardaketak harrapatu. Egunero botatzen zituzten bonbak: goizeko bederatzietan hegazkin bat pasatzen zen ikuskatzera eta arratsaldean gainontzekoak agertzen ziren bonbak botatzera.

844. Durangoko bonbardaketa (AMO-127/013)

Durangoko bonbardaketa ikaragarria izan zen. Goizeko zortziak aldera hasi ziren bonbak botatzen. Dena ikusi zuen Emiliok etxetik. Gernikakoa baino gogorragoa izan zen. Durangon jende piloa batzen zen, Ezkurdin, eta hildako asko egon zen egun hartan.

845. Lehenengoz Larrean bonbak ikusi zituenekoa (AMO-127/014)

Gerra hasi zenean, izekorenean egon zen Emilio, tabernan laguntzen. Behin, Villasanteko familiak behorrekin bidali zuen Emilio Ergoieneko etxe batera bitxiak eramatera. Bidean zihoala, Larrea gainean hegazkin bi bonba bi botatzen ikusi zituen. Orduan ikusi zituen bonbak lehenengoz.

846. Francoren armada Artzentalesen sartu zenekoa (AMO-127/015)

Abertzaleek ituna sinatu zuten italiarrekin eta euren burua entregatu egin zuten. Orduan, Artzentaletatik alde egin zuten abertzaleek, baina Francotarrak ez ziren sartzera ausartzen. Herriko andre batek joan behar izan zuen euren bila. Beorlegi koronela zegoen euren artean.

847. Izeko lapurtzat hartu zuten gerra ostean (AMO-127/016)

Gerratik bueltatu zirenean, izekoren taberna apurtuta topatu zuten. Istilu asko zegoen orduan. Izekok, esaterako, jertse bat aurkitu eta mutiko bati eman zion. Izeko lapurtzat hartu zuten orduan eta beste lapurreta batzuk egotzi zizkieten. Kartzelara eraman zuten eta hiru hilabete hil zen, disgustuaren disgustuaz.

848. Gerratik bueltan etxea hutsik (AMO-127/017)

Artzentalesetik bueltatu zirenean, etxean erlojua eta kaxa bat baino ez zuten topatu. Bizimodua hutsetik hasi behar izan zuten. Urrian eskolara hasi zen Emilio, baina hilabete bi baino ez zituen egin.

849. Domeketan ardo zuria (AMO-128/002)

Ardo beltza edaten zen. Domeka goizetan ardo zuria edaten zuten; dendak irekita egoten ziren, jende asko joaten zelako Amorebietara inguruko herrietatik. Zela janzten ziren kontatzen du. Tabernan gertaturiko pasarte bat kontatzen du.

850. Santanatxu egunez (AMO-128/003)

Kostaldetik etorrira, arraina banatzen zuten goizetan. Santanatxu egun batez, sei banda aritu ziren jotzen eta jotzen jarraitu zezaten, oilaskoa eta txanpaina jan eman zizkieten. Gisasola apaizari buruzkoak kontatzen ditu.

851. Santanatxu egunez mozorrotzea (AMO-128/006)

Santanatxu egunez beraiek hasi ziren mozorrotzen. Kortxoa erre eta aurpegia zikintzen zuten.

852. Santa Ageda eskea eta txitxiburduntzia (AMO-128/010)

Santa Ageda eskean ibiltzen ziren baserrietan eta janaria ematen zieten. Txitxiburduntzia egiten zuten mendian neska-mutilek. Gero, auzoko tabernan egoten ziren; tarteka han afaltzen zuten.

853. Larreako kantariak (AMO-128/011)

Larrean kantari onak izan direla dio. Emakumeen izenak aipatzen ditu. Meza Nagusian abesten zuten gizonezkoak aipatzen ditu.

854. Larreako fraideak (AMO-128/012)

Gerra garaian frontoirik gabe geratu zirenez, fraideengana joaten ziren pilotan jokatzera. Larreako konbentuan ez zuten haragirik jaten.

855. San Juan bezperako erritua (AMO-128/020)

San Juan bezperan soroak babesteko araoak egiten zituzten.

856. Gabonetan, meza ostean dantzaldia errotan (AMO-128/021)

Gabonetan, meza entzun ostean, Ugarteko errotan dantzaldia egiten zuten gazteek. Goizaldean txokolatea jaten zuten. Errotako erreka beraiek garbitzen zuten eta ondoren bazkaria egiten zuten.

857. Laidara ebakuatuta (AMO-129/006)

Gerra garaian, Durango bonbardatu eta gero, Laidara (Ibarrangelu) joan ziren ebakuatuta. Josebe, hilabete gutxitako haurra, gaixorik egon zen eta "txoridxene" medikuagaz joan zen kotxean Zornotzaraino. Hurrengo egunean, beraien aita-eta gurdian joan ziren ganadu eta guzti. Zornotzan danak batu ziren. Amama eta ama, osteria, oinez joan ziren. Beraien aita han lan egindakoa zen, hargina baitzen. Laidatik Akorda auzora joan ziren gero.

858. Gerrako ebakuazioan txakurra etxeko zaindari (AMO-129/007)

Gerra Zibilean, Laidan (Ibarrangelu) ebakuatuta zeudela, bertako hondartzara joaten ziren, baina bainu-jantzia zer den ere ez zekiten. Laidako tabernako gizona beraien auzokoa zen, bertako batekin ezkondata zegoena. Beraien etxea, tarte horretan, hutsik zegoen, txakurra baino ez zen geratu.

859. CNTkoak eta soldaduak etxean (AMO-129/008)

Gerra garaian etxetik kanpo egon ziren ebakuatuta. CNTkoak egon ziren beraien etxean eta hainbat soldadu egon ziren. etxera bueltatu zirenean ere han jarraitu zuten oraindik.

860. Txosna: Zornotzako taberna zaharrenetarikoa (AMO-129/009)

Beraien etxeko taberna Zornotzako zaharrenetarikoa izan zen. Beraien amaren aldeko aititak zabaldu zuen taberna. Lehenagoko taberna kapera ondoan zegoen, oholezko etxetxo batean. Hortik datorkio etxeari izena: Txosna. Etxe berria gerora egin zuten. Beraien etxeak berez, paperetan, beste izen bat du.

861. Karta-jokoan ardoa nagusi (AMO-129/014)

Tabernan batez ere ardoa edaten zen. Txikiteoko basoak bereziak ziren. Gizonezkoek karta-jokoko partida bakoitzeko ardo-botila bat edaten zuten.

862. Tabernara doan andreak fama txarra (AMO-129/015)

Andrazkoak ez ziren tabernara ailegatzen. Tabernara sartzen zen emakumeak ospe txarra irabazten zuen eta horrela klasifikatzen zuten. Andrazkoak etxean egon behar izaten zuen beharrak egiten. Paper-lantegiko beharginak beraien tabernara joaten ziren jaten.

863. Paper-lantegikoen anekdotak (AMO-129/017)

Paper-lantegiko beharginak beraien tabernara joaten ziren jaten eta lantegiak ordaintzen zien. Langileekin bizi izandako hainbat anekdota kontatzen zituzten.

864. Paper-lantegiko konfesatokia (AMO-129/018)

Paper-lantegikoak mezara joan behar izaten ziren eta konfesatokia ere bazuten. Josebe ere bertara joan zen behin eta ordukoak dakartza gogora.

865. Abadeen galdera zorrotzak konfesatzerakoan (AMO-129/020)

Milak dio abadeek ez dutela edozer galdetzen, baina Josebek dio berari don Florentinok ez ziola aurpegira ere begiratzen berari galdetu zizkiolako. Batzuk konfesatokitik irten eta gehiago ez zirela konfesatuko esaten zuten. Mila ezkongabea zen eta berari ez zizkieten holako galderarik egiten. Josebe ezkondu eta gero Zornotzara joaten zen.

866. Eskolara oinez eta ogitartekoagaz (AMO-129/023)

Bernagoitiko mezara eta eskolara oinez joaten ziren. Eskola garaian beraien eroaten zuten jatekoa, beti ogitartekoa. Etxean egin zuten ogia taloarekin trukatzeko zuten beste batzuekin. Ez zuten jatekoa non berotu eta ogitartekoagaz konformatu behar. Iturria eskolako atzeko aldea zuten.

867. Kulero barik ohituta (AMO-129/025)

Josebe Bernagoitiko eskolatik Amezetakora (Iurreta) joan zen hurrago zegoelako. Bernagoitirako aldatza igotzerakoan, askotan Josebek eta lehengusinak kuleroak kentzen zituzten ohituta zeuden kulero barik ibiltzera-eta. Gizon batzuek umeak kulero barik ikusten zituztenean denen bistan jartzen zituzten; hori gertatu aurretik, denek jantzen zituzten arin-arin.

868. Kanpaia entzundakoan mezara (AMO-129/027)

Bernagoitiko mezara lehenengo kanpaia entzun eta gero joaten ziren oinez. Hijas de María kongregazioko kideak ziren. Don Pedro abadeak "sobrinas del diablo" zirela esaten zien. Leku guztietara joan behar izaten ziren oinez eta edozein oinetako erabiltzen zuten, abarkak, abarketak zein zapatak.

869. Bizikletaz errekaduak egiten (AMO-129/029)

Iurretara eta Durangora bizikletan joaten ziren errekaduak egiten. San Antonio auzoko zazpietako mezara edo Zornotzakora bizikletaz joaten ziren.

870. Goizeko mezan lo eta baraurik (AMO-129/030)

Goizeko zazpietako mezatan askok lo egiten zuten, goizean goizetik altxatzen ziren-eta. Zornotzako elizara bederatziurrenetan joaten ziren eta Euban tren hartuta joaten ziren. Meza ostean gosaltzen zuten, baraurik joan behar izaten zuten-eta; urik ere ezin izaten zuten hartu.

871. Guardia zibilak tabernara sinadura eskatzera (AMO-130/002)

La egunero edukitzen zituzten guardia zibilak tabernan. Zornotzatik Oromiñora egiten zuten egunero eta sinadura eskatu behar izaten zuten eurenean, bertatik pasatu direla frogatzeko. Guardia zibil bati pasatutakoa kontatzen du: ezkontuta zegoela ezkutatu guran, eraztuna baba-lapikora jausi ei zitzaion.

872. Erreka zaborrez beterik (AMO-130/006)

Bitsa zegoen errekan paper-fabrikaren ondorioz. Orduan ere ekologistak protestak egiten ibiltzen ziren. Eurek ere erreka botatzen zuten etxeko zaborra, baina orain baino askoz zabor gutxiago sortzen zuten. Egunkariko orriak, esaterako, ipurdia garbitzeko erabiltzen zituzten.

873. Zorriak sarri (AMO-130/007)

Euren amak ez zuen ilea garbitzen, orraziagaz pasatzen zuen eta "brillantina" deitzen ziotena botatzen zuen. Zorriak sarri edukitzen zituzten lehen eta bata besteari kentzen ibiltzen ziren.

874. Domeka goizetan bata besteri ilea orrazten (AMO-130/008)

Erreka aldean zegoen landa eder batean batzen ziren gazteak erromeriara joan aurretik. Domeka goizetan bata besteri ilea orrazten ibiltzen ziren inguruko neskatilak. Ondak egiteko markadorak edukitzen zituzten orduan. Ile-apaindegira joatekotan, Zornotzara edo Durangora joaten ziren.

875. Nola apaintzen ziren (AMO-130/009)

Aurpegia zuritu egiten zuten, pintatzen zutenean. Orduan ez zuten azal beltzik nahi izaten, eta horregatik manga luzea janzten zuten soroan beharrear ibiltzen zirenean. Rimela ere edukitzen zuten, koloretea eta ezpainetakoak. Depilatzeko, ostera, bizarra kentzeko makina erabiltzen zuten.

876. Prakak eta gonak (AMO-130/011)

Milak gona eta kankana janzten zuen gaztetan. Gero prakak janzten hasi zen, orain berrogeitaka urte. Behin, bizikletan zihoala zaparrada hasi, arropa busti eta laburtu egin zitzaion. Gona labur zuela joan behar izan zuen udaletxera.

877. Ameriketara joandako lehenengo artzainak (AMO-130/013)

Ameriketatik bidaltzen zieten arropa, bertan euren izeko zegoen eta. Euren osabaren aita Euskal Herritik joandako lehenengotariko artzaina izan zen: Jose Ugarriza, 'Sendotxu'. Gero, hotela eduki zuten bertan.

878. Tabernan zahagiak, botilak eta pitxerrak (AMO-130/015)

Euren tabernan ardoa botiletan edo pitxerretan ateratzen zuten. Etxera eramateko ere botilak betetzen zituzten zahagitik. Umeek zahagiekin jolasten zuten, leku batetik bestera eramaten.

879. Egunkari orriak eta arto-kapaxak erre (AMO-130/017)

Egunkari orriak batu eta erre egiten zituzten, jolasten. Arto-kapaxak ere erretzen zituzten. Inguruan tabakoa erein ere egiten zuten, gerra ostean batez ere. Garbantz modukoak ere ereiten ziren sasoi hartan, baina ez zen asko batzen.

880. Jaboi eta txikoria fabrikak auzoan (AMO-130/018)

Bernako baserriak Bernako Markesarenak ziren eta Orue auzokoak Oruerenak. Andreek zakuekin egiten zituzten arropak, tindatu eta josi. Auzoan xaboa egiten zuten lehen, baina gero itxi eta txikoria fabrika jarri zuten. Baserrietan ereiten zuten txikoria eta gero fabrikako labeetan txigortzen zuten.

881. Txikoria landareak (AMO-130/020)

Txikoria erein egiten da, mehaztu eta jorratu. Erremolatxaren antzeko landarea da, zuria eta orri berdeekin. Auzoko fabrian erretzen zuten eta gero birrindu. Udagoienean ateratzen da txikoria landarea. Josebek ez du ezagutu auzoko txikoria fabrika, baina Milak ostera bai. Durangon egon zen gero txikoria fabrika.

882. Garbantzua, kafea eta tabakoa etxean erein (AMO-130/021)

Garbantzua babaren moduan ereiten zuten. Kafea ere erein izan dute inoiz, baina ez zen asko hartzen. Tabakoa, oster, etxerako nahikoa hartzen zuten. Tabakorria heltzen zenean moztu eta sikatzen jartzen zuten. Gero txikitu egiten zuten eta pipan erre. Sasoi batean galarazi egin zuten tabakoa ereitea eta ezkutuan jartzen zuten.

883. Zergak (AMO-130/022)

Durangotik ekartzen zuten ardoa tabernara eta zerga ordaindu egin behar izaten zuten herri batetik bestera pasatzen zirenean. Oromiñoko bidean zegoen fielatoa, katea. Etxeko abereak hiltzen zituztenean, oiloak izan ezik, ere zerga ordaindu behar izaten zuten.

884. Txerria ilberrian edo ilbeheran hil (AMO-130/024)

Txerria ilberrian hilez gero, okelak ur gehiago edukitzen ei du; ilbeheran, oster, sikuago egoten da. Batzuek, hala ere, ez diete jaramonik egiten horrelako kontuei.

885. Urteberri eta erregenetako kantak (AMO-131/002)

Urteberritan 'Urtebarri barri, dekenak ez dekenari...' kantatzen zuten eta erregenetan 'Erregen, erregen, kimeletañe...'

886. Umeei zenbakiak irakasteko kanta (AMO-131/003)

Honela kantatzen die Milak umei: "hiru te hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi..."

887. San Juan kanta (AMO-131/009)

San Juan bezperan 'San Juan, San Juan Doniandres, gure soluen lapurrik ez...' abesten zuten.

888. Basokoipetsu garizuma aurreko domekan (AMO-131/012)

Basokoipetsu ospatzeko, basora joaten ziren eta bertan sua egin eta urdaia eta txorizoa erretzen zituzten. Orain etxean ospatzen dute. Garizuma baino aurreragoko domekan egiten dute.

889. Aratusteetan tostadak eta 'koko jantzi' (AMO-131/013)

Aratusteetan tostadak prestatzen zituzten. Mozorrotu ere egiten zuten, 'koko jantzi'. Hala ere, sasoi batean debekatuta egon zen mozorrotzea.

890. Eguen Zuri batzen (AMO-131/014)

Eguen Zuri egunean etxerik etxe abesten joaten ziren umeak eta dirua batzen zuten. 'Eguen Zuri honetan, hasi gara gu kantetan...' abesten zuten.

891. Emakumeak 'abendue' kantatzen (AMO-131/016)

Emakumeak gabonetan 'abendue' kantatzen irteten ziren: 'Abendu santu honetan...'

892. Tipula frijitua zaldarrentzat (AMO-131/019)

Zaldarrak kentzeko, tipula frijitua jartzen zuten gainean. Tipulak garbitu egiten ei zuen eta materia aterarazi.

893. San Kristobal egunean Igozera (AMO-131/020)

Oietan irteten ziren zaurientzat ura gatzarekin hartzen zuten. Belarriko minentzat, oster, olio botatzen zuten eta gainera urtero joaten ziren San Kristobalera, Igozera, belarriko minik ez edukitzeko.

894. Berbena belarrak, alborengo belarrak eta karraskila (AMO-131/022)

Berbena belarrak, 'bermeana bedarrak', asko erabiltzen ziren eta baita alborengo belarrak ere, 'pulmonixa bedarrak', katarroaren kontra. Karraskila hartzen zuen amak tentsio altuarentzat. Horrelako zuhaitz gutxi dago eta amak Berrizera joan behar izaten zuen.

895. Liztorraren eta erlearen haginkada (AMO-131/024)

Liztorrak, 'ulebixuek', haginka eginez gero, berakatzarekin igurzten zuten zauria. Erleak behin haginka eginez gero, pertsona horrek ez zuela minbizirik edukiko esaten da.

896. Berakatzaren ura bizioen kontra (AMO-131/026)

Umeek sarri edukitzen zituzten bizioak. Esne asko edaten zuten orduan eta bizioak harekek egiten zituela esaten zuten. Amak berakatzaren ura ematen zien bizioen kontra.

897. Hilerokoa, ezjakintasuna (AMO-131/029)

Hilerokoaren minaren kontra mantzanila edo ginebra tragotxo bat hartzen zuten. Hala ere, pastilla batzuk ere bazeuden. Amak ez zien ezer esaten, baina lagunei entzunda-eta jakin zuten zer zen hilerokoa. Hala ere batzuk ez zuten ezer jakiten eta ikaratu egiten ziren.

898. Haurdunaldiak nabaritu (AMO-131/033)

Hilerokoa falta zitzaienean jakiten zuten haurdun zeudela. Askotan medikuarenera joan ere ez ziren egiten. Ez zegoen modurik bat edo bi zetozen jakiteko. Behiari errez nabaritzen zaie txahal bi dakartzanean, triparen formari begira.

899. Kapiliotxuren ipuina (AMO-131/037)

Kapiliotxuren ipuina kontatu izan diete umeei.

900. Baserriko beharrean umetatik (AMO-132/002)

Baserrian jaio zenez, umetatik hasi behar izan zen beharrean: belarra batu, taloa egin, etxeoandre lanak egin... Domeketan jateko bereziagoa jaten zuten. Hala ere, sekula ez zuten goserik izan.

901. Astoz eta estraperloan errotara (AMO-132/003)

Oromiñoko (lurreta) Erdikoerrotara joaten ziren irin bila. Orduan irina ere estraperloan ekarri behar izaten zuten, txerria hiltzen zutenean egiten zuten moduan. Astoz ibili behar izaten ziren eta ez zuten bide egokirik.

Ezkontzerakoan ez zuela lehen beste behar egingo esan ziren, baina ez zen horrela izan.

902. Eskolara eta arrosariora Bernagoitira (AMO-132/005)

Bernagoitiko eskolara joan zen, baina 13 urtegaz utzi behar izan zuen. Bernagoitira bide luzea zuten eta amarekin erdibidean batzen ziren bazkaria hartzeko. Hijas de Maríakoak ziren eta domeketan Bernagoitiko arrosariora joaten ziren. Arrosarioko anekdota bat kontatzen du.

903. Arratiara bizikletaz; zahagia (AMO-132/006)

Auzokoa eta bera Zeanuriko Ipiñaburura bizikletaz joaten ziren lantzean behin. Beraien etxepean taberna zegoen eta ardoa zahagietan izaten zuten.

904. 16 urtegaz umezain; San Antonioko erromeria (AMO-132/007)

Amamaren etxera joan zen neskame 16 urte zituela eta lehengusinak berak hazi zituen. Domeketak auzokoarengan joaten zen orraztera. Gero, San Antonioko bolalekura joaten ziren Mariano soinularia egoten baitzen han; bertan ezagutu zuen mutil-laguna.

905. Mutilak tabernan eta neskak bakarrik etxera (AMO-132/008)

Erromeria egunetan gizonak askotan tabernan egoten ziren eta mutil-laguna ikusi barik joaten ziren etxera neskak. Durangoko San Antonioetan ere etxera bakarrik bueltatutakoa da. Tabernan askok jarrera lotsabakoa izaten zuten.

906. Goldaketan, gari-jotea... (AMO-132/014)

Goldaketan zelan egiten zuten azaltzen du. Ostean area eta narra pasatzen zen. Gari eta arto asko ereiten zen.

907. Garitik irina lortu arteko prozesua (AMO-132/016)

Garia jotzeko eta garbitzeko makinarekin baserriz baserri ibiltzen ziren gizon batzuk. Gero irina egiteko errotara joaten ziren. Taloak, pamitxak.. egiten zituzten.

908. Pamitxa (AMO-132/017)

Pamitxa zelan egiten zen azaltzen du: taloa bezala baina aputz-aputz eginda. Legamia (lebadura) erosi egiten zuten.

909. Atxurlariaren okindegia (AMO-132/019)

Garia ehotzera Atxurlariarenera joaten ziren. Handik ogia ekartzen zuten.

910. Tranbia eta galdara-fabrika (AMO-132/021)

Auzoan tranbia ere izan zuten. Baina bere amak-eta sarritan, Zornotzara joateko tranbia Bernan hartu beharrean, Eubaraino oinez joaten ziren merkeago zelako. Aitak galdara-lantegian egiten zuen lan, kobrezko galdarak egiten ziren. Bere aitaren aita ere galdara-farikan ibili zen beharrean. Hango lanak azaltzen ditu.

911. Berorika abade eta medikuei (AMO-132/023)

Abadeari eta medikuari elkarrizketa garaian oraindik ere 'berori' egiten diote berba. Gertukoekin ez du hika erabili.

912. Lau azunbreko esne-kantinak (AMO-132/027)

Esne-saltzailearentzat lau bat azunbreko kantinak prestatzen zituzten. Azunbre batek bi litro ditu.

913. "Primera sin tocar"ean aritzeagatik abadearen zigorra (AMO-132/033)

Behin abadeak zigortu egin zituen "Primera sin tocar" jolasean aritu zirelako mutilekin batera. Eskolan, ostera, ez zituzten zigortzen. Bernagoitiko eskolan neskak eta mutilak batera egon ziren. Maistra erdalduna izan zuten. Eskolako materialak aipatzen ditu: lapitza, arbela...

914. San Juan bezperako erritua (AMO-133/002)

Tergalezko arropak eta zapatila zuriak janzten zituzten dotore ibiltzeko. Santi Kurutzera joaten ziren meza entzun eta erromeriara. San Juan bezperako erritua zela egiten duen kontatzen du. Sahatsa, ereinotza eta erramuarekin egiten du gurutzea eta soroan ipini.

915. San Juan bezperako lizarra eta loreak (AMO-133/005)

San Juanetan lizarra eta loreak ipintzen zituen atean. Landareak lehortu eta hurrengo urtean sutan erretzen zituzten.

916. Txikoria ateratzea (AMO-133/010)

Txikoria ateratzen zuten lehen. Prozesuaren azalpena ematen du. Lantegira eramaten zuten gero. Bukatutakoan, bakailaua erreta jaten zuten.

917. Zaintiratuak sendatzeko konjuroa (AMO-133/012)

Bere ahizpak, senarraren izeba bati ikasita, konjuroa egin izan du zaintiratuak sendatzeko.

918. Asuna sendabide (AMO-133/014)

Katarroarentzat asunekin lepoa igurzten zuten. Odola mehetzeko erabiltzen zen asuna.

919. Izeba bat emagin (AMO-133/015)

Bere izeba bat emagin ibiltzen zen. Zelauna (karena) ezin aterata geratu zen bera.

920. Bularra ematea (AMO-133/016)

Gazteenari hiru urtez eman zion bularra. Sorora harria eramaten zioten, bularra eman ziezaion txikiari.

921. Gerrarengatik ihesi Berangora eta aita kartzelara (AMO-133/017)

Berangora joan ziren gerra hasi zenean. Aterpetxeak eraikitzen zituzten, bonbardaketetarako. Aitaren anai bat desargertu zen gerran. Aita kartzelan

izan zuten bolada batez, gerra garaian. Tximeleta beltzak zorte txarra ematen duela kontatzen du.

922. Umetako zigarroak (AMO-133/019)

Neskatila zirenean, kapatxa, artoaren azala, eta arto bizarra erretzen zituzten; egunkaritan batuta ere bai.

923. Amak auzoko bi ume hazi zituen (AMO-133/022)

Hiru ahizpa izan ziren; neba zaharrena hil egin zen. Amak, umea hil zitzaionean, beste bi hazi zituen.

924. Sorginak kateekin (AMO-133/025)

Sorginak kateekin ibiltzen zirela esaten zioten, baina ez dela sinestu behar. Ama birjina agertzen omen zitzaien batzuei.

925. "Ipuin, ipuin, delamanera" kanta (AMO-133/027)

"Ipuin, ipuin, delamanera" kanta abesten du.

926. "Urtebarri barri" kanta (AMO-133/028)

"Urtebarri barri" kanta abesten du.

927. "Erregen erregen kimeletañe" kanta (AMO-133/029)

"Erregen erregen kimeletañe" kanta abesten du, luze.

928. "Abendu santua da ta" kanta (AMO-133/031)

"Abendu santua da ta" abesten du, luze.

929. "Eguen zuri" kanta (AMO-133/032)

"Eguen zuri" abesten du.

930. "San Juan bagillian" kanta (AMO-133/033)

"San Juan bagillian" kanta abesten du.

931. "Arre arre mandoko" kanta (AMO-133/035)

"Arre arre mandoko" kanta abesten du.

932. Umetan umezain eta gosetuta (AMO-134/004)

11 urte inguru zituela, umezain egon zen etxeko aitita harakina zen; hala ere, beretzat ez zuten jatekorik. Baina aitita horretaz jabetu zenean oso ondo hasi zen jaten, ordura arte argalduta eta gosez egon zen-eta. Bertan bizitakoak kontatzen du. Gerraostean, ez zegoen ogirik.

933. Ahizpa zazpi urtegaz umezain (AMO-134/006)

Zazpi neba-arreba izan ziren, laugarrena eta lehen alaba zen Teresa. Berak eta gazteenak egin behar izan zituzten etxeko behar gehienak. Bere ahizpa zazpi urte zituela eroan zuten umezain. Etxe hartan bere ahizpa ez zuten oso ondo tratatzen.

934. Baserriko jeneroa emanarazi (AMO-134/007)

Gerraostean miseria asko bizi izan zituzten. Baserri txikia zen beraiena eta ez zuten denentzako jatekorik. Jeneroa ere herrira entregatu behar izaten zuten: garia, baba... Etxean sobera ez izan arren udaletxera eroan behar izaten zuten.

935. Familia aberatsean ere gose (AMO-134/011)

Areetako (Getxo) hondartza ondoko txalet batean egon zen neskame. Sukaldari lanak ere egiten zituen eta jateko asko kokoz beteta izaten zuten. Nahiz eta etxeakoak aberatsak izan, ez zuten nahi beste jaten.

936. Gosea ezin ase neskame garaian (AMO-134/014)

Areetan (Getxo) neskame egon zen etxean, bere aurretik Arratiako bat egon zen bertan lanean. Gosea zen nagusi etxe hartan. Behin Arratiako horrek zeuden baba guztiak jan zituen; hala ere, ez zen ase.

937. Eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen (AMO-134/017)

Zornotzara umezain joan zenean, eskola partikularrera joan zen, baina hara ere joan-etorri asko egin ei zituen. Gurasoek ere ez zioten garrantzi askorik ematen. Dotrina garrantzitsuagoa zen. Zazpi urterekin egin zuen lehen jaunartzea.

938. Goizeko zazpietako meza (AMO-134/018)

San Antonio auzoko mezara goizeko zazpietan joaten ziren. Galtzu-suziria hartuta argitzen zuten bidea. Lupetz artetik joaten ziren mezara. Geure Jauna hartzeko baraurik joan behar izaten ziren.

939. 17 urterekin Bernagoitira neskame (AMO-134/020)

17 urtegaz Bernagoiti auzora etorri zen. Klean ez zen gustura bizi, neskame garaiak klean egon zen-eta. Oso gustura egon zen Bernagoitin, etxean baino hobeto, sekula ez baitzuen haserrerik ezagutu.

940. Gazte garaiak Bernagoitin (AMO-134/022)

17 urte zituela Bernagoitira etorri zen neskame eta bertan ezagutu zuen bere gizona izango zena. Neska-mutilak batera ibiltzen ziren. San Antonio auzoko bolatokian batzen ziren dantzaldietan. Domekak ziren jaiegun bakarrak.

941. Oinez zein oinez inguruetako herrietara (AMO-134/024)

Karmenetan Zornotzara eta San Antonio egunez Durangora joaten ziren. Oinez edo trenez joaten ziren eta askotan, tarte batzuetan, ortozik, oinetakoak eskuan hartuta. Ez ziren bereziki prestatzen jaietarako. Abelina jostunak josten zizkieten arropak.

942. Idi-uztarria lotzeko zailtasunak (AMO-134/025)

Teresak ez zuen ikasi josten, ez zuen horretarako astirik izan. Lau-bost behi eta idi-uztarria zuten etxean. Idi-uztarria askotan lotu behar izan zuen inoren laguntza barik. Uztarria lotzeko arazoak.

943. Sagarrak saltzen Durangora (AMO-134/026)

Sagar garaian, zapatu eta eguenetan Durangora joaten zen sagarrak saltzera. Astoan eroaten zuen jeneroa. Asto dotorea izan zuen Teresak, txikia eta gogorra. Beste bi andre ere joaten ziren auzotik bertara.

944. Gustura joaten zen errotara (AMO-134/027)

Errotara gauez joaten ziren. Oromiñoraino (lurreta) joaten ziren, bertako Erdikoerrotara. Errotan ere ondo pasatzen zuten, bertako seme-alabak beraien adinekoak ziren-eta.

945. Errotara gauez estraperloan (AMO-134/029)

Errotara gauez joaten ziren, Guardia Zibilak ez harrapatzeko. Errotara heldu eta astoa ezkutatu egiten zuten. Errotariak bertarako eroandako jeneroaren hamarrena-edo kentzen zien. Arkotxaerrotara ere joaten ziren, baina askotan ur gutxi izaten zuten.

946. Estraperlo garaian aguazilarekin kontuz (AMO-134/031)

Gauza asko egoten ziren estraperloan. Eubako Felix aguazilak batzuetan bi bider ordainarazten zien baserritarrei plazako postua. Txerria hiltzerakoan ere kobratu egiten zien eta zati handi bat kentzen zien.

947. Estraperloa dela-eta bizitakoak (AMO-134/032)

Estraperloarekin lotutako istorio bat kontatzen du pasarte honetan.

948. Aguazilak jeneroa kendu (AMO-135/002)

Garai batean, ezin zitekeen herri batetik bestera jeneroa pasatu. Horregatik, aguazila trabiara sartu eta Durangotik zetozenei jeneroa kentzen ibiltzen zen. Behin, amarengana ere joan zen aguazila.

949. Tranbian Durangora eta Bilbora (AMO-135/004)

Tranbiak Durangotik Bilborako bidaia egiten zuen. Teresak Bernan hartzen zuen. San Antonion, Montorren, Euban eta Arriandin ere eduki zituen geltokiak, besteak beste. Inoiz Bilbora ere joaten ziren, erosketaren bat egitera-edo, trenez edo tranbiaz.

950. Gehienetan astoz eta oinez (AMO-135/005)

Trena hartzen zutenean, geltokian bertan erosten zuten txartela. Tranbian, oster, "kobradorie" egoten zen barruan. Gehinetan, oinez edo astoz ibiltzen ziren.

951. Buztarria labrantzarako (AMO-135/007)

Buztarria labrantzarako erabiltzen zuten. Honekin batera, goldea, area eta burdina-area moduko tresnak erabiltzen zituzten. Aurrean baten batek egin behar izaten zuen itaurrean, baina askotan ganaduek beharra eurek bakarrik egiten ikasten zuten.

952. Iretargiari begiratu baserriko beharrak egiteko (AMO-135/009)

Garia, artoa, baba, naboa eta erremolatxa moduko jeneroak hartzen zituzten etxean. Iretargiari sarritan begiratzen zioten soroko beharrak egiteko, baina ez oraingo beste. Gorantz egiten duten landareak iretargi berrian jarri behar dira eta lur barruko jeneroak (patata) ilbeheran. Txerria ere ilbeheran hil behar izaten da.

953. Ganadua tratanteei eta harakinei saldu (AMO-135/011)

Ganadua saltzeko harakinekin edo tratanteekin egiten zuten tratua. Hilda saltzen zutenean pisatu egiten zuten ganadua, baina ganadua bizirik zegoenean iritzira egiten zuten.

954. Galdakaon eta Zaratamon ebakuatuta (AMO-135/014)

Gerra sasoian, etxetik irten eta Galdakaon egin zituzten hiru-lau gau, sabai batean. Handik Zaratamora joan ziren, baina neba zaharrak gordeta egon behar izaten zuen milizianoek harrapatu eta gerrara ez eramateko. Bonbak botatzen zituztenean, lurrean egindako zulo batean sartzen ziren.

955. Galdakao bonbardatu zutenekoa (AMO-135/015)

Errazionamendua Zaratamon eta Galdakaon hartzen zuten. Behin, Teresa eta aita Galdakaora zihoazela, bonbardaketak harrapatu zituen basoan. Galdakaon babesleku bat apurtu zen bonbek eta jende piloa hil zen.

956. Milizianoek etxetik atera eta ganaduak ostu (AMO-135/017)

Gerratik itzuli zirenean, etxea apurtuta eta hutsik topatu zuten. Milizianoak izan ziren etxetik atera zituztenak. Agertu ziren egunean, ahuntzak zaintzen egon zen Teresa eta ahuntzak hil zizkiotela gogoratzen du. Etxeko ganaduak ere kendu zizkieten.

957. Neba bi gerran (AMO-135/019)

Neba bi eduki zituen gerran, zaharrenak zazpi urte egin zituen kanpoan. Eskutitz bidez edukitzen zuten hartu-eman, baina gerraostean inoiz etxera ere etorri ziren.

958. Gazta egiteko prozesua (AMO-135/021)

Gazta egiteko, balde zabal batean jartzen zuten esnea legarrarekin batera. Esneak legarra hartzen zuenean, dena apurtzen zuten, zabaldu eta gaztanontziak bete. Egun batzuetara buelta eman behar izaten zitzaien eta sikatzen utzi. Gaztak saldu ere egiten zituzten.

959. Haizea txarra txerriarentzat (AMO-135/023)

Haizea txarra da gaztarentzat, arrakalak egiten dizkio eta. Horrelakorik pasatuz gero, saldu barik etxerako uzten zuten gaztaia. Behi-esnearekin ez zuten gaztarik egiten, eurek edateko edukitzen zuten eta. Inoiz, esnea bakarrik edanda pasatu izan du eguna Teresak.

960. Hika, zuka eta berorika (AMO-135/024)

Neba-arreba eta lagunen artean hika egiten zuten. Haserratzten zirenean behintzat, beti egiten zuten hika. Bikoteari zuka egiten zioten eta abadeari eta medikuari berorika.

961. Gabonetan auzoko gazteak batu (AMO-135/027)

Gazteak zirenean, auzoko etxe batean batzen ziren Gabonetan. Gabon gau osoa pasatzen zuten kuadrillan, gaztaina erreka jaten-eta. Natibitate goizean zazpiretako mezara joan behar izaten zuten. Behin, ia-ia lo geratu ziren mezan.

962. Erdara entzuten zen Zornotzan eta Durangon (AMO-135/032)

Teresa gaztea zenean, erdara ere asko entzuten zen Zornotzan. Denda bateko andreak erdaraz egiten ziola gogoratzen du, nahiz eta euskalduna izan. Orduan, barre ere egiten zieten euskaraz egiten zutenei. Durangon euskaraz gain, erdara ere asko entzuten zen.

963. Gerraostean euskara debekatuta (AMO-135/033)

Gerraostean ezin zen euskaraz berbarik egin. "Hablar en cristiano" esaten zieten. Auzora etortzen ziren poliziek ez zieten ezer esaten euskaraz berba egitearren, barre egiten zieten.

964. Gerran jaiotetxea utzi behar (AMO-136/002)

Larrea auzoko Etxetxikin jaio ziren, gaur egun desagertua. Larreako komentuarien ondo-ondoan zegoen. Gerran etxe utzi behar izan zuten soldaduz bete baitzen inguru guztia. Orduan, amaren jaiotetxera joan ziren. Azkenean, Trapagan, Gueñesen eta Turtziosen zituzten senitarteko batzuegan joan ziren, baina ez zuten inor aurkitu.

965. Ama Ameriketara (AMO-136/004)

Bere ama oso ausarta zen eta gerran era aurrera egitea lortu zuten. Bere ama Buenos Airesen (Argentina) egondakoa zen. Ahizpaorde bat zuen bertan eta bertara joan zen 13 urte zituela. Ahizpak ez zuela ondo tratatzen-eta, 18 urteaz Gernikako familia baten laguntzari esker Montevideora joatea lortu zuen. Bederatzi neba-arreba izan ziren.

966. Gerran dena galdu arren aurrera egin (AMO-136/005)

Gerraostean etxean zuten dena kendu zien, hormak baino ez zizkietela utzi dio eta aitaren erloju bat ere ateratzea lortu zuten. Gerora amak lan asko egin zuen eta ondo bizitzea lortu zuten.

967. Auzoko emakume biboteduna (AMO-136/006)

Auzoan zuten bi neskazaharretako baten bibote luzea zuela-eta, ez zioten nahi izaten musurik eman. Amak batean eta bestean lan eginda dirua lortzen zuen eta bizimodua ona eman ahal izan zien seme-alabei.

968. Hezkuntzari garrantzia (AMO-136/010)

Aitaren arreba bat kartzelara eroan zuten gerran eta bertan hil zen. Beraien etxean hezkuntzarako aukera izan zuten eta etxean beti zuten zer edo zer irakurtzeko. Aita beti izaten zuten gainean, adi-adi.

969. Lagun batek atzamarra ebaki zionekoa (AMO-136/012)

Auzoan barberu bat zuten. Haren semea Felipin zen eta behin hari txanpon bat aldatu zion: ogerleko faltsua zilarrezkoaren truke. Felipek faltsua zelan konturatu zenean, bizarra kentzeko labana hartu eta atzamarra ebaki zion. Urte askoan atzamarra ezin izan zuen ezertarako erabili. Auzoko "enplastera" bati esker mantendu zuen atzamarra.

970. Tiragomarekin begia galdu (AMO-136/013)

Larrea auzokoak elizako horman aritzen ziren pilotan. Sasoi hartan astakeria asko egiten zituzten; behin lagun batek tiragomekin olgetan zebiltzala begia galdu zuen tiragoma aldrebes jarrita.

971. Jateko ostutzea ez da bekatu, baina... (AMO-136/015)

Juanek 15-16 urte zituela, Larreako komentu ondoan zegoen makatzak (madari bota bat) ostu ostean, bertara joan zen konfesatzen. Ostutakoa jateko ostu zuela konfesatu eta gero fraideak esan zion hori ez zela bekatu. Baina ea norenak ziren galdetu eta "berorrenak" erantzun orduko zaplaztekoa eman zion fraideak. Laster joan ziren handik parrokiara konfesatzera.

972. Latinez ez zekienak ezin mezak ulertu (AMO-136/016)

Larreako Aita Jose Luis oso gogorra zen. Behin, fraide horri galdetu zion ea mezak zergatik ez diren gaztelaniaz edo euskaraz, gehienek latinez ez baitzuten ezer ere ulertzen. Juanek eskolan ikasita bazekien apur bat, eta mezatan noiz zutundu eta noiz belaunikatu behar den esan behar izaten zien ingurukoei ez zutelako ulertzen. Orduan ezinikusia hartu zion Aita Jose Luisek Juani.

973. Futbolearen jolasten praktikak jausi (AMO-136/017)

Larreako Fraideen landan izenekoan jokatzen zuten auzoko mutilek futbolearen, gaur egun ikastola dagoen toki berean. Behin, bere auzoko batek praktikak tiranteekin lotuta izan zituen botoi barik. Gola sartu eta ospatzerakoan, tiranteak askatu eta praktikak jausi zitzaizkion.

974. Boxeoan, begiak tapatuta (AMO-136/018)

Boxeoan ere aritzen ziren auzokoak. Boxeoan aritzeko federatuta egon behar izaten zen eta federatuta egoteko Falangeko karneta behar zen. Hori dela-eta, horrelakorik ez zutenez egin, aurpegia tapatuta egiten zuten, "boxeador desconocido". Bera "sparring" modura jarri zuten. Bere kuadrillako bat Karmen jaietan ospatuko zen lehiaketarako prestatzen aritu ziren.

975. Mahuka laburra janzteagatik isuna (AMO-136/019)

Bilboko jaiak zirela-eta, 15-16 urte zituela hara joan zien lagunak. Beroak jota jertsea kendu eta mahuka laburdun alkandoran egotearren, aguazil batek bi pezetako isuna jarri zieten moralitasunik eza arrazoitzat hartuta. Azkenean, denei kendu zien isuna. Handik barraketara bidean, "prohibido fijar carteles" ikusi zuten horma batean, eta ezin zutelakoan begiratu burua behera zutela egin zuten bidea.

976. Lau ordutz oinez gramola lepo gainean (AMO-136/020)

Juanek 14 urte zituela, Beraien etxean zeuden bi gramofonoak eskatu zizkieten fraideek Larrean Santa Teresa koroatzeko. Horietako gramola batek pieza bat apurtuta izan zuen eta Bilbora eroan zuten konpontzera. Bueltan, bila joan zenean, etxera bueltatzeko tranbia galdu eta oinez etorri zen etxera. Lau orduko bidea egin behar izan zuen gramola lepoan zuela.

977. Larreako Bernarda "enplastera" (AMO-136/022)

Larrea auzoko "enplastera" rengana jende asko etortzen zen. Belarrekin egiten zituen enplastoak. Juanen anaia gerran egon zenean zauritu egin zuten eta hanka galtzeko zorian egon zen. Bernardarengan joan eta enplasto batzuekin osatu zion zauria.

978. Denetarik osatzeko sendabelarrak (AMO-136/023)

Auzoko "enplastera" askotan bidaltzen zuen Juan sendabelar bila. Belar desberdinak ziren: hagineko minarentzat, "estomago caído" arentzat...

979. "Enplastera" hil eta gero haren lekukoa hartu behar (AMO-136/025)

Larreako Bernarda "enplastera" beraien auzokoa zen. Garai hartan, auzokoekin hartu-emon asko izaten zen. "Enplastera" hil eta gero, gizon bat hil zorian zegoela-eta, Juanen amak hari ikasitako belarrekin infusioa egiten saiatu eta osatu egin zuen.

980. Hilzorian zegoena sendabelarrekin "berpiztu" (AMO-136/026)

Ezkondutako eta gero bizi zen tokiko auzoko bati hilzorian zegoela enplastoak jarri zizkion. Arrautzaren zuringoagaz eta belarrekin tortilla bat egin zion. Ondorioz, izerditan blai egon zen egun batzuetan, izerdi-hatsa ere ikaragarria ei zen. Azkenean, osatzea lortu zuten.

981. Medikua bera sendabelar eske (AMO-136/028)

Herrian zuten Alegria medikuak ez zuen sinesten sendabelarretan. Baina behin, medikuak berak eskatu zizkion sendabelarrak hankan zuen ultzera bat osatzeko.

982. Maradona ere bertoko belarrekin osatu zen (AMO-136/032)

Maradonak Bartzelonan jokatzeko zuenean gibeletako gaitzen bat izan zuen. Berriz batutako belar batzuekin osatu zen.

983. Pulmonia-belar infusioa (AMO-136/034)

Bere emazteak eta berak udaberriro eta udazkenero hartzen dute pulmonia-belarrarekin egindako infusioa. Pulmonia-belarra zelako den azaltzen du. Eztiagaz hartzea garrantzitsua da, azukrearekin propietateak galtzen baititu.

984. Eztiaz eta zidra-ozpinaz egindako edabea (AMO-136/038)

Tripako bizioak kentzeko berakatza gordinik hartzea da ona. Eztia eta zidra-ozpina nahastuz eta egunero koilara bete hartuz gero gauza askotarakoa da ona: artrosia, puxika, gibela...

985. Zidra-ozpinaren onurak (AMO-136/040)

Gorputz-atal askotako minentzako oso ona da zidra-ozpinez egindako edabea. Zidra-ozpina sagar-ozpinaren bigarren hartziduratik (fermentazio) jasotzen da.

986. Kipula zaldarra osatzeko (AMO-136/042)

Kipula kokotean-eta irteten ziren zaldarrak osatzeko zen ona. Kipula olioia apur batean bigundu behar da eta hoztutakoak gainean jarri. Bigundu eta berez errementatzen du barruko zikina kanporatuz. Azido urikoarentzat ere badago belar bat oso ona dena. Enkistatutako ileentzat ere kipula jartzea komenigarria da.

987. Erditze ostean lixibarekin garbitu (AMO-136/044)

Parterak, emakumeei erditzen laguntzen zienak, lixiba erabiltzen zuten emakumeak garbitzeko. Behin, berak ebaki bat lixibarekin osatu zuen, desinfektatzaile ona da-eta.

988. Bilbora joateko ohitura gutxi zegoen (AMO-136/046)

Lehen jendeak ez zuten Bilbora joateko ohiturarik. Herri guztietan egoten ziren "errekadistak" eta eurek egiten zituzten errekaduak. Gizonezko baten trena bakarrik hartuz gero, txarto pentsatzen zuten, San Frantzisko aldera-edo zihoala.

989. Titipuntentzako ukendua (AMO-136/049)

Emakume batzuek titiko esnea ateratzeko goma bat izaten zuten eta sarritan titipunta urratu egiten zuten. Horretarako ukendu bat egiten zuten koipea eta belar batzuk nahastuz. Belar hori belarriko minarentzat ona zen. Baserriko tailatuetan egoten da belar hori.

990. Belarriko eta giharretako minarentzat alkohola eta ospina (AMO-136/050)

Belarriko minarentzat alkohola eta ardo-ospina nahastea ei da onena. Hanketako nekerako eta giharretako minentzako ere aproposa da.

991. Binagrea eta alkohola buruko minentzat eta pospolo ziztaden kontra (AMO-137/001)

Buruko mina kentzeko, alkoholarekin bustitako trapu bat jarri behar da bekokian. Intsektuen ziztaden kontra pospoloa erabiltzen zuten lehen. Sudurreko odol jariora gelditzeko, oster, izotza erabili izan dute.

992. Kafe beltza mozkorra kentzeko (AMO-137/003)

Mozkorra kentzeko kafe beltza da onena.

993. Haginetako minaren kontrako erremedioak (AMO-137/005)

Haginetako minaren kontra txikoria-belarra jartzen da haginaren gainean. Berakatz apurtu bat ere jar daiteke eskumuturreko zainean edo kokotean igurtziak eman alkoholarekin.

994. "Maritxu txantxagorri, eutsi hau hagineu ta ekazu barrie" (AMO-137/006)

Umetan, haginaren bat jausten zitzaizenean teilatura botatzen zuten berriak irten zedin. "Maritxu txantxagorri, eutsi hau hagineu ta ekazu barrie" esaten zuten.

995. Baltzolako kobako herensugearen maldizioa (AMO-137/007)

Juanen familia dimoztarra zen eta familiako anaia biri pasatutakoa kontatzen du: Baltzolako kobetan anaia batek herensuge bat jo zuen harri batekin. Herensugeak maldizioa bota zion eta ordutik bere familian, iturriondobeitiatarren artean, ez da herrenik eta konkordunik falta izan.

996. Autzaganen sorginak, Gorozikan laminak eta makaletan prakagorriak (AMO-137/008)

Autzagane aldean sorginak zeudela kontatzen zuten eta Gorozikan laminak. Denboralea zegoenean, prakagorriek Zornotzatik Bermeorako bidean zeuden makaletan jolasten ei zuten.

997. Idi-probetarako akuiluak abenduko ilbeheran moztu (AMO-137/012)

Iretargiak pertsonengan dauka eragina, ganaduengan eta baita arbolengan ere. Idi-probak egiteko akuiluak, esaterako, abenduko ilbeheran moztu behar dira.

998. Hilekoarekin egotearren txorizoak usteldu (AMO-137/013)

Behin, andre batek hilekoa zuela egin zituen txorizoak eta handik eta egun batzuetara dena usteldu zitzaien.

999. Hilekoko odola ona zaurientzat (AMO-137/014)

Andrearen hilekoko odola zaurietan ematea ona zela esaten zuten lehen. Orduan, botikariek ematen zizkieten erremedioak medikuek baino gehiago.

1.000. Ilargiaren eragina ortuan eta zuhaitzak botatzerakoan (AMO-138/001)

Ortuan ilargiak zela eragiten duen azaltzen du. Zuhaitzari adarrak ilbeheran moztu behar zaizkiola azaltzen du. Haltza maiatzeko ilbeheran moztu behar dela azaltzen du. Ardiei ilea mozteko ere zaintzen da ilargia.

1.001. San Juan bezperako ospakizuna eta sendabelarrak (AMO-138/002)

Karmen eguneko bederatzigarrenean sendabelarrak batzeko egunik onena omen da. San Juan bezpera zela ospatzen zuten eta zela babesten zituzten soroak azaltzen du; sendabelarrak batzeko egun aproposa.

1.002. Pagoa eta haritza noiz bota (AMO-138/003)

Uztarriak egiteko pagoa erabiltzen zen. Otsailean eta martxoan botatzen dira pagoa eta haritza. Haritzak errekan sartzen ziren bost urtez, zitzaren kontrako tratamendu moduan. Pagoa berdetan lantzen da.

1.003. Zerua gorritzea seinale (AMO-138/005)

Eguerdiko hamabietan, angelusa errezatzen ari zirela, zerua gorritu egin zen. Bigarren Mundu Gerra sortu zen egun hartan bertan.

1.004. Haizete handia Santander erre zenean (AMO-138/006)

Eguzkiaren kolorearen arabera jakiten da zein eguraldi egingo duen. Santander erre zenean, haizete handia ibili zela kontatzen du. Teilatuak, arbolak... denetarik eraman zuen.

1.005. Oinaztuak eragozteko, kanpaiak jo (AMO-138/007)

Oinaztuak eragozteko, kanpaiak jotzen zituzten. Hegazkinek oinaztuak eragiten dituzten lainoak apurtzen dituztela azaltzen du.

1.006. Amaren baserria eta bi ume erre zituztenekoa (AMO-138/008)

Amaren baserria aipatzen du; erre egin zen. Bi bizitzakoa zen. Baserria zela eta zergatik erre zen kontatzen du; gizon batek bere bi umeak erre zituen.

1.007. Lamper anaien zirkoa (AMO-138/012)

Komedianteak etorri zireneko anekdota kontatzen du. Lamper anaien ikuskizuna zela onena dio. Auzoko andreak eta umeak joaten ziren ikustera.

1.008. Tabernan telebista txanpon truke (AMO-138/013)

1950ean irratia oparitu zion aitari. Tabernan telebista ikusteko txanpona bota behar izaten zen. Auzokoak etxera etortzen ziren telebista ikustera.

1.009. Aberatsen etxean lanean, idazten eta irakurtzen (AMO-138/015)

"Selecciones", "La Codorniz" eta "Mundo" aldizkarietara harpidetuta egon zen. Auzora joan zen hamabi urte ingururekin bizitzera (amak bidalita), Valladolideko unibertsitateko katedraduna zen gizonaren eta haren emaztearen etxera, eta liburutegi itzela zeukala azaltzen du, Kixoteren eskuizkribua barne. Hango bizimoduaren berri ematen du.

1.010. Herriko liburutegiaren sorrera (AMO-138/016)

Asko irakurri izan du. Herriko liburutegia sortu zuen, 1943 inguruan; hasierako berrehun liburuak berak ipini zituen. Parrokiaren ondoan egon zen. Liburuak zela eskuratu zituen azaltzen du.

1.011. Hitano gutxi, fraideen eraginez (AMO-138/019)

Berorika, zuka eta hika zeini egiten zien azaltzen du. Hitanoa gutxi egin izan dute; fraideen eraginez izan zitekeela dio.

1.012. Neguan Mutrikun artzain (AMO-139/003)

16 urte zituela, Mutriku aldera joan ziren artzain. Ordura arte Larrabetzura joaten ziren. Errege bezperan Euban irten eta elurretan egiten zuten bidea. Nora zihoazen jakin barik Trabakuan egin zuten geldialdia. Gariz betetako logeletan egin zuten lo. Azkenean, heldu ziren Mutrikura eta 40 urtez jarraian bertan izan zuten artaldea.

1.013. Lehengo bizimodua faltan zuela-eta artaldea ekarri Garaira (AMO-139/004)

Garaira ezkondu zen Krispin. Bertan ez zuten ardirik eta zer edo zer falta zuela-eta, artaldea erosi zuen. Lehengo bizimodutik gauza asko botatzen ditu faltan. Egun guztian hankak bustita izan zituzten eta gauerako baba lapikoa prest.

1.014. Baserriaren gainbehera (AMO-139/005)

Etxe askotan galduko dira ohitura asko, baita artzaintzarena ere. Label kontuan etxean hasi behar dira eta falta asko dago. Beharra egiten den tokian ez dago ezeren faltarik. Zahartzaroan ikusten ei da bakoitzak zelako bizimodua izan duen, zer jan duen... Baserritarren egoera ez da batere ona.

1.015. Bildotsak estraperloan (AMO-139/006)

Ardi latxak izan dituzte beti. Gerraostean, neguak Larrabetzun pasatzen zituztenean, bildotsak estraperloan saltzen zituzten. Handik Basauri aldera eramaten zituzten, musturrak eta hankak lotuta zituztela. Bizimodu gorria izan zutela dio.

1.016. Negu gorriak (AMO-139/007)

Bizimodu gorria izan zutela dio. Orduko ardiak ez ziren elurragaz beldurtzen. Elurra egon arren, bazuten zer jan ardiek. Ordukoekin konparatuz gero, gaur egun ardiak oso ondo bizi dira. Gazteek zein zaharrek egiten zuten lan.

1.017. Ogi falta, baina ez jateko falta (AMO-139/008)

Gerraostean ogi falta zuten. Errazionamenduan ematen zizkieten tabakoa, olio, ogia... Eubaraino joan behar izaten ziren txusko beltzaren (ogia) bila, eta behin etxera heldu orduko jan zuen eta kokotekoa jaso zuen. Hala ere, ez zuten jateko faltarik nahiz eta 10 neba-arreba izan. Tropa itzela bizi ei ziren etxean. Denek jaten zuten ontzi beretik.

1.018. Norbere etxean zein besteenean jornalean (AMO-139/010)

Segaketan, ira ebaten... ere aritzen ziren. Behi makal batzuk baino ez zituzten etxean eta idiak ekarri zizkietenean lanak asko erraztu zitzaizkien. Beste auzoko baten beharrak ere berak egiten zituen. Dirua beste batzuentzako jornalean lan eginda ateratzen zuten.

1.019. Morroi Saratsun (AMO-139/012)

Hamasei urte zituela joan zen morroi Saratsu auzora. 2000 pezetako jornala izan zuen urte guztirako. Bost behi zaintzeko ardura izan zuen eta handik urtebetez eskola partikularrera joan zen. Bertan ikasi ei zuen ikasitako apurra. Astero ematen zion ogerleko bat. Behin ogerlekoa galdu zuen erromeriara bidean zihoala. Urtebeteren ostean etxera bueltatu zen.

1.020. Garairaino neska laguntzen oinez (AMO-139/014)

Etxekoandre guztiekin izan du zortea, morroi egon zenean eta baita ezkondu ostean ere. Emaztea Garaikoa da eta neska laguntzea oinez egiten zuen bertaraino. Hiru ordu baino gehiagoko bidea zuen. Gero motorra izan zuen, baina ezin izaten zuen emaztearen etxeraino motorrez joan.

1.021. Idi-uztarria zulora jausi zenekoa (AMO-139/017)

San Lorentzo egun batean basoan lan egin eta gero, idi-uztarria gurdi eta guzti zulo batera jausi zitzaizkion. Une gogorak bizi behar izan zituen.

1.022. Mugarran ardizain (AMO-139/019)

300 ardi inguru izaten zituzten. Mugarra aldean egoten ziren eta bertan egiten zuten lo txabolan. Herri basoak izaten ziren.

1.023. Azeri-harrapatzaileak bildotsen zaindari (AMO-139/021)

Azeriak bildotsak jaten ditu. Herri askotan azeri-harrapatzaileak zeuden eta San Inazio egunez ordaintzen zitzaien egindako lana Belatxikietan edo Mugarran. Ohitura hori galdu egin zen. Azeri-harrapatzaile batzuk aipatzen ditu. Elkarrizketa garaian era oraindik bazebiltzan azeriak inguruetan.

1.024. Ardi-txakur lanetan (AMO-139/022)

Ardi-txakurrik ez zegoen lehen eta umetan bera aritzen zen behar horretan. Ardiak zaintzea ez zen hain lan erraza.

1.025. "Loberak" (AMO-139/023)

Otsorik ez dute ezagutu inguruetan, baina Mugarra aldean badaude pare bat "lobera" (otsoak harrapatzeko zuloak). "Loberak" zelakoak diren azaltzen du.

1.026. Artzain onak ardi guztiak ezagutzen ditu (AMO-139/024)

Artzain bakoitzak badaki zein den bere ardia eta ez du markatu beharrik. Ez daude bi ardi berdin eta askok izena izaten zuten.

1.027. Ardien gaixotasunak eta zergatiak (AMO-139/026)

Gaur egun ardi latxek lehen baino gaixotasun gehiago dituzte. Lehen ardiek ez zuten edonongo ura edaten eta gaur egun parasitoak hiltzen zaizkie. Lehen 'kokaldie' izeneko gaixotasuna ez zen orain bezala osatzen. Medikamentu batzuk onuragarriak ere badira.

1.028. Ardi-txakur onak izan dituzte (AMO-139/027)

Krispinek 22 urte zituela izan zuten lehen ardi-txakurra. Oñatiko lehen ardi-txakur lehiaketan irabazlea izandako Mendaroko 'Txino' txakurrarekin nahastu eta urte askoan horien oinordekoak ziren ardi-txakurrak izan zituzten.

1.029. Artilea saltzeko lan asko egin behar (AMO-139/029)

Artile asko saltzen zuten eta Larrabetzuraino ere askotan joaten ziren saltzen. 1200 pezetako balioa zuen artoa lanak (12 kilo), diru asko. Ilbeheran moztu, beratzen jarrita garbitu, kamaran zabaldu, harriekin zapaldu... lan asko egin behar izaten zen. Larrabetzun 7-8 artoa lana enkargatzen zizkieten koltxoia egiteko. Artilea zelan lantzen zuten azaltzen du.

1.030. Traperoak (AMO-139/030)

Traperoak etxerik etxe ibiltzen ziren. Euban inguruko artzain denak batzen ziren, eta Gasteizko trapero batzuk joaten ziren.

1.031. Kaikua (AMO-139/038)

Ardiak batzerakoan, esnea kaikura botatzen zuten. Berak esku artean duena urkiz egindakoa da.

1.032. Gazta freskoa nola egiten duen (AMO-140/001)

Gazta egiteko tresna erakusten du. Gazta freskoa egin izan du eta enkargatuta saldu. Legar naturalarekin egiten du. Gazta freskoa nola egiten duen azaltzen du.

1.033. Gaztak lastoaren gainean lehortzen (AMO-140/002)

Aita gaztagile ona zela dio. Lasto luzeen gainean lehortzen zituen aitak gaztak. Haginaren azpian lasai egoten omen zen aita.

1.034. Aitak gazta nola egiten zuen (AMO-140/003)

Aitak gazta nola egiten zuen kontatzen du pausoz pauso.

1.035. Aita Ondarroara gazta saltzera (AMO-140/006)

Gazta leku finkoetan saltzen zuten. Gutxi joan izan dira azoketara. Ondarroako plazara lau artzain jaisten ziren azokara, gazta freskoarekin. Andreei ordaindu ez arren ere eman egiten zien gazta aitak, ahal zutenean ordaintzekotan.

1.036. Legarraren kalitatea (AMO-140/009)

Behiaren esnearekin gazta egitea gehiago kostatzen da. Legar naturalarekin egin izan du gazta hori ere. Legarraren kalitatea zela ezagutzen den azaltzen du eta erakutsi egiten du.

1.037. Ahizpak jositako arropak (AMO-141/020)

Bere ahizpagaz batera hasi zen josten ikasten Larrabidean. Bere ahizpak egiten zizkion arropak inbidia ematekoak ziren.

1.038. Dantzan nekatu barik (AMO-141/021)

Teodora oso dantzaria izan zen gaztetan, ez zen nekatzen dantzan. Soinu-jotzaileak ere harritu egiten ziren. Behin Bizkargitik behera zetozela,

Autzaganeko tabernetan bizitakoak kontatzen ditu. Kuadrillan egiten zituzten joan-etorriak.

1.039. Neba bat Afrikan hil eta besteak Beran istripua (AMO-142/003)

Gazte garaia polita izan zela dio. Neba hil egin zen Afrikan eta benetako dolua bizi izan zuten. Beste neba Beran egon zen soldadu eta istripua izan zuen. Aita kezkatu egin zen eta bera joan zen nebarengana.

1.040. Txantxangorria lagun (AMO-142/005)

Txantxangorria bere lagunik onena dela dio. Haren kantua entzunda, albiste onak datozkiola pentsatzen du; txepetxa entzunda ostera, tristura sentitzen du bihotzean. Nebaren bila joan zen Beraraino.

1.041. Gabonetako ospakizunak (AMO-142/013)

Erregenetan opariak lagatzen zizkieten. Gabonak politak izaten zirela dio; sagarrak labean erre eta azukrea eta ardoa nahasten zizkien. Turroiak ere asko jaten zituzten. Gabonetan Bilboko bi etxetara txerrikiak eramatera joaten ziren, gerraostetik lagunak zirelako.

1.042. Gerratik ihesi (AMO-142/016)

Gerra garaian, etxetik alde egin behar izan zuten. Aita abereekin joan zen eta beraiek aittaren etxera jaitsi ziren, eta handik errotara. Aitak behia laga zien hiltegian. Behiak ama zela ezagutu zuen kontatzen du.

1.043. Bonbardaketak bertatik bertara (AMO-142/018)

Tunelean babesten ziren bonbardaketetatik. Emakume bati behi-esnea ematen zioten, haurrari eman ziezaion. Bonbardaketa batean ingurua zela txikitu zuten kontatzen du.

1.044. Bonbardaketetan hildakoak (AMO-142/020)

Bonbardaketan hil zirenen berri ematen du. Neba onik atera zen baina egunetan berba egin ezinda egon zen. Inguruko bizipenen eta elkartasunaren berri ematen du.

1.045. Gerra garaiko gosea (AMO-142/021)

Gerra garaian, ogibitartekoarekin edo taloarekin kalera irtetzen zirenez, eskuetatik kentzen zieten.

1.046. Gerra garaian algarroba probatu zuenekoa (AMO-142/023)

Gerra garaian algarroba probatu zuen eta gustatu egin zitzaion. Andre nagusia zaintzen egoten zen.

1.047. "Casas baratas" izeneko etxeak (AMO-142/024)

"Casas baratas" esaten zieten etxeak zelakoak ziren kontatzen du. Bere izeba bat bizi zen han.

1.048. Amak Frantziara joan nahi ez (AMO-142/025)

Familiako batzuk Frantziara abiatu ziren itsasontziz. Bere amak ez zuen joan nahi izan.

1.049. "Tiriki tauki tauki" koplak (AMO-142/027)

"Tiriki tauki tauki" koplak abesten du.

1.050. "Hasi goiko kalia" kanta (AMO-142/028)

"Hasi goiko kalia" kanta abesten du.

1.051. Garizuman ez dantzarik eta ez txisturik (AMO-143/002)

Elizak indar handia zuen. Garizuman ezin zen dantzarik egin eta txisturik jo ere ez. Berari txistua jotzea gustatzen zitzaion, baina, deskuidatuz gero, amamaren errieta entzun behar. Luze egiten ziren zazpi aste erromeriarik barik. Baina betetzen ez zuenari ez zion absoluziorik ematen abadeak eta hori gogorra zen herri txiki batean.

1.052. Emakumeak kanpoan paseatzen eta gizonak tabernan (AMO-143/003)

Garai batean emakumeak ez ziren tabernan sartzen. Nobioarekin sartuta ere, jendeak begiratu txarra. Eguraldi txarra bazen ere, emakumeak kalean paseatzen eta gizonak taberna barruan.

1.053. Emakumeak ateratzen zuen familia aurrera (AMO-143/004)

Emakumeen rola. Euskal Herrian emakumeek ateratzen zuten familia aurrera. Garai bateko emakumeak: "bendeja"rekin kalera jaitsi, 10etako mezara joan, elizako hilarria zaindu, kandelak piztu eta etxera.

1.054. Elizako hilarriak eta buldak ordaindu beharra (AMO-143/005)

Elizan hilarriak egoten ziren. Han jarritako diruaren arabera hainbeste "pater noster" (aitagure) errezatzen zituzten abadeak. Garai bateko abadeak gogorrak eta diruzaleak zirela diote. "Bulie" (bulda). Bulda ordainduz gero, Garizumako barikuetan bakarrik egin behar bijilia, bestela urte guztiko barikuetan. Garizumako barikuetan baraua eta bijilia; zer jaten zuten. Abadeak etxerik etxe indabak edo bestelakoak batzen ere ibiltzen ziren. "Zelegina".

1.055. Etxean gari nahikoa ez, eskatutako kopurua entregatzeko (AMO-143/006)

Gerraostean garia eta artoa entregatu beharra. Behin zazpi anega gari eskatu zizkieten, baina etxeko gari guztiarekin ere ez zuten nahikoa eta auzoan eskatu behar izan zuten. Gogoan du gurdian irrintzika nola eraman zituzten udaletxera. Patata ere entregatu behar izaten zuten. Errazionamendua.

1.056. Etxanoko ermandadea (AMO-143/007)

Garai batean elkartasun handia zegoen auzokoen artean. Ermandadea. Norbaiti ganaduren bat hiltzen zitzaionean, zer egiten zen. Beraiena Etxanoko ermandadea zen; zenbat baserrik parte hartzen zuten. Kuota ordaindu behar

izaten zen eta diruzaina egoten zen. Domu Santu egunean egiten zuten urteko batzarra.

1.057. Lorra: auzolana, bata besteari laguntzea (AMO-143/008)

Lorra: bata besteari laguntzea. Etxeren bat erretzen bazen, "etxe-errearena" edo aseguru antzekoa egoten zen. Baina gero, "lorra" egoten zen eta auzokoek elkarri laguntzen zioten, ahal zutenarekin: materiala (pinua, gaztaina...) eta lana. Bideak garbitu behar zirenean ere lorra egiten zen. Baita garia ebakitzean ere. Leku batzuetan lehenago heltzen zen garia eta txandaka joaten ziren bata bestearen baserrietara. Gero merienda egiten zuten.

1.058. "Abade edo fraide lapurrek"; arreba 12 urterekin neskame (AMO-143/012)

Elizak kalte handia eragin zuen. Abadeei errespetu handia zieten. "Fraide edo abade lapurrek": abade edo fraide joateko propaganda egiten zuten, zerua irabaziko zutela esanda. Halaxe joan zen bere anaia. Bera etxean geratu zen, zaharrena zelako. Arreba 12 urterekin Mugarrara joan zen neskame, artzain lanera. Handik etxea ikusi eta negar egiten zuen.

1.059. Familia handiak; abade, fraide edo morroi joan behar (AMO-143/014)

Abade edo fraile lapurrek", mutil eske ibiltzen ziren abade edo fraide sartzeko. Bokaziorik gabe joaten zen jendea, hobeto bizitzearren bakarrik. Familia handiak zeuden eta ez zegoen denentzat nahikoa. Bestela morroi edo neskame joan behar, jatekoaren truke. Lantegietara ere joaten zen jende gazte-gazterik.

1.060. Fraidegaien meriendaren inbidiatan (AMO-143/015)

Larreako komentuan fraidegai ugari egoten ziren. Jai zutenean, euren etxe ingurura joaten ziren mantzanillak batzera eta merienda eramaten zuten: txokolatea eta ogia eta laranja. Beraientzat luxua zen hori; berak lehenbiziko laranja Erregenetan ikusi zuen, opari gisa jaso zuenean. Fraidegai haiek ikustea, fraide joateko amu bat zen. Garai hartan hori zen arrazoi nagusia, gerora etorri zen ikasteagatik fraide joatearena. Anaia ere derrigorrean joan zen.

1.061. Etxanoko tabernak; txerri-afariak (AMO-144/001)

Sagarren taberna bota egin zen bidea zabaldu zenean. Garai batean txerri asko egoten zen tabernetan, txerri-afariak egiten zirelako. Horregatik beraiek ere sari moduan txerrikiak jarri zituzten jaietan.

1.062. Bola-jokoaren inguruko azalpenak (AMO-144/003)

Bola-jokoaren inguruko azalpenak. Puntuak nola lortzen diren. Jokaldi baliogabeak.

1.063. Perretxikotarako zaletasuna (AMO-144/004)

"Perretxikeru" handia dela dio. Perretxiko-klaseak. Aititak haritzaren edo pagoaren azpiko perretxikoak bakarrik jaten zituen. Berak erreleboetan lan egiten zuen. Behin perretxikoak irteten ari zirela eta ilunetan joan zen perretxikotara eta hiru onddo jaso zituen. Jakineko hiru puntu dauzka eta lehenbizi han begiratzen duela dio.

1.064. Txoriek zabaltzen dute mihuraren hazia (AMO-144/007)

Mihuraren ("muérdago") inguruko azalpenak. Txoriek zabaltzen dute hazia.

1.065. Torreburubarri, gurasoek 1935ean egina (AMO-144/008)

(Argazkiei begira) Torreburu, bere jaiotetxea, 1935ean egin zuten gurasoek, ezkondu aurretik, amamak (amaren amak) lur-saila emanda. Soroak egiteko lurra lantzen jardun zutenean, aitzak nahiago izaten zuen harria irtetea lurra baino, inguruko harriekin egin zuten etxea eta. Euskarazko izena du jarrita etxeak eta gerra sasoiaren eta gerraostean horri eustea meritu handia dela dio. Izan ere, garai batean ez zuten uzten euskaraz hitz egiten ere.

1.066. Aita Santoñan preso; ama ume txikiekin ihesi (AMO-144/011)

Aita igeltseroa zen. Lau neba-arreba dira eta amak hazi zituen. Imanol 1937an jaio zen, jada gerra hasita. Gerratean aita preso eraman zuten Santoñara eta hiru urtez egon zen han, "Trabajadoreetan". Arreba nagusiak urtebete eta berak hilabete zutela, amak etxetik alde egin behar izan zuen. Galdamesen egon ziren urtebete inguruan. Itzuli zirenean, etxea apurtuta eta hutsik aurkitu zuten. Auzoetan geratu zen eskumako jendeak lapurtu zituela besteen etxeetako gauzak dio. Amak bere arreoko izarak auzoan ikusi zituen eskegita baina ezin ezer esan.

1.067. Amak bular gutxi, baina esnea nahikoa (AMO-145/002)

Ama beti "eskasa" egoten zela dio, 45 kilo inguru izaten zituen. Ez zitzaion bularrik ikusten eta berak harrituta galdetzen zion ea nondik eman zien titia umetan. Esnea nahikoa izaten zutela esaten zien beti amak.

1.068. Eskolatik txangoa, itsasoa ikustera (AMO-145/003)

Zortzi urtetik hamahirura auzoko eskolan ibili zen, Nati irakaslearekin. Gaztelaniaz ikasten zuten. Urtean behin Aldundiaren laguntzaz edo, txangoa egiten zuten. Gogoan du 10 urte ingururekin lehenengo aldiz itsasoa ikustera joan zirela. Itsasoak egin zion inpresioa. Bainujantzirik ez eta galtzontzilloak atzekoz aurrea jantzita bainatu ziren. Egun beroa zen eta erreta itzuli ziren. Trenez joan ziren eta bidean abestu egiten zuten: "Ay, qué buenas son, doña Nati y compañía...". Bazkaria zapata kaxan eramaten zuten.

1.069. Zapata kaxak eta egunkariak gorde, berrerabiltzeko (AMO-145/004)

Zapata gutxi erosten zen, normalean abarkekin edo abarketekin ibiltzen zirelako, baina zapata kaxak gorde egiten ziren, berrerabiltzeko. Aitzak egunkaria ere beti gordetzen zuen, irakurri ostean, zerbait batzeko edo sua pizteko edo...

1.070. Auzoko eskolan Luis Vives entziklopedia; Zornotzako eskola partikularra (AMO-145/006)

Eskolan liburu bakarra erabiltzen zuten: "Enciclopedia Luis Vives". Liburuaren atalak: gramatika, aritmetika... Orduan gutxi ikasten zuten 13-14 urtetik aurrera. Bera 13 urterekin Zornotzan katalan batzuek zuten eskola

partikularrera joan zen eta han sei hilabetea aurreko bost urteetan baino gehiago ikasi omen zuen. Irakasleak. Auzoko eskolan adin desberdinetako ume asko batera. Eskolako materiala.

1.071. Bilboko maistrari baratzean laguntzen (AMO-145/007)

Auzoko eskolako irakaslea (Nati) ezkongabea zen eta Bilbotik etortzen zen. Eskolan bertan bazkaltzen zuen. Ostegun arratsaldeetan jai izaten zuten eta baratzean laguntzen zioten irakasleari. Satsa lepoan ekartzen zuten, zestoan hartuta. 7 urtetik 14ra bitarteko 50-60 neska-mutil zuzen mantentzen zituela eta meritua zuela dio. Etxerako lezioak bidaltzen zizkien eta amak laguntzen zien hasieran, berak zekienaren parera iritsi arte. Gaztelaniaz ez zekiten hasieran eta maistrak ez zekien euskaraz. Berak 14 urterekin lanean hasi zenean ikasi zuen gaztelaniaz.

1.072. Eskolarako bazkaria: sardina zaharra eta txokolate ontza, arrebarekin erdibana (AMO-145/008)

12etatik 12:30era dotrina, egunero, on Luis abadearekin. Arreba eta biak bazkaria hartuta joaten ziren eskolara. Bazkaltzeko sardina zaharra erdibana: egun batean buru aldea eta hurrengoan buztan aldea. Txokolate ontza ere erdibana. Eguerdia errazionamenduko ogiaren bila joaten zen Zornotzara, arreba eskolan utzita, eta sarritan bi ogitxoak berak jaten zituen bidean.

1.073. Intxaurrek edo sagarrak lapurtzen bazituzten, egurra (AMO-145/009)

Eskolara bazkariarekin joaten ziren arreba eta biak eta elizpean egoten ziren. Inguruan zeuden intxaurrei begira egoten ziren, baia bakarren bat harrapatuz gero, "baltzittu" egiten zituztela dio. Sagarrak ugari egoten ziren inguruetan, sagardotegiak ere baziren eta. Eguraldi txarra zenean, urak eramaten zituen sagar asko. Baina beraiek bakarren bat harrapatuz gero... Behin arreba sagar arbola gainean harrapatu zuten eta hankak belztuta utzi zizkioten. Gero, etxean ere errieta entzun behar. Eskolatik irtendakoan amamarengana joaten zen eguerdiko hondarrak jatera.

1.074. Lanean irabazitakoa bazkaritan eta garraioan gastatu (AMO-145/010)

14 urterekin beharrean hasi zen. Bederatzi pezeta irabazten zituen eta zortzi pezeta ordaindu behar izaten zituen bazkariagatik. Aitak bederatzi ordaintzen zituen, ardo "kuartiltoa" edaten zuelako. Autobusa pezeta bat ordaindu eta han joaten zen irabazitako guztia. Hala ere, lanbidea ikasten ari zela eta pozik.

1.075. 14-18 urte bitartean pertsianak muntatzen (AMO-145/013)

14-18 urte bitartean etxe berrietan pertsianak jartzen lan egin zuen. Hasieran ikasten jardun eta gero, pertsianak muntatzen hasi zen eta beste herri batzuetara joaten zen. Orduan hasi zela mundua ikusten dio. Tabernan bazkaltzen zuten eta han etxean jaietan baino hobeto jaten zuten.

1.076. Ardo zahagia Bizkargin, letania jotzen zuenarentzat (AMO-145/014)

Garai batean bi taberna zeuden auzoan. Gaztetan ez zuten ardorik edaten etxean, egun berezietan bakarrik. Jaietan limonada. Santa Kurutz egunean

zahagia egoten zen Bizkargin. Litro bat ardo ematen zieten, letania joz gero. Inguru ezberdinetatik abiatutako letaniak elkartzen ziren. Gero meza eta bedeinkazioa.

1.077. Luistarren kofradiarekin Santa Ageda eta abendua kantatzen (AMO-145/015)

Garai bateko abadeak gogorrak. Orduan bi edo hiru abade egoten ziren Etxanon. Bera umea zenean on Luis Goiria zen parrokoa eta hari laguntzen on Frantzisko. Luistarren kofradia. Santa Ageda edo abendua kantatzen irteten ziren. 13-14 urte zituenean, anaiak idatzitako bertsoak kantatzen zituzten. Ordurako bat-bateko batzuk ere botatzen zituen. Irabazitako diruarekin bazkaria egiten zuten gero.

1.078. Herrira, mezara eta plazara (AMO-145/016)

Mezara nora joaten ziren. Goizeko seietako mezara, gero baserriko lanak egiteko. Ama plazara joaten zen arrautzak saltzera.

1.079. Domekero Muniketako erromeriara (AMO-145/017)

Larunbata lan-eguna izaten zen. Domeka goizean ere lana. Bera gazterik hasi zen erromerian, 15 urte ingururekin. Dantza zalea izan da. Muniketara joaten ziren domekero erromeriara. Normalean dantza soltea egiten zuten, baina lotuta ere bai.

1.080. Bizkargiko eta Autzaganako erromeriak; dantzan egiteko, ordaindu (AMO-145/018)

Santa Kurutz eguna Bizkargin, egun berezia. Hiru orkestra egoten ziren: Morgakoa, Larrabetzuko eta Etxanokoa. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik. Txartel bat jartzen zieten, ordaindu zutela adierazteko. Goizean txartel bat eta arratsaldean bestea. Baina dantzan ari zirela beste herri bateko eremura pasatuz gero, hango diru-biltzaileak kobratu egiten zien eta beste txartel bat jarri. Handik Autzaganara jaisten ziren eta hango erromerian berriz ere ordaindu egin behar.

1.081. Abarketak apurtu, erromerian dantzan (AMO-145/021)

Garai batean mutil asko lotsatu egiten ziren neskekin dantza egiten. Lotsa eta errespetua. Mutilen janzkera: milarraiazko galtzak, brusa eta abarketak. Urte batean Bizkargiko erromerian abarketak apurtu zitzaizkion eta Autzaganara jaitsitakoan ezin dantzarik egin. Hurrengo urtean beste pare bat laga zuen sasi artean gordeta, badaezpada.

1.082. Paristik beharrean Bizkargitik etorritako umea (AMO-146/002)

1941eko maiatzaren 3an jaio zen, Santa Krutz egunean. Bizkargin erromeria egiten zen eta ijito asko egoten ziren. Osabak soinua jotzen zuen. Aitak kontatzen zion bera ez zela Paristik etorri, gainontzeko umeen antzera, Bizkargitik baino, osabaren soinu barruan. Aita oso ipuinzalea eta fantasiosoa zen.

1.083. 12 urte Derioko Seminarioan, abade egin arte (AMO-146/003)

Bost urte ingururekin hasi zen eskolan. 11 urterekin Zornotzara joan zen fraideetara eta hamar hilabete egin zituen. Bigarren urtean Derioko Seminarioa joan zen eta hamabi urte egin zituen han, abade egin arte. Seminarioak barnetegi zorrotzak izaten ziren; oporretan bakarrik itzultzen zen etxera.

1.084. Amoroton ezkontza ospatu ostean atxilotu zutenekoa (AMO-146/004)

Gizaburuagan eta Amoroton egon zen abade. 1968an, Amoroton zegoela, atxilotu zuten lehen aldiz. Ezkontza bat ospatu zen herrian eta herri osoaren aurrean atxilotu zuten elizatik irten zenean. Orduko bizipenak. Polizia sekretuak nola janzten ziren. Ezin ziren elizan sartu obispoaren baimenik gabe eta, azkenean, bera irten zen herritarren aurrean ikuskizunik ez emateko.

1.085. Lehenengo atxiloaldiaren arrazoia (AMO-146/005)

Txabi Etxebarrieta hil zutenean, ezin zen inolako ekitaldi politikorik egin, salbuespen-egoera zegoelako. Orduan, haren aldeko mezak eskaintzea pentsatu zuten. Abadeek, falangistak izan arren, ezin zuten ukatu meza ematea. Garai hartan mezak iragarri egiten zirenez, polizia jendeari mezara joatea galarazten saiatzen zen. Durangon ospatu behar zen meza horietako batean ikusi zuten Xabier eta isuna ipini zioten. Isuna ordaindu nahi ez zuenez, atxilotu egin zuten eta 30 egun egin zituen kartzelan.

1.086. Gose-greba egin zutenean, hamar urteko kondena (AMO-146/006)

Egoera politikoa salatzeko eta oinarrizko eskubideak eskatzeko, agiri bat prestatu zuten eta gose-greba egin zuten. Ahalik eta hedapen handiena ematen saiatu ziren, gainera. Epaiketa militarra egin zieten. Hamar urteko kondena jarri zioten, baina sei urte eta erdi egin zituen. Geroago hirugarren aldiz atxilotu zuten, demokrazia sasoian.

1.087. `Eusko gudariak´abestu zuten parlamentuan, erregearen hitza eteteko (AMO-146/007)

1981ean errege-erreginak etorri ziren Gernikara. Bera parlamentaria zen orduan. Erregea hitz egiten hasi zenean `Eusko gudariak´ abestu zuten Herri Batasunako kideek. Beraiek momentuan bertan kartzelara eramango zituztela uste zuten arren, auzipetzea beranduago etorri zen. Fidantza ordaintzerik ez zutenez nahi, kartzelara eraman zituzten. Euskadiko Ezkerra alderdiak ordaindu zituen fidantzak. Bera, Idigoras eta Gorostidi beranduago atxilotu zituztenez, euren fidantzarik ez zuten ordaindu eta bi hilabete egin behar izan zituzten kartzelan.

1.088. Etxanoko eskolan adin ezberdinetako ume asko batera (AMO-146/008)

Etxanoko eskolan ibili zen Natividad irakaslearekin. Beraiek "maistrie" edo "señorita" esaten zuten. Adin ezberdinetako neska-mutilak ibiltzen ziren elkarrekin. Maistra ona zen, baina berak ez zekien gaztelaniaz eta ez zion ezer ulertzen. Eskola basatia zela euren eta maistrarentzat ez zela erraza ume guztiak kontrolatzea dio. Etxean ere amak gauzak irakasteko ahalegina egiten zuen. Eskolako giroa eta bertako umeen arteko harremanak.

1.089. Elizaldean jolasean eskolatik irtendakoan (AMO-146/009)

Etiket oinez joaten zen eskolara, gehienetan bakarrik. Eliza ingurua "hiria" zen berarentzat. Elizpean jolasten zuten asko. Neskak tortolosean, kaniketan... Mutilen jolasak: tronpa, txapak, "itturrix"...

1.090. Mutil nagusiagoek eginarazten zizkieten bihurrikeriak (AMO-147/002)

Eguerdietan etxera joateko astirik ez zuenez, bazkariarekin joaten zen eskolara. Mutil nagusiagoek sagarrak lapurtzera behartzen zuten. Bera ez zen ume bihurria eta, gainera, meza-laguntzailea zen, eta jendea harritu egiten ziren lapurretan harrapatzen zutenean. Borrokan egitera edo maistrari gonapetik begiratzera ere behartzen zituzten, baina berak ez zuen batere gustuko. Maistrarekin harreman ona zuen.

1.091. Ikasgai guztiak liburu bakarrean (AMO-147/003)

Eskolan Entziklopedia edo liburu bakarrean izaten zituzten ikasgai guztiak. Liburu bat amaitzen zutenean, hurrengoa, zailagoa. Maistrak ezin zien denei batera erakutsi eta taldeka egiten zuen. Txikiak egoten zituen aurrean eserita eta nagusiagoek maistrari gonapetik begiratzeko eta gero ea zer ikusten zuten kontatzeko esaten zieten.

1.092. Mutil nagusiagoen jazarpena eta nesken babesa (AMO-147/004)

Bera izaten zen eskolara bazkariarekin joaten zen bakarra, besteak gertuago bizi ziren eta. Nagusiagoek eurei jarritako zigorren kopiak egitera behartzen zuten batzuetan. Mutikoek orduan belarrondokoa ere erraz ematen zieten txikiagoei. Gogoan du nesken babesa ere izaten zuela. Elizpean neska-mutilek elkarrekin egiten zuten jolasaren inguruko azalpenak.

1.093. Umetako baserriko lanak: behizain eta itaurrean (AMO-147/005)

Eskolatik etxera joandakoan, behiak zaintzea izaten zen bere lan nagusienetako bat. Urtean zehar beste lan batzuk ere egin behar izaten zituen: behiekin itaurrean ibili, egurra ekarri... Itaurrean egitea zer den. Lan gogaikarria zela eta orduan erabaki zuela fraide joatea dio.

1.094. Amak etxeko martxa; aitaak jorrala eta alegrantzia (AMO-147/006)

Aita igeltseroa zen eta etiket kanpo lan egiten zuen. Oinez egiten zuen Zornotzara joan-etorria. Amak eramaten zuen etxeko martxa, baita ekonomia ere. Lau anai-arreba dira, arreba nagusia eta hiru mutil. Anai gazteena bera baino bederatzi urte gazteagoa. Euren familiako giroa pixka bat berezia zela dio. Aita oso ameslaria zen eta alaitasuna jartzen zuen etxean. Ez zien kasurik egiten auzokoen artean egoten ziren pikeei. Orduko familietako giroa.

1.095. Abadegaiei kategorioa (AMO-147/007)

Domeketan derrigorra izaten zen mezara joatea. Gizonak goizeko mezara eta andreak eta umeak hamarretakora. Abadegaia zen sasoiak, bietara joan behar, baina gustura. Abadegaiek kategorioa izaten zuten eta ondo ikusita zeuden. Baina ezin izaten ziren lagunekin ibili, debekatuta zuten.

1.096. Aita Luzio. Larreatik, abadegai bila (AMO-147/008)

Larreako komentutik Aita Luzio joaten zen bai eskolara eta bai elizara, mutilak abadegai joan zitezen "propaganda" egitera. Arrosarioak egiten abila zen eta hark erabiltzen zituen zilarrezko aliketak gustatzen zitzaizkion Xabierri. Maistrarekin hitz egiten zuten abadeek, komenturako moduko mutilak zein izan zitezkeen jakiteko. Abade eta fraidegaiek kategoria izaten zuten eta, hori ikusita, baiezkoa eman zuen berak ere.

1.097. Larreako komentura joan zeneko bizipenak (AMO-147/009)

Larreako komentuan diziiplina gogorra zegoen. Fraideak eurak ez ziren hain gogorrak, eta, herrikoa izanik, euskaraz ere egiten zioten pixka bat, nahiz eta gaztelania izan oinarri. Etxera joan barik denbora luzez han egon beharra zen gogorrena.

1.098. Derioko seminarioa, kartzelaren pareko (AMO-147/010)

Zornotzako komentutik Derioko seminariora joan zenean, izugarrizko aldaketa izan zen. Ez zieten euskaraz egiten uzten eta diziiplina oso zorrotza bete behar izaten zuten. Gainera, ume asko zeuden batera. 12-14 urteko umeak artean ez du defentsarik eta berarentzat kartzelaren parekoa izan zela seminarioa dio.

1.099. Hamarrena kobratzen ibili beharra (AMO-148/002)

Hamarrena kobratzen ibili behar izaten zuenekoak kontatzen du. Denetarik entzun behar izaten zuten eta beldurtu ere egiten ziren.

1.100. Etxanoko abadeekin, ondo (AMO-148/003)

Bertako abadearekin ondo konpontzen zen. Batzuk izendatzen ditu. Abadeen inguruan gustura ibiltzen zen, eliz-mutil eta. Beti eskuratzen zuen zerbait, diru pixka bat edo merienda bazen ere.

1.101. Mutikotatik kantuan (AMO-148/005)

Hamaika urterekin joan zen seminariora eta udan etxera etortzen zen. Aitaren inguruan egiten zuen bertsotan mutikotan, eta kantuan ere jarduten zuen. Jendea irazia egiten zion bera kantuz entzuteak. Txitxiburduntzi egunean kuadrillak elkartzen zirenean edo etxeren batera gonbidatu joaten zenean, bertsoak kantatzeko eskatzen zioten.

1.102. Herritarren eta maistraren kariñoa (AMO-148/006)

Mutikotan zintzoa zela eta buru handia zeukala dio, eta jendeak kariñoa ziola. Eskolako bortizkeria kenduta, haurtzaroko oroitzapen ona dauka. Maistrak kariño handia zion eta Xabierri ez zitzaion gustatzen besteen aurrean halako kariñorik agertzerik.

1.103. Etxano elizak batzen zuen (AMO-148/007)

Etxano eta Zornotzaren arteko anexioa oharkabean gertatu zela kontatzen du. Etxano izan da beretzat herria. Elizak batzen zuen Etxano. Auzoak aipatzen ditu.

1.104. Etxanok adierazten zituen eliza aldea eta herri osoa (AMO-148/008)

Etxano eliza aldearekin lotzen zuten. Etxanok bere izaera mantentzen duela dio, baina gazteentzat auzoa dela, ez badira elizara edo bertako eskolara joaten.

1.105. Jose Antonio Agirre zela ezagutu zuen (AMO-149/002)

Bilbon klinika batean neskame egon zen. Jose Antonio Agirre lehendakariaren osaba bati ebakuntza egin zioten eta lau hilabetez egon zen bertan. "Chocolates Bilbainos" lantegiko ugazaba zen Jose Antonio. Harreman handia egin zuen.

1.106. Neba Otxandiano batailoian (AMO-149/003)

Bere neba Otxandiano batailoian ibili zen. Gernikan kapitaina, sarjentua eta bere neba elkartu ziren lehendakaria izendatu zutenean. Bere neba beste birekin batera agertzen den argazkia deskribatzen dute.

1.107. Boroatik irten beharra (AMO-149/004)

Maiatzaren 18an hartu zuten nazionalak Etxano. Maiatzaren 27an ebakuatu egin zuten eta Boroan azkenengoak izan ziren irteten. Aita-amak etxean geratu ziren. Etxebarrin bonbardatu egin zituzten. Justu-justu iritsi ziren Boluetara.

1.108. Santutxoko etxea bonbardatu zuten (AMO-149/005)

Santutxurantz jo zuten. Ekainaren 13an bonbardatu egin zuten beraiek zeuden etxea.

1.109. Bilbo jausten ikusi zuen (AMO-149/006)

Artxandan trintxerak zeuden eta haiek bonbardatzen zituzten; etxeko ezkaratzetik ikusten zuen dena. Milizianoek atzera egin zutenekoa ikusi zuen. Bilbo jausi zenean, etxera bueltatu zen. Bizkargiko borroka oso gogorra izan zela kontatzen du.

1.110. Aita-amak etxean bakarrik, neba Gernikan hilda (AMO-149/007)

Oinez abiatu ziren Santutxutik etxera, ahizpa eta biak. Ez zekien aita eta ama bizirik egongo ote ziren ere. Bere neba Gernikan hil zen.

1.111. Bilboko klinika militar batek lapurtu zuenekoa (AMO-149/010)

Klinikako jabeak epaiketara eraman zuen militarra, baina hura ez zen eraikinetik joan, eta atsekabetuta hil zen.

1.112. Aita-amak onik etxean (AMO-149/011)

Santutxutik bueltan, aita eta ama Boroan topatu zituzten, baina etxean utzi zuten behia milizianoek kendu zieten.

1.113. Etxe ondoko zulo eta trintxerak (AMO-149/012)

Boroan, beraien etxe ondoan, Burdinazko Gerrikoa zegoen. Pasabidearen berri eman zioten nazionalai. Bonbardaketak egiten zituztenean, hiru etxetakoak zulo batean ezkutatzen ziren.

1.114. Gerrak kolpatutako familia bati buruzkoak (AMO-149/014)

Boroako familia abertzale batean gerra garaian gertatutakoak kontatzen ditu. Gizonetako bat Zamudion bonbardatuta hil zen eta beste bat atxilotu eta hil egin zuten. Hamazazpi urteko neskatila, berriz, etxean bakarrik geratu zen.

1.115. Aitita Etxanoko alkate (AMO-149/016)

Bere aitita Etxanoko alkatea izan zen, Juan Kruz Perea. Hiru seme izan zituen, bi fraide eta bat abadea. Karlista zen aitita, baina inorekiko gorrotorik gabea.

1.116. Osaba bat, laurogei urterekin preso (AMO-149/017)

Bere aitarien seme zaharrenak berrogeita bi urte egin zituen Ameriketara eta ia laurogei urterekin itzuli zen. Gerra garaian, atxilotu eta urtebetez kartzelan egon zen.

1.117. Senarra Irrintzi batailoiko sarjentu (AMO-149/018)

Bere senarra sarjentua izan zen, Angel Barrena. Irrintzi batailoian ibili zen gerra garaian.

1.118. Santutxun esnea saltzen gerra garaian (AMO-149/019)

Etxera itzultzean, herria erdi hondatuta topatu zuten. Etxetik ihesi joan behar izan zutenean, behiak eraman zituzten eta Santutxun zeudela, esnetan joaten zen.

1.119. Nebak ikasketadunak (AMO-150/008)

Abereekin ondo moldatzen ziren. Esnea saltzen zuten. Hiru neba fraideak ziren eta laugarrenak arotz ikasi zuen eta ondoren Euskalduna lantegian hasi zen. Denak ikasketadunak izan direla dio.

1.120. Eskolara joan-etorrian eta olgetan (AMO-151/002)

Eskolatik etxera joateko estratak lokaztuta egoten ziren eta landetatik ibiltzen ziren. Bazkalostean atzera eskolara joaten ziren. Ez zuten askorik faltatzen eskolan. Eskolatik irtenda, olgetan ibiltzen ziren: futboleak, frontoian, kuita...

1.121. Umetako zereginak: afaria prestatzea eta galdara garbitzea (AMO-151/003)

Gauerako afaria ipintzeko ardura izaten zuen. Porrusalda prestatzen zuen egunero, txapan. Beheko sutan egosten zen galdara egunero garbitu behar izaten zuen. Harrobiko harria apurtuta, harea egiten zuten eta horrekin garbitzen zuen.

1.122. Afalorduan, denak batera (AMO-151/004)

Denek batera afaltzen zuten etxean. Aita-amak, osaba, amaren iloba bat eta lau neba-arreba ziren etxean. Jatekoa dena etxekoa izaten zen. Taloak berak

egiten zituen denentzat; bakoitzarentzat bola bana. Amak erretzen zituen eta esnearekin jaten zituzten.

1.123. Domeketako plana (AMO-151/006)

Domekan mezetara joaten zen goizez, eta arratsalde arrosarioa errezatzera eta lagunekin egotera. Goxokiak jaten zituzten.

1.124. Domekak tabernarako eta berbetaldietarako (AMO-151/008)

Hamarretako mezetara joaten zen bera. Zortzietakora gizonak joaten ziren. Taberna eta bizartegia zeuden eta gizonak hara joaten ziren. Meza ostean, elizpean korroak egiten ziren eta luzaro egoten ziren berbetan.

1.125. Soroko eta basoko lanetan, elkarri laguntzen (AMO-151/009)

Garia ebakitzeko sasoian edo azpigarriak basotik ekartzerakoan elkarri laguntzen aritzen ziren. Kodainarekin aritzen ziren. Batzuetan haserretxoak ere sortzen ziren, baina ezer handirik ez.

1.126. Aita-amek baserrian bakarrik lan (AMO-151/010)

Lehengusua pinua botatzen aritzen zen; aita-amek Bilbon harategia ipini zioten gero. Osabak zerrategian lan egiten zuen. Bere aita-amek, oster, baserrian bakarrik lan egiten zuten.

1.127. Janari dena etxekoa (AMO-151/011)

Txahalak saltzen zituzten, pinudia botatzen zuten... lurretik bertatik jasotakoak etxerako ematen zuen eta. Janaria den-dena etxekoa zen. Lau edo bost behi, untxiak, oilaskoak eta oiloak izaten zituzten.

1.128. Zereginen banaketa etxean (AMO-151/012)

Kortan edukitzen zituzten untxiak, oilaskoak eta oiloak, eta emakumeen zeregina izaten zen jaten eman eta hiltzea. Basoko lan handiak gizonak egiten zituzten baina emakumeak ere joaten ziren. Neguan josten ikastera joaten zen Zornotzara.

1.129. Elizako buldak: okela jateko eta elizari laguntzeko (AMO-151/013)

Elizako buldak erosi egin behar izaten zituzten. Bi motatakoak zeuden: barikuetan eta garizuman okela jateko baimena lortzeko zen bata, elizari laguntzeko bestea.

1.130. Jaietara nora joaten zen (AMO-151/016)

Jaiak eta domekak ilusio handiarekin hartzen zituzten. Karmen jaietan Zornotzara joaten ziren, Etxanora Andramarietan, Boroara, Erkolesera, Lemoara...

1.131. Epaltza auzoko jaiak (AMO-151/017)

Meza eta erromeriaz gain, Epaltza auzoan ez zen bolatan egiten. Etxanoko udalak txistulariak bidaltzen zituen. Tabernatxoa jartzen zuten. Etxeetan aparteko janaria izaten zuten.

1.132. Amorebieta-Etxanoren anexioari garrantziarik ez (AMO-151/018)

Amorebieta eta Etxano elkartu zirenean, ez zioten garrantzia handirik eman.

1.133. Frankismoan uztaren zati bat entregatu behar (AMO-151/019)

Lehenago elizari zen moduan, frankismoan udaletxera eraman behar izaten zuten etxeko uztaren zati bat. Alkatearekin bazeukaten harremana. Patxi Ormaetxe izan zen alkate Etxanon frankismoan.

1.134. Bonbardaketetarako babeslekuak (AMO-152/002)

Gerra hasi zenean, abereekin aita eta auzo batek alde egin zuten. Bonbardaketetarako babeslekua zeukaten Epaltzan; hara joaten ziren hasieran baina gero Etxanosolo baserrian babesten ziren.

1.135. Don Felix abadea eta abadetxea (AMO-152/005)

Berrogei urte lehenago, Don Felix Gallastegi abadeak bidea egin zuen Epaltzarako. Berak ezkondu zituen. 1961 inguruan etorri eta hainbat urtean egon zen. Abadetxea saldu egin zuten. Zein zen azaltzen du.

1.136. Bizimodua Epaltzan (AMO-152/009)

Epaltzan asteburutarako taberna bat zegoen, gizonezkoentzat. Etxanora domeketan joaten ziren. Gerra aurrean bidea eginarazi zuen Jose Aresti alkateak Epaltzatik herriraino.

1.137. Ortukoa, sorokoa eta etxeko abereak jateko (AMO-154/004)

Ortukoa eta sorokoa jaten zuten. Astoa hartu eta Maumera joaten zen errotara. Garia eta artoa etxerako egiten zituzten. Afaltzeko porrusalda edo morokila izaten zuten. Taloa eta esnea asko jaten zuten. Txerria, txahala eta oiloak ere izaten zituzten jateko.

1.138. Gumuzio baserrian kriadu (AMO-154/006)

Lanean hamahiru urterekin hasi zen, "kriadu" Boroako Gumuzio baserrian. Urtebete egin zuen han. Egunero egiten zuen lan. Zazpi behi zeuden han.

1.139. Auzoko ospakizunak (AMO-154/008)

Jaietarako eta Gabonetarako ilusioa izaten zuten, jatordu bereziak egiten zituzten eta. Txistua eta danbolinarekin dantzan egiten zuten eta edan egiten zuten tabernan. San Antolinak izaten ziren Epaltza auzoan.

1.140. Bola-jokorako zaletasuna (AMO-154/009)

Bola-jokorako zaletasuna beranduagokoa dela dio. Hiru talde ibiltzen ziren. Inguruko herri eta auzoetan jokatzeko zuten. Aldundiari dirua eskatu zioten bolatokia konpontzeko.

1.141. Auzokoen artean bideak konpontzen eta garbitzen (AMO-155/002)

Bideak konpontzen eta garbitzen auzokoak ibiltzen ziren, beren kabuz antolatuta. Berak ez du udalen laguntzarik ezagutu. Ategorritik egindako bidea beraiek egin zuten.

1.142. Auzokoen artean, ermita konpondu eta bolatokia egin (AMO-155/004)

Auzokoen artean ermita konpondu zuten eta bolatokia egin. Udalak dirua eman zien, materiala erosteko.

1.143. Eguneroko bizimodua eta jatorduak (AMO-156/002)

Goizetik jaikitzen ziren, zazpiak aldean, udan goizago ere bai. Antoniaren etxean baserritik bizi ziren. Agustinen etxean lantegira joaten ziren. Soroa, ortua eta abereak izaten zituzten. Artoa, baba, patata eta garia izaten zituzten. Eguerdian baba lapikoa jartzen zuten eta afaltzeko porrusalda, taloa eta esnea. Gosaltzeko taloa eta esnea jaten zuten. Domeketan garbantzuak jaten zituzten eta okela pixka bat ere bai.

1.144. Gernikara eta Zornotzara saltzera (AMO-156/003)

Gernikara joaten ziren oilaskoak saltzera. Zornotzan ortuariak saltzen zituzten. Mezetara ere joaten ziren.

1.145. Gariarekin suziria (AMO-156/004)

Etxanoko elizan auzoko asko elkartzen ziren. Gariarekin suziria egiten zuen Antoniaren aitak, bidean argi egiteko.

1.146. Apaizak ondo jantzita, beraiek ortozik (AMO-156/005)

Oinetako gutxi izaten zituzten eta lohia edo elurra bazen, ortozik joaten ziren elizara. Etxanoko apaizek jantzi onak izaten zituzten. Errespetuz tratatu behar izaten zituzten eta dirua eman behar izaten zieten.

1.147. Astebeteko soldatarekin olioaren ere ezin erosi (AMO-156/007)

Jaiak eta domekak ilusioz hartzen ziren. 1945ean astebetean jasotzen zuen soldatarekin ezin zuen litro bete olio erosi.

1.148. On Timoteo eta on Luis apaizak (AMO-156/008)

Domeketan behar egitea bekatua zen. Lehenengo mezara joaten ziren beti. Apaizek galdu zutela elizarekiko errespetua diote. Dotrinara joandakoan, belarritik tira egiten zien on Timoteok. On Luis Goiria zen beste apaiza.

1.149. Apaizen zeregina (AMO-156/009)

Apaiz biek goizetan meza ematen zuten. Beste batzuek beharra zela egiten zuten begira egoten ziren. Arratsaldean, bazkalostean, ibilaldia egiten zuten. On Luis ehiztaria zen.

1.150. Anai bi ibaian ito (AMO-156/012)

Hamaika eta hamahiru urteko anai bi ito egin zitzaizkion Agustini ibaian. Laidan ito ziren hiru mutiko aipatzen ditu.

1.151. Maria Victoria Ibañez Etxanoko maistra (AMO-156/013)

Antonia hamahiru urtera arte ibili zen eskolan. Maria Victoria Ibañez oso irakasle ona zela dio; asko olgatzen zutela. Egunero Bilbotik etortzen zen maistra trenez, meza entzun Zornotzan eta oinez ibiltzen zen Etxanora joan-etorrian. Ordaindu egiten zuten eskolara joatearren. Eskola nazionala herrian egoten zen eta ez zen ordaindu beharrik izaten. Eskola beterik egoten zen.

1.152. Ormaetxea fusilatu, Luzio kartzelan hil (AMO-156/016)

Etxanoko gizonik argiena fusilatu egin zutela kontatzen dute, Ormaetxe abizenekoa. Alkatearen eta apaizaren sinadura bila joan ziren senideak, fusilatu ez zezaten, baina ez zuten sinatu. Luzio izeneko etxanoar bat kartzelan hil zen Cadizen.

1.153. Errotarik ez, udalak ura kendu zuelako (AMO-157/001)

Errotara joaten zirenean, hamarrena kentzen zieten. Ez da errotarik geratzen, ura kendu baitzuen udalak 1955 inguruan.

1.154. Eguraldi egonkorragoa lehen (AMO-157/003)

Lehenago nekazaritzarako eguraldi hobea egiten zuela diote, orain landareek kokoa izaten dutela. Garia harriaren gainean lehortzen zuten, gero jotzeko. Eskuz baino, makinaz jotzen hasi ziren gero, gerraostean. Eguraldia egonkorragoa zela lehen diote.

1.155. Soldaduak baserrietara lanera janari truke (AMO-157/006)

Gerrarengatik Derion egon zenean, arrantxoia jatera joaten ziren Agustin eta bere familia. Etxanora gerraostean tarteka soldaduak joaten ziren lanera baserrietara, jatekoaren truke. Soldadutzan gosea pasatzen zutela dio Agustinek.

1.156. Isilik egoteko mehatxua (AMO-157/008)

Aitari gertatutako pasarte bat kontatzen du Agustinek, isilik egoteko mehatxua jaso zuenekoa.

1.157. Etxeko ekonomia emakumeen esku (AMO-157/010)

Beren familietan emakumeak ziren ekonomia eta dena eramaten zutenak.

1.158. Frontetik ihes egindakoak (AMO-157/017)

Agustinen anaietako bat ihesi etorri zen, frontetik ihesi. Zapata zaharrak zola gabe ekarri zituela gogoan dauka. Bere moduan gipuzkoarrek ere ihes egin zutela kontatzen du. Antoniaren etxera ere heldu zen ihesi zihoan soldadu nafar bat.

1.159. Frontearen erdian egotetik, Durangora (AMO-158/010)

Gerra garaian, etxean geratu ziren, frontearen erdian. Larreako komentua erre egin zen. Durangora joan ziren ihesi. Aita Burdinazko gerrikoa egiten aritu zen.

1.160. Zornotza bonbardatuta (AMO-158/011)

Zornotza guztia erreta zegoen itzuli zirenean; aurretik ikusi zuten erretzen. Hegazkinek bonbardatu zuten herria. Etxea ondo topatu zuten.

1.161. Pilotari Bartzelonan (AMO-158/012)

Bere anai bat eta biak Bartzelonara joan ziren, pilotan egitera. Urte bi egin zituen han. "Frontón Barcelona" zeukan izena. Hamasei urte ingururekin joan zen eta handik bueltan zerrategian hasi zen lanean.

1.162. Jatorduak "auxilio social"en eskutik (AMO-159/003)

Jatorduak ematen zizkieten jendeari "auxilio social"etik.

1.163. Larrean egon ziren batailoiak (AMO-159/004)

Komentuan Eusko Indarra batailoia egon zen, gipuzkoarrak, eta elizan Gudaroste bizkaitarrak. Azkenean, asturiarrak egon ziren.

1.164. Bonbardaketak eta babeslekuak Etxanon (AMO-159/006)

Gerra garaian, gogoan dauka bonbardaketak izan zirenean, aita etxean zegoela. Etxe inguruan jausi ziren bonba batzuk. Babeslekua egin zieten eta hantxe sartzen ziren Larreakoak.

1.165. Morteroekin jolasean (AMO-159/009)

Eusko Indarra morteroarekin ibiltzen zen. Lagunak joaten ziren haiek botatakoaren bila, helizea izaten zuelako, gustatzen zitzaiena. Anekdotak bat kontatzen du.

1.166. Eskuko bonbekin jolasean (AMO-159/010)

Bala-zorroak topatzearren, dirua ematen zieten. Eskuko bonbak erabiltzen ikasi zuten. Errekara botatzen zituzten, jolasean. Lagun bat itsutu egin zen, beste bat herren geratu eta beste ezbeharrak batzuk ere bai.

1.167. Garia eta artoa udaletxera (AMO-160/009)

Gerrako oroitzapenik ez dauka. Gerra ostean, garia eta artoa eraman behar izaten zituzten udaletxera.

1.168. Guardia zibilen beldur (AMO-160/010)

Gerra ostean, guardia zibilak agertzen zirenean, sabaian ezkutatzen zen. Bizkargiko erromerietan ere tirabirak izaten zituzten guardia zibilekin; borrokak izaten ziren han.

1.169. Uda partean, bakailaoa erreta (AMO-160/015)

Uda partean, bakailaoa erreta jaten zuten. Taloa eta esnea jatordu guztietan hartzen zuten, betetzeko. Bazkalorduan babak jaten zituzten.

1.170. 1954 urteko lehortea (AMO-160/017)

Ezagutu duen lehorterik handiena 1954 urtean gertatu zen. Abereekin gaizki ibili ziren. San Jose egunean elurra egin zuen eta hamabost egunez ez zuen kendu. Gero, euririk egin gabe eman zituen egun asko. Goserik ez du pasatu.

1.171. Hildakoa bizkarrean eramane behar (AMO-160/022)

Norbait hiltzen bazen, bizkarrean eramaten zuten hilotza. Gogorra izaten zela dio. Domeka guztietan mezara joan behar izaten zen.

1.172. Umetako jolasak eta gaiztakeriak (AMO-161/008)

Maistrari burla egin, fruituak ostu... horrelako gaiztakeriak egiten zituzten. Tabekin, soka-saltoan, esku pilotan, futbolekin eta beste ibiltzen ziren jolasean.

1.173. Auzokoen artean egindako lanak (AMO-161/011)

Bideak egin, ura ekarri eta beste hainbat lan auzokoen artean egin zituzten.

1.174. Gerrarengatik ihesi joan eta baserria hondatuta topatu (AMO-161/017)

Frankismoan udaletxera entregatu beharra izaten zuten. Beldurra izaten zuten. Gerra zibilean Enekurira joan ziren. Baserriko ateak apurtuta eta erreto topatu zituzten, soldaduak sartu zirelako. Erlojua ezkutatu egin zuten, ez zuten lapurtu.

1.175. Domeketan plazara saltzera (AMO-162/004)

Merkatuarena zen arazoetako bat anexionaren kontuan. Zerbait ordaindu behar izaten zuten postuan egotearen. Domeketan izaten zen, zortziak inguruan. Aurretik, mezetara joaten ziren.

1.176. Eskolan Maria Victoria Ibañezekin (AMO-163/001)

Sei urte ingururekin hasi zen eskolan eta hiru urte egin zituen. Maria Victoria Ibañez irakaslea ona zela dio eta bere zereginetan zintzoa. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Hileko lehenengo ostiralean janaria eramaten zuten, jauna hartzen baitzuten.

1.177. Bost txahalaren dirua urte osorako (AMO-163/004)

Bost txahal saltzen zituzten urtean. Diru hori urte osorako administratu behar izaten zuten.

1.178. Auzokoen artean elkar laguntza (AMO-163/005)

Baserriren batean norbait hiltzen bazen, auzokoak arduratzen ziren etxeko zereginak egiteaz. Norbait oso gaixo zegoenean, auzoak etortzen ziren tirabirengatik barkamena eskatzen. Bideak konpondu eta gari-jotzea auzotarren artean egiten zuten. Gari-jotzea eskuz zela egiten zuten eta ondoren makina erabiliz egiten zena kontatzen du.

1.179. Etxanoko apaizak (AMO-163/007)

On Luis Goiria apaiza Etxanokoa zen. Beste hiru apaiz aipatzen ditu. Apaiz ikaslea zenez, ez zuen haien gogortasuna hainbeste sentitu.

1.180. Domingo Begiristain tabernaria (AMO-163/009)

Bederatzi urterekin joan zenez, udan bakarrik etortzen zen etxera. Seminarioan Artean eta Derion egon zen. Apaizgaia izan zenez, herriko girotik aparte bizi izan zen. Domingo Begiristainen taberna aipatzen du; bizargina, lurperatzailea eta beste hainbat lan egiten zituen.

1.181. Bizitza lasaiagoa (AMO-163/011)

Nekazal giroan bizi-erritmoa lasaiagoa zela dio. Adibide bat kontatzen du. Larreara eta Urkiolara joaten zenekoa gogoan dauka, baita San Martin baselizara ere. Jatekoa eramaten zuten halakoetan.

1.182. Umetako jolasak: txirrinkola, txapak (AMO-163/012)

Txikiagoei burla egiten ibiltzen ziren umetan. Erregenetan ekarritako jostailuekin aritzen ziren. Txirrinkoletan eta txapaka jolasten zuten. Elizpean egiten zuten jolasa azaltzen du.

1.183. Hiru abadegaiak olgetan (AMO-163/013)

Udan eta aste santuan etortzen zen etxera. Abadetzarako ikasten hiru lagun ziren Etxanon. Egunero goizez eta arratsalde zuten ziren mezatarak, eta olgetarako aprobetxatzen zuten.

1.184. Umetako zereginak (AMO-163/014)

Ortuko landareei ura egin eta egurra txikitzea zen bere lana umetan, baita itaurrean aritzea ere. Auzunean ez zegoen bere adineko ume askorik.

1.185. Anexioaren aurreko Etxano (AMO-163/015)

Amorebieta eta Etxanoren anexioa justifikatzeko herri biek lurrak nahastuta zituztela esaten zuten. Ez dauka gogoan batzarrik. Alondegi bat zegoen, zezenak jaietan... baina ondoren, horiek amaitu egin ziren.

1.186. Etxanon bi meza eguneko; Felix Gallastegi apaiza (AMO-164/001)

Egunero meza egoten zen. Uste du bi izango zirela, bi apaiz zeuden eta. Felix Gallastegi apaizaren aipamena egiten du, gauza asko egin eta eragin zituen.

1.187. Amak soldaduengandik dirua eta jatekoa gorde (AMO-164/002)

Gerra garaian soldaduak diru bila ibiltzen zirela dio; amak dirua eta jatekoa ondo gorde zituen eta ez zituzten aurkitu. Oiloak eta behiak lapurtzen zizkieten. Aitak etxetik alde egin behar izan zuen.

1.188. Diru ekarpen handia auzoko eskola egiteko (AMO-164/003)

Auzoko batzuek 500 pezetako diru ekarpena egin zuten auzoko eskola egiteko eta eraiki ere bai. Auzoko batzuek parte hartu ezin eta Zornotzara joaten ziren eskolara.

1.189. Amak zeregin eta ardura asko (AMO-164/004)

Amaren etxeko zereginak zerrendatzen ditu: amak denean lan egiten zuen aitarekin batera, basoan izan ezik; bazkaria prestatu, oiloei jaten eman, umeak atondu, arropak garbitu... Behar eta ardura asko zituela dio.

1.190. Abade Busturian, Ean eta Ekuadorren (AMO-164/007)

Abade egin zen. Busturian hamazortzi urtez egon zen eta gero Ean. Hiru urte eta erdi Ekuadorren eman zituen.

1.191. Etxanoko auzoak (AMO-164/009)

Etxanoko auzoak izendatzen ditu, handia zela adierazteko. Berari hamarrena kobratzera joatea tokatu zitzaion.

1.192. Abarkak biderako, zapatak kalerako (AMO-164/011)

Bilbora edo Zornotzara joateko abarkak jantzita joaten ziren eta gero zapatak janzen zituzten.

1.193. "Gure amama ganbaran dago" kanta (AMO-165/004)

"Gure amama ganbaran dago" kanta abesten dute emakumeek.

1.194. San Bartolomeko ermita konpondu zutenekoa (AMO-165/007)

San Bartolomeko kanpaiari buruzko kontua kontatzen du. Ermita konpontzeko dirurik ez zegoenez, lursail bat enkantera atera zuten. Basoan bertan egin zuten enkantea eta bik parte hartu zuten, Juan Barrenetxeak eta Pedro Urizarrek. Pedro Urizarrek eskuratu zuen saila. Kanpai berria Gasteizen egin zuten eta guriarekin bila joan zen Diburzio Aldazabal. Ermitako ataria harrezkero konpondu egin izan dute.

1.195. Gari-jotzea etxez etxe (AMO-165/008)

Garia etxerako ereiten zuten eta udaletxera entregatu ere bai. Garia jotzen etxerik etxe ibiltzen ziren, laguntzen. Gariaren azaoak ganbarara jasotzen zituzten. Sangria edaten zuten.

1.196. Alonsotegi bonbardatu zutenekoa (AMO-165/010)

Gerra hasi zenean, ebakuatu egin zituzten. Alonsotegi bonbardatu zutenean, menditik ikusi zuten. Han zeudela, metrailatu egin zituzten. Abereak ere beraiekin eraman zituzten, Eusko Indarra batailoioek lagunduta.

1.197. Gerratik itzulita, etxeak hondatuta eta ezin sartuta (AMO-165/014)

Etxebarri-behekoa baserriko gizonetako batek kontatzen du abereak eramaten zizkietela soldaduek. Etxeak hutsik eta hondatuta topatu zituzten. Etxe batzuetara ez zieten sartzen lagatzen ez ugazabak ezta Ormaetxe alkateak ere.

1.198. Karlistada sasoian ihesean ibili ziren auzokoen kontuak (AMO-167/002)

Familia batean batzuk karlistak eta besteak liberalak omen ziren. Kartzelatik ihes egin ostean, nondik nora ibili ziren azaltzen du. Azkenean Frantzia aldera ihes egin omen zuten. Gerora Australiatik idatzi omen zuten ondo zeudela esaten.

1.199. Pierola Gasteizko obispoa Bernagoitira (AMO-167/003)

Bere izebak Bernagoiti "república independiente" zela esaten omen zuen. Abaderik ere ez omen zuten nahi. Behin Pierola Gasteizko obispoa etorri zela kontatzen du; Bernaraino kotxean eta handik gora, galtzadatik, astoan.

1.200. Bernako galtzada auzolanean garbitzen zen (AMO-167/004)

Bernatik Bernagoitirako galtzada. Gaur egun zati bat itxita dagoela dio. Garai batean auzolanean garbitzen zen urtero eta Udalak "errazioa" ematen zuen gero. Errepidea egin zenean, jada inork ez zuen galtzadaren ardurarik hartzen.

1.201. Aita igeltseroa (AMO-168/002)

Gerraosteko umea da Xabier. Familiak ebakuatuta irten behar izan zuen gerran. Gerra osteko urteak gogorrak izan ziren, urritasun urteak. Aita igeltseroa zuten, Zornotzan ibiltzen zen etxerik etxe. Ama zen baserriaren ardura hartzen zuena.

1.202. Ume sasoia bakarrik pasatu zuen (AMO-168/003)

Torreburu, jaiotetxea, goian eta leku bakartian dago. Horrexegatik, ume sasoia nahiko bakarrik pasatu zuen Xabierrek, ez zeukan inguruan bere adineko umerik eta.

1.203. Umetako asmakizunak (AMO-168/005)

Umetan asmakizun ugari egiten zituen. Esaterako, autobusak eta trena Torreburura ekartzeko bidea zelan egin asmatzen ibiltzen zen eta baita ura zelan ekarri ere. Ganadua zaintzen zegoela pentsatzen zituen kontu hauek guztiak.

1.204. Eskola-lagunekin harreman zailak (AMO-168/006)

Eskolako harremanak ez ziren errezak izaten, bost urte zituztela hasi eta hamabi bat urtera arte denak batera egoten ziren eta. Xabierrek neska nagusiengan bilatzen zuen babesa eta horregatik belarriondokoak jasotzen zituen mutilengandik. Beldurrak etxerako bidean arintzen zitzaizkion, bere inguru ezagunean sartzean.

1.205. Etxanoko udalerriko mugak (AMO-168/009)

Etxanoko elizaldea txikia zen, baina udalerrria gehiago zabaltzen zen: Oromiñotik Bizkargiraino Etxanoko udalerrriaren lurak ziren. Hala ere, Urritxe, Larrea, Boroa eta Kaitanekoak beste eskola batzuetara joaten ziren. Seieheun bat biztanle egongo ziren orduan Etxanon.

1.206. Torreburu aitag eraiki zuen (AMO-168/011)

Ama Etxanokoa zuen Xabierrek, Torreburuganekoa, eta Aita Pagaikoa, Gorozikakoa. Aitak Torreburuganekoaren lursailetan egin zuen Torreburu, Xabierren jaiotetxea. Gerrak etxe erdia apurtu zuen eta berriro altxatu behar izan zuen aitag. Bizkargin frontea egon zen eta Gernika erre zuten hegazkinak ere etxe ingurutik pasatu ziren.

1.207. Gerran, soldadu bat buru barik korrika (AMO-168/012)

Behin, aitaginarrebarekin Bizkargiko egunera joan ziren. Aitaginarreba bertako frontean ibilikoa zen eta bertan gizon bat buru barik korrika ikusi zuela kontatu zien.

1.208. Aitak zapoen kanta zuen gustuko (AMO-168/015)

Oso umoretsua zen aita. Asko gustatzen zitzaion zapoen kantua eta kantu hori interpretatzen ahalegintzen zen. Etxe inguruan ez zeukaten zaporik eta aitak ekarri arren, hil egiten zitzaizkien. Inoiz tabernara ere eraman izan zituen zapoak.

1.209. `Xenpelar´en bertso zaharrak berba egiten hasteko (AMO-168/016)

Berbaz berandu hasi zen Xabier. Amak medikuarenera eraman zuen eta baita San Felicisimora ere. Aitak, oster, kanta erakusten zizkion berbaz has zedin. Esaterako, Xenpelarren bertso zaharrak: "Ezkundu eta ezkogai, guztiok ondo bizi nahi..."

1.210. Kaikuko traineraren abestia eta koplak (AMO-168/018)

Aitak ondoko kanta abesten zuen gaztelaniaz, Kaikuko trainerena: "Pa fanfarr´n Santurce, pa chulos Portugalete...". Koplak ere kantatzen zituen: "Begire nago begire, kamiño bide barrire..."

1.211. Amaren familia panderojolea eta dantzaria (AMO-168/019)

Euren etxean ama eta amama panderojoleak ziren. Amamaren aldetik, gainera, mutil guztiek zekiten dantzan. Horregatik, amamak bere alaben mutilak dantzan egiten jartzen zituen, mutil egokiak ziren edo ez ikusteko.

1.212. Santa Luziako erromeriak amamaren ahizpak antolatzen zituen (AMO-168/020)

Amamaren ahizpa batek Santa Luzian egiten zuen erromeria: panderoa jo eta ogia eta ardaoa saltzen zituen. Inguruko gazte guztiak batzen ziren bertan, baita Arratiakoak ere. Erromeria horietako anekdotak kontatzen ditu.

1.213. Umeak Paristik zetozen (AMO-168/022)

Umeak Paristik zetozela esaten zieten, zikoina batek ekarrita. Sarri hiltzen ziren umeak orduan eta, etxera zetozela, zikoinaren zorrotik jausiko zirela esaten zieten. Ez zuten argi hitz egiten kontu horien gainean; behin, izekok umea egin eta honen amarengana bidali zuten Xabier "nobedadie" zegoela esatera.

1.214. Kontakizuna: osabak soinu barruan ekarri zuen Bizkargitik (AMO-168/023)

Xabier ez ei zen Paristik etorri gainontzeko umeak bezalaxe; Osabak ekarri ei zuen Bizkargitik soinu barruan. Umetan kontatu zioten istorio hori kontatzen du.

1.215. Lehenengo bertsoa zazpi urte zituela (AMO-168/025)

Bizkargiko egunean Autzaganen egiten zuten erronomia. Egun hartan, bertsoan zebilen aita tabernan eta Xabierrek berak ere bertso bat kantatu behar izan zuen, bertakoek eskatuta. Hura izan zen bere lehenengo bertsoa. Bertan zeudenek dirua bota zioten txapelara.

1.216. Umetan lotsa bertsoak kantatzeko (AMO-168/027)

Lehenengo bertsoa bota zuenetik, jendeak bertsoak kantatzeko eskatzen zion jaietan. Xabierrek lotsa handia pasatzen zuen, estuasuna, eta ihes egiten zuen horrelako momentuetan.

1.217. Bertso-txapelketak irratitik (AMO-169/001)

Inguruko gehienak sasi-bertsolariak ziren, tabernetan-eta abesten zutenak. Hamazazpi-hamazortzi urte zituela entzun zituen lehenengo txapelketak Xabierrek irratitik. Arrate irratia entzuten zuten orduan.

1.218. Lehenengo bertso txapelketak (AMO-169/003)

Larrean, Karmengo Ama Birjinaren egunean Enbeitatarrak ekartzen zituzten eta hiru-lau bertso kantatzen zituzten elizan. 1958an hasi ziren txapelketak eta orduan hasi ziren bertsolariak plazetan ikusten. Xabier bera bigarren txapelketan egon zen, Bilboko Zezen Plazan. Orduko bertsolariak Enbeitatarrak, Lopategi, Azpillaga... ziren.

1.219. Fraide sartzea jolasa (AMO-169/006)

Xabierrek Aita Luzio fraidearekin zeukan harremana eskolan eta fraide joan behar zuela esaten hasi zen. Fraidetza hartuko zuela esatea jolasa zen beretzat; denek ondo baino hobeto hartzen zutela ikustean jolasarekin jarraitu zuen. Amabitxik fraide joateko arrea egin zionean konturatu zen jolasa egia bihurtu zela.

1.220. Erlijioaren gainbehera (AMO-169/008)

Xabier abade egin zen urtean Bizkaian hogeita hamar batek hartu zuten abadetza. Hirurogeita hamargarren hamarkadan etorri zen seminarioaren gainbehera.

1.221. Sotana eta guzti manifestazioetan (AMO-169/010)

Bizkaian "Gogor" izeneko abade taldea sortu zen "gogorkeriaren aurka gogortasuna" lelopean. Manifestazioak egiten zituzten, sotana eta guzti, poliziak ezin zituen ukitu gotzainaren baimen barik eta.

1.222. Elizako erregistroak euskaraz (AMO-169/011)

Abade zenean, erregistro liburuak euskaraz idazten hasi zen eta erdaraz heltzen zitzaizkion gutunak itzuli egiten zituen. Hori dela eta, arazoak eduki zituen artzapezarekin.

1.223. Bizkaiera jasoa erabiltzen zuten (AMO-169/013)

Xabier abade zenean, bizkaiera landua erabiltzen zuten idazteko, ez zegoen euskara baturik eta. Metodo batzuk ere bazeuden bizkaiera jasoa ikasteko.

1.224. Elizaren independentzia erregimenaren kontra egiteko (AMO-169/014)

Erregimena elizan ezin zela sartu aprobetxatuz, abade askok elizako lokalak uzten zizkieten behar zutenei. Abade izateagatik eskura zituzten tresna guztiak erabiltzen zituzten kulturaren alde eta erregimenaren kontra.

1.225. Elizako atean atxilotu zuten lehenengoz (AMO-169/015)

Lehenengoz, elizako atean atxilotu zuten Xabier, ezkontza baten ostean. 30 mila pezetako isuna zeukan eta ordaindu ezik, mila pezeta bakoitzeko egun bat pasatu behar zuen kartzelan. Ordezko abade bat bidali zuten kartzelan egon zen artean, baina herriak ez zion mezarik esaten utzi.

1.226. Hamar urteko kondena (AMO-169/016)

Agiri bat sinatu zuten bost abadek eta gose greba egin zuten. Hamar urteko kondena jaso zuen Xabierrek eta zazpi urte egin zituen Zamorako kartzelan.

1.227. Iraultza Frankismoko azken urteetan (AMO-169/018)

Frankismoaren azkenengo urteetan berpizkunde handia egon zen Euskal Herrian. Gazte belaunaldi berri horrek greba handiak antolatu zituen, boltsa solidarioak... Abadeek asko lagundu zuten ekintza hauetan. Abadeen mugimendua handia izan zen.

1.228. Aitaren ipuinak kartzelan zegoela (AMO-169/020)

Gurasoek ez zuten ondo ulertzen gose greba zer zen. Kartzelara bisitan joaten zirenean ere, aita ipuinak-eta kontatzen zizkion. Erderaz egin behar izaten zuten berba kartzelako bisitetan.

1.229. Kondena luzedunen isolamendua (AMO-169/021)

Kodena txikidunak Madrilera bialtzen zituzten eta kondena luzedunak Zamoran utzi, isolatuta. Azkenean gutxi batzuk geratu ziren kartzelan, baina berrogei izatera ere heldu ziren sasoi batean.

1.230. Arran (zintzarri) eta txilin motak (AMO-170/002)

Arranek lau denboraldi izaten dituzte. Arran mota bakoitzari buruzko azalpenak ematen ditu. Goizuetan eta Iturgoien egiten dituzte arranak; lehenago Arratian ere bai. Txikienak, txilinak, bildotsei ipintzen dizkiete.

1.231. Ogigaztaia uxatzeko (AMO-170/003)

Garai batean, ogigaztaiak beldurrarazteko txilin moduko batzuk ipintzen zizkieten ardiei. Ogigaztaia zelakoa izaten den azaltzen du.

1.232. Astoekin errotara; goiz-garia (AMO-170/005)

Zortzi urte orduko, errotara joaten zen astoak hartuta. Farolak eramaten zituzten biderako baina heldu aurretik itzali egin behar izaten zituzten. Artoa errota askotan ehotzen zuten baina garia gutxiagotan. Goiz-garia ereiten hasi ziren orduan. Irinarekin ogiak eta artoak egiten zituzten labeko sutan.

1.233. Artaleak labean lehortzen zituzten (AMO-170/006)

Talo asko jan izan ditu. Askok ziren etxean, hamalau-hamabost lagun. Artoa labean lehortzen zuten; gero urkuldu eta errotara. Kutxetan gordetzen zuten garia eta artoa. Larrabetzun irina sartzen zuten kutxetan.

1.234. Kapatxekin koltxoia edo abereei eman (AMO-170/007)

Kapatxekin koltxoia egiten zituzten edo abereei eman. Arto lastoei kapatxak kentzerakoan errezatu egiten zuten; jatordu bakoitzaren aurretik ere bai.

1.235. Kapatxak eta tabakoa zigarroak egiteko (AMO-170/008)

Zigarroa kapatxarekin egiten zuten. Kapatxak gero eta barruragokoak izan, bigunagoak izaten ziren. Txapelean erabiltzen zituzten kapatxak eta larruzko zigarro-kaxan tabakoa. Tabakoa etxean ereiten zen, sutondoan lehortu eta txiki-txiki eginda erre.

1.236. Etxerako ura ekarri eta argindarra sortu (AMO-170/011)

Ilunetan eskuko argiarekin edo farolarekin ibiltzen ziren. Berak hemezortzi urte zituela saltoa egin zuten eta etxerako argindarra sortu zuten. Eskuz egin zuten lan guztia. Ura ere orduan ekarri zuten etxera. Hasieran etxe guztirako bost bonbila inguru zituzten.

1.237. Erditu ostean, ama beharrean (AMO-170/013)

Erditze batean ama hiltzear egon zela kontatzen du. Ume denak sanoak jaio ziren. Erditu ostean zein haurdun ama beharrean zela ibiltzen zen kontatzen du.

1.238. Gerratean gizon bat ezkutatuta etxean (AMO-170/014)

Umeak mantarrean eta mantoian batzen zituzten. Gerratean aita gizon bat, desertorea, ezkutuan eduki zuen bi urtez. Basoko kobazulo batean gizonaren tresnak topatu zituzten; basoan bizi zen orduan gizona.

1.239. Izeba Saturrarango kartzelan (AMO-171/002)

Bere izeba bat, Frantziska, Saturraranen egon zen kartzelan, semea eta guzti.

1.240. Apaizaren zitalkeria (AMO-171/004)

Gerra ostean gauza zatar asko gertatu zirela dio. Apaizak sinatu ez zituen dokumentuengatik bi lagun hil zituztela eta, berari apaizak biguina ematen ziola dio.

1.241. Bere amak hazi zuen besteren umea (AMO-171/009)

Bere amak bi ume hazi zituen batera, berea eta guardarena. Izan ere, kaxako ume bat (adoptatutakoa) ekarriz gero, kobratu egiten zen. Guardak kaxakoa hartu zuen etxean, dirua kobratzearen, eta berea zuena Krispinen amak hazi zuen.

1.242. Amaren azken haurdunaldia (AMO-171/011)

Ama behin baino gehiagotan ikusi zuen haurdun. Azkenengo haurdunaldian pena handia eman zion amak, berrogeita bost urte zituelako. Ordukoa kontatzen du.

1.243. Abereei erditzen laguntzen (AMO-171/012)

Abereen erditzeetan laguntzen ona izan dela dio. Hainbat esperientzia kontatzen ditu, abereei umetokia irtetzen zaienean zer egiten duen azalduz. Hildako abereak lurperatu egiten zituzten.

1.244. Legarra zelakoa den (AMO-171/013)

Legarrak ditu sukaldean esekita.

1.245. Legarra zela prestatzen den (AMO-171/015)

Bildotsak belarra jan badu, legarrak ez du balio. Bezeroei saltzen die baina bestela ez. Txapan lehortzen dute eta zintzilik eduki gero. Zati bat moztu, uretan beratu, eskuekin ondo xehetu eta gero zapi batekin iragazi.

1.246. Legarra zela eskuratzen den (AMO-171/017)

Bildotsa hil eta tripak kentzen zaizkionean kentzen zaio legarra. Neurria hartu behar zaio legarrari, bestela zapore fuertea eragiten du.

1.247. Artzaintzari lotutako tresnak (AMO-171/019)

Tresnak erakusten ditu: ardiari ilea mozteko artaziak, gazta freskoa egiteko moldeak, kaikua, gaztaia apurtzeko tresna, txabila (haria egiteko), kaskabiloak, zintzarriak, adarrak...

1.248. Adarrekin egindako arranak (AMO-171/021)

Adarrekin zintzarriak edo arranak egiten dituzte. Lepokoa egurrezkoa izaten dute.

1.249. Transhumantzia kontuak (AMO-171/022)

Transhumantziari buruzko azalpenak ematen ditu. Urtean birritan egiten zuten. Mutrikura joaten ziren Erregenak aldean eta udaberrian mendira.

1.250. Durangon erakusten du transhumantzia (AMO-171/023)

Durangotik deitu zioten transhumantziaren ohitura erakus zezan. lurretaraino joaten da, handik Durango aldean buelta osoa eman eta berriz lurretara, eta handik etxera. Irailaren hasieran egiten dute.

1.251. Artilezko arropak (AMO-171/025)

Lehenago ez ziren oraingo baserritar jantzitzat hartzen den horrekin ibiltzen. Eskuz egindako jertseak eta galtzak erabiltzen zituzten. Amak egiten zizkien.

1.252. Ardiei adarrak moztea (AMO-171/026)

Zerra erakusten du, ardiei adarrak mozteko erabiltzen zuten. Kablearekin mozten dizkiete orain. Haskan sartzeko moztu behar izaten dizkiete adarrak. Ilbeheran eta hotz egiten duenean mozten dizkiete. Ilea mozteko ere ilbeheran egiten dute.

1.253. Apatxak konpontzea (AMO-171/028)

Lehen labanarekin konpontzen zitzaizkien apatxak.

1.254. Ardiei belarriak markatzea (AMO-171/029)

Ardiei belarria markatzeko tresna erakusten du. Lehenago mendira botatzeko derrigor markatzen zituzten. Ardi zuriak erraz bereizten ditu baina bildots beltzak ezagutzea zaila izaten da.

1.255. Mendiko txabolan zirenean (AMO-171/033)

Ardiak mendira eramaten zituztenean, txabolan lo egiten zuen. Lo eginda dago zohizko txabolan ere. Txabolan lo egiten zuenean izaten zuten bizimoduaren berri ematen du.

1.256. Larruzko abarkak (AMO-171/034)

Larruzko abarkak oso txarrak zirela dio. Gomazko abarkekin gustorago ibiltzen ziren. Aititak egiten zituen abarkak, behi-larruarekin. Prozesua azaltzen du. Kare biziarekin kurtitzen zen larrua.

1.257. Korea zela egin eta zertarako (AMO-171/035)

Korea karobitik ateratzen zuten. Soroetan korea zabaltzen zen abuztuan. Korea zela egiten zuten kontatzen du. Korea eta satsa, biak onak izaten direla dio.

1.258. Korea hormak egiteko (AMO-171/036)

Korea hormak egiteko erabiltzen zen. Gogor-gogorra geratzen dela dio. Korea eta lurra nahasten zituzten.

1.259. Korea zertarako (AMO-171/037)

Arrautzak karetan kontserbatzen zituzten batzuek. Etxe zuritzeak kare biziarekin egiten ziren. Sagarrondoan ipurdiak karearekin igurzten ziren.

1.260. Mariurrikaren ipuina (AMO-171/040)

Mariurrikaren ipuinak kontatzen zizkien aitak.

1.261. Kumak eta pardelak (AMO-171/041)

Aititak zaintzen zituen umeak. Egurrezkoak izaten ziren sehaskak, kumak. Umeen pardelak lehen ume-izara eta mantarra izaten ziren, gerrian lotuta. Haiek garbitzeko lan handia izaten zuten.

1.262. Azeri harrapatzaileak (AMO-172/001)

Jaiero joaten ziren Belatxikietara. Kafea edo gaseosa edaten zuten. Ez zen erromeriarik egiten han. Azeri harrapatzaileak egoten ziren eta San Inazio egunean Belatxikietan eta San Juan egunean Mugarran batzen ziren, ordainketak egiteko. Azkenerako tranpak egiten hasi ziren azeri harrapatzaileak eta ordaintzeari laga zioten.

1.263. Azeri larrua Gasteizera saltzera (AMO-172/004)

Egunean hamar azeri ere harrapatzen zituen batek. Gasteizera eramaten zuen larrua hark, saltzeko; Krispinek, ostera, bildotsaren larrua.

1.264. Erbia eta katamixarra, jateko gozoak (AMO-172/007)

Erbiak jan egiten zituzten. Basakatuaren larrua estimatua izaten zen; urte askoan ez du ikusi. Katamixar asko daudela dio; jateko gozoa omen da. Erbia eta katamixarra ur, ozpin eta gatzetan eduki behar izaten da, baso-zaporea kentzeko.

1.265. Behi edo txahalen larruarekin abarkak (AMO-172/009)

Bildots-larruak eramaten zituen Gasteizera. Moxalen larrua lurperatu egiten zuten. Behien bat edo txahalen bat hiltzen bazen, haren larruarekin abarkak egiten zituzten. Larrua iltzeekin josi, kare biziarekin igurtzi eta pare bat hilabetean lagatzen zen. Abarka horiek mendian ibiltzeko eskasak izaten zirela dio. Erraz bustitzekoak izaten ziren.

1.266. Uztarriak zela zaintzen zituzten (AMO-172/010)

Idientzako uztarriak ondo zaintzen zituzten; "burterie" urtean bi edo hiru aldiz aldatzen zuten. "Burterie" zela egiten zuten azaltzen du; koipez igurtzi egin behar izaten zituzten. Zapak Durangora eramaten zituzten borlak ipintzeko. Idiei txilinak ipintzen zitzaizkien. Arreoak ekartzen ibili izan da Krispin.

1.267. Arreoa ekartzearen, ezkontzara gonbidatu (AMO-172/011)

Lehenengo arreoa ekarri zuenean, ezkontzara gonbidatu zuten. Ezkongaiaren aitarekin batera joan zen. Osaba baten trajea jantzita.

1.268. Ezkonginaren asmoa (AMO-172/014)

Santa Eufemian eguna pasatu ostean, neskarekin bueltan Markinara joan eta haren senide bat ezkongina izanik, biak ezkontzen saiatu zen. Ezagutu zituen inguruan ezkonginak ere.

1.269. Uztarritarako pegoa edo haltza (AMO-172/017)

Elorrioko uztargilea etortzen zen etxera, behiei uztarria egitera. Pago-egurra beratzen jartzen zen uretan. Haltza ere erabiltzen zuten batzuek, ilbera edo ilberrian botata.

1.270. Azeriak eta katamixarrak, lehen gorriagoak (AMO-172/019)

Azeri harrapatzaileei azeri helduak hiltzearen ematen zieten dirua. Lehenago azeriak gorriagoak zirela dio, baita katamixarrak ere. Azkonarrak artoa jaten zuen.

1.271. Kukuaren joan-etorriak (AMO-172/021)

Kukua lehengo antzera entzuten duela dio. Andra Mari Martiko (martxoaren 25a) egunean etortzen omen zen eta San Pedro egunean joan. Andra Mari Martiko eguna jai handia izaten zen.

1.272. Txoriak gutxitu, saiak ugaritu (AMO-173/001)

Bele asko ibiltzen dira. Birigarroak eta bestelako txoriak pozoiek hondatu egin dituztela dio. Saiei ez zieten tirorik botatzen; lehen gutxi zeudela dio.

1.273. Abereak: "Susera", "alta", "ozal", "arkera"... (AMO-173/005)

Abere emeak arra hartzeko prest daudenerako erabiltzen diren hitzak esaten ditu: behiak "susera", behorra "alta", txakurra "ozal", ardia "arkera"... Katuen hilabetea otsaila izaten dela dio. Lehen behia mendira eramaten zuten, zekorra gerturatu zedin.

1.274. Abereen haurdunaldiak (AMO-173/006)

Behia ernari bederatzi hilabetez egoten da; astoak hamar-hamaika hilabete; ardiak eta ahuntzak bost hilabete. Zerri arrak emeari nola gain hartzen dion azaltzen du.

1.275. Sexua tabu (AMO-173/007)

Sexuari buruz ez zen gurasoeekin berba egiten. Erditzeak ezin izaten zituzten ikusi, etxean gertatzen ziren arren. Neskekin jolasean ibiltzen baziren, apaizak kaskarrekoa ematen zien.

1.276. "Kurkubike" eta "txopike" jolasak (AMO-173/008)

"Kurkubike" ibiltzen ziren, ezkutaketan. "Txopike" ere aritzen zirela dio, harrapaketan.

1.277. Apaiz gogorra Bernagoitin (AMO-173/009)

Bernagoitin apaiz oso gogorra izan zutela dio. Konfesatu egin behar izaten zuten; apaizarengandik banatzen zituen hesirik egon ez balitz, egoera larriak gertatuko lirakeela uste du. Apaiza neskamearekin larrutan harrapatu zutenekoa kontatzen du.

1.278. Aitita erlezaina (AMO-173/014)

Erleak ziztatutakoan, hiru belar mota ipini behar izaten ziren. Bere aititak erleak zituen. Erlauntzak zela egiten zituen kontatzen du; erletokian izaten zituen. Pasarte bat kontatzen du.

1.279. Eztia, argizaria eta erretxina (AMO-173/015)

Aititek eztia zela ateratzen zuen kontatzen du, kea erabilia. Argizaria erosi egiten zuten, etxean argia izateko. Argindarraren aurretik, karburua, petrolio,

farola... erabiltzen zituzten argi egiteko. Pinuaren erretxina egurrezko lurrari ematen zitzaion aberatsen etxean.

1.280. San Inazio ermita berri samarra da (AMO-173/017)

San Inazio ermita egin zutenekoa gogoan du. San Juan egunean ere biltzen ziren han artzainak. Mezak ganoraz egin ahal izateko eraiki zuten ermita, aberats batek diruz lagunduta.

1.281. Bola-jokorako bolak (AMO-173/020)

Zazpi-zortzi kiloko bola erabiltzen zuten, intxaurrondoaren edo artearen egurrarekin. Zornotzan bazegoen bolak egiten zituen bat. Bost edo lau bolara jokatzeko zuten.

1.282. Izara zuriak abisuak emateko (AMO-174/003)

Izara zuriak abisuak emateko erabiltzen ziren. Adibideak ematen ditu. Oihuka ere aritzen ziren, mendi batetik bestera.

1.283. Hil-kanpaiak eta ekaitzaren abisua emateko kanpaiak (AMO-174/004)

Norbait hiltzen zenean, hil-kanpaiak jotzen ziren. Umeena desberdin jotzen zuten. Trumoiak jotzen zuenean, kanpaiekin ematen zen abisua eta kandelak pizten zituzten. Zuhaizpean ardiak hilda topatu zituenekoa kontatzen du.

1.284. Hildako abereak saientzat edo karobi zulora (AMO-174/005)

Goietan hiltzen ziren animaliak saiek jaten zituzten. Etxean hildako abereak karobi zuloetara botatzen zituzten.

1.285. Txondorra zela egiten zuten (AMO-174/007)

Txondorra zela egiten zen kontatzen du, pausoz pauso. Zoizko txabolak egiten zituzten, bertan egoteko. Udan egiten zen gehien bat ikatza.

1.286. Erromerietara gustora (AMO-174/009)

Erromerietan dantza egiten zuten. Neskek ere eskatzen zieten dantza egiteko, ez alderantziz bakarrik. Leku askotara bakarrik joaten zen sarri. Nongo jaietan ibiltzen zen kontatzen du.

1.287. Ahari-topeka (AMO-174/018)

Ahari-topekak sarri ikusi izan ditu. Bere anaia ibiltzen zen. Ahariak berez izan behar duela ona dio. Ardia, bildotsa egindakoa hoztu egiten bazen, ardoa ematen zioten.

1.288. Hika eta zuka bai, berorika ez (AMO-174/020)

Aitari zuka egiten zion eta aitak berari hika. Aita-semeak beti ika-mikan aritzen ziren. Aitak hika egiten zien seme-alabei eta beren artean ere hika egin izan dute neba-arreben artean. Alabari beti zu egin izan dio Krispinek. Berorika ez dio inori egin izan berak.

1.289. Anbotoko Mariren ipuina (AMO-174/022)

Aitak kontatzen zuen mutilen bat leizera sartu eta erabat izututa geratu zela. Anbotoko Marik esan omen zion "eskerrak ez diozula ezeri ukitu, bestela, hemen geratu beharko zinen".

1.290. Bittor irakasle Urberuagan, baserritarren eskolan (AMO-175/002)

Amurizak Gizaburuagan apaiz zegoela ezagutu zuen Kapanaga. Bittorrek eskolak ematen zituen Urberuagan zegoen baserritarrentzako eskolan. Gauzak esplikatzeko modua gustatzen zitzaion Xabierri. Beti ertzen bila. Besteek ikusten ez zituzten gauzak ikusten zituen. Gauza aldrebesak beharbada, baina zuztarra zutenak.

1.291. Baserritar taldea Bittorren korta bisitatzeraz (AMO-175/003)

Bittorrek bere teoriak aplikatu zituen. Hainbat baserritar kooperatiba sortu ziren sasoi hartan. Bittorrek behiak jarri zituen Otxandion. Xabierrek haren korta bisitatzeraz eraman zuen baserritar talde bat. Ez ziren oso gustura geratu han ikusi zutenarekin. Ateraldi zelebrea: "Behiak apatxetik ezta esnerik emoten". Ez zuen asko iraun behiekin. Horretarakoez zuen balio.

1.292. Kapanaga, dialektikan txapeldun (AMO-175/004)

Ordubetea berba egiteko pertsona interesgarriagorik ezin ei zitekeen topatu. Hortik gora... Bere buruaren jabetasun handiegirik ez zuen eta ez zen zaila ziria sartzea maltzurra izanez gero. Espresino itzala zeukan. Ikuspegi oso originalak, zorrotzak eta azertauak gauza askori buruz. Baina batez ere gauzak zelan esplikatzen zituen gustatzen zitzaion Amurizari.

1.293. Bittor gaztez inguratuta Herriko Tabernan (AMO-175/005)

Xabierri ez zitzaizkion gehiegi interesatzen hain aspaldiko gauzak. Bittorri politika ere asko gustatzen zitzaion. Xabierrek bazekien non aurkitu, Otxandioko Herriko Tabernan. Gustura egoten zen gazteekin berbetan. Aholkulari papera jokatzeko zuen. Herriko gazteek asko estimatzen zuten baina adinekoek ez hainbeste, zenbaiten ustez ez zitzaizkion lana gustatzen.

1.294. Bittor beti berbetarako prest (AMO-175/007)

Bittorregana abisatu barik joan arren, Xabierrek bazekien ondo hartua izango zela. Beti aitzurra utzi eta berriketarako prest. Gozatu egiten zuen gauzak esplikatzeko. Mundu guztiak pozik irteten zuen Bittorrenetik. Oso pertsona maitagarria zen.

1.295. Gizon kultoa eta polemikari beldurrik ez ziona (AMO-175/008)

Setosoa eta polemikazalea ere bazen. Oso kultoa, ezagutza handia zuen gauza askori buruz. Kontrario handiak behar zituen, Mitxelena eta. Ez zioten kasurik egiten, baina eztabaidari ez zion beldurrik. Alfontso Irigoienekin konpontzen zen ondo samar.

1.296. Maistra onak izan zituen; Doña Felisa eta Doña Lola (AMO-176/003)

Hamabost urtera arte eskolan ibili zen. Gerra aurretik maisuak zituzten eta ostean, maistrak. Andikonara joan zen eskolara eta Doña Felisa Fernandez eta Doña Lola maistrak gogoratzen ditu. Doña Felisak arazoak izan zituen errepublikazalea zelako eta Andikoara eraman zuten lanera. Fortunari eskatzen zion batzuetan bere partez lanera joatea.

1.297. Pedro, Bernagoitiko maisua (AMO-176/004)

Pedro maisuari buruz hitz egiten du. Ikasleak, Zornotzatik Bernagoitira joaten ziren. Maisua eta barberua zen. Beste maisu batzuei buruz hitz egiten du.

1.298. Garai bateko ikas-materialak (AMO-176/005)

1923an eraiki zen eskola Bernagoitian eta lehenengo maistra, Doña Nicolasa Aizpurua. Ikasmateriala: entziklopediak, atlasak, liburuak. Garai batean 7 urterekin hasten ziren haurrak eskolan, baina Fortuna 5 urterekin hasi zen.

1.299. Primo de Rivera garaiko eskolako kantak (AMO-176/006)

Errepublika aurreko garaian, eskolan gaztelaniazko abestiak kantatzen zituzten. Mota ezberdinetakoak zeuden: klasera sartzekoak, patiora ateratzekoak, ixilik egotekoak, klase amaierakoa...

1.300. Auzo eskolako maistraren metodologia (AMO-176/007)

Errepublika aurretik, 65 ume zeuden eskolan Bernagoitian eta maistra Felisa Fernandez zen. Adin ezberdinetako haurrek elkarrekin ikasten zuten. Nola irakasten zuen azaltzen du Fortunak.

1.301. Doña Felisa Fernandez maistra (AMO-176/008)

Eskolan oso ondo egon zen Fortuna Bernagoitian. Oso maistra onak izan zituzten. Doña Felisa Fernandez maistrak, ikasketak Salamancan egin zituen.

1.302. Bernagoitiko eskola itxi zenean (AMO-176/010)

Bernagoitiko eskola itxi zenean, protesta asko egon ziren auzotarren artean. Alkateak sinadurak ere batu zituen. Ez du uste eskola pribatura joan zirenak hezkuntza hobeagoa izan dutenik.

1.303. Eskola publiko eta pribatuak (AMO-176/011)

Eskola publiko eta pribatuei buruz hitz egiten du. Garai bateko Zornotzako eskola publikoko zuzendariak Manolo zuen izena eta Zamorakoa zen. Fortunak eskolan lan egin du, jantokiko antolakuntza eramaten.

1.304. Zornotzako auzoetatik eskolako autobusa (AMO-176/012)

Haurrak autobusez eskolara eramateko egiten zuten ibilbidea; Bernabeitia, Bernagoitia, San Miguel, Etxano, Boroa, Astape... Eubatik ere ikasleak joaten ziren. Eubako eskola.

1.305. Maistrak jo zionekoa (AMO-176/014)

Maistrak behin jo zion zigor modura. Bestelako zigorrak. Eskolan euskaraz egiteagatik ez zituzten inoiz zigortzen.

1.306. Soldaduak behi eta esneekin gelditzen ziren (AMO-176/016)

Gerra garaian etxe bat zaintzeko eskatu zioten. Milizianoak heldu zirenean, behia hartu nahi izan zuten eta Fortunak aurre egin zien. Esne guztia hartu zuten. Ihes egin zuen Fortunak, beste batzuekin batera.

1.307. Durangotik Bernagoitira gerra garaian (AMO-176/018)

Gerran, hainbat jende Bernagoitian geratu zen. Durangotik ihes egiten zuen jendea ere bertan geratzen hasi zen, bi fronteren artean. Behiak, txahalak, idiak, artoa... kendu zizkieten askori.

1.308. Elizan serora bezala (AMO-176/020)

Elizan serora izan da Fortuna. Eliza atontzeaz eta garbitzeaz gain, abestu egiten zuen eta organo txikia ere jotzen zuen.

1.309. Elizako kantik gaztelaniaz frankismoan (AMO-176/023)

Arrazolatik etorritako abade baten kontuak. Frankismo garaian, elizako abestiak gaztelaniaz kantatu behar zituzten. Elizako kanta asko latinez dira.

1.310. Fraide organojolearen kontuak (AMO-176/025)

Jatorriz Berrizkoa eta Santutxun organojolea den fraide baten kontuak.

1.311. Elizan abeslaria (AMO-176/026)

Abesteko zaletasuna izan du eta eskolaz kanpo ere joaten zen ikastera. Musikako maistraren kontuak. Umetan, musika konpositorea izan nahi zuen.

1.312. Seroraren lana (AMO-176/028)

Elizako eta meza aurreko seroren lanak.

1.313. Bilboko aberatsen etxeetan diru-eske (AMO-176/029)

Bilboko familia aberatsen etxeetan egondakoa da Fortuna. Mojen bidez joaten zen, dirua eskatzera. Familia txiroei laguntzea zen helburua, janaria lortzea, haurrak eskolara eramatea...

1.314. Laneko balioezintazuna, erorketa baten ondorioz (AMO-176/030)

Lan egiten zuen arren, ez zuen gizarte segurantzarik izan Zornotzan lanean hasi zen eskolako jantokian. Bertan lanean zegoela erori egin zen eta berak lanean jarraitu izan bazuen ere, balioezintazuna eman zioten.

1.315. Kantuan nola egin (AMO-176/032)

Laneko balioezintazuna eman ziotenean, elizan kantatzen jarraitu zuen. Ahotsak nola ikasten zituen kontatzen du. Bernagoitian belarri eta ahots onak omen daude.

1.316. Aita hiru hilabetez bakarrik ezagutu zuen (AMO-176/033)

Hamabost hilabete zituela, aita Ameriketara joan zen lanera. Fortunak 10 urte zituela bueltatu zen, baina 3 hilabetetara hil zen.

1.317. Bernagoitiko abadeak (AMO-176/035)

Don Pedro Berrion abadea nor zen; Floren abadea... gazteriagatik asko egin zuten. Irazola izeneko beste abade bat ere ibili zen Bernagoitian. Beste abade batzuk: Tila, Don Jose Antonio Maiona... Abadeetako batzuk euren amekin bizi ziren. Denak oso jatorrak izan dira beti.

1.318. Norberaren parrokan formal ibili beharra (AMO-176/036)

Abadeak, norberaren parrokan formak mantendu behar ditu, baina beste herrietan ez horrenbeste. Fortuna ez da joaten auzoko afarietara, ez duelako nahi besteek bere nortasuna edo barnea ezagutzea. Gauza bat edo bestea egin, beti norbait ibiltzen da abadeari gaizki-esaka.

1.319. Emakumeen artean irainak (AMO-176/038)

Garai batean, elizaren inguruan ibiltzen ziren emakumeei buruz esaten zirenak: "mojak", neskazaharra, sakristiako neskazaharrak, "solterona"... emakumeen arteko txutxu-mutxuak izaten ziren. Gizonekin hobeto konpontzen da emakumeekin baino.

1.320. Gizonezkoek konfiantza errezago hartzen dute (AMO-176/039)

Alkoholikoak izan diren pertsonekin lan egin izan du eta errazagoa da gizonezko baten konfiantza lortzea emakume batena baino.

1.321. Abadea, Elizarekin ezkontzen da (AMO-176/041)

Abade batek eliza uztea eta ezkontzea ez du ongi ikusten. Abadetasuna. Abadea Elizarekin ezkontzen da.

1.322. Elizan gauza zaharrak kendu dira, berriak sartu gabe (AMO-176/042)

Eliza barruan gauza asko aldatu edo kendu direla, baina berriak eraman ez direla pentsatzen du Fortunak. Fedea.

1.323. Bizitzako mementu zoriontsuena (AMO-176/043)

Bere bizitzako mementu zoriontsuena, operazio baten aurretik izan zen. Hiltzeko aukera zuela pentsatzen zuen eta hilda zeudenak (ama, aita...) berriz ikusiko zituela jakiteak zoriontasuna sortu zion. Forturanerantz, oso garrantzitsua da pentsatzea zein izan nahi duen pertsonak, hil aurretik.

1.324. Bilboko 102 urteko emakumearen kontuak (AMO-176/045)

Bilboko 102 urteko emakume aberats bat bisitatzen du noizean behin. Haren inguruko kontuak kontatzen ditu.

1.325. Garai bateko eta gaur egungo pentsamoldea (AMO-176/047)

Gizartea aldatu egin da eta inportanteena jendearentzat dirua eta sexua dela uste du.

1.326. Garai bateko nobio kontuak (AMO-176/049)

Ezkondutik aurretik ondo pentsatu behar da norekin ezkontzen zaren, gero bikotez ez aldatzeko. Aitona-amonen harremana nola hasi zen kontatzen du. Aitonak erabaki zuen amonarekin ezkontzea, etxeko lanetan abila zelako.

1.327. Gizonezkoen eta emakumeen rolak (AMO-176/052)

Gizon askok emakumeak objektu moduan ikusten dituztela uste du Fortunak. Etxean, emakumeen eta gizonezkoen rolei buruzko hausnarketa egiten du.

1.328. Emakumea garbia izan behar da sexuan (AMO-176/054)

Gizon eta emakumeak sexualki garbiak izan behar direla uste du Fortunak. Sexuaren inguruan dauden aldaketa asko telebistak ekarri ditu. Gizona, emakume "garbi" batekin ezkondu behar dela uste du.

1.329. Fededun ez izatetik, fededuna izatera (AMO-176/055)

Fededuna ez zen gizon bat, fededun nola bihurtu zenaren kontakizuna.

1.330. Kanpaien ordutegia (AMO-176/057)

Bernagoitian, kanpaiak beti jotzen dute goizeko seietan. Kanpandorrean gertatutako anekdota bat kontatzen du. Asteburuetan eta astegunetan kanpaiak ordu ezberdinetan jotzen dira.

1.331. Hil-kanpaiak Bernagoitian (AMO-176/058)

Hil-kanpaiak nola eta noiz jo behar diren kontatzen du. Meza hasi baino ordu-erdi bat lehenago kanpaiak jotzen dute eta meza ordura arte irauten dute. Hilerrirako bidean abesten joaten dira.

1.332. Bernagoitiko trumoiaren aurkako konjurua (AMO-176/059)

Oromiñon esaten da, Bernagoitiko kanpaiak alaiak direla. Sute batez ohartzeko kanpaiak. Udan, trumoiaren aurkako konjurua egiten da eta kanpaia jotzen da. Txingorra ("harrixa") dagoenean, bolatokian "zapatie soltau" egiten dute. Oromiñon esaten da, Berganoitiko konjurua ingurua ekaitzaz babesten duela, handik eta Urkiolaraino

1.333. Hilzorian dagoenaren etxearen kanpokaldean, izara txuri bat (AMO-176/060)

Norbait oso gaixo zegoenean, etxearen kanpoaldean izara bat ipintzen zen, abadeak jakiteko bertara joan behar zela.

1.334. Bernagoitiako sakristaua edo serora (AMO-176/061)

Bernagoitiako serora da Fortuna, baina "Bernagoitiako sakristaua" deitzen diote. Ez zaio serora hitza gustatzen.

1.335. Elizako misioetan laguntzen (AMO-176/062)

Elizako misioetako lanetan laguntzen du. Talde ezberdinak joaten dira atzerrian jendea txertatzera, hezkuntzan laguntzera...

1.336. Bernagoitiako bolatokia (AMO-176/063)

Bernagoitiko bolatokia harriekin itxi zuten eta espetxea ematen du. Bolatokia zergatik itxi zuten kontatzen du. Garai batean nolakoa zen.

1.337. Eliza eta sakristia konpontzeko materialak, serorak lortuak (AMO-176/065)

Bernagoitiako eliza polita da, baina sakristia oso gaizki dago. Fortuna izan da urteetan materialak lortu dituenak eliza edo sakristia konpontzeko. Inoiz ez diote ezer ordaindu horregatik.

1.338. Auzoetan inbidia eta txutxu-mutxu asko (AMO-176/066)

Auzoetan inbidia eta txutxu-mutxu asko daude. Horren inguruko anekdota bat kontatzen du.

1.339. Bernagoitia eta Euba (AMO-176/067)

Bernagoitiko jaiak, maiatzaren 8an eta 15ean izaten dira. Bernagoitiak eta Eubak nekazarien kooperatiba bat daukate elkarrekin, eta batzuetan eztabaidak egoten dira.

1.340. San Migel Bernakoa baben artean agertu zen (AMO-176/069)

San Migel Bernakoa, maiatzaren 8an, baben artean agertu zela kontatzen da. Elizara eraman zuten baina gauero desagertu eta larrean agertzen zela eta oinatzak ikusten zirela kontatzen du.

1.341. Bernagoitiako eliza (AMO-176/070)

Berna inguruko eliza, Bernagoitian zergatik dagoen kontatzen du.

1.342. Bernagoitiako Aingeru Guardakoa ermita (AMO-176/071)

Aingeru Guardakoa da Bernagoitiako ermita bakarra.

1.343. Euskara ezin da galdu (AMO-176/073)

Euskara asko galdu da baina hobetzen dagoela uste du. Haurrek ez dute euskaraz lehen bezala euskaraz hitz egiten. Karmeldarretan ikasten dutenek oso euskara garbia dute.

1.344. Euskara Kartagotik etorri omen zen (AMO-176/074)

Euskeraren jatorria kartagotarrek ekarria dela entzunda dauka. Euskera hizkuntza bat eta bakoitzak berea defendatu behar duela uste du.

1.345. Bernagoitiako Errepublika Independentea (AMO-176/075)

Bernagoitia Zornotzako auzo bat da, nahiz eta Euba dela esaten duten batzuek. Garai batean, "Bernagoitiako Errepublika Independentea" izan zela dio. Eubarekin pikeak.

1.346. Bernagoitiko frontoia; eliza ingurua nolakoa zen (AMO-176/076)

Bernagoitiako frontoia konpondu beharko litzake. Eliza ingurua nolakoa zen kontatzen du.

1.347. Bernagoitiako parrokiaren izaera (AMO-176/078)

Bernagoitiako eliza parrokia dela kontatzen du. Eubakoa parrokia igarokorra zen eta Bernagoitikoa finkoa. Anekdotak batzuk kontatzen ditu. Eubarekin pikeak.

1.348. Bernagoitiako kanpaia, 1816koa (AMO-176/079)

Bernagoitia eta Eubako parrokian artean, lehena da zaharrena. Kanpaia 1816koa da eta Tabirakoa da zaharrena.

1.349. Zoriontsu izateko, kontzientzia lasai (AMO-176/081)

Norberaren kontzientzia lasai izanda, zoriontsu izan zaitezke. Euskal Telebistan ikusi zuen mahai-inguru batean esaten zutena kontatzen du.

1.350. Abadearekin anekdotak (AMO-176/082)

Don Pedro abadearekin izandako anekdotak.

1.351. Heriotzari buruz (AMO-176/083)

Hobe da heriotzean ez pentsatu eta poztasunez bizitzen saiatu.

1.352. Pinudiak eta artzaintza (AMO-177/003)

Ardiak zergatik saldu zituen azaltzen du. Pinuaren aurretiko zuhaitzak izendatzen ditu. Ardiek ezkurak jaten zituzten.

1.353. Hamabi urterekin artzain (AMO-177/005)

Hamabi urterekin mendian hasi zen, ardiekin. Baserrian ere lana izaten zuen.

1.354. Soldadutzako eta gerrako ibilerak (AMO-177/007)

Soldadutza Melillan egin zuen. 34ko iraultzaren ondorioz, Kataluniara eraman zituzten, handik berriz Afrikara. Gerra hasi zenean, hiru urtez ibili behar izan zuen soldadu, etxera itzuli gabe. Gerrako ibilerak kontatzen ditu.

1.355. Mugarra inguruko mendiak (AMO-177/009)

Mugarrenaren ondoko mendiak izendatzen ditu eta haien altuera zehazten du.

1.356. Idiekin soroetan eta harrobietan (AMO-177/011)

Idiekin goldaketan ibiltzen zen soro askotan. Soroa zena, pinua da orain. Harrobitik harriak garraiatzen ere aritzen zen idiekin.

1.357. Maiatzeko loretako kanta (AMO-177/015)

Gazte sasoia oso gogorra izan zela dio. Kanta bat abesten du, maiatzeko loretako.

1.358. Laminei buruzko kontuak (AMO-177/018)

Laminei buruzko kontuak kontatzen ditu. Laminek gauez argia ematen dutela dio eta arnas-hotsa ateratzen dutela. Laminak goizaldean agertzen direla dio, haitzarteetatik.

1.359. Kontu eta istorio zaharrak (AMO-177/019)

Errotara joan eta desagertu egiten zen emakumearen kontua azaltzen du. Oilarrari orratza sartzen zioteneko kontua. Eibarren eskopetak egiten hasi zirenean desagertu omen ziren sorginak.

1.360. Ardi esnearen garraioa eta gazta (AMO-177/022)

Berak esnea batu eta emazteak gaztak egiten ditu. Saldu egiten dituzte, etxean bertan. Gatzura edaten zuten. Esnea zelan garraiatzen zuten kontatzen du. Askok buruaren gainean eramaten zuten.

1.361. Haizeen izenak (AMO-177/025)

Eguraldia iragartzen badaki. Haizeen izenak esaten ditu. Hego-haizeak euria urrunarazten duela dio. Lehortearengatik, abereekin larri dabiltzala dio.

1.362. Ilargiaren eragina landareetan (AMO-177/027)

Landareetan ilargiak daukan eragina azaltzen du.

1.363. Gerezi garratza sabeleko minarentzat (AMO-177/029)

Anisetan egondako gerezi garratza erabiltzen zuten sabeleko minarentzat.

1.364. Herriko ospakizunak eta kantak (AMO-177/030)

Herriko jaiak abuztuko bigarren igandean izaten dira. Urtarrilaren 22an beste ospakizun bat izaten da. Gabonetan eta Santa Ageda bezperan kantuz ibiltzen ziren. "Urte barri barri" errezitatzen dute.

1.365. San Juan bezperako araoak (AMO-177/031)

San Juan bezperan sua pizten zuten soroetan. Orduan erreztatzen zutena esaten dute, zatika.

1.366. Errege eguneko kantak (AMO-177/032)

Errege Egunean abesten zituzten kantuak erreztatzen dituzte.

1.367. Arto-zurikina, artilea, haria eta lihoa (AMO-177/033)

"Kapaixa" edo arto-zurikinarekin egindako oheak ezagutu ditu. Artilea baino lehenagokoa zen. Haria zelan egiten duten kontatzen du, txabilarekin. Lihoa zelan egiten zuten kontatzen du, pixka bat.

1.368. Lotarako kanta (AMO-177/034)

Lotarako kanta abesten du.

1.369. Arropei usain goxoa emateko (AMO-177/035)

Ereinotzarekin usaina ematen zioten arropari.

1.370. Abereen kumeen izenak (AMO-177/038)

"Urrusa" edo zekorra esaten diote txahalari, emea ala arra den arabera. Txerriaren, ahuntzaren eta ardiaren kumeak izendatzen ditu.

1.371. Orduko inauterietako jantziak (AMO-177/039)

Inauteriak lehen zelakoak ziren azaltzen du. Arropa zaharrekin, ardi-larruarekin eta antzekoekin mozorrotzen ziren.

1.372. Gerrako ibilerak (AMO-179/005)

Gerra garaian, Algortara joan zen eta handik Karrantzara, sanitario bezala lan egitera. 1937ko abuztuaren 17an, preso hartu zuten Limpias-en eta Laredon hilabete batez preso egon ondoren, Zaragozako San Juan de Mozarrifar-eko kontzentrazio-esparrura eraman zuten beste hilabete batez. Handik, Gironara eraman zuten lan-batailoien barruan. Bertan zegoela bukatu zen gerra eta 1939ko abenduaren 27an, etxera bueltatu zen.

1.373. Garai bateko gazteak; erromeriak (AMO-179/008)

Garai bateko eta gaur eguneko gazteei buruz hitz egiten du. Erromeriak nolakoak ziren. Azkeneko trenarekin bueltatzen ziren etxera.

1.374. San Juan suaren kanta (AMO-179/010)

San Juan bezperan sua pizten zen zoro guztietan eta abestu egiten zuten. Gurutzeak jartzen ziren arrosekin, arto-landarekin... egindakoak.

1.375. Sinesmenak eta olio-igurtziak (AMO-179/012)

Anbotoko damari buruz gurasoei entzun die gehienbat. Osasun arazoak hobetzeko, emakume batek olio-igurtziak egiten zituen.

1.376. San Juan eguneko belarrak, enplastuak egiteko (AMO-179/013)

San Juan egunean enplastuak egiteko belarrak biltzen ziren. Jendea osatu egiten zen. Umeei kuttuna jartzen zitzairen.

1.377. Sorginak Zornotzan; arimak (AMO-179/014)

Sorginak astearte eta ostiraletan agertzen direla diote. Zornotzan sorginak biltzen zireneko zelairik ez du ezagutzen. Domusantuan, hilerrietan arimak argitu egiten zirela esaten zen.

1.378. Baserriko sinismenak (AMO-179/016)

Trumoiak eta tximistak zeudenean, baserrietan aizkorak gorantz begira jartzen zituzten eta kandela bedeinkatuak pizten ziren. Ate aurrean San Juan suan erretzen ziren erramuak jartzen ziren lorekin batera.

1.379. Karmen eguneko erromeria (AMO-179/019)

1952ko San Juan egunean ezkondu zen. Emaztea auzokoa zen. Erromeria nagusiena Karmen egunekoa zen.

1.380. Eubako San Migel jaiak (AMO-179/020)

Eubako San Migel jaiak, Pazko jaien inguruan izaten dira. Umea zenean, jende asko hurbiltzen zen.

1.381. Garai bateko elizaren kontrola (AMO-179/021)

Eliza nola aldatu den garai batetik hona. Garai batean dena zen bekatua eta kontrol handia zegoen. Gizon eta emakumeak alde banatan esertzen ziren, elkartu gabe.

1.382. Frentean postari izanda ikusi zuen lehenengo hildakoa (AMO-179/024)

Gerra garaian, frentetean postari moduan ibili zen. Orozkora, Morgara... joaten zen. Lehenengo hildakoa Legution ("Villareal") ikusi zuen, hegazkin baten tiroek hilda.

1.383. Galdu diren perretxiko motak (AMO-179/026)

Perretxikozalea da Julian eta orain aurkitzen ez dituen batzuk aipatzen ditu. Jende ezberdinari erakutsi dio perretxikoak biltzen. Perretxiko mota asko aipatzen ditu.

1.384. Perretxikoak: urbeltza, lanperna, kardoa (AMO-179/027)

Urbeltza nola prestatzen duen kontatzen du. Lanperna

1.385. Perretxikoak: onddo beltza, giberlurdina eta urritxa (AMO-179/028)

Perretxiko onena onddo beltza dela esaten dute batzuek. Berarentzat, onddo beltza beste perretxiko batzuekin prestatuz gero, ez da bata bestearengandik nabaritzen. Urritxa ("urretxa") nolakoa izan daiteke.

1.386. Sorgin kontuak Zornotzan (AMO-179/029)

Behin Bilbotik bueltan zegoela, tranbia inguruan zerbait edo norbait ikusi zuen abiadura oso azkarrean alde batetik bestera pasatzen, soinu arraro bat egiten. Sorgina edo izango zelakoan dago.

1.387. Zezenak libre utzi zituztenekoa (AMO-179/031)

Behin, zezen-plazan zeuden Lasturreko zezenak libre utzi zituzten eta kaleetatik ibili ziren libre. Zezenekin, pikadoreekin... izandako pasadizoak kontatzen ditu.

1.388. San Juan sua bideetan egiten ziren (AMO-179/033)

Gazteak zirenean, San Juan eguna jai izaten zen. San Pedroak ere ospatzen ziren baina urte batzuetan jai eguna kendu zuten. San Juan bezperan, bideetan suak egiten zituzten. "Karbura"-n ibiltzen ziren eta pasadizo batzuk kontatzen ditu.

1.389. San Juanetan, lizarrezko gurutzeak ateetan (AMO-179/034)

San Juan egunean, lizarrez egindako gurutzeak ipintzen ziren ateetan, etxea bedeinkatzeko. Bezperan, plazan jai handia egiten zen.

1.390. Gabongaua nola ospatzen zen (AMO-179/035)

Gabongauean normalean lan egiten zen 16.00ak arte eta gero tabernara joaten ziren afaldu aurretik. Afal ondoren, mezetara joaten ziren. Bixigua, marrazkiloak, pernila...

1.391. San Juan de la Porta abestia (AMO-179/037)

San Juanetako kanta bat abesten du.

1.392. San Juanetako Eibarko abestia (AMO-179/038)

Eibarren ere ospatzen dira San Juanak eta bertakoei abesten zieten kantu bat abesten du.

1.393. Santo Tomaseta Eibarrera; oilar-jokoak (AMO-179/039)

Eibarrera asko joaten zen, lehengusu batek Barrena kalean taberna zuelako. Santo Tomas egunean beti joaten zen eta oilar-jokoak egoten ziren.

1.394. Gaztetan kartzelan egon zen (AMO-179/041)

Kartzelan sartu zuten lehenengoz, greba baten ondorioz. Komisaldegitik Maristetan zegoen kartzelara eraman zuten. Gerora ere gehiagotan egon da espetxean, sartu eta irten.

1.395. "Manitas de plata" lapurra (AMO-179/042)

Kartzelan zegoela, lapur madrildar batek nola lapurtzen zuen kontatzen zien. Normalean, tranbiatik igotzean edo jeistean lapurtzen zuen. "Manitas de plata" deitzen zioten. Lapurra nola harrapatu zuten kontatzen du. Kartera bat bidaliko ziola esan zion, baina ez Julianek ez zuen inoiz jaso.

1.396. Anbotoko anderea (AMO-179/044)

Anbotoko andereari buruzko kontuak.

1.397. Koleraren aurka errezatzen (AMO-179/046)

Julianen ama gaztea zenean, kolera gaixotasun asko zegoen eta gauez, zelai batera errezatzera joaten zirela kontatzen du. Ama, Mendrakakoa zen.

1.398. Gripearen pandemian gorpuz betetako gurdiak egunero (AMO-179/047)

Garai bateko gripearen pandemian pertsona asko hil ziren. Iluntzean, gurdiak pasatzen ziren baserri aurretik, Boroaldean hildakoen gorputzez beteta. Oso tristea zen. Ehorzlea batzutan mozkorra egoten zen eta gorpuak galtzen zituela kontatzen du.

1.399. Erreka txikietan arrantzan (AMO-179/050)

Arrantzan ibilia da Julian Zornotzako erreketan, kaskailuak, karramarroak, loinak, moxarra ("sargue")... Orain dena kutsatuta dago eta ez dago karramarrorik lehen bezala. Oinutsik ibiltzen ziren karramarroak batzen. Arrantza onena, Ibaizabal ibaitik goragoko erreka txikietan egiten zuten.

1.400. Sarearekin eta sokarekin arrantzan (AMO-179/051)

Gaba izaten zen ordu onena arrantzan egiteko errekan. Sargori zegoenean ere aro ona zen. Hegoa-hizearekin ez zen ondo arrantzatzen. Sarearekin eta sokarekin arrantzatzen zuten normalean.

1.401. Urkiolako erromeria (AMO-179/053)

San Antonio egunean, amarekin igotzen zen oinez Zornotzatik Urkiolara. Janaria eramaten zuten: piperrak, bakailaoa... Emakumeak ez ziren tabernara sartzen garai batean, eta gizonezkoek ateratzen zieten limoi-zukua kalera.

1.402. Afrikako gerraren ondorioak (AMO-179/054)

1919-1920an, Afrikako gerran zeudenengatik arrosario eta meza berezi bat egon zela gogoratzen du. Jendea Durangotik oinutsik zihoan arrosarioa errezatzen. Abadeak esan omen zuen gerran zeuden soldaduak infernura joango zirela. Bere ama oso elizkoia zen eta mezu horrek asko beldurtu zuen. Anaia gerratik bueltatu zen eta lanerako gai ez zenez, Julianek ikasketak utzi behar izan zituen.

1.403. Akolito izan zen umetan (AMO-179/056)

Akolito bezala ibili zen umetan. Kandelak pizten zituen. Pasadizo bat kontatzen du. Abadea jatorra zen, baina mozkorra.

1.404. Don Antonio Zornotzako abadea (AMO-179/057)

Don Antonio abadea ona zen. Ostegun santu gabeen meza ematen zuen. Beste abade bat du gogoan, behin txokolatea lapurtu ziona.

1.405. Abadeak pistola atera zueneko falangista eta reketeen kontra (AMO-179/058)

Elizaren indarra izugarritzkoa zen garai batean. Dena bekatua zen eta edozein gauzagaratik infernura joateko beldurra zegoen. Gerra garaian, behin

falangistak eta reketeak tabernan eztabaidan ibili ziren eta abadeak pistola bat atera zuen.

1.406. Balendin Berriotxokoaren senidea (AMO-179/062)

Balendin Berriotxokoa bere familiakoa zen. Familian hainbat senide dira abade, moja, fraide...

1.407. Garai bateko taberna giroia eta txikiteoa (AMO-179/064)

Gazteak zirenean ez zegoen txikiteorako ohitura handirik. Geroago hasi zen joera zabaltzen. Pitxerretatik ateratzen zen ardoa. Txikiteroak.

1.408. Zornotzako "Villa Otero" (AMO-179/065)

Zornotzan "Villa Otero"-ri "Villa Soltero" deitzen zioten. Negozioa zabaldu zenekoa kontatzen du. Prezio garestiak omen zituen eta hogeit bat urtez egon zen zabalik.

1.409. Tabernak gabeko hamarretan itxita (AMO-179/067)

Garai bateko tabernen ordutegia. Kafea ordubete gehiagoz zerbitzatzen zen, alkohola baino. Asteburuetan ordubete gehiago egoten ziren tabernak itxita, baina normalean gabeko hamarretan itxen zuten.

1.410. Zornotzako "Pinotxo" (AMO-179/070)

Zornotzan, Aburto abizena zuen bateri "Pinotxo" esaten zioten.

1.411. Kabaretak (AMO-179/071)

Taberna batzuek atezaina izaten zuten eta normalean kabaretak izaten ziren. Kabaret ezberdinei buruz hitz egiten du: Moulin Rouge, Bataclan, La Puñalada, Las Columnas... Azken hau zen onena eta dotoreena.

1.412. Mozkorrak tabernatik botatzen (AMO-179/073)

Batzuetan mozkorrak tabernatik bota behar zituen. Batzuk botatzea zaila zen. Kukuaren soinua egiten zuen mozkorrak tabernatik ateratzeko.

1.413. Urbasako txaboletako tabernak I (AMO-179/075)

Urbasan abuztuan herri ezberdinetako jendea biltzen zen. Igandetan bereziki, Bergararik, Zarautztik, Arrasatetik, Debatik, Tolosatik, Oreretatik... jende asko joaten zen. Urbasako larreetako txaboletan tabernak ipintzen ziren udan.

1.414. Urbasako txaboletako tabernak II (AMO-179/076)

Urbasako larreetan egoten ziren tabernetan, jende berezi ugari ibiltzen zen. Anekdotak bat kontatzen du.

1.415. Urbasara arrain freskoa heltzen zen (AMO-179/077)

Urbasan batzuetan sardinak prestatzen zituzten, Oriotik eta Pasaiatik eramanez. Lizarran ere arrain oso freskoa saltzen zuten.

1.416. Mañeruko ardoa (AMO-179/078)

Tabernan saltzen zen ardo gehiena, klaretea izaten zen. Mañerutik ekartzen zuten.

1.417. Aitak pipan erretzen zuen (AMO-179/083)

Julianen aitak pipan erretzen zuen eta I. Mundu Gerraren ondoren, tabakoa zaku batzuetan jasotzen zuen. Behin, sutondoan zegoela ez zeukan tabakorik eta bizioak jota, katua bota zuen hormaren kontra. Amak pipa kentzen zion aitari, ohean ez erretzeko.

1.418. Nobiotan, oinez kilometroak egiten neskalguna ikusteko (AMO-179/084)

Julianen aita, oinez joaten zen Mendrakatik Azkoitiara, ama ikusteko. Garai batean, oinez joaten ziren leku askotara. Gernikatik Zornotzara berrogei bat aldiz ibili da oinez Julian.

1.419. Santa Agedako anekdotak (AMO-179/085)

Behin Santa Ageda eskean zebiltzatela gertatu zitzaiena kontatzen du.

1.420. "Katarro" nor zen (AMO-179/086)

"Katarroian" jolasteko makina bat zegoen eta irabazten ez zutenean, makina lepoan hartzen zuten eta ihes egiten zuten. "Katarro" oso pertsona ona zen, denei laguntzen zien.

1.421. Zornotza inguruko mendiak eta errekek (AMO-179/087)

Inguruko mendiak aipatzen ditu: Bizkargi, Arburu, Aramotz, Eskubertaz, Mendizorrotz... Oiz pixka bat urrutiago dago. Errekak. Ibaizabal. Presa egin zutenetik, erreka bizkorregi doa eta ez dago arrainik.

1.422. Gaur egun dena pinua da (AMO-179/088)

Garai batean mendian zuhaitz ugari zeuden baina pinuak sartu zituzten. Gaztainak batzen ibiltzen ziren. Hariztiak. Perretxiko ugari.

1.423. Garai batean txori mota gehiago zeuden (AMO-179/090)

Garai batean zeuden txori asko galdu dira. Txoriekin eta ehizan ibilitako anekdota bat kontatzen du.

1.424. Ehizako anekdotak (AMO-179/091)

Ehizan gertatutako anekdotak.

1.425. Aiko dantza-taldeko dantzaria (AMO-181/002)

Jatorriz zornotzarra da, nahiz eta Durangon bizi. Kriskitin dantza-taldean laguntzaile da eta Aiko dantza-taldean dantza egiten du. Plazako dantzak ikasten dituzte. Lehenengo momentutik taldeko metodologia asko gustatu zitzaion.

1.426. Aiko dantza-taldeko metodologia (AMO-181/003)

Lehenengo, musika entzuten eta disfrutatzen irakasten dute Aiko dantza taldean. Zuzenketak egiteko modua asko harritu zuen eta modua gustatzen zaio.

1.427. Dantza terapia bat bezalakoa da (AMO-181/004)

Dantza kultura, gozamina, plazera... da. Askotan terapia ere badela dio Marisak. Dantzak ez dauka generorik.

1.428. Euskal dantzak, euskal kultura eta folklorearen osagai (AMO-181/005)

Euskal dantzak, kulturaren eta folklorearen osagai garrantzitsua da. Euskal dantza ezberdinak daude: plazakoak, ezpata-dantzak, erromeriakoak, ihauterietakoak...

1.429. Hilero erromeria Durangoko Kafe Antzokian (AMO-181/006)

Kriskitin dantza-taldean azpiegitura lanetan ibili da urte askotan, baina inoiz ez dantzan. Jendeak nola disfrutatzen zuen ikusten zuen eta bazter batean gelditzen zen beti, dantzan ez zekielako. Aiko taldean, astero batzen dira entseguak egiteko eta hilean behin erromeria bat egiteko, Durangoko Kafe antzokian.

1.430. Tradizioak berriztu eta elikatu egin behar dira (AMO-181/008)

Tradizioa zer den Marisarentzat. Tradizioak gizartearen sustraletara eramaten gaitu, baina emakumeentzat adibidez, etsai bihurtzen da. Adibidez, Durangon ezpata-dantzari eguna ospatzen da tradizioaren izenean, eta emakumeek bertan ez dute lekurik. Tradizioak berriztu eta elikatu egin behar dira, ezin dira estatikoak izan.

1.431. Sorkuntzatik etorriko dira euskal dantzetako aire berriak (AMO-181/010)

Sorkuntzak, kulturako arlo guztietan dauka zentzua. Aire berriak beti sorkuntzatik datoz eta ez zaio beldurrik izan behar. Hala ere, ez dira sorkuntza eta asmakeriak nahasi behar. Kukai dantza taldearen ausardiaz hitz egiten du.

1.432. Gurasoen ogibideaz (AMO-182/001)

1.433. Eulogio Esturo Zamalloa: UGTkoa. Gerran UGTko 1. batailoian (AMO-182/002)

1.434. Bernan denek euskaraz (AMO-182/003)

1.435. Emilio jaioberria zela, ebakuazioa Allendelaguara (Kantabria) (AMO-182/004)

1.436. Baserrira bueltatu zirenean gerrako arrastoak (AMO-182/005)

1.437. Idoia Allendelaguan 2017an eta lekuko bat aurkitu (AMO-182/006)

1.438. Eulogio Esturo Zamalloa Puerto de Santamarian eta Santoñan kartzelan (AMO-182/007)

1.439. Eulogio Esturo Zamalloa: bost urte eta zortzi hilabete kartzelan (AMO-182/008)

1.440. Eulogio Esturo Zamalloa: kartzelatik urten eta luzaroan lanik barik (AMO-182/009)

1.441. Amak ez baina aitaren arrebak kontatzen zizkien gerrako kontuak (AMO-182/010)

1.442. Felix Esturo Zamalloa: 1943an kartzelara "Gora Euskadi askatuta!" oihukatzeagatik (AMO-182/011)

1.443. Emilio, umetan, aitarekin Larrinagako kartzelara lagun bat bisitatzeraz (AMO-182/012)

1.444. Aitak asko sentitu zuen Cecilio Zabalaren fusilatzea (AMO-182/013)

1.445. Kontxi: etxean gauza batzuk entzun eta eskolan beste batzuk (AMO-182/014)

1.446. Kontxi: Bernagoitiko eskolan maistra frankista baina abadeak dotrina euskeraz (AMO-182/015)

1.447. Kontxi: Eskolara joan ezin zuena "itturran" ari zelako (AMO-182/016)

1.448. Aitaz harro (AMO-182/017)

1.449. Transmisioa familian I (AMO-182/018)

1.450. Transmisioa familian II (AMO-182/019)

1.451. Birlobaren iritzia birraititari buruz (AMO-182/020)

1.452. Betzuengo Frantziska Saturraranen (AMO-183/001)

1.453. Aitite errebeldea (AMO-183/002)

- 1.454. Amaren neba bi gerran luzaro (AMO-183/003)**
- 1.455. Karrantzara (AMO-183/004)**
- 1.456. Aita zelan desagertu zen (AMO-183/005)**
- 1.457. Arkotxera itzulera eta gerraostea (AMO-183/006)**
- 1.458. Euskaltasuna bizirik etxean (AMO-183/007)**
- 1.459. Errekonozimendurik ez (AMO-183/008)**
- 1.460. Amak itzelak pasatu zituen (AMO-183/009)**
- 1.461. Gernikako bonbardaketa Boroatik (AMO-184/001)**
- 1.462. Boroatik Begoñara. (AMO-184/002)**
- 1.463. Begoñako bizimodua (AMO-184/003)**
- 1.464. Boroara itzulera (AMO-184/004)**
- 1.465. Osaba Pedro Uriguen gerran hil (AMO-184/005)**
- 1.466. Pedro Uriguenen berri Mendatako baserrikoek Larrako fraideei (AMO-184/006)**
- 1.467. Aranzadikoekin harremanak eta exhumazioa (AMO-184/007)**
- 1.468. Esker on adierazpenak (AMO-184/008)**
- 1.469. Martxoaren 31ko bonbardaketa Bernatik (AMO-185/001)**
- 1.470. Gizonaren anaia desagertuta (AMO-185/002)**
- 1.471. Bernatik Berangora (AMO-185/003)**
- 1.472. Berangotik bueltan aita kartzelara (AMO-185/004)**
- 1.473. Francisca Arregi kartzelara (AMO-185/006)**
- 1.474. Lezaman ebakuatuta eta han bonbak (AMO-186/002)**

1.475. Bonbek auzoko hiru hil Lezaman (AMO-186/003)

1.476. Lezamatik Zallara (AMO-186/004)

1.477. Zallatik etxera oinez itzuli (AMO-186/005)

1.478. Doña Benita maistra: Franco baino gogorragoa (AMO-186/006)

1.479. Gerraostean auzoan elkartasun handia (AMO-186/007)

1.480. Gerraostean errotara gabaz eta guardia zibilak (AMO-186/008)

1.481. Baserrian goserik ez, kalean bai (AMO-186/009)

1.482. Eskolan egurra euskaraz egiteagatik (AMO-186/010)

1.483. Aitita Bonifacio Ormaetxe Aldanaz eta familiaz (AMO-187/001)

1.484. Bonifacio Ormaetxe Aldana atxilotu, Larrinagara eroan eta fusilatu (AMO-187/002)

1.485. Bonifacio Ormaetxe Aldanaren gutunak kartzelatik (AMO-187/003)

1.486. Bonifacio Aldana Ormaetxe Derion lurperatu zuten (AMO-187/004)

1.487. Izeko Isabel eta Brigida Saturrarango kartzelara (AMO-187/006)

1.488. Izekoak bisitatzeraz Saturraranera hiru astean behin (AMO-187/007)

1.489. Izeko Brigida kartzelatik oso gaixorik irten (AMO-187/008)

1.490. 1941ean amak isuna ordaindu behar aita eta izekoengatik (AMO-187/009)

1.491. Ama bakarrik zegoenez, izeko-osaba eurenera bizitzera joan (AMO-187/010)

1.492. Eusebio Ormaetxe, amaren osaba, EAJren juntako burua (AMO-187/011)

1.493. Zamudiora ebakuatuta, itzulera eta "Larrako bitxiak" (AMO-187/012)

1.494. Kepa Ormatexe, "Aita Lontzi" amaren osaba karmeldar jeltzalea (AMO-187/013)

1.495. Aita Lontzi gerran Larrean. Gero Agenera eta handik Txilera (AMO-187/014)

1.496. Aita Lontzi Txilen. Bertan hil zen. (AMO-187/015)

1.497. Aita Lontzi idazle eta euskaltzalea (AMO-187/016)

1.498. Familiarekiko mendekuak jarraitu egin zuen (AMO-187/017)

1.499. Familiak ez du egundo aitortzarik jaso (AMO-187/018)

1.500. Amak ez zuen egundo kalteordainik jaso (AMO-187/019)

1.501. Gogora Institutuaren erantzunik ez (AMO-187/020)

1.502. Amorebieta-Etxanoko udalaren erantzunaren zain oraindik (AMO-187/021)

1.503. Aitaren aldeko aitita Lemoako alkate Francoren garaian (AMO-187/022)

1.504. Orain gutxi, aititeren eskelan haren salatzailearen izena jarri zuten (AMO-187/023)

1.505. Gerra ondorengo kontuak; gosea (AMO-188/002)

Gerra garaian, bonbardaketak zeudenean non babesten ziren. Gerra amaieran, jateko gutxi zuten eta lur berriak egiten ibiltzen ziren, baratzea egin eta jateko zerbait izateko. Ahizpa batek fabrika egiten zuen lan eta bera amarekin etxean gelditzen zen, bertako lanak egiten.

1.506. Baratza nola ereiten zuten (AMO-188/004)

Baratzako kontuak: patata eta erremolatxa nola erein, goldea, laia...

1.507. Garia batu eta jo (AMO-188/005)

Garia sardeaz batzen zuten, egun argiz. Garia jotzea. Garai batean dena eskuz egiten zuten, makinak agertu arte.

1.508. Gosaltzeko esnea eta taloa (AMO-188/007)

Goizetan, taloa eta esnea gosaltzen zuten. Taloa txapan egiten zuten. Bazkaltzeko baba zuriak, porrusalda, morokila... 18 urte zituela hasi zen gerra.

1.509. Gerra garaian Espainiatik ibili zen borrokan (AMO-188/008)

Gerran nondik ibili zen. Ebron hasi zen borrokan, gero Gandesan eta Tarragonatik Figuerasera heldu arte. Toledoko aurrerapena, Ciudad Realen... 1942an liznetziatu zen eta 1944a arte ibili zen soldadu bezala. Ondoren, baserrira bueltatu zen.

1.510. Arbia nola erein (AMO-188/009)

Arbia nola ereiten den azaltzen du.

1.511. Basoko lanak; pinudiak (AMO-188/010)

Basoko lanak. Garai batean pinu asko sartu zen eta botatzeko garaian gazteak ibiltzen ziren bertan. Asturiaseko mutil gazte batzuk ibili ziren Eustakia eta Pedoren pinuak botatzen. Ganbaran egiten zuten lo.

1.512. Esnea eskuekin jeisten zen (AMO-188/011)

Garai batean baratzean ez ziren horrenbeste ibiltzen, garia edo artoarekin ez bazen. Esnea eskuekin jeisten zuten.

1.513. Eskolara Etxanora (AMO-188/012)

Pedro Etxanora joaten zen eskolara eta gero klase partikularretara ere joaten zen. Ikasle gehienak Etxanokoak izaten ziren. Eskola berria egiteko, 500 pezeta pagatu zituzten.

1.514. Bidea auzokoen artean eskuz egiten (AMO-188/013)

Kanteratik harroak ateratzen zituzten behiekin. 1936an zubi bat eraiki zen eta handik ekartzen ziren harriak. Bidea egin zenean ere, ez zegoen hondeagailurik eta auzokoen artean egin zuten bidea. 50. hamarkadan, eguneko 100 pezetako soldata izaten zuten batzuek.

1.515. Zornotzatik Bilbora trenean esnea saltzera (AMO-188/015)

Oinez joaten ziren leku guztietara. Motorra izan zuen lehenengo auzotarrari buruz hitz egiten dute. Hipolito izeneko bat gurdian eramaten zuen esnea Amorebietatik Bilbora.

1.516. Sagardoa eta txakolina egiteko prozesua (AMO-188/016)

Sagardoa egiteko prozesua zein den azaltzen dute. Auzotarren laguntza izaten zuten. Sagardoa ez zuten saltzen, etxerako izaten zen. Txakolina ere egiten zuten.

1.517. Garai batean sagardo askoz gehiago egiten zen (AMO-188/017)

Garai batean sagardo eta txakolin gehiago egiten zen. Egunean sei zaku sagar batzen zituzten gutxienez. Karea botatzen zitzaion lurrari. Sagarrei buruz hitz egiten dute.

1.518. Herrikoen anekdotak (AMO-188/019)

Herriko batzuetaz hitz egiten dute: jokoan ibiltzen zen bat, Ameriketara ibili zen beste bati buruz, estraperloan ibiltzen zen beste bat... Azken honi behin Donostian astoarekin gertatutakoa kontatzen dute.

1.519. Etxe guztietan zegoen astoa; behian eta ardiak (AMO-188/020)

Garai batean etxe guztietan zegoen gutxienez asto bat. Behiak, gutxiago. Esnearen prezioa. Ardiak izaten zituzten eta larreetan egoten ziren.

1.520. Arrain eta okela-saltzaileak; "zeziñerua" (AMO-188/022)

Arraina Santurtzitik eramaten zuten Zonortzara. Sardina zaharra urte guztian zehar erosten zen. Okela ere eramaten zuten herrira. Nondik nora ibiltzen ziren arrain-saltzaileak, behiekin edo idiekin. "Zeziñerua", txahalaren okela saltzen zuenari deitzen zioten.

1.521. Artilea nola egiten zuen amonak (AMO-188/024)

Amonak artilea nola egiten zuen kontatzen du. Aitonari egin zion jertseaz hitz egiten du.

1.522. Aiton-amonen jatorria (AMO-188/025)

Aitona arotza zen eta zerrategi batean lan egiten zuen. Gazte zelarik hil zen, 47 urterekin. Aiton-amonekin jatorria.

1.523. Bediatik Lemoara erromeriara (AMO-188/026)

Pedroren emazteak (Bitori Aiesta, bediarra), Bedian San Juanetan bakarrik egoten zela erromeria kontatzen du. Gehienetan Lemoara joaten ziren erromeriara, baina Galdakaora edo Zornotzara ere. Nola dantzatzen zen garai batean. Bediatik, zinemara Galdakaora joaten ziren.

1.524. Piperrak nola erein, noiz jaso... (AMO-188/028)

Baratzeko kontuez ari da Bitori (Pedroren emaztea), noiz erein behar diren: piperrak, tomateak, tipulak... Lurra nola landu behar den azaltzen du. Euri asko egiten badu, landarea gorritu egiten da eta atzeratu egiten da. Piperrak gaur egun balore gutxiago dutela uste du Bitorik. Gaur egun gustu gutxiago dute.

1.525. Patata nola erein eta jaso (AMO-188/029)

Patata nola erein eta jasotzen den kontatzen du Bitorik, Pedroren emazteak. Beste barazki batzuk noiz atera behar diren aipatzen du ere.

1.526. Patata sartu eta atera, ilargiaren arabera (AMO-188/033)

Bitorik (Pedroren emazteak), ilargiaren arabera patata noiz atera behar den azaltzen du.

1.527. Baserriko animaliak: oiloak, oilarra, untxiak, txerria... (AMO-188/035)

Bitorik (Pedroren emazteak) kontatzen du, garai batean oiloak kanpoan egoten zirela. Batzuetan etxe barrura sartzen ziren. Oilarra be izaten zuten. Txitak. Garai batean ez zen azeririk ("azara") ikusten. Untxiak eta txerriak kortan izaten zituzten.

1.528. Baserriko behiak (AMO-188/037)

Bitori baserrira ezkondu zenean hasi ziren behiak izaten bertan. Esne gutxi ematen zuten baina txahalak asteko onak ziren.

1.529. Garai bateko janzerak eta modak (AMO-188/039)

Bitorik (Pedroren emazteak), garai bateko modaz hitz egiten du. Batzuk arropa dotoreagoak izaten zituzten, kalitate hobeagoak. Arropak josi egiten ziren. Modan egon ziren arropak zeintzuk izan ziren azaltzen ditu. Josten ikasi zuen eta berarentzat arropa batzuk egin izan ditu.

1.530. Oihala erosi eta jostunak arropak josi (AMO-188/041)

Bitorik (Pedroren emazteak) kontatzen du, arropak ez zirela dendan erosten. Oihalak erosi behar izaten zituzten eta gero jostunak arropak egiten zituen. Erabiltzen ziren koloreak. Erromeriara nola joaten ziren jantzita.

1.531. Erromeria batetik bestera (AMO-188/042)

Bitori (Pedroren emaztea) inguruko erromerietara joaten zen. Galdakaoko musika-banda. Bediako jaiak zirenean, gauean geratzen ziren festan baina beste herrietan, erromeriatik korrika atera eta azkeneko trena hartzen zuten etxera iritsi ahal izateko.

1.532. Ilean "permanentea" egitea modan zegoen (AMO-188/043)

Ileapaindegira joateko ohitura zegoen eta emakume askok "permanentea" egiten zutela kontatzen du Bitorik (Pedroren emazteak). Mototsa ez zuten inoiz erabiltzen.

1.533. Garai batean erropak jostunak egiten zituen (AMO-189/005)

Garai batean Berrizen Aste Santua nola ospatzen zen kontatzen du. Misioetan ibilitako fraideak egoten ziren.

1.534. Erromerietarako janzkera berezia (AMO-189/006)

Gaztetan nola janzten zen. Jostunak. Egun berezietako jantziak, Domu Santuan, Aste Santuan, erromerietan... erabiltzen ziren. Ez da oso erromeriazalea izan eta Berrizen San Juanetako erromeriara bakarrik joaten zen.

1.535. Eskolara joan aurretik, etxeko haurrak zaindu beharra (AMO-189/009)

Txikitako jolasak. Eskolara Etxanora joaten zen, baina joan aurretik etxeko haurrak zaindu behar zituen. Oso txiroak ziren.

1.536. Jaunartzeko bazkaria etxean (AMO-189/010)

Etxanon bataiatu zuten Josefina. Jaunartzean dotore joaten ziren. Bazkaria etxean egiten zen.

1.537. Ezkontzako soinekoa beltza zen (AMO-189/011)

Etxeko atarian ezkondu zen. Bedeinkazioak. Etxanon ezkondu ziren eta Berrizera joan ziren bizitzera. Garai batean, ezkontzako soinekoa beltza zen.

1.538. Esnea krema bezala erabiltzen zuen (AMO-189/013)

Aurpegiko krema moduan, esnea erabiltzen zuen. Inoiz ez du beste ezer erabili eta ez da makillatu.

1.539. Gerratik bueltan, etxea hutsik (AMO-189/028)

Zamudio eta Gueñes-era ihes egin zuten gerra garaian. Etxanora bueltan aurkitu zutena kontatzen du.

1.540. Gerraosteko miseria (AMO-189/031)

Gerra ostean nola aurrera egin zuten kontatzen du. Pinuak bota zituzten. Miseria handian bizi izan ziren, harrien gainean, gosearekin... Gerraosteko eskola, Etxanon. Behin irakasleak esan zion bazekiela matematiketan aritzen eta orduan eskola utzi zuen, baserrian laguntzeko. Lan asko zegoen etxean: zura batu, baratzean ibili...

1.541. Neskame bezala ibili zen Durangon (AMO-189/034)

Neskame bezala egiten zituen lanak.

1.542. Euskaraz ezin hitz egin (AMO-189/037)

Berrizen bizi zela, gaztelaniaz hitz egiteagatik atentzioa deitzen zuen jendea zegoen. Errioxako emakume bat aipatzen du.

1.543. Garai batean haur guztiak bataiatu behar ziren (AMO-189/039)

Berrizen, elizara San Pedrora joaten zen. Meza goizetan izaten zen eta ilunetan igotzen ziren elizara. Garai batean haur guztiak bataiatu behar izaten ziren.

1.544. Gurasoak Etxanokoak ziren (AMO-190/002)

1951an sortu zen Amorebieta-Etxano, bi herrien elkarketarekin. Gurasoak Etxanokoak ziren eta 1950ean ezkondu ziren. Bi senide dira.

1.545. Lan-esperientzia zabala (AMO-190/004)

Batxilergoa egin ondoren, maisutza-industrialak ikasi zuen. Hemeretzi urterekin, lurretako paper-fabrikari lanean hasi zen eta lana peritu-ikasketekin uztartu zituen. Soldaduska egin ondoren, Kanariar Uharteetara joan zen lanera

eta hiru urtetara Durangora itzuli zen. Bertan hamar urte igaro ondoren, basogintzan lanean hasi zen eta industria horretan jardun du enpresari bezala. 52 urterekin jubilatzen zen.

1.546. Umetan esnea banatzen laguntzen zuen etxez-etxe (AMO-190/006)

Baserrian hazi zen. Eskolako oporraldietan gurasoei laguntzen zien etxez etxe esnea banatzen. 14 urterekin Bilbora bidali zuten ikastera eta 24 urterekin ezkondu zen.

1.547. Kirola afizio (AMO-190/007)

Futbolean, esku-pilotan eta boloetan ibili izan da. Zornotza, Dima, Larrabetzu inguruan, bolo-txapelketak zeuden

1.548. Lana eta aisiagatik asko bidaiatu du (AMO-190/008)

Ezkondu zenean hasi zen emaztearekin bidaiatzen. Gero, lanagatik asko bidaiatu du: Europatik, Japonia, Estatu Batuak, Senegal...

1.549. Baserriak bizitzeko lain ematen zuen, ez gehiago (AMO-190/012)

Baserriko esnea merkeagoa zenez, herrian etxez etxe saltzeko ohitura handia zegoen. Lan handia eskatzen zuenez, oporraldietan banatzen zuten esnea, egunean 60-70 litro inguru. Orduan, 4-5 behirekin bizimodua aurrera ateratzen zuten: esnea salduz, txahalak hazi eta salduz... Batzuek pinuak botatzen zituzten eta aberastu egiten ziren. Baserriko tresneria: goldea, haria, aitzurra... Baserriko lana oso gogorra zen eta normalean bizitzeko lain ematen zuen, ez gehiago.

1.550. Garai bateko eta gaur eguneko baserriko bizimodua (AMO-190/013)

Lehenago eta oraingo bizimodua guztiz ezberdina da. Egun osoan zehar lan egiten zen eta gauean etxeratu. Gaur egun, baserriek animaliak dituzte, baina ez dira horretaz bizi, kotxea dute, berogailua, telebista...

1.551. Euskara baserrietan belaunaldiz belaunaldi transmititzen (AMO-190/015)

Etxean beti euskaraz egiten zuten. Aitxita-amamek eta gurasoek etxean ikasitako euskara erabiltzen zuten eta hori transmititzen zen. Horregatik, auzotik auzora edo herritik herrira, aldaera ezberdinak zeuden.

1.552. Kolean euskaraz egiteagatik burla egiten zieten (AMO-190/016)

Eskolan dena gaztelaniaz zen eta irakasleak falangekoak. Baserritarrei burla egiten zieten, bigarren mailakoak izango balira bezala euskaraz egiteagatik. Gaur egun euskara askoz hobeto egiten da eta telebistak lagundu duela uste du.

1.553. Bi errota zituzten baserrian (AMO-191/005)

Baserrian baratzea eta behiak zituzten arren, aita lanategian egiten zuen lan. Baserrian bi errota zituzten, bata artoarentzat eta bestea gariarentzat. Jendeak bere zerealak eramaten zituen eta berton ehotzen zituzten, baina ondoren kanpoan saltzeko ehotzen zuten.

1.554. Baserria zegoen lekuan, futbol-zelaia (AMO-191/007)

Baratzea baserri etxean zuten eta Etxanotik zetorren erreka ere. Baserri atzean presa bat zuten eta ur horrek mugitzen zuen errota harria. Gaur egun ez dago errota eta lurra eta baserria udaletxeak erosi zituen eta futbol-zelai berria eraiki zuten.

1.555. Azpigarria nola garraiatu (AMO-191/008)

Baserrian lan asko egiten zen, askotan egin behar ez zirenak ere. Gaur egun dena mekanizatuta dago. Lan gogorrenetarikoa bat, basokoa izaten zen. Aita joaten zen beste bi gizonekin. Azpigarria baserrira nola garraiatzen zen kontatzen du.

1.556. Amorebieta eta Etxanoren arteko mugaria baserri ondoan (AMO-191/009)

Zorrotzan ibili zen eskolan lehenengo eta gero mojetan. Baserri ondoan, Amorebieta eta Etxano banatzen zituen mugaria zegoen.

1.557. Gaztelaniaz derrigorrez egin behar (AMO-191/010)

Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten. "Cara al Sol" abesten zuten. Amari esan zion lehenengo gaztelaniazko esaldia zein izan zen kontatzen du. Mutilen akademia non zegoen.

1.558. Maistra guztiak espainiarrak (AMO-191/011)

Maistrak kanpotik etorritakoak ziren (Madrildik, Soriatik...). Jaunartzeko eguna gogoratzen du. Neskek eta mutilek bananduta ikasten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com